

# AZPEITIA

# 1945 – 1975

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ETA ERREPRESIOA DIKTADOREA HIL ARTEAN

VIOLACIONES DE DERECHOS HUMANOS Y REPRESIÓN HASTA LA MUERTE DEL DICTADOR

# AZPEITIA

# 1945 – 1975

**GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ETA ERREPRESIOA**
**DIKTADOREA HIL ARTEAN**

**VIOLACIONES DE DERECHOS HUMANOS Y REPRESIÓN**
**HASTA LA MUERTE DEL DICTADOR**

JAVIER BUCES CABELLO

azpeitikoudala denon artean
aranzadi zientzia elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

2019ko azaroa

ARGITARATZAILEA / EDITA:
Aranzadi Zientzia Elkartea

BABESLEA / PATROCINA:
Azpeitiko udala

EGILEA / AUTOR:
Javier Buces Cabello

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO:
Juantxo Agirre-Mauleon

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS:
Kriminologiaren Euskal Institutua / Instituto Vasco de Criminología; Euskal Memoria Fundazioa / Fundación Euskal Memoria; Lazkaoko Beneditarren Fundazioa / Fundación de los Benedictinos de Lazkao; Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa; Francisco Etxeberria Gabilondo; Jon-Mirena Landa Gorostiza; Iñaki Egaña Sevilla. Ikerketa honetarako testigantza eman eta dokumentazioarekin lagundu duten guztiei / A todas las personas que han prestado su testimonio, documentación, y han colaborado con esta investigación.

DISEINU ETA MAKETAZIOA / DISEÑO Y MAQUETACIÓN:
Oihana Pagola (didart.eu)

ITZULPENAK / TRADUCCIONES:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN:
Leitzaran Grafikak

ISBN 978-84-17713-23-2

L.G. / D.L. SS 01212-2019

# AURKIBIDEA ÍNDICE


**1. HITZAURREA / PRÓLOGO** ..... **5**

**2. AZPEITIA 1945 – 1959** ..... **7**

2.1. Aurrekariak eta abiapuntua: ideario nazionalkatolikoaren sustraiak Azpeitian
Antecedentes y punto de partida: la consolidación del ideario nacionalcatólico en Azpeitia ..... 8

2.2. Azpeitiko erakundeetako organigrama 1945 eta 1959 artean
Organigrama institucional de Azpeitia entre 1945 y 1959 ..... 17

2.3. Biziraupen ekonomia
Economía de subsistencia ..... 34

2.4. Loiolako Santutegia: Espainiako diktaduraren erromesaldi eta gorespen gunea
El Santuario de Loiola: lugar de peregrinación y exaltación de la dictadura española ..... 49

2.5. Gerraosteko zapalkuntza
La represión de posguerra ..... 56

**3. AZPEITIA 1960 – 1975** ..... **81**

3.1. Erregimen frankista 1960 eta 1975 artean
El régimen franquista entre 1960 y 1975 ..... 82

3.2. Azpeitia 1960 eta 1975 artean
Azpeitia entre 1960 y 1975 ..... 89

3.3. Garapen industriala, hirigintza eta ingurumen inpaktua
Desarrollo industrial, urbanismo e impacto ambiental ..... 109

3.4. Euskal kulturaren berpiztea. Euskara berreskuratzeko borroka
La reactivación de la cultura vasca. La lucha por la recuperación del euskera ..... 127

3.5. Oposizio politikoa, lan gatazkak eta zapalkuntza
Oposición política, conflictividad laboral y represión ..... 135

3.6. Errepresaliatuak
Los represaliados ..... 153

**4. ERABILI DIREN ITURRIAK / FUENTES UTILIZADAS** ..... **187**



1

Azpeitia, 1962.

© Indalecio Ojanguren.
Gure Gipuzkoa

# HITZAURREA PRÓLOGO



**Nagore Alkorta Elorza, Azpeitiko alkatea**

Egia, justizia eta erreparazioa. Hiru hitz horiekin laburbiltzen da Azpeitiko udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak duela zenbait urte hasitako ibilbidearen helburua. Horixe izan da, eta da, memoria historikoa eta memoria hurbilaren baitan egin nahi izan dugun lanketa. 1936tik, gaur egun arte, Azpeitian eta azpeitiarrei gertaturikoa ezagutzeko ahalegin osoa egin dugu. Egia ezagutu nahi izan dugu, ondoren, behar den kasuetan, justizia eskatu eta erreparazio bideak urratzeko.

36ko Gerratik gaur egun arteko giza eskubide urraketak ezagutu, izen abizenak jarri urraketei, zenbatu eta errekonozitzeko ariketa garrantzitsua daramagu aurrera. Herritarroi egia ezagutzea zor dizuegulako. Horixe delako gure lana; memoria ariketa egitea, datuak biltzea, jasotzea eta zabalpena ematea. Historiari izen abizenak jartzea, nazioarteko irizpide zientifikoak erabiliz, errelatoaren gorabehera malkartsuetan sartu gabe.

1936an, gerra hasi zenetik gaur egun arteko ikerketa egina du udalak. Urte asko dira, 83 urte zehazki. Askotariko errepresioak eta urraketak gertatu dira herrian eta jasan dituzte azpeitiarrek; baina denak lotu daitezke soka berean, motibo politikoengatik urratu zaizkie eskubideak.

1945-1975. urteen arteko gertaerak bildu ditugu liburu honetan. Frankismoko bigarren aroa bezala ezagutzen den etapa da. Errepresio orokortu eta normalizatu baten baitan gertaturiko giza eskubide urraketak dira. Urraketa asko herritar orok jasandakoak izan ziren. Franco diktadorearen Erregimenaren errepresioak, besteak beste, euskaraz hitz egitea debekatua zuelako. Beraz, liburu honekin, garai hori bizitzea tokatu zitzaien herritar guztiei zor genien errekonozimendua egin nahi diogu.

“Noiz samurtuko zaigu kontzientzia giza zorigaitzagatik mendeku hartu ordez zorigaitz horri aurrea hartzera iristeraino?” zioen Anna Eleanor Roosevelt-ek. Guk iraganeko zorigaitzei aurre egin eta etorkizuna irabazi bahi dugu. Bizikidetza egia oinarri hartuta eraiki nahi dugu, eta oinarri horren parte bat da liburu honetan aurkituko duzuna.

**«Noiz samurtuko zaigu kontzientzia giza zorigaitzagatik mendeku hartu ordez zorigaitz horri aurrea hartzera iristeraino?»**

Anna Eleanor Roosevelt

2



# AZPEITIA

## 1945 – 1959

San Ignazioren monumentuaren inaugurazioa Xoxoten (Izarraitz), 1956an.
Inauguración del monumento a San Igancio de Loiola en Xoxote, Izarraitz.

© Indalecio Ojanguren. Gure Gipuzkoa



Fededunen kontzentrazioa Plaza Nagusian.

Concentración religiosa en Plaza Nagusia.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

# 2.1. Aurrekariak eta abiapuntua: ideario nazionalkatolikoaren sustraiak Azpeitian

> "[Ignacio Egaña Otegi] *alkate jaunak jakinarazi zuenez, hil honen 8an, Sortzez Garbiaren jaiegunean, fededunez betetako parrokia-elizan arratsaldez eginiko elizkizunean irakurri zuen, alkate gisa, udalaren eta Azpeitiko herri osoaren izenean eginiko zina, adieraziz Birjina Santua zeruetan dela gorputz eta arimaz, eta herriak badituela fedea eta sinesmena, Eliza Santuak agintzen eta irakasten duen bezala*".[1]

1946a zen eta, ordurako, Azpeitiak indar sinboliko handia zuen 1939tik Espainiako Estatu osoan inposatua zen diktadura faxistaren ikuspegi nazionalkatolikoan. *ABC* egunkariaren artikulu batek jaso zuen nola Ramiro Maeztu monarkiko eta militarista amorratuak "oinordetzan jaso zuen errege familiarekiko atxikimendua eta garaiko gaiekiko ardura bere ama

1 Udal aktak, "1946ko abenduaren 18ko saio osagarria", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

# 2.1. Antecedentes y punto de partida: la consolidación del ideario nacionalcatólico en Azpeitia

> *"El Sr. Alcalde* [Ignacio Egaña Otegui] *manifestó que el día 8 del corriente, festividad de la Inmaculada Concepción, en la función celebrada por la tarde en la Iglesia Parroquial completamente llena de fieles, había leído el juramento que como Alcalde en nombre del ayuntamiento y todo el pueblo Azpeitiano había prestado, de que la Santísima Virgen en cuerpo y alma se hallaba en los cielos, y que esta creencia era sostenida por el pueblo según manda y enseña la Santa Iglesia".*[1]

Era 1946, y para entonces Azpeitia se había consolidado como uno de los enclaves de mayor peso simbólico en el ideario nacionalcatólico de la dictadura de corte fascista que desde abril de 1939 se había impuesto en el conjunto del Estado español.

1 Actas municipales, "Sesión supletoria del día 18 de diciembre de 1946", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

Juan Whitney britainiarrarengandik; eta idealismo espainiarra bere aita eta arbaso jauntxo baskongadoengandik. Hala, bere espirituan bilduak dira Azpeitia edo San Ignazio eta Azkoitia edo Peñaflorida kondea: erlijioa eta ekonomia, alegia"[2].

Azpeitiko herriaren idiosinkrasia Loiolako Santutegiaren inguruko jarduera erlijiosoaren inguruan gorpuztu zen mendetan, eta XIX. mendearen lehen erditik aurrera, karlismoak indar handia hartu zuen herriaren historia garaikidean. Errepublika garaian ez zen ezkerreko zinegotzi bakar bat ere egon udal-korporazioan, eta sindikalismoak ere aztarna gutxi utzi zituen, nekazarien mugimenduak eta orduan sortzen ari zen ELA sindikatu nazionalista. Pablo Barredo eta bere gisako errepublikarrek ez zuten babes handirik lortu hauteskundeetan (1933koetan 193 boto bakarrik eskuratu zituzten eta portzentaje hori nahiko apala da euskal nazionalistek lortutako 6.481 botoekin eta tradizionalistek eskuratutako 2.104 botoekin alderatuz gero). Baina, horrez gain, esan liteke Barredo "jazarria izan zela herriaren izaera atzerakoiagatik, eta giro erasokorrean bizi behar izan zuela, oso mugatuta bere bizitza zibilean, bizikidetza ezinezko egiteraino, herrian egiten zioten boikotagatik"[3]. 1932ko urtarrilean, Jesúsen Konpainia desegitean, inoizko kontzentraziorik jendetsuenetako bat egin zen Azpeitian, milaka gipuzkoar mobilizatu zirelarik Jesuitei agur egiteko.

Bigarren Errepublikaren marko legegilea eta organigrama instituzionala errotu zirenean, orduan hasi zen murrizten karlismoaren eragina Azpeitiko gizartean, eta euskal nazionalismoari utzi zion ordura arte berea izan zuen espazioa; mugimendu nazionalista hark barneratua zuen Espainiako Estatuaren izaera laikoa, itxuraz, euskal gizartearen oniritziarekin. Karlistek eta nazionalistek izandako konbergentzia hura, bai arlo politikoan Euskal Herriko eskubideen alde eta bai arlo parentalan, behin betiko desegin zen Espainiako ejertzitoak 1936an hasitako estatu kolpearen ondoren. Besteak beste, José de Arteche herriko ilustreak idatzitakoa da, zapuztutako kolpearen ondoren piztutako gerra hura "anaien arteko gerra" izan zela[4].

Pertsona bakarraren eta alderdi bakarraren agintepean –kontuan izanik alderdi hartan bildu zirela falangistak, karlistak eta monarkikoak– *Estatu Berri* bat osatu zen arren, ideia faxisten nagusitasunak mesfidantza sortu zuen tradizionalisten artean. Horregatik, hasieratik izan zituzten barne borrokak, eta desadostasunak ere bai Gobernu zentralarekin. Baina, ororen gainetik, esan behar da erregimenaren garapena eta desagertzea desberdina izan zela Gipuzkoa bezalako lurraldeetan, non falangismoa ez baitzegoen errotuta, are gutxiago karlismoak zituen sustrai sakonekin alderatuz gero.

2 *ABC*, 1958ko urriaren 29a.

3 Presazko sumarioa. 61.629/39 (AIRMN).

4 ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia historian zehar*.

Señalaba un artículo del diario *ABC* de qué forma el monárquico y acérrimo militarista Ramiro de Maeztu "heredaba de su británica madre, Juan Whitney, ese realismo, esa preocupación por las cosas temporales; de su padre, de sus hidalgos vascongados, el idealismo español. Así en su espíritu se daban cita Azpeitia o San Ignacio y Azkoitia o el conde de Peñaflorida: la religión y la economía"[2].

La actividad religiosa en torno al Santuario de Loiola forjó la idiosincrasia del pueblo azpeitiarra durante siglos, y a partir de la primera mitad del siglo XIX el carlismo adquirió un peso significativo en la historia contemporánea del municipio. Durante el período republicano no hubo ni ningún concejal de izquierdas formando parte de la corporación municipal, y el sindicalismo se redujo al movimiento agrario y al incipiente sindicato nacionalista STV. Republicanos como Pablo Barredo no solo no lograron un apoyo electoral significativo (en las elecciones de 1933 los republicanos únicamente consiguieron 193 votos, un porcentaje significativamente bajo si lo comparamos con los 6.481 votos logrados por los nacionalistas vascos y los 2.104 de los tradicionalistas), sino que incluso "fue muy perseguido por el carácter reaccionario del pueblo, siendo envuelto en un ambiente de hostilidad y limitadísimo su desenvolvimiento en la vida civil, llegando a ser imposible su vida por el boicot que le hacían en su pueblo"[3]. La disolución de la Compañía de Jesús en enero de 1932 motivó una de las concentraciones más relevantes en el municipio, cuando miles de guipuzcoanos se movilizaron para despedir a los jesuitas.

Solo a partir del afianzamiento de la Segunda República, de su marco legislativo y su organigrama institucional, el carlismo vio cómo se reducía su influencia en la sociedad azpeitiarra en favor del nacionalismo vasco, el cual asumió el carácter laico del Estado español, con el aparente beneplácito de la sociedad vasca. Aquella convergencia de carlistas y nacionalistas, tanto en el plano político en la defensa de los derechos del pueblo vasco como en el parental, se disolvió definitivamente con el golpe de estado perpetrado por parte del Ejército español en julio de 1936, de ahí que personajes ilustres de la villa tales como José de Arteche describieran la guerra desencadenada tras el frustrado golpe como "guerra entre hermanos"[4].

Pero a pesar de la configuración de un *Nuevo Estado* bajo los designios de una única persona y de un único partido en el que quedaban fusionados falangistas, carlistas y monárquicos, la preponderancia del ideario fascista creó desconfianzas entre los tradicionalistas. Este hecho generó desde muy pronto disputas internas y con el gobierno central, y sobre todo condicionaría el desarrollo y ocaso del régimen de forma diferenciada al resto del Estado español en aquellos territorios como Gipuzkoa,

2 *ABC*, 29 de octubre de 1958.

3 Procedimiento sumarísimo de urgencia 61.629/39 (AIRMN).

4 ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia historian zehar*.




Zibilak, erlijiosoak eta gudari ohi bat Azpeitiko plazan.

Civiles, religiosos y un excombatiente en Plaza Nagusia.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa)

1937an, altxamendu militarra babestu zuten indar politiko guztiak alderdi bakarrean biltzearekin batera, Gipuzkoako karlista ezagunenetako asko atxilotu zituzten.[5] 1950eko maiatzaren 11n, Azpeitiko udalak eta Gipuzkoako beste hainbat udalerrietakoek protesta egin zuten Ogasun eta Gobernazio Ministerioaren aurrean, urte bereko martxoaren 24an onartutako dekretu-lege batengatik: dokumentu hark eskumena ematen zion Gobernuari erabilpen eta kontsumoen ekarpenen inguruko zereginak foru aldundi probintzialen esku uzteko, eta horrek esan nahi zuen 30.000 biztanletik beherako udalek galdu egingo zutela eskumen hori. 1960ko hamarkadatik eta, zehazkiago, 1966tik aurrera, udal gipuzkoarrek aldarrikapen nagusi bat izan zuten, erregimeneko agintari gorenenganaino iritsi zena: 1937ko ekainaren 23ko Dekretu-legeak indargabetutako Gipuzkoako Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu nahi zuten. Eskaera deszentralizatzaile hark herritarren gehiengoaren babesa izan zuen, publikoki zalantzan jartzen baitzuen erregimenaren funtzionamendua, eta funtzionamendu hark zeukan azpiegituren narriaduraren eta tokiko erakunde nahiz erakunde probintzialetako bitarteko eskasiaren errua.[6]

Azpeitian, beste hainbat euskal herritan bezala, karlismoa nagusi izan zen diktadura frankistan zehar, eta joera hori agerian gelditu zen 1936an, gerra hasi orduko. Altxatuen aldean borrokatu eta frontean hil ziren 79 azpeitiarretatik

5 ERRAZKIN AGIRREZABALA, M.: *Los nombres de la memoria. Tolosa 1936-1945.*

6 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

en el que el falangismo tenía una escasa implantación social, más aún si se compara con el arraigo del carlismo.

En 1937, coincidiendo con la unificación de las organizaciones políticas que habían apoyado la sublevación militar en un único partido, varios de los carlistas más conocidos de Gipuzkoa fueron detenidos.[5] El 11 de mayo de 1950, el ayuntamiento de Azpeitia, en consonancia con otros municipios guipuzcoanos, acordó protestar ante el Ministerio de Hacienda y Gobernación por la aprobación del decreto-ley del 24 de marzo del mismo año relativo a la facultad del Gobierno para traspasar a las diputaciones provinciales los conceptos de contribución de usos y consumos, lo que suponía un recorte competencial para los ayuntamientos de menos de 30.000 habitantes. A partir de la década de 1960, y más concretamente en 1966, la recuperación del Concierto Económico de Gipuzkoa, derogado por el Decreto-Ley de 23 de junio de 1937, fue la reivindicación de mayor relevancia que desde los ayuntamientos guipuzcoanas se elevó a las máximas autoridades del régimen dictatorial. Una demanda descentralizadora que fue bien vista por una parte importante de la ciudadanía, ya que cuestionaba públicamente el funcionamiento del régimen, responsable del deterioro de las infraestructuras y de la escasez de medios de las entidades locales y provinciales.[6]

5 ERRAZKIN AGIRREZABALA, M.: *Los nombres de la memoria. Tolosa 1936-1945. La represión y vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo.*

6 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

43 erreketeen San Ignazio tertzioko kideak ziren, beste hiru *Accion Popular* alderdiko gaztedietakoak (gazte talde hura *Accion Popular* alderdiaren menpe egon zen lehenik eta CEDAren organigraman gerora) eta, gainerakoak tokatu zitzaienean ejerzitoan mobilizatzeko gazteak ziren. Ondorioz, ez dago militante falangistarik aipatutako hildakoen artean. Ondoren, udal batzordeetako alkateen artean ohikoa izan zen aldi berean kargu bat baino gehiago izatea: alkatetzarekin batera, Espainiako Falange Tradizionalistako eta Eraso Batzorde Nazional Sindikalistetako (*FET y de las JONS*) buru izaten zen, hots, alderdi bakarreko buru. Azpeitian behin baino gehiagotan gertatu zen hori. Halere, 1975 arte, karlismoarekin lotutako pertsonak izan ziren nagusi zinegotzien edo udal kudeatzaileen artean. Adibidez, hauxe zioen Azpeitiko alkate Ignacio Echeverria Altamirak 1952ko martxoaren 15ean Gipuzkoako gobernadore zibil Tomas Garikano Goñiri bidalitako ofizio batek: "Udal honetako kide guztiak (…) Mugimendu Nazionalaren aldekoak dira (…) baina ez da inon ageri Alderdiko militanteak diren ala ez"[7]. Bederatzi udal kudeatzaileetatik zazpik tradizionalistekin egin zuten borroka gerran, eta beste bostak altxamenduko ejertzitoko soldadu gisa mobilizatu zituzten; hala, alkatea zen talde politiko bateko militante izandako bakarra, CEDAkoa zehazki, eta 1936an Falangearen Tokiko Ordezkaritzako buru nagusi bilakatu zen.[8] Nolanahi ere, probintziako Gobernu Zibila beti ahalegindu zen udal batzordeetako indarrak orekatzen, karlistak (edo tradizionalistak) eta falangistak egon zitezen.

Inguruabar horiek denak gorabehera, udalerriak diktaduraren bilakaeraren menpe zeuden ezinbestean, eta horregatik behin eta berriz adierazi zuten mugimenduarekiko lotura. Esate baterako, udal ordezkariek beren kargua hartzeko ekitaldian bertan, zin hauxe egin zuten: "zintzoki zerbitzatuko dugu Espainia, Estatu buruari leial izango naiz, udalerriaren interesak defendatu eta sustatuko ditut, eta karguak eskatzen duen duintasunez jokatuko dut". Ondoren, alkateak formula honexekin erantzuten zien: "Hala egiten baduzu, Jainkoak eta Espainiak saritu beza eta, egiten ez baduzu, eska biezazu agindutakoa"[9].

Francoren aldeko adierazpenak etengabe egin ziren ekitaldi zibil eta erlijioso guztietan. 1946ko otsailaren 13an, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, diktadura itolarrian zegoen, faxismoa Europan gainbehera zihoala ikusirik. Baina Azpeitiko udal korporazioak bere atxikipena berretsi zuen eta zorionak eman zizkion Estatu-buruari "atzerrian egiten ari diren difamazio kanpainaren aurka izandako jarrera sendoagatik". Segidan, korporazioak herriko industria-gizon guztiei esan zien itxi zitzatela establezimendu eta saltokiak hurrengo

7 AUA, 467.02.166 sig.

8 Ibid.

9 AUA, Akta liburua 1945-1947, 277-03 sig., 12. kod.

En Azpeitia, como en tantos otros municipios vascos, esta primacía del carlismo durante la dictadura franquista resultó evidente desde el comienzo de la guerra de 1936. De los 79 azpeitiarras que combatieron en el bando sublevado y fallecieron en el frente de guerra, 43 estaban afiliados al tercio San Ignacio de requetés, tres a las Juventudes de Acción Popular (organización juvenil ligada a Acción Popular primero, y posteriormente a la CEDA), y el resto fueron jóvenes movilizados con el reemplazo de su alistamiento. Por tanto, no hay ningún militante falangista entre los fallecidos citados. Posteriormente, fue habitual que los alcaldes-presidentes de las gestoras municipales ocuparan a su vez la jefatura local del partido único Falange Española Tradicionalista y de las JONS (FET y de las JONS), y así ocurrió en el caso de Azpeitia en varias ocasiones. No obstante, entre los concejales o gestores municipales que se suceden hasta 1975 predominan las personas ligadas al carlismo. Valga como ejemplo el oficio que el 15 de marzo de 1952 dirigió el alcalde de Azpeitia (Ignacio Echeverria Altamira) al gobernador civil de Gipuzkoa (Tomás Garicano Goñi) en el que se indicaba que "todos los integrantes de este ayuntamiento (…) son adictos al Movimiento Nacional (…) no constando si los mismos son militantes del Partido"[7]. De los nueve gestores municipales cuatro combatieron en la guerra en filas tradicionalistas y los otros cinco fueron movilizados como soldados por el ejército sublevado, de tal modo que solo el alcalde había militado en una organización política, concretamente en la CEDA, pasando en septiembre de 1936 a ser el máximo responsable de la Jefatura Local de Falange.[8] En cualquier caso, desde el Gobierno Civil de la provincia hubo siempre un intento por equilibrar las fuerzas presentes en las sucesivas gestoras municipales entre personas adictas al carlismo (o tradicionalistas) y falangistas.

Pero a pesar de estas consideraciones, la inexorable dependencia de los municipios con respecto al devenir de la dictadura motivó por parte de estos constantes muestras de adhesión. La primera de ellas, en el acto mediante el cual los representantes municipales tomaban posesión de su cargo jurando "servir fielmente a España, guardar lealtad al jefe del Estado, defender y fomentar los intereses del municipio, mantener su competencia, y ajustar mi conducta a la dignidad del cargo", a lo que el alcalde respondía con la fórmula "Si así lo hacéis Dios y España os lo premien, y si no, os lo demanden"[9].

Las muestras de adhesión a Franco fueron continuas en cualquier acto civil o religioso. El 13 de febrero de 1946, terminada la Segunda Guerra Mundial y viéndose el régimen dictatorial acorralado ante el derrumbe del fascismo en el resto de Europa, la corporación municipal de Azpeitia reafirmó su adhesión y felicitaciones al jefe del Estado "por su enérgica actitud

7 AMA, sig. 467.02.166.

8 Ibíd.

9 AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.



Azpeitiko Parrokiako koruko Tiple taldea, 1948an.

Sección de tiples del coro parroquial de Azpeitia. 1948.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

asterako aurreikusitako "ekitaldi misionalak" ospatu bitartean.[10] Ukatu ezinezko eskaera hura urtero errepikatzen zen irailaren 20an, "herriaren askapenaren" urteurrenean, langileek ere ospakizunetan parte har zezaten, eta horrela erakusteko herriak ere babesten zuela erregimena.

Diktadurarekiko atxikipen erakustaldiak ezinbestekoak ziren ekitaldi publiko guztietan zein propagandarako ekitaldietan eta, gainera, derrigorrezko bilakatu ziren kargu publikoren bat izan nahi zuen edonorentzat. Adibidez, 1953ko martxoan Azpeitian libre gelditutako ikuskari farmazeutikoaren plaza eskuratu nahi zuen edonork hainbat agiri aurkeztu behar zituen –jaiotza-agiria, titulu profesionala eta hautagaiak aurkeztu nahi zituen merituen egiaztagiriak– baina, horrez gain, erregimenarekiko atxikimendu ziurtagiri bat ere entregatu behar zuen, "agintaritza eskudunak emandakoa".[11] 1958an, Andrés Lucas Gonzálezek –izatez AlaeJosékoa (Valladolid) eta Azkoitian bizi zena– udaltzain plaza huts bat eskuratu nahi izan zuen; bada, prozesuko tramite eta agirien artean daude Alaejos eta Azkoitiako udalek emandako ofizioak, bermatuz hautagaiak jokabide zintzoa zuela eta diktaduraren aldekoa zela. Are gehiago, AlaeJoséko alkateak bere idazkian adierazi zuen hautagaiaren gurasoen jokabidea ere: "nahiz eta bere gurasoak gehiegi nabarmendu gabeko ezkertiarrak izan, berak ez zuen inolako jarrera ezkorrik izan Altxamendu Nazional Loriatsuarekiko"[12]. Izan ere, udaltzain plaza huts bat eskuratzeko oinarrietan, Tokiko Administrazioko

10 Udal aktak, "1946ko otsailaren 18ko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

11 Udal aktak, "1953ko martxoaren 5eko saio osagarria", AUA, 1953ko akta-liburua, 4283-01 sig., 13. kod.

12 AUA, 1310.15.43 sig.

contra la campaña de difamación que se hace en el extranjero". A continuación, la corporación invitaba a todos los industriales de la localidad a que cerraran sus establecimientos y comercios durante las horas que se celebrasen los "actos misionales" previstos para la semana siguiente.[10] Esta solicitud irrechazable se repetía todos los 20 de septiembre con motivo de la celebración de "la liberación de la villa", con el objetivo de que los trabajadores participaran en los festejos y se hiciera visible el apoyo de la población al régimen.

Las muestras de adhesión a la dictadura no solo eran irrechazables en los diferentes actos públicos y propagandísticos, sino que también resultaron irrenunciables para cualquier persona que aspirara a ocupar un cargo público. Quien en marzo de 1953 quisiera obtener la plaza de inspector farmacéutico que había quedado libre en Azpeitia, además de presentar la partida de nacimiento, el título profesional, o el justificante de los méritos que el aspirante quisiera presentar, este debía incluir un certificado de adhesión al régimen "expedido por la autoridad competente".[11] En 1958 Andrés Lucas González, natural de Alaejos (Valladolid) y vecino de Azkoitia, quiso optar a una plaza vacante de guardia municipal en Azpeitia, y entre los trámites y documentos pertinentes constan los oficios tanto del ayuntamiento de Alaejos como el de Azkoitia, avalando su buena conducta y adhesión a la dictadura. Más aún, el escrito del alcalde de Alaejos hacía referencia incluso a la conducta de sus progenitores "pues aunque sus padres fueron de izquierdas sin destacarse, a él nada se le vio con relación al Glorioso

10 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 18 de febrero de 1946", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

11 Actas municipales, "Sesión supletoria del día 5 de marzo de 1953", AMA, Libro de actas 1953, sig. 4283-01, cód. 13.




Falangearen emakumeen sekzioko azpeitiarrak udaletxeko balkoain.

Azpeitiarras de la Sección Femenina de Falange en la balconada del ayuntamiento.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

Funtzionarioen Araudiko 1. ataleko 26. artikuluan jasota zegoen ezinbesteko baldintza zela "Mugimendu Nazionalaren aldekoa izatea" (c atala), eta horretarako beharrezkoa zen Ordezkaritza Probintzialaren edo Falangeko tokiko buruzagitzaren ziurtagiri bat, "Mugimenduarekiko" atxikipena egiaztatzeko[13].

Era berean, azpeitiarrek ezinbestean kolaboratu behar zuten erregimenarekin, nahiz eta ozta-ozta bizirauten zuten garai hartan. Hasi industria-gizonetatik eta artile ekoizleetara, agintari frankisten presioa etengabekoa zen biztanle guztiengan. 1943ko apirilaren 10eko ofizio baten bidez, Azpeitiko alkateak herriko industria-gizon eta saltzaileei eskatu zien "behar bezalako arreta" eman ziezaietela *FET y de las JONS* alderdi bakarraren Ordezkaritza Nazionaleko "kamaradei", zeintzuk funtsak biltzen ari baitziren barne aldizkarirako.[14] Urte hartan bertan, Barne Ministerioak Gipuzkoako gobernadore zibilari agindu zion "ahalik eta kooperazio handiena" lor zezala artilea errekisatzeko kanpainan; artile hura arropa militarra egiteko erabiliko zen gero, "ejertzitoa jantziteria eskasian zegoelako eta salbuespen neurriak hartu zituztelako egoera

Alzamiento Nacional"[12]. Y es que en las bases para la provisión en propiedad de la plaza vacante de guardia municipal, atendiendo al apartado 1º del artículo 26 del Reglamento de Funcionarios de administración local, se especificaba como requisito "ser adicto al Movimiento Nacional" (apartado c), y para ello se exigía un certificado de la Delegación Provincial o de la Jefatura Local de Falange que corroborara dicha adhesión "al Movimiento"[13].

También resultaba irrechazable e irrenunciable colaborar con el régimen a pesar del estado de subsistencia al que estaban abocados los azpeitiarras. Desde los industriales a los productores de lana, la presión de las autoridades franquistas sobre la población fue constante. A través de un oficio fechado a 10 de abril de 1943, el alcalde de Azpeitia pedía a los industriales y comerciantes del municipio "atender cumplidamente" a los "camaradas" que buscaban recabar fondos para la revista-órgano interno de la Delegación Nacional de FET y de las JONS.[14] Ese mismo año, desde el Ministerio del Interior se ordenaba al Gobierno Civil de Gipuzkoa "conseguir la mayor cooperación" en la requisa de lana para la confección de ropa militar ante

13 Udal aktak, "1960ko abenduaren 16ko saio osagarria", AUA, 1960ko akta-liburua, 4273-04 sig., 12. kod.

14 AUA, 1310.01.05 sig.

12 AMA, sig. 1310.15.43

13 Actas municipales, "Sesión supletoria del día 16 de diciembre de 1960", AMA, Libro de actas 1960, sig. 4273-04, cód. 12.

14 AMA, sig. 1310.01.05.



36ko gerrako altxamenduan hildako gudarien omenez eraikitako monumentua.

Monumento en memoria de los soldados sublevados azpeitiarras fallecidos en la Guerra del 36.

© Indalecio Ojanguren. Gure Gipuzkoa

hori konpontzeko"[15]. Ondorioz, diktadurak eta bere ordezkariek (nola Estatukoek hala tokikoek), salbuespen egoerak deklaratzen zituzten propaganda egiteko eta gerra egoera mantentzeko (egoera hori indarrean egon zen 1948ko apirilaren 7ra arte), eta ez biztanleria zibila eskasian zegoelako.

Hain zuzen, udal korporazioek erregimenaren "premientzat" emandako laguntza logistiko eta ekonomiko guztiak gorabehera, korporazioek beraiek udal batzarretan aitortu zuten "egoera larria zela eskasiaren eta premia biziko ondasunen prezio altuen eraginez"[16]. 1946ko urriaren 28ko osoko bilkuran esan zen azpeitiarren egoera "kezkagarria" zela "produktu gabeziaren ondoriozko elikadura eskasagatik"; eta, hala ere, Azpeitiak ez zeukan merkatu-gaien batzorderik, ezta ekonomatorik ere.[17] Aldiz, badirudi handik urtebetera (1947ko martxoan) ez zela inolako zailtasunik izan herriko hilerrian 8.573,05 pezetako kostua izan zuen mausoleo baten eraikuntza ordaintzeko, Gerra Zibilean hildako altxamenduko soldaduen ohoretan.[18]

15 AUA, 1310.01.53 sig.

16 Udal aktak, "1946ko irailaren 2ko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

17 Udal aktak, "1946ko urriaren 28ko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

18 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

"la escasez de vestuario actual y recurriendo a medidas de excepción para remediarlo"[15]. Por tanto, para la dictadura y sus representantes (tanto estatales como locales) las situaciones excepcionales estaban ligadas a cuestiones propagandísticas y al mantenimiento del estado de guerra (vigente hasta el 7 de abril de 1948), más que a la situación de escasez en la que se encontraba la población civil.

De hecho, a pesar de los apoyos logísticos y económicos que las sucesivas corporaciones municipales prestaron a las "necesidades" del régimen, estas mismas reconocieron en varios plenos municipales "la aguda situación creada por la escasez y el elevado precio de artículos de primera necesidad"[16]. La situación de la población azpeitiarra fue calificada por el pleno del 28 de octubre de 1946 como "alarmante" ante la "deficiente alimentación por falta de productos"; y sin embargo Azpeitia no contaba para entonces ni con una comisión de abastos, ni tan siquiera con un economato.[17] En cambio, no parece que hubiera ningún tipo de dificultad económica para liquidar un año más tarde (concretamente en marzo de 1947) las 8.573,05 pesetas de coste en la construcción de un mausoleo en el cementerio de la localidad en honor a los combatientes sublevados fallecidos en la Guerra Civil.[18]

En Azpeitia, por tanto, al igual que en el resto de municipios vascos, reinaba en este período una aparente unidad y cordialidad, fruto tanto de la ausencia de libertades individuales y colectivas más básicas, como de un sistema represivo que mantenía las cárceles abarrotadas de presos políticos y que condenaba a la invisibilidad o al exilio a cualquier tipo de oposición a la dictadura. La muestra pública de adhesión al régimen, y en el caso concreto de Azpeitia la implicación y participación personal en cualquier actividad o evento que favoreciera el mantenimiento del municipio como símbolo del ideario nacionalcatólico, fue un requisito indispensable de cualquier vecino para sobrevivir.

15 AMA, sig. 1310.01.53.

16 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 2 de septiembre de 1946", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

17 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 28 de octubre de 1946", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

18 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*



Jefatura Nacional de Defensa Pasivak osatutako Azpeitiko ebakuazio planaren dokumentua.

Documento relativo al plan de evacuación de Azpeitia elaborado por la Jefatura Nacional de la Defensa Pasiva.

AMA, sig. 1310.10.05

Ondorioz, Azpeitian –eta gainerako euskal herrietan– itxurazko batasuna eta begikotasuna ziren nagusi; batetik, bakarkako askatasun zein askatasun kolektibo oinarrizkoenen gabeziagatik eta, bestetik zapalkuntza sistemagatik, zeinak kartzelak preso politikoz gainezka mantentzen baitzituen, diktadurarekiko oposizio mota oro ikusezintasunera edo erbestera kondenatuz. Erregimenarekiko atxikimendu adierazpen publikoak ezinbesteko baldintza izan zen herritar guztientzat bizirauteko; Azpeitiak zehazki, derrigorrez parte inplikatu eta parte hartu behar izan zuen udalerria ideario nazionalkatolikoaren ikur gisa mantentzeko jarduera edo ekitaldi guztietan.

Baina bada gehiago ere. Herritarren menpeko izaera sendotu zuen beste faktore bat: beldurra. Bazegoen erregimeneko zapaltzaileekiko benetako beldurra, oinarrizko askatasun eta eskubideak mugatzen zituztenekiko izua, baina baita ere diktadurak berak sortutako gezurrezko beldur bat, berriz ere hildakoak, espetxeratuak eta erbesteratze masiboak eragingo zituen beste gerra bat izateko beldurra.

1941eko urtarrilaren 23an dekretu baten bidez sortu zen Defentsa Pasiborako eta Lurraldearen Defentsarako Buruzagitza Nazionala. Lehen artikuluan zioen “defentsa pasiboa” zela “atzeguardiako multzo nazional diziplinatu eta antolatu bat, beraz, biztanleria osoa barne hartzen duena, zeinak bere borondatez parte hartuko baitu eta, nolanahi ere, derrigorrez parte hartu beharko baitu beharrezkoa izanez gero”[19]. Hala, Ministroen Kontseiluaren menpeko indar militarizatu bat sortu zen, jeneral baten agintepean. Funtzio nagusi bat zuen: Bigarren Mundu Gerran zehar mendebaldeko demokraziek Espainia inbadituko balute, biztanleria zibila babestea. Dena den, 1944tik aurrera Espainiako Estatua ez zen lehentasunezkoa izan indar aliatuentzat eta, gainera, Britainia Handiak eta AEBek bigarren mailan jarri zuten Espainiako Estatua, baita mundu mailako gatazka hasi baino lehen ere. Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan, ustezko gatazka berri baten arriskua baliatu zuen erregimenak aitzakiatzat erakunde hura mantentzeko eta, horrela, tentsioari eusteko herritarren artean. 1947ko abenduan (Bigarren Mundu Gerra amaitu eta bi urtera), Defentsa Pasiboaren jeneral-buruak zirkular batean adierazi zuen kezkatuta zegoela erakunde probintzial eta lokalen utzikeriagatik, eta esan zuen “Espainiako publikoa eta

19 EAO; 36. zk.; 1941eko urtarrilaren 23koa.

Pero hay más. Un factor más que fortaleció la subordinación de la población: el miedo. No solo el miedo real a los agentes represores del régimen, a aquellos que coartaban libertades y derechos básicos, sino el miedo ficticio que la propia dictadura generó en torno a otra guerra que volviera a traer muertos, encarcelamientos, o exilios masivos.

El 23 de enero de 1.941 se promulgó el decreto por el que se creaba la Jefatura Nacional de la Defensa Pasiva y del Territorio. En su artículo primero se definía la “defensa pasiva” como “un conjunto Nacional disciplinado y organizado de la retaguardia y por consiguiente, que afecta a toda la población, la que prestara su concurso voluntariamente y en caso preciso, será requerida para ello con carácter obligatorio”[19]. Se formó así un cuerpo militarizado dependiente del Consejo de Ministros y cuya jefatura recaía en un general. Su función principal era la de proteger a la población civil de una hipotética invasión por parte de las democracias occidentales durante la Segunda Guerra Mundial, si bien, la realidad era que a partir de 1944 el Estado español dejó de ser una prioridad para los aliados, a lo que habría que añadir el papel secundario que Inglaterra y EEUU le otorgaban al Estado español, antes incluso del inicio de este conflicto de escala mundial. Terminada la Segunda Guerra Mundial, el supuesto peligro de una nueva confrontación armada sirvió al régimen como excusa para mantener esta institución, y por ende la tensión en la población. En diciembre de 1947 (dos años después de finalizar la Segunda Guerra Mundial) el general-jefe de Defensa Pasiva mostraba en una circular su preocupación por la dejadez de las instituciones provinciales

19 BOE; núm. 36; de 23 de enero de 1941.

bere izaera mesianista zuhurtasunezko neurri guztien etsaia zela, eta espirituaren egoera haren ondorioz, axolagabe begiratzen ziela Defentsa Pasiboko neurri guztiei"[20]. Azpeitian, gainerako herrietan bezalaxe, herriko alkatea izan zen 1945etik aurrera bildutako batzordeen buru, udal idazkariak egiten zituen idazkari lanak, eta batzordeak erregimenarekiko atxikimendu sendoa zuten pertsonak izendatzen zituen bokal eta buru exekutibo karguetarako, esaterako, Casto Orbegozo Embil edo Galo Barrena Larrar. 1948rako, udal batzorde hark zioen eraso bat gertatuz gero 4.300 pertsona ebakuatzeko gai izango zirela bi egunetan; hala, ihes egiteko ibilbideak sortu zituzten eta udalerriko auzoak deskribatu zituzten biztanleria zibila behar bezala erretiratu zedin.

Azken finean, nahiz eta gezurrezko beldur hura gainbehera etorri zen 1945etik aurrera, Espainiako Estatuak udal guztiei eskatzen zien mantendu zitzatela ebakuazioetarako prestakuntza eta batzordeak, eta eguneratu zitzatela horretarako jarraibideak atzerritarren balizko erasoei aurre egin ahal izateko. Propagandaren beste faktore bat zen, ustezko kanpoko etsaien aurrean pentsaera nazionalkatolikoari batasuna emateko pentsatua, eta Azpeitiko tokiko agintariek lan horretan parte hartu zuten herritar guztiak inplikatuz.

20 AUA, 1310.10.05 sig.

y locales en cuanto a las medidas que debían mantenerse en esta materia, y lamentaba "que el público español con su carácter mesianista es enemigo de toda medida precautoria, y como natural consecuencia de tal estado de espíritu, mira con indiferencia las medidas de la Defensa Pasiva"[20]. En Azpeitia, al igual que en el resto de localidades, las comisiones formadas a partir de 1945 estuvieron presididas por el alcalde de la villa, realizando labores de secretariado el propio secretario municipal, y como vocales y "jefe ejecutivo" personas nombradas por la comisión de sobrado arraigo al régimen, tales como Casto Orbegozo Embil o Galo Barrena Larrar. Para 1948, esta comisión municipal fijaba en 4.300 las personas evacuables en apenas dos días en caso de ataque, estableciendo itinerarios de huida y describiendo los barrios del municipio para la correcta recogida de la población civil.

En definitiva, a pesar de que este miedo ficticio se mostró del todo insostenible a partir de 1945, el Estado español continuó exigiendo la formación y mantenimiento de comisiones de evacuación en cada ayuntamiento, así como la actualización de instrucciones en caso de ataque extranjero. Un factor más de carácter propagandístico que pretendía dar cohesión al ideario nacionalcatólico frente a un supuesto enemigo exterior, y del que las autoridades locales de Azpeitia participaron involucrando al conjunto de los habitantes.

20 AMA, sig. 1310.10.05

## AZPEITIA ZENBAKITAN / AZPEITIA EN CIFRAS[I]

| BIZTANLERIA / Población (1948)[II] | 8.531 BIZTANLE (*DE FACTO* BIZTANLERIA) / Habitantes (población de hecho) |
|---|---|
| **Mugimendu demografikoa (1951)**<br>**Movimiento demográfico (1951)[III]** | Jaiotzak / Nacimientos: 171<br>Ezkontzak / Matrimonios: 66<br>Heriotzak : 83 (urtebetetik beherakoak: 8) / Defunciones: 83 (menores de un año: 8) |
| **Udal barrutiaren azalera**<br>**Extensión del término municipal** | 7.015 hektarea / hectáreas |
| **Eraikitako azalera Superficie edificada** | 308,58 hectáreas / hectáreas |
| **Azalera urbanoa Superficie urbana** | 312,20 |
| **Eraikin publiko nabarmenak**<br>**Edificios públicos destacados** | Udaletxea, bi udal eskola, 1. auzialdiko epaitegia, Miserikordia Etxea, Erietxea, parrokia-eliza, zezen-plaza.<br>Ayuntamiento, dos escuelas municipales, juzgado de 1ª instancia, prisión, Casa de Misericordia, Lazareto, iglesia parroquial, plaza de toros. |
| **Garraiobideak (publikoak eta pribatuak)**<br>**Edificios privados destacados** | Loiolako Eskola eta Basilika / Colegio y Basílica de Loyola, Komentuak: / Conventos de: Damas Catequistas, Jesús y María, Esclavas del Sagrado Corazón, Franciscanas, Siervas de María y Jesuitinas |
| **Medios de transporte (públicos y privados)** | Trenbidea, autobus 1, 6 kamioi, 6 auto, 4 motor, 100 bizikleta eta 20 gurdi.<br>Ferrocarril, 1 autobús, 6 camiones, 6 turismos, 4 motocicletas, 100 bicicletas y 20 carreteras. |
| **Auzoak Barrios** | Odria, Elosiaga, Eizagirre, Manchinbenta, Aratz-erreka, Oinatz, Loiola, Izarraitz. |

I. 1948. urteari buruzko datuak (AUA, 1310.05.17 sig.), biztanleriari eta mugimendu demografikoei buruzko datuak izan ezik. / Datos relativos a 1948 (AMA, sig. 1310.05.17), a excepción de los datos sobre habitantes y movimientos demográficos.

II. 1943. urteari buruzko datuak (AUA, 1310.01.01 sig.). Hurrengo urteetan (AUA, 1322.16.04 sig.): 1950: 8.991 biz. / 1951: 9.093 biz. / 1952: 9.172 biz. / 1953: 9.335 biz. / 1954: 9.331 biz. / Cifra relativa a 1943 (AMA, sig. 1310.01.01). En años posteriores (AMA, sig. 1322.16.04): 1950: 8.991 hab. / 1951: 9.093 hab. / 1952: 9.172 hab. / 1953: 9.335 hab. / 1954: 9.331 hab.

III. 1951. urteari buruzko datuak (AUA, sig. 467.02.229) / Datos relativos a 1951 (AMA, sig. 467.02.229).



Azpeitiko udaletxea, 1948an.
Ayuntamiento de Azpeitia. 1948.

© Indalecio Ojanguren. Gure Gipuzkoa

# 2.2. Azpeitiko erakundeetako organigrama 1945 eta 1959 artean

1945ean Azpeitiko udal korporazioaren lehen ohiko saioa urtarrilaren 15ean egin zen. Dionisio Alcorta Echeverria (1887an Tolosan jaioa eta udal batzordeko kidea 1941az geroztik) jarduneko alkatea zen 1944ko maiatzaren 22tik, Gipuzkoako gobernadore zibilak hala aginduta. Pertsona nagusia zenez, Dionisiok ez zuen borroka egin gerrako frontean, baina tradizionalisten lerroetan egon zen, seguru asko, atzeguardiako lanetan.[21]

1945eko urtarrileko korporazio hartan badira azpimarratzeko hainbat izen, adibidez, 1939ko irailaren 14az geroztik 2. alkateorde karguan zegoen Manuel Mozo Juaristi: erreketeen San Ignazio tertzioko tenientea eta 1939ko ekainean osatutako batzordeko kidea, bere ardura izan zen Pérez Arregui plazan monumentu bat eraikitzea gerran hildako Azpeitiko soldadu frankisten ohoretan, bai eta mausoleo bat egitea herriko hilerrian, eta bera izan zen 1936an José Luis Uriartek udaltzainan egin zuen garbiketa prozesuaren lekuko

21 AUA, 467.02.166 sig.

# 2.2. Organigrama institucional de Azpeitia entre 1945 y 1959

La primera sesión ordinaria de la corporación municipal de Azpeitia en 1945 se celebró el 15 de enero. El alcalde en funciones desde el 22 de mayo de 1944 era Dionisio Alcorta Echeverria, nacido en Tolosa en 1887 y miembro de la gestora municipal desde 1941, por orden del gobernador civil de Gipuzkoa. Por su avanzada edad Dionisio no combatió en el frente de guerra, pero sí estuvo incluido en las filas tradicionalistas en labores probablemente de retaguardia.[21]

En aquella corporación de enero de 1945 destacan personajes como el que desde el 14 de septiembre de 1939 era el 2º teniente-alcalde, Manuel Mozo Juaristi: teniente del tercio San Ignacio de requetés, integrante de la comisión formada en junio de 1939 encargada de la construcción de un monumento en la plaza Pérez Arregui en honor a los combatientes franquistas de Azpeitia fallecidos en combate y de un mausoleo en el cementerio de la localidad, y testigo principal en el proceso de

21 AMA, sig. 467.02.166.



Urbano Azcue Larrañaga / Dionisio Alcorta Echeverria / Ignacio Egaña Otaegui / Ignacio Echeverria Altamira.

© Uztarria. Azpeitiko herri aldizkaria

nagusia.[22] Era berean, batzorde hartako kide zen Nicolás Ucin Segurola, Azpeitiko lehen militante falangistetako bat, Sorospen Sozialeko delegatua eta udal korporazioko kidea 1939ko irailaren 14tik aurrera.[23] Izen gehiago ere baziren tokiko batzorde hartan, besteak beste, José Elizburu Ugarte, Falangeko Gaztedien arduradun nagusia 1941ean eta herriko *Caritas* erakundeko presidentea 1966an, edota José Viquendi Zabaleta, erreketeen San Ignazio tertzioko boluntarioa, *Excautivos por España* elkarteko kidea, Falangeko eskualde-burua, udal kudeatzailea 1939tik aurrera eta Remigio Egiguren Ucin epaitu zuen Erantzukizun Politikoen Epaimahaiko lekuko garrantzitsuena, Ignacio Egañarekin batera. [24]

1945eko urriaren 9an, Gipuzkoako gobernadore zibilak (Francisco Saenz de Tejada y Olozaga) Azpeitiko alkate izendatu zuen Ignacio Egaña Otaegui; 1936ko irailetik, diktadurako pertsonaiarik garrantzitsuenetako bat izan zen herrian. Egaña zinegotzi izan zen 1936ko urriaren 14an eratutako Azpeitiko lehen korporazio frankistan; gerora, alkate izan zen 1939 eta 1941 artean eta, izendapen berri haren bitartez, udalaren ordezkari goren izan zen 1952ko otsailera arte. Beste hainbat kargu ere izan zituen: Miserikordia Etxeko presidente; Falangeko Tokiko Ordezkaritzako buru 1945eko otsailaren 9tik aurrera, José Viquendiren ordez; eta ikuskizunetako udal ikuskari 1948tik aurrera. Izendapen haren ondoren, Dionisio Alcorta lehen alkateorde kargura pasa zen, baina korporazioko gainerako kideek berdin jarraitu zuten.[25] Handik gutxira, abenduaren 4an hil zen Cruz María Echeverria Taberna, indar kolpistak herrian sartu zirenean Azpeitiko lehen alkateorde zena. Karlistek 1933ko

22 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

23 Ibid.

24 Ibid.

25 Udal aktak, “1945eko urriaren 29ko ohiko batzarra”, AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

depuración del guardia municipal José Luis Uriarte en 1936.[22] Del mismo modo, sobresalía el regidor síndico Nicolás Ucin Segurola, uno de los primeros militantes falangistas de Azpeitia, delegado de Auxilio Social, y miembro de la corporación municipal desde el 14 de septiembre de 1939.[23] También formaban parte de esta gestora local, entre otros, José Elizburu Ugarte, máximo responsable del Frente de Juventudes de Falange en 1941 y presidente de Cáritas en la localidad en 1966, y José Viquendi Zabaleta: voluntario del tercio San Ignacio de requetés, miembro de la asociación “Excautivos por España”, jefe comarcal de Falange, gestor municipal desde 1939, y testigo principal, junto a Ignacio Egaña, ante el Tribunal de Responsabilidades Políticas que juzgó a Remigio Eguiguren Ucin.[24]

El 29 de octubre de 1945 el gobernador civil de Gipuzkoa (Francisco Sáenz de Tejada y Olózaga) nombró a Ignacio Egaña Otegui alcalde de Azpeitia, sin duda, uno de los personajes más relevantes de la dictadura en la villa desde septiembre de 1936. Egaña fue concejal de la primera corporación franquista de Azpeitia constituida el 14 de octubre de 1936, alcalde entre 1939 y 1941, y con este nuevo nombramiento, de nuevo máximo representante municipal hasta febrero de 1952. Además, fue el presidente de la Casa de la Misericordia, jefe de la Jefatura Local de Falange desde el 9 de febrero de 1945 en sustitución de José Viquendi, e inspector municipal de espectáculos a partir de 1948. Con este nombramiento Dionisio Alcorta quedaba como primer teniente-alcalde, mientras que el resto de la corporación se mantenía intacta.[25] Poco después, concretamente el 4 de diciembre, falleció el que fuera, precisamente, primer-teniente-alcalde de Azpeitia tras la entrada de las tropas golpistas en el municipio, Cruz María Echeverria Taberna, quien tras el

22 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

23 Ibíd.

24 Ibíd.

25 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 29 de octubre de 1945”, AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

apirileko udal hauteskundeetan jasotako jipoiaren ostean (bera aurkeztu zen hauteskunde haietara baina ez zuen lortu ordezkaritza izateko behar beste babes), esaldi borobil bat bota zuen, etorkizuna iragarri zuena: "agintean gaude, eta agintean jarraituko dugu"[26]. Ia hil artean mantendu zuen udal gordailuzain kargua.

1947ko irailaren 3ko osoko bilkuran, José Viquendi zinegotziak Gipuzkoako gobernadore zibilari bidalitako idazki baten kopia entregatu zion udaletxeko idazkariari, non bere dimisioa aurkezten baitzuen "ezin zuelako alkate jaunari laguntzen jarraitu (…) familiarteko arrazoiak zirela tarteko". Segidan, José Viquendik bilkuratik alde egin zuen, Ignacio Egañak emandako azalpenak entzun gabe. Egañak berak azaldu zuen zeintzuk ziren idazkian adierazitako familiarteko arrazoi haiek; itxuraz, gauzain batek José Viquendiren anaia giltzapetu zuen eta alkateak ez zuen hura askatzeko bitartekari lanik egin nahi izan.27 Hala, udal batzordeko zinegotzi kargua hutsik gelditu zen 1949ko otsailaren 6an korporazio berria osatu zen arte. Harrezkero, José Viquendi Azpeitiko merkatarien ordezkari goren izan zen.

Azpeitiko udal berria osatzeko Tokiko Erregimeneko Oinarrizko Legea baliatu zen, 1945eko uztailaren 17an onartua (eta biharamunean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua[28]). Onartu zenetik hainbat urte igaroak ziren arren, lehen aldiz erabili zuten hauteskunde sistema antidemokratiko hura, errotik usteldua, non hautagaiek leialtasun filtroak pasa behar baitzituzten hautetsi izan ahal izateko. Era berean, araudi haren ondorioz, tokiko erakundeak kudeatzaile ekonomiko-administratibo soil bihurtu ziren, Estatuaren interbentzionismoaren menpe eta, batik bat, Gobernu Zibilaren erabakien menpe, hark fiskalizatzen zuelarik udal jarduera oro.[29] Azpeitia bezalako herri bati (9.000 biztanle baino gutxiago) bederatzi zinegotzi zegozkion, hau da, 1945 arte eratutako korporazioetan zeudenak baino bat gutxiago. Alkatea Gobernazio Ministerioak izendatzen zuen zuzenean, eta gainerako kudeatzaileak hirugarren alderdi batzuek aukeratzen zituzten: familia buru ziren herritarrek, sindikatu bakarrak eta aurreko taldeetako zinegotziek, "erakunde ekonomiko, kultural eta profesionaletako kide diren herritarrek" edo "izen oneko herritarrek", betiere, gobernadore zibilak eginiko hautagai zerrenda batetik. Bistan da, erregimen frankistak Gerra Zibileko kolpisten aurkakotzat jotzen zituen pertsonek ezin zutela zinegotzi kargurik izan, horretarako desgaituta zeudelarik.[30]

26 AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira.*

27 Ibid.

28 EAO; 199 zk.; 1945eko uztailaren 18koa.

29 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

30 EAO; 199 zk.; 1945eko uztailaren 18koa.

batacazo electoral de los carlistas en las elecciones municipales de abril de 1933 (elecciones a las que él mismo se presentó sin conseguir el apoyo popular suficiente para lograr representación) pronunció una rotunda y premonitoria frase: "mandamos y mandaremos"[26]. Hasta poco antes de su fallecimiento ocupó el cargo de depositario municipal.

En el pleno municipal del 3 de septiembre de 1947 el concejal José Viquendi entregó al secretario del ayuntamiento la copia del escrito que había elevado al gobernador civil de Gipuzkoa, presentando la dimisión "por ser incompatible colaborar con el Sr. Alcalde (…) por impedirlo circunstancias familiares". Seguidamente José Viquendi abandonó el pleno sin querer atender a las explicaciones de Ignacio Egaña, quien argumentó ante la ausencia del concejal que las circunstancias familiares a las que se aludían eran el encarcelamiento en dependencias municipales del hermano de José Viquendi por un sereno nocturno y la negativa del alcalde a mediar en su liberación.[27] Tras este hecho quedó vacante un puesto de concejal en la gestora municipal hasta la constitución de una nueva corporación el 6 de febrero de 1949. José Viquendi pasó a ser desde entonces el máximo representante de los comerciantes en Azpeitia.

El nuevo ayuntamiento de Azpeitia se configuró a partir de la Ley Básica de Régimen Local aprobada el 17 de julio de 1945 (y publicada en el Boletín Oficial del Estado al día siguiente[28]). A pesar de haber transcurrido varios años desde su aprobación fue la primera vez que se puso en práctica este sistema electoral antidemocrático y amañado de raíz, debido fundamentalmente a los filtros de fidelidad que los candidatos debían de pasar para ser electos. Asimismo, esta normativa mantuvo a las entidades locales como meros gestores económicos-administrativos supeditados al intervencionismo estatal, y en particular a las decisiones del Gobierno Civil, encargado de fiscalizar cualquier actividad municipal.[29] A las localidades como Azpeitia de menos de 9.000 habitantes le correspondían un total de nueve regidores (y en consecuencia uno menos con respecto a las corporaciones formadas hasta 1945), siendo el alcalde nombrado directamente por el Ministerio de la Gobernación, y el resto de los gestores designados por terceras partes: por elección de los vecinos cabeza de familia, por elección del sindicato único, y por elección de los concejales de los grupos anteriores "entre vecinos miembros de entidades económicas, culturales y profesionales" o "entre vecinos de reconocido prestigio"; a partir de una lista previa de candidatos elaborada por el gobernador civil. Evidentemente, se excluía de ocupar el cargo de concejal

26 AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira.*

27 Ibíd.

28 BOE; 199 zk.; 1945eko uztailaren 18koa. / BOE; núm. 199; de 18 de julio de 1945.

29 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*



Dantzariak Loiolako santutegiaren aurrean.

Dantzaris delante del santuario de Loiola.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

Kontuak kontu, Ignacio Egañak Azpeitiko alkate izaten jarraitu zuen otsailaren 9tik aurrera ere. Familia-buruen tertzioak Ángel Echaniz Cendoya, Dionisio Alcorta Echeverria eta Juan José Iriarte Odriozola izendatu zituen; bestalde, Manuel Mozo Juaristi, Pedro Arcelus Epelde eta Filemón Guereta Langarica izan ziren sindikatuaren ordezkariak. Erakundeek berriz, Valentín Larrañaga Arrizabalaga, Venancio Mendia Jauregui eta Juan Aguirre Olascoaga aukeratu zituzten beren ordezkaritzarako. Diktadurari leialtasunezko zina egin ostean, Ignacio Egañak herriko hiru barrutietako ordezkariak izendatu zituen, haiek izango zirelarik –ordena berean– korporazioko hiru alkateordeak: Dionisio Alcorta Echeverria lehen barrutirako eta lehen alkateordetzarako, Filemón Guereta Langarica bigarrenerako eta Venancio Mendia Jauregui hirugarren barrutirako. Ondoren, udal batzorde iraunkor bat eratu zen ostegunero goizeko 11:00etan bilduko zena, alkateak eta hiru alkateordeek osatua. Gainera, beste lau udal batzorde gehiago sortu ziren: Ogasuna (Dionisio Alcorta, Filemón Guereta eta Ángel Echanizek osatua), Sustapena (Manuel Mozo, Juan José Uriarte eta Juan Agirrek osatua), Gobernazioa (Ángel Echaniz, Juan José Uriarte eta Valentín Larrañagak osatua) eta Hezkuntza (Ángel Echaniz, Valentín Larrañaga eta Filemón Gueretak osatua). Hala, Ignacio Egaña alkatea eta Dionisio Alcorta, Manuel Mozo eta Valentín Larrañaga bakarrik gelditu ziren aurreko korporaziotik. Baita Fructuoso Elorza Aizpuru ere, 1916az geroztik udal idazkaria zena; dena den, 1947ko uztailaren hasieran hartu zuen erretiroa eta Luis Marqués Carbók ordezkatu zuen.

a aquellas personas que habían sido depuradas e inhabilitadas por el régimen franquista, por ser consideradas contrarias a los golpistas a consecuencia de la Guerra Civil.[30]

Con todo, a partir del 9 de febrero Ignacio Egaña siguió ocupando el cargo de alcalde de Azpeitia. Por el tercio de cabezas de familia fueron nombrados Ángel Echaniz Cendoya, Dionisio Alcorta Echeverria y Juan José Iriarte Odriozola, mientras que la representación sindical recayó en Manuel Mozo Juaristi, Pedro Arcelus Epelde y Filemón Guereta Langarica. En cuanto a la representación de entidades, los elegidos fueron Valentín Larrañaga Arrizabalaga, Venancio Mendia Jauregui y Juan Aguirre Olascoaga. Tras el juramento de fidelidad al régimen dictatorial, Ignacio Egaña designó a los representantes de los tres distritos existentes en el municipio, quienes a su vez serían (en el mismo orden) los tres teniente-alcaldes de la corporación: Dionisio Alcorta Echeverria para el primer distrito y primer teniente-alcalde, Filemón Guereta Langarica para el segundo, y Venancio Mendia Jauregui en el tercer distrito. Posteriormente, se constituyó una comisión municipal permanente que debía reunirse todos los jueves a las 11:00 horas, y que estaba formada por el alcalde y los tres teniente-alcaldes. Además, quedaron fijadas cuatro comisiones municipales más: Hacienda (en la que participaban Dioniso Alcorta, Filemón Guereta y Ángel Echaniz), Fomento (Manuel Mozo, Juan José Uriarte y Juan Aguirre), Gobernación (Ángel Echaniz, Juan José Uriarte y Valentín Larrañaga), y Educación (Ángel Echaniz, Valentín Larrañaga, Filemón Guereta). Por tanto, de la corporación

30 BOE; 199 zk.; 1945eko uztailaren 18koa. / BOE; núm. 199; de 18 de julio de 1945.

Sartu berrien artean aipatzekoak dira bai Eerrepublika garaian eta baita altxamendutik aurrera ere kolpisten aldeko izateagatik herrian aski ezagunak ziren bi pertsonaia: Filemón Guereta eta Pedro Arcelus. Filemón Guereta altxamenduko soldadu ohia izan zen, *Excautivos por España* elkarteko eta Falangeko kidea. Bestalde, Pedro Arcelus Gipuzkoako Gobernu Zibilak 1934ko irailaren 28an –hau da, 1933ko apirilaren 23ko hauteskunde demokratikoen ondoren sortutako udal korporazioak dimititu eta gero– izendatutako Kudeaketa Batzordeko kide izan zen (1934an gobernadoreak izendatutako hamahiru kudeatzaileetatik gutxienez bederatzi tradizionalistak ziren eta haietako bost zinegotzi izan ziren gerora, frankismo garaian). Horixe izan zen Pedro Arcelusen bidea, izendapenaren ondoren lan gehien egin zuen kudeatzaileetako bat izan zelarik. Batzorde hark 1934 eta 1936ko otsaila artean landu zituen gai guztietan sinbolikoena eta esanguratsuena udal bandaren araudia aldaketa izan zen ziurrenik; herriko elkarte erlijioso eta zibilek –besteak beste *Margaritas* Falangearen Emakumezkoen Sekzioak– eskatutako aldaketa izan zen, espazio publikoan zein pribatuan dantzaldi publikoak eragozteko. Haien esanetan, "immoralak" ziren[31]. Pedro Arcelus izan zen araudi aldaketa haren defendatzaile sutsuena, Pedro Azpiroz eta José Alzururekin batera. Gainera, lekuko izan zen altxamenduko kideek "Mugimendu Nazional Loriatsuaren" aurka agertzea leporatuta hainbat azpeitiarren aurka zabaldutako gerra-kontseiluetan [32].

1951ko urriaren 21ean, Gobernu Zibilak jakinarazi zuen udal hauteskundeak deitu behar zirela azken hilabeteetan hutsik gelditutako sei zinegotzi karguak betetzeko. Kargu haietako bat hutsik gelditu zen Juan José Iriarte hila zelako, eta beste bostak hautetsiek (Ángel Echaniz, Manuel Mozo, Pedro Arcelus, Filemón Guereta eta Valentín Larrañaga) Tokiko Erregimeneko Legearen 81. artikulua bete ez zutelako, non esaten baitzen sei osoko bilkura baino gehiagotara jarraian huts egiten zuten zinegotziak kargugabetu egingo zirela. Legeak hiru urteroko maiztasuna ezarri arren, udal zinegotziak ez ziren berritu 1952ko otsailaren 3ra arte. Korporazio berriak defizitean murgildutako egoera ekonomikoa jaso zuen, udal idazkariak aurreko urteko abendutik ohartarazi bezala.[33]

1952an familia-buruen talderako izendatutako bi zinegotzietako bat ere ez zuten aukeratu aurretiazko bozketa bat eginaz (Luis Beguiristain Echeverria eta Ignacio María Arteche Elejalde izan ziren). Sindikatuaren ordezkaritzarako hautatutako zinegotzi berriak José María

31 AUA, 0276-01 sig., 12. kod.

32 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

33 Udal aktak, "1951ko abenduaren 6ko ohiko batzarra", AUA, 1951-1952ko akta-liburua, 4273-02 sig., 12. kod.

anterior únicamente se mantuvieron el alcalde Ignacio Egaña y los concejales Dionisio Alcorta, Manuel Mozo y Valentín Larrañaga. También el que venía siendo secretario municipal desde 1916, Fructuoso Elorza Aizpuru; si bien a comienzos de julio de aquel mismo año de 1947 se jubiló, siendo sustituido por Luis Marqués Carbó.

De las nuevas incorporaciones destacaban dos personajes ya conocidos en el municipio por su proximidad a los golpistas, tanto en el período republicano como a partir de la sublevación militar: Filemón Guereta y Pedro Arcelus. Filemón Guereta fue excombatiente sublevado, miembro de la asociación *Excautivos por España,* y afiliado a Falange. Pedro Arcelus, por su parte, fue miembro de la Comisión Gestora nombrada por el Gobierno Civil de Gipuzkoa el 28 de septiembre de 1934, tras la dimisión de la corporación municipal emanada de las elecciones democráticas del 23 de abril de 1933 (en 1934 al menos nueve de los trece gestores nombrados por el gobernador eran tradicionalistas, y cinco fueron posteriormente concejales durante el franquismo). En ambos casos figura Pedro Arcelus, quien además fue uno de los gestores más activos tras su nombramiento. En el aspecto más simbólico en cuanto a los asuntos que trató la gestora gobernante entre 1934 y febrero de 1936 consta la modificación del reglamento de la banda municipal, mediante la cual varias asociaciones religiosas y civiles del municipio, entre ellas la sección femenina de Falange *Margaritas*, solicitaban dicha modificación para evitar el baile público, tanto en el espacio público como en el privado por ser consideradas "inmoralidades"[31]. Pedro Arcelus fue (junto a Pedro Azpiroz y José Alzuru) el más ferviente defensor de este cambio reglamentario. Asimismo, actuó como testigo en varios de los consejos de guerra que los sublevados abrieron contra azpeitiarras acusados de oponerse al "Glorioso Movimiento Nacional" [32].

El 21 de octubre de 1951 el Gobierno Civil informó de que se debían convocar elecciones municipales para cubrir las seis vacantes de concejales que se habían dado en los últimos meses. Una de ellas respondía al fallecimiento de Juan José Iriarte, y los otros cinco (Ángel Echaniz, Manuel Mozo, Pedro Arcelus, Filemón Guereta y Valentín Larrañaga) por incumplir el artículo 81 la Ley de Régimen Local, que establecía la suspensión de aquellos regidores que se ausentaran en más de seis sesiones plenarias consecutivas. La renovación de los gestores municipales (prevista por la ley cada tres años) no se produjo hasta el 3 de febrero de 1952, heredando la nueva corporación una situación económica deficitaria de la que ya advertía el secretario municipal en el mes de diciembre del año anterior.[33]

31 AMA, sig. 0276-01, cód. 12.

32 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

33 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 6 de diciembre de 1951", AMA, Libro de actas 1951-1952, sig. 4273-02, cód. 12.



San Ignazioren monumentuaren inaugurazioa Xoxoten (Izarraitz), 1956an.

Inauguración del monumento a San Igancio de Loiola en Xoxote, Izarraitz.

© Indalecio Ojanguren. Gure Gipuzkoa

Aguirre Larrabeiti, Francisco Uranga Aizpuru eta Luciano Larrañaga Aranguren izan ziren. Azkenik, José María Castiella Otaeguik hartu zuen erakundeen ordezkaritzako plaza huts bakarra.[34] Berriz ere, sei kudeatzaile berri haietatik bost gerran ibiliak ziren altxamenduaren alde, lau San Ignazio tertzioan (José María Aguirre, Francisco Uranga, Luciano Larrañaga eta José María Castiella) eta bat Montejurrako tertzioan (Ignacio María Arteche).[35]

Era berean, Luis Beguiristain lehen alkateorde izendatu zuten, José María Castiella bigarren eta José María Aguirre hirugarren. Bestalde, aurreko lau batzordeak sei bihurtu ziren; Hezkuntzakoa *Hezkuntza eta Osasun Batzorde* bilakatu zen eta bi berri sortu ziren: *Nekazaritza, Abeltzaintza, Jaiak eta Kirolak* eta *Merkatu-gaiak eta bestelako gaiak.* Alkatea zen batzorde haien guztien presidentea: 1952ko urtarrilaren 8ra arte Ignacio Egaña Otaegui –bezperan kargugabetu zuten eta ordura arte 1940ko hamarkadan izandako kargu politiko guztiak utzi zituen– eta Ignacio Echeverria Altuna egun hartatik 1961 arte.[36]

Militar ohia ogibidez, Ignacio Echeverria ELA sindikatu nazionalistako kide izan zen Bigarren Errepublika garaian, eta CEDAkoa ondoren. Gerra hasi ostean, inguruko baserri batean ezkutatu zen Casto Orbegozorekin batera,

Ninguno de los dos concejales nombrados en 1952 para el grupo de cabezas de familia (Luis Beguiristain Echeverria e Ignacio María Artecehe Elejalde), fue elegido mediante votación previa. En cuanto a la representación sindical, los nuevos gestores elegidos eran José María Aguirre Larrabeiti, Francisco Uranga Aizpuru y Luciano Larrañaga Aranguren. Por último, José María Castiella Otaegui ocupó la única plaza vacante en representación de las entidades.[34] De los seis nuevos gestores cinco habían combatido en la guerra del lado sublevado, cuatro en el tercio San Ignacio (José María Aguirre, Francisco Uranga, Luciano Larrañaga y José María Castiella) y uno en el tercio Montejurra (Ignacio María Arteche).[35]

Asimismo, Luis Beguiristain pasó a ocupar la primera tenencia de alcaldía , José María Castiella la segunda, y José María Aguirre la tercera. Las comisiones, por su parte, pasaron de cuatro a seis, ampliando la de *Educación* en *Educación y Sanidad*, y formando la de *Agricultura, Ganadería, Festejos y Deportes*, y la de *Abastos y Asuntos Indeterminados*. Todas estas comisiones eran presididas por el alcalde, quien a partir del 8 de enero de 1952 y hasta 1961 fue Ignacio Echeverria Altuna en sustitución de Ignacio Egaña Otaegui, cesado el día anterior y dejando todos los cargos políticos que fue ocupando durante la década de 1940.[36]

34 Udal aktak, “1952ko otsailaren 3ko ohiko batzarra”, AUA, 1951-1952ko akta-liburua, 4273-02 sig., 12. kod.

35 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

36 Udal aktak, “1952ko urtarrilaren 7ko ohiko batzarra”, AUA, 1951-1952ko akta-liburua, 4273-02 sig., 12. kod.

34 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 3 de febrero de 1952”, AMA, Libro de actas 1951-1952, sig. 4273-02, cód. 12.

35 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

36 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 7 de enero de 1952”, AMA, Libro de actas 1951-1952, sig. 4273-02, cód. 12.

**1952KO OTSAILAREN 3AN OSATUTAKO UDAL BATZORDEAK** / COMISIONES MUNICIPALES FORMADAS EL 3 DE FEBRERO DE 1952

| BATZORDEA / Comisión | ZINEGOTZIAK / Concejales |
|---|---|
| Ogasuna / Hacienda | José María Aguirre, Ignacio María Arteche, Luciano Larrañaga |
| Sustapena / Fomento | José María Castiella, José María Aguirre, Ignacio María Arteche |
| Gobernazioa / Gobernación | Luis Beguiristain, Dionisio Alcorta y Luciano Larrañaga |
| Hezkuntza eta Osasuna / Educación y Sanidad | José María Aguirre, Ignacio María Arteche, Juan Aguirre |
| Nekazaritza, Abeltzaintza, Jaiak eta Kirolak / Agricultura, Ganadería, Festejos y Deportes | José María Castiella, Venancio Mendía , Francisco Uranga |
| Merkatu-gaiak eta bestelako gaiak / Abastos y Asuntos Indeterminados | Luis Beguiristain, Venancio Mendia, Luciano Larrañaga |

eta Azpeitira itzulitakoan etxean giltzapetuta bizi behar izan zuen. Azpeitiko Falangearen lehen burua izan zen, 1936ko irailaren 20an altxamenduko tropak sartu zirenetik 1938an Hilario Bereciartuak ordezkatu zuen arte. Hala, berak eta bere arreba Rosariok –*Margaritas* Emakumezkoen Sekzioko kidea– altxamenduko soldaduek atxilotu eta gerra-kontseiluetan epaitutako azpeitiar askoren aurka deklaratu zuten, besteak beste José María Aranguren Odriozolaren epaiketan, zeina heriotzara zigortu baitzuten eta 1938ko martxoaren 11n fusilatu.[37] Gainera, bere agintaldian zehar Azpeitiko seme kuttun izendatu zuen beste militar bat, jatorri azpeitiarra zuen Manuel Odria Amoretti diktadore peruarra; Francok bezalaxe, ideia ultranazionalistak zituen eta bortizki zanpatu zituen bere opositore guztiak.[38]

1955eko otsailaren 6an eratutako udal korporazioari dagokionez, 1952ko prozedura berbera erabili zen eta bederatzi zinegotzietatik sei aldatu ziren; plaza bat libre geratu zen ordea eta, horregatik, korporazioak zortzi kudeatzaile-zinegotzi izan zituen denbora batez. Familien ordezkaritzako tertzioak José Ramón Segues Arcelus (sekula ez zuen kargua hartu eta horregatik osatu zen zortzi zinegotziko korporazioa) eta Francisco Landa Arzuaga izendatu zituen; tertzio sindikalak Luciano Larrañaga Aranguren eta Luis Olaizola Echaniz; eta erakunde ekonomiko, kultural eta profesionalen tertzioak Nicanor Bereciartua Arcelus eta José Aizpuru Eizmendi. Halaber, ezohiko saio hartan eratu ziren udal batzordeak, aurreko legealdian baino bat gutxiago, *Merkatu-gai eta bestelako gaien* batzordea desagertu baitzen.

1952an osatutako korporazioan ez bezala, ordezkari berriak ez ziren altxamenduko soldadu ohiak, ezta ere lehenago kargu garrantzitsuetan ibilitakoak, baina gehienek bazuten loturaren bat tradizionalismoarekin. Adibidez, Francisco Landaren anaia (José) San Ignazio tertzioan ibili zen eta gerrako frentean hil zen Lemoan 1937ko ekainean; Martin Bereciartua berriz (Nicanor Bereciartuaren anaia), 1933ko

37 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

38 Udal aktak, “1953ko urtarrilaren 24ko ohiko batzarra”, AUA, 1953ko akta-liburua, 4272-04 sig., 12. kod.

Exmilitar de profesión, Ignacio Echeverria estuvo afiliado al sindicato nacionalista STV al comienzo de la Segunda República y posteriormente a la CEDA. Tras el inicio de la guerra, permaneció escondido junto a Casto Orbegozo en un caserío de la zona, y una vez que regresó a Azpeitia permaneció en arresto domiciliario. Fue el primer jefe local de Falange en Azpetia a partir de la entrada de las tropas sublevadas el 20 de septiembre de 1936 y hasta su sustitución por Hilario Bereciartua en 1938, y como tal, al igual que su hermana Rosario en calidad de miembro de la sección femenina *Margaritas*, fue responsable de varias declaraciones inculpatorias contra azpeitiarras detenidos por los sublevados y juzgados en consejos de guerra, entre ellas la efectuada contra José María Aranguren Odriozola, sentenciado a muerte y fusilado el 11 de marzo de 1938.[37] Fue bajo su mandato, además, cuando se nombró hijo predilecto de Azpeitia a otro militar: al dictador peruano de origen azpeitiarra Manuel Odria Amoretti, quien al igual que su homólogo español se caracterizó por su ideario ultranacionalista y la brutal represión ejercida contra sus opositores.[38]

En cuanto a la corporación municipal constituida el 6 de febrero de 1955, el procedimiento fue el mismo que en el año 1952, siendo renovados seis de los nueve gestores municipales; si bien quedó una vacante libre, por lo que temporalmente la corporación estuvo compuesta por ocho gestores-concejales. Por el tercio de representación familiar fueron elegidos José Ramón Segues Arcelus (aunque esta persona no llegó a tomar posesión del cargo, motivo por el cual se configuró una corporación de ocho concejales) y Francisco Landa Arzuaga, por el tercio sindical Luciano Larrañaga Aranguren y Luis Olaizola Echaniz, y por el tercio de entidades económicas, culturales y profesionales Nicanor Bereciartua Arcelus y José Aizpuru Eizmendi. En aquella sesión extraordinaria fueron constituidas también las diferentes comisiones municipales, que con respecto a la legislatura anterior contará con una comisión menos al quedar eliminada la de *Abastos y Asuntos Indeterminados*.

37 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

38 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 24 de enero de 1953”, AMA, Libro de actas 1953, sig. 4272-04, cód. 12.

**1955EKO OTSAILAREN 6AN OSATUTAKO UDAL BATZORDEAK** / **COMISIONES MUNICIPALES FORMADAS EL 6 DE FEBRERO DE 1955**

| BATZORDEA / Comisión | ZINEGOTZIAK / Concejales |
|---|---|
| Ogasuna / Hacienda | José Aizpuru Eizmendi, Luciano Larrañaga Aranguren, Luis Olaizola Echaniz |
| Sustapena / Fomento | José María Castiella, José María Aguirre, José Aizpuru Eizmendi |
| Gobernazioa / Gobernación | Luis Beguiristain, Luis Olaizola Echaniz, Nicanor Bereciartua |
| Hezkuntza eta Osasuna / Educación y Sanidad | Luciano Larrañaga, Luis Beguiristain, Francisco Landa |
| Nekazaritza, Abeltzaintza, Jaiak eta Kirolak / Agricultura, Ganadería, Festejos y Deportes | José María Castiella, Francisco Landa, Nicanor Bereciartua |

**1958KO OTSAILAREN 2AN OSATUTAKO UDAL BATZORDEAK** / **COMISIONES MUNICIPALES FORMADAS EL 2 DE FEBRERO DE 1958**

| BATZORDEA / Comisión | ZINEGOTZIAK / Concejales |
|---|---|
| Ogasuna / Hacienda | Luciano Larrañaga, Luis Olaizola , Juan Azpeitia |
| Obrak / Obras | José Aizpuru, Juan Azpeitia, Miguel Odriozola , Luis Olaizola |
| Gobernazioa / Gobernación | Luciano Larrañaga, Francisco Landa , Miguel Odriozola |
| Hezkuntza / Educación | José Aizpuru, Silvestre Otamendi , Saturnino Elías |
| Jaiak / Festejos | Nicanor Bereciartua, Silvestre Otamendi , Francisco Landa |
| Benefizentzia / Beneficencia | Nicanor Bereciartua, Francisco Landa , Saturnino Elías |

udal hauteskundeetara aurkeztu zen Alderdi Tradizionalista ordezkatuz, nahiz eta ez zuen ordezkaritzarik lortu, eta gobernadore zibilak izendatutako batzordeko kide izan zen urtebete geroago.[39]

1957ko urriaren 22an, Estatuko Aldizkari Ofizialak Gobernazio Ministerioaren dekretu bat argitaratu zuen, hamarkada hartako azken udal hateskundeak deituz. Ondorioz, 1957ko azaroaren 1ean udalbatzak aho-batez erabaki zuen deklaratzea 1951 amaierako hauteskundeetan izendatutako zinegotzien plazak hutsik zeudela, bai eta 1955ean José Ramón Segues Arcelusek hartu behar zuena ere. Hala, Luis Beguiristain Echeverria (familien tertzioa), José María Aguirre Larrabeiti (tertzio sindikala) eta José María Castiella Otaegui (erakundeen tertzioa) izendatu zituzten zinegotzi. [40] Korporazio berria 1958ko otsailaren 2an sartu zen indarrean. Hautetsien artean baziren San Ignazio tertzioan altxamenduaren alde borrokan ibilitako bi soldadu ohi (Juan Azpeitia Iraola eta Saturnino Elías Unanue), eta Silvestre Otamendi Arocena ere bai, 1939an udal epaile zena eta gerora, 1972 eta 1977 artean alkate izango zena. Udal batzordeak ere aldatu egin ziren 1955eko osaerarekin alderatuta; berriz ere sei

39 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

40 Udal aktak, “1957ko azaroaren 1eko ohiko batzarra”, AUA, 1956-1958ko aktaliburua, 4273-02 sig., 12. kod.

A diferencia de la corporación formada en 1952, los nuevos representantes no constan como excombatientes sublevados ni como personas que hubieran ocupado cargos de relevancia con anterioridad, si bien, la mayor parte de ellos estaban ligados al tradicionalismo. Por ejemplo, el hermano de Francisco Landa (José) fue incorporado al tercio San Ignacio y falleció en el frente de guerra de Lemoa en junio de 1937, mientras que Martin Bereciartua (hermano de Nicanor Bereciartua) se presentó a las elecciones municipales de 1933 por el Partido Tradicionalista sin conseguir representación, y un año más tarde formó parte de la gestora nombrada por el gobernador civil en 1934.[39]

El 22 de octubre de 1957 el Boletín Oficial del Estado publicó el decreto del Ministerio de Gobernación por el que se celebrarían las últimas elecciones municipales de aquella década. En consecuencia, el 1 de noviembre de 1957 el pleno municipal acordó por unanimidad declarar vacantes las plazas de cada uno de los concejales que fueron designados en las elecciones de finales de 1951, así como la que debió ocupar José Ramón Segues Arcelus en 1955. Esto es, a Luis Beguiristain Echeverria por el tercio familiar, a José María Aguirre Larrabeiti por el tercio sindical, y a José María Castiella Otaegui en representación del tercio de entidades.[40] La formación de la nueva corporación se hizo efectiva el 2 de febrero de 1958, y entre los elegidos figuraban dos antiguos combatientes sublevados del tercio de

39 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

40 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 1 de noviembre de 1957”, AMA, Libro de actas 1956-1958, sig. 4272-01, cód. 12.



Azpeitia, atzean Loiolako santutegia duela.

Azpeitia y el santuario de Loiola al fondo.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elías funtsa

**1945 ETA 1959 ARTEAN AZPEITIKO UDAL KORPORAZIOKO KIDE IZANDAKO SOLDADU OHI FRANKISTAK**

**EXCOMBATIENTES FRANQUISTAS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN MUNICIPAL DE AZPEITIA ENTRE 1945 Y 1959**

| IZENA / Nombre | URTEAK / Período |
|---|---|
| Manuel Mozo Juaristi | 1945-1952 |
| José Viquendi Zabaleta | 1945-1949 |
| Luis Ramos Ugalde | 1945-1949 |
| Filemón Guereta Langarica | 1949-1952 |
| Ignacio María Arteche Elejalde | 1952-1955 |
| José María Aguirre Larrabeiti | 1952-1958 |

| IZENA / Nombre | URTEAK / Período |
|---|---|
| Francisco Uranga Aizpuru | 1952-1955 |
| Luciano Larrañaga Aranguren | 1952-1961 |
| José María Castiella Otaegui | 1952-1958 |
| Juan Azpeitia Iraola | 1958-1962 |
| Saturnino Elías Unanue | 1958-1961 |

batzordetan antolatu ziren lanak eta *Benefizentzia* Batzordea sortu zen.[41]

Kontuak hala, Azpeitian 1945 eta 1959 artean izandako 33 udal ordezkarietatik hamaika altxamenduaren alde borrokatu ziren 36ko gerran eta beste hamaika udal korporazioko kide izan ziren frankismoaren lehen garaietan (haietako bat ere gudaria izana zen). Azkenik, ordezkarietako lauk udaletxean jarraitu zuten 1960ko hamarkadaren hasieran ere (Dionisio Alcorta Echeverria, José Viquendi Zabaleta, Juan Azpeitia Iraola eta Miguel Odriozola Iruñeta).

San Ignacio (Juan Azpeitia Iraola y Saturnino Elías Unanue), así como el que fuera juez municipal en 1939 y posteriormente alcalde entre 1972 y 1977, Silvestre Otamendi Arocena. Asimismo, se modificaron las comisiones municipales con respecto a las configuradas en 1955, volviendo a ser seis, mediante la creación de la Comisión de *Beneficiencia*.[41]

Con todo, de los 33 representantes municipales de la dictadura en Azpeitia entre 1945 y 1959, once combatieron en la guerra del 36 en el bando sublevado, y otros once (uno de ellos también excombatiente) habían formado parte de la corporación local durante el Primer Franquismo. Por último, cuatro de ellos (Dionisio Alcorta Echeverria, José Viquendi Zabaleta, Juan Azpeitia Iraola y Miguel Odriozola Iruñeta) continuaron en el ayuntamiento a comienzos de la década de 1960.

41 Udal aktak, "1958ko otsailaren 2ko ohiko batzarra", AUA, 1956-1958ko akta-liburua, 4272-01 sig., 12. kod.

41 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 2 de febrero de 1958", AMA, Libro de actas 1956-1958, sig. 4272-01, cód. 12.

## UDAL KORPORAZIOA 1945EKO URTARRILAK 1 ETA 1949KO OTSAILAK 6 ARTEAN

- **Alkatea:** Dionisio Alcorta Echeverria (1945eko urriaren 29ra arte)
  Ignacio Egaña Otaegui (1945eko urriaren 29tik aurrera)
- **1. alkateordea:** Dionisio Alcorta Echeverria
- **2. alkateordea:** Manuel Mozo Juaristi
- **Errejidore sindikoa:** Nicolás Ucin Segurola
- **Zinegotziak:**
  Valentín Larrañaga Arrizabalaga
  Joaquín Altuna Larrañaga
  José Elizburu Ugarte
  José Viquendi Zabaleta (1947ko irailaren 3an dimititu zuen)
  Marcelino Agirrezabalaga Amenabar
  Luis Ramos Ugalde
  Nicolás Arzuaga Arzallus
- **Idazkaria:** Fructuoso Elorza Aizpuru

## 1949KO OTSAILAREN 9AN ERATUTAKO UDAL KORPORAZIOA

- **Alkatea:** Ignacio Egaña Otaegui
- **Familien ordezkaritzako zinegotziak:**
  Dionisio Alcorta Echeverria (1. alkateordea)
  Ángel Echaniz Cendoya
  Juan José Iriarte Odriozola
- **Sindikatuen ordezkaritzako zinegotziak:**
  Filemón Guereta Langarica (2. alkateordea)
  Manuel Mozo Juaristi
  Pedro Arcelus Epelde
- **Ordezkaritza korporatiboko zinegotziak:**
  Venancio Mendia Jauregui (3. alkateordea)
  Valentín Larrañaga Arrizabalaga
  Juan Aguirre Olascoaga
- **Idazkaria:** Fructuoso Elorza Aizpuru (1947ko uztailera arte)
  Luis Marqués Carbó (1947ko uztailetik aurrera)

## 1952KO OTSAILAREN 3AN ERATUTAKO UDAL KORPORAZIOA

- **Alkatea**: Ignacio Echeverria Altamira
- **Familien ordezkaritzako zinegotziak:**
  Luis Beguiristain Echeverria (1. alkateordea)
  Ignacio María Arteche Elejalde
  Dionisio Alcorta Echeverria

## CORPORACIÓN MUNICIPAL ENTRE EL 1 DE ENERO DE 1945 Y EL 6 DE FEBRERO DE 1949

- **Alcalde:** Dionisio Alcorta Echeverria (hasta el 29 de octubre de 1945)
  Ignacio Egaña Otaegui (a partir del 29 de octubre de 1945)
- **1º teniente-alcalde**: Dionisio Alcorta Echeverria
- **2º teniente-alcalde:** Manuel Mozo Juaristi
- **Regidor síndico:** Nicolás Ucin Segurola
- **Concejales:**
  Valentín Larrañaga Arrizabalaga
  Joaquín Altuna Larrañaga
  José Elizburu Ugarte
  José Viquendi Zabaleta (dimitió el 3 de septiembre de 1947)
  Marcelino Aguirrezabalaga Amenabar
  Luis Ramos Ugalde
  Nicolás Arzuaga Arzallus
- **Secretario:** Fructuoso Elorza Aizpuru

## CORPORACIÓN MUNICIPAL CONSTITUIDA EL 9 DE FEBRERO DE 1949

- **Alcalde:** Ignacio Egaña Otaegui
- **Concejales de representación familiar:**
  Dionisio Alcorta Echeverria (1º teniente-alcalde)
  Ángel Echaniz Cendoya
  Juan José Iriarte Odriozola
- **Concejales de representación sindical:**
  Filemón Guereta Langarica (2º teniente-alcalde)
  Manuel Mozo Juaristi
  Pedro Arcelus Epelde
- **Concejales de representación corporativa:**
  Venancio Mendia Jauregui (3º teniente-alcalde)
  Valentín Larrañaga Arrizabalaga
  Juan Aguirre Olascoaga
- **Secretario:** Fructuoso Elorza Aizpuru (hasta julio de 1947)
  Luis Marqués Carbó (a partir julio de 1947)

## CORPORACIÓN MUNICIPAL CONSTITUIDA EL 3 DE FEBRERO DE 1952

- **Alcalde:** Ignacio Echeverria Altamira
- **Concejales de representación familiar:**
  Luis Beguiristain Echeverria (1º teniente-alcalde)
  Ignacio María Arteche Elejalde
  Dionisio Alcorta Echeverria

- **Sindikatuen ordezkaritzako zinegotziak:**
  José María Aguirre Larrabeiti (3. alkateordea)
  Francisco Uranga Aizpuru
  Luciano Larrañaga Aranguren
- **Ordezkaritza korporatiboko zinegotziak:**
  José María Castiella Otaegui (2. alkateordea)
  Venancio Mendia Jauregui
  Juan Aguirre Olascoaga
- **Idazkaria:** Luis Marqués Carbó (1947ko uztailetik aurrera)

## 1955EKO OTSAILAREN 6AN ERATUTAKO UDAL KORPORAZIOA

- **Alkatea:** Ignacio Echeverria Altamira
- **Familien ordezkaritzako zinegotziak:**
  Luis Beguiristain Echeverria
  Francisco Landa Arzuaga
- **Sindikatuen ordezkaritzako zinegotziak:**
  Luciano Larrañaga Aranguren (3. alkateordea)
  Luis Olaizola Echaniz
  José María Aguirre Larrabeiti
- **Ordezkaritza korporatiboko zinegotziak:**
  José María Castiella Otaegui (1. alkateordea)
  José Aizpuru Eizmendi (2. alkateordea)
  Nicanor Bereciartua Arcelus
- **Idazkaria:** Luis Marqués Carbó (1955eko abenduaren 9ra arte)
  Pedro Aguirre Echeverria (behin-behineko idazkaria 1955eko abenduaren 9tik 1956ko urriaren 2ra)
  Emilio González Rodríguez (1956ko urriaren 2tik aurrera)

## 1958KO OTSAILAREN 2AN ERATUTAKO UDAL KORPORAZIOA

- **Alkatea:** Ignacio Echeverria Altamira
- **Familien ordezkaritzako zinegotziak:**
  Francisco Landa Arzuaga
  Juan Azpeitia Iraola
  Saturnino Elías Unanue
- **Sindikatuen ordezkaritzako zinegotziak:**
  Luciano Larrañaga Aranguren (2. alkateordea)
  Luis Olaizola Echaniz
  Miguel Odriozola Iruñeta
- **Ordezkaritza korporatiboko zinegotziak:**
  Nicanor Bereciartua Arcelus (3. alkateordea)
  José Aizpuru Eizmendi (1. alkateordea)
  Silvestre Otamendi Arocena

- **Concejales de representación sindical:**
  José María Aguirre Larrabeiti (3º teniente-alcalde)
  Francisco Uranga Aizpuru
  Luciano Larrañaga Aranguren
- **Concejales de representación corporativa:**
  José María Castiella Otaegui (2º teniente-alcalde)
  Venancio Mendia Jauregui
  Juan Aguirre Olascoaga
- **Secretario:** Luis Marqués Carbó (desde julio de 1947)

## CORPORACIÓN MUNICIPAL CONSTITUIDA EL 6 DE FEBRERO DE 1955

- **Alcalde:** Ignacio Echeverria Altamira
- **Concejales de representación familiar:**
  Luis Beguiristain Echeverria
  Francisco Landa Arzuaga
- **Concejales de representación sindical:**
  Luciano Larrañaga Aranguren (3º teniente-alcalde)
  Luis Olaizola Echaniz
  José María Aguirre Larrabeiti
- **Concejales de representación corporativa:**
  José María Castiella Otaegui (1º teniente-alcalde)
  José Aizpuru Eizmendi (2º teniente-alcalde)
  Nicanor Bereciartua Arcelus
- **Secretario:** Luis Marqués Carbó (hasta el 9 de diciembre de 1955)
  Pedro Aguirre Echeverria (secretario accidental entre el 9 de diciembre de 1955 y el 2 de octubre de 1956)
  Emilio González Rodríguez (desde el 2 de octubre de 1956)

## CORPORACIÓN MUNICIPAL CONSTITUIDA EL 2 DE FEBRERO DE 1958

- **Alcalde:** Ignacio Echeverria Altamira
- **Concejales de representación familiar:**
  Francisco Landa Arzuaga
  Juan Azpeitia Iraola
  Saturnino Elías Unanue
- **Concejales de representación sindical:**
  Luciano Larrañaga Aranguren (2º teniente-alcalde)
  Luis Olaizola Echaniz
  Miguel Odriozola Iruñeta
- **Concejales de representación corporativa:**
  Nicanor Bereciartua Arcelus (3º teniente-alcalde)
  José Aizpuru Eizmendi (1º teniente-alcalde)
  Silvestre Otamendi Arocena





Julian eta Casto Orbegozo Embil.

Fotos Julian y Casto Orbegozo Embil.

© Julian y Casto Orbegozo Embil (Uztarria)

Udal korporazioaz gain, Azpeitiko organigrama instituzionalean baziren udal funtzionarioen talde bat, Lehen Auzialdiko Epaitegia eta Falangearen Tokiko Buruzagitza –bere sekzio desberdinen bitartez–. Organigramaren babesle ziren Eliza –koakzio sinbolikoaren eta ideologikoaren bitartez– eta Guardia Zibila –herriko kuartelaren bitartez eta zapalkuntza zuzenaren paradigma gisa–.

Udal funtzionarioei dagokienez, ugaritzen joan ziren herria hazi ahala, bai biztanletan eta bai ekipamendutan. 1945eko urtarrilaren 1ean udal korporazioak agiri batean jaso zuen zeintzuk ziren plantillako hamabi udal langileen hileroko soldatak: 124 eta 536,70 pezeta bitarteko kopuruak ziren.[42] 1945eko hamabi langileetatik lau altxamenduaren alde borrokatutako soldadu ohiak ziren (haietako bi gauzainak eta beste bi udal kale-garbitzaileak), lau tradizionalisten aldekoak (horregatik mantendu ahal izan zuten beren lanpostua faxismoa gailendu ostean ere) eta beste bi 1943an kargugabetutako gauzainak.[43] Funtzionario haien artean, posturik garrantzitsuenetako bat Victor Echeverria Aldalurrek zeukan errepublika garaitik; zerga ikuskari-kobratzailea eta alondegiko administratzailea zen 1931tik. Tradizionalismotik hurbil zebilenez, bere kargua mantendu ahal izan zuen altxamenduko tropak Azpeitian sartu ostean ere. Era berean, Pedro Segurola Kerejetak (tradizionalen aldekoa hura ere) udal zaindari edo gauzainen arduradun nagusi izaten jarraitu zuen, hau da, udaltzainaren buru izan zen 1935etik 1960ra.[44] 1938an, Avelino Morali (Zirkulu Errepublikarreko kidea eta Ezker Errepublikarreko presidentea 1934an) 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion gerra-kontseiluko lekuko garrantzitsuenetako bat izan zen, Casto Orbegozo eta Galo Barrenarekin batera.[45] Biak hala biak Azpeitiko pertsonaia frankistarik ezagunenetakoak izan ziren. Lehena, *Sociedad Eléctrica Orbegozo y Cía* enpresako kudeatzailea anaia Julianekin batera; bigarrena, Urolako Trenbide Konpainiako ustiapen burua eta herriko su-hiltzaileen zuzendaria. Azkenik, aipatzekoa da Cirilo Astigarraga Amenabar (*El carnicerito de Azpeitia*), altxamenduko soldadu ohi

42 AUA, 1377.10.01 sig.

43 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

44 ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia historian zehar.*

45 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

Además de la corporación municipal, el organigrama institucional de Azpeitia durante este período se completaba con el equipo de funcionarios municipales, el Juzgado de Primera Instancia, y la Jefatura Local de Falange a través de sus diferentes secciones. Como agentes protectores de este organigrama quedaron la iglesia, mediante el ejercicio de la coacción simbólica e ideológica, y la Guardia Civil como paradigma de la represión directa a través del cuartel instalado en la localidad.

Con respecto a los funcionarios municipales, el número de estos fue aumentando en la medida en la que el municipio fue creciendo, tanto en habitantes como en equipamientos. El 1 de enero de 1945 la corporación municipal detallaba en un documento los salarios mensuales de los doce empleados municipales en plantilla, los cuales oscilaban entre las 124 y las 536,70 pesetas.[42] De los doce trabajadores de 1945 cuatro eran excombatientes sublevados (dos de ellos ocupaban el puesto de vigilante o sereno y los otros dos eran barrenderos municipales), cuatro simpatizantes tradicionalista (condición por la que pudieron mantener su empleo tras la victoria del fascismo), y dos serenos restituidos en su puesto en 1943.[43] Víctor Echeverria Aldalur ocupaba uno de los puestos de mayor relevancia entre estos funcionarios desde el período republicano, el de inspector-cobrador de impuestos y administrador de la alhóndiga desde 1931. Su proximidad al tradicionalismo le permitió mantenerse en su cargo tras la entrada de las tropas sublevadas en Azpeitia. Del mismo modo, Pedro Segurola Querejeta (también simpatizante tradicionalista) mantuvo el cargo como máximo responsable de los vigilantes municipales o serenos, esto es, de la Guardia Municipal; cargo que ocupó entre 1935 y 1960.[44] Junto a Casto Orbegozo y Galo Barrena fue uno de los testigos principales en el consejo de guerra por el que Avelino Moral (miembro del Circulo Republicano y presidente de Izquierda Republicana en 1934) fue condenado en 1938 a 30 años de cárcel.[45] Casto Orbegozo y Galo Barrena fueron de los personajes franquistas más destacados en Azpeitia. El primero gerente de la *Sociedad Eléctrica Orbegozo y Cía* junto a su hermano Julián, y el segundo jefe de explotación de la Compañía del Ferrocarril del Urola, además de jefe-director del cuerpo de bomberos de la localidad. Por último, cabe destacar al excombatiente sublevado y torero Cirilo Astigarraga Amenabar

42 AMA, sig. 1377.10.01

43 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

44 ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia historian zehar.*

45 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

**UDALTZAINAK 1945 ETA 1959 ARTEAN / GUARDIAS MUNICIPALES ENTRE 1945 Y 1959**

| IZENA / Nombre | OHARRAK / Observaciones |
|---|---|
| Pedro Segurola Querejeta | Tradizionalisten aldekoa. Udaltzainaren burua 1938tik aurrera.<br>Simpatizante tradicionalista. Jefe de la Guardia Municipal desde 1938. |
| Jesús Beldarrain Ugalde | San Ignazio tertzioko soldadu ohia.<br>Excombatiente del tercio de San Ignacio. |
| Bernardo Goenaga | Tradizionalisten aldekoa. Azpeitiko espetxeko zaintzaren arduraduna 1939ko abuztura arte.<br>Simpatizante tradicionalista. Responsable de vigilancia de la prisión de Azpeitia hasta agosto de 1939. |
| Ignacio Eguiguren | San Ignazio tertzioko soldadu ohia.<br>Excombatiente del tercio de San Ignacio. |
| José María Sarasua Iturralde | 1943an kargugabetua<br>Restituido en 1943. |
| José Luis Iriarte Artola | 1943an kargugabetua<br>Restituido en 1943. |
| Vicente Echeverria | Tradizionalisten aldekoa. Funtzionario aktiboa tropa nazionalak herrian sartu ondorenean.<br>Simpatizante tradicionalista. Funcionario en activo tras la entrada de las tropas sublevadas en el municipio. |
| José Manuel Lasa Lasa | Tradizionalisten aldekoa. Funtzionario aktiboa tropa nazionalak herrian sartu ondorenean.<br>Simpatizante tradicionalista. Funcionario en activo tras la entrada de las tropas sublevadas en el municipio. |
| Felipe Campo Guereñu | Guardia zibil ohia eta soldadu ohi frankista. Udaltzaina 1948tik aurrera. Herriko ur zerbitzuen udal ikuskaria 1959tik aurrera.<br>Ex guardia civil y excombatiente franquista. Guardia municipal desde 1948. Inspector municipal del servicio de aguas de la localidad a partir de 1959. |
| Jesús Garate Azpiazu | Udaltzaina 1957ko martxoaren 28tik aurrera.<br>Guardia municipal desde el 28 de marzo de 1957. |
| José Azurmendi Berasategui | Udaltzaina 1957ko martxoaren 28tik aurrera.<br>Guardia municipal desde el 28 de marzo de 1957. |
| Juan María Ascaso Echenique | Udaltzaina 1957ko martxoaren 28tik aurrera (bitarteko langilea 1952tik aurrera).<br>Guardia municipal desde el 28 de marzo de 1957 (en interinidad desde 1952). |
| Ramón Velasco Méndez | Udaltzaina 1958ko martxoaren 7tik aurrera.<br>Guardia municipal desde el 7 de marzo de 1958. |

eta toreroa, 1. mailako hiltzaile izan zela Azpeitiko udal hiltegian bera hil arte eta, ondoren, Antonio Astigarraga Urainek ordezkatu zuela 1965ean.[46]

1952 amaiera aldera hemeretzi funtzionario zeuden udalean, 800 eta 17.304 pezeta arteko soldatekin.[47] Urte haietan, langileek behin baino gehiagotan eskatu zituzten soldata igoerak, bizimodua ere garestitzen ari zelako. Ia urtero egiten zuten eskaera, izan sektoreka edo bakarka, eta guztiak gelditu ziren aktetan jasota. Udal korporazioak metatutako bosturteko bakoitzeko soldata igoerak errespetatu zituen, 1936 eta 1943 bitartean kargugabetutako langileentzat izan ezik. José

46 AUA, udal aktak.

47 Udal aktak, “1952ko azaroaren 12ko ohiko batzarra”, AUA, 1949-1952ko akta-liburua, 4273-02 sig., 12. kod.

(“el carnicerito de Azpeitia”), colocado como matarife de 1ª categoría del matadero municipal de Azpeitia hasta su fallecimiento, siendo sustituido por Antonio Astigarraga Urain en 1965.[46]

A finales de 1952 el número de funcionarios municipales ascendía a diecinueve, y los sueldos iban desde las 800 a las 17.304 pesetas.[47] Durante estos años una solicitud recurrente por parte de estos trabajadores fue el aumento de los salarios en virtud de la carestía de la vida. Así, prácticamente anualmente, los trabajadores, tanto de forma sectorial como individualizada, solicitaron dichos aumentos, los cuales quedaron recogidos en

46 AMA, Actas Municipales.

47 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 12 de noviembre de 1952”, AMA, Libro de actas 1949-1952, sig. 4273-02, cód. 12.







Cirilo Astigarragaren eta José Viquendiren errekrutatze fitxa.

Cirilo Astigarraga. Ficha de reclutamiento.

© Fundación Popular de Estudios Vascos (FPEV)

María Sarasua Iturralde, 1936ko azaroaren 2an kargugabetutako gauzaina, 1943an hasi zen berriz lanean eta 1945eko abenduaren 3an eskatu zuen kontuan har zitzatela probintziako agintari frankistek hala aginduta lanpostutik kanpo pasa zituen bosturtekoak ere. Udalbatzak bosturteko haietako bat ordaintzea erabaki zuen (420 pezeta). José Viquendi zinegotzia erabakiaren aurka agertu zen; badirudi, kargua berreskuratu zuenean baldintzatzat ezarri zela atzeraeraginezko zorrik ez onartzea. 1946ko otsailaren 4an, gauza bera gertatu zen José Luis Iriarte Artolarekin, bera ere 1936 eta 1943 artean kargutik botatako gauzaina izaki. Korporazioak bosturteko bat ordaintzea erabaki zuenean, José Viquendik bere desadostasuna adierazi zuen berriz.[48]

Era berean, lehen atalean aipatu bezala, denek frogatu behar izan zuten leialak zirela erregimenarekiko, horretarako atxikimendu ziurtagiria aurkeztuz. Udal funtzionario kargu bat eskuratzeko, ia ezinbesteko baldintza zen soldadu ohia edo gerrako elbarri frankisten kolektiboetako kidea izatea; halakoek lehentasuna izaten zuten udalaren menpeko lanpostuak eskuratzeko, nahiz eta beste batzuk hobeto prestatuta egon hutsik zegoen plazako zereginetarako. Horretarako, 1939an onartutako bi lege hartzen zituzten oinarritzat: funtzionarioen kidegoa arazteko legea eta enplegu publikoaren legea hain zuzen. Bietan lehena baliatuz, funtzionarioen kidegotik kanpo utzi zituzten erregimenarekiko atxikimendurik adierazten ez zuten guztiak; bigarrenarekin berriz, leialenentzat gordetzen ziren lehiaketara ateratzen

actas. A excepción de los trabajadores que habían sido destituidos en 1936 y restituidos en 1943, la corporación municipal respetó la subida salarial en función de los quinquenios acumulados. El 3 de diciembre de 1945 José María Sarasua Iturralde, sereno municipal destituido el 2 de noviembre de 1936 y readmitido en 1943, solicitó que se le reconocieran los quinquenios de los años que había estado destituido por mandato de las autoridades franquistas provinciales. El pleno acordó abonarle el importe de un quinquenio (420 pesetas). A esta decisión se opuso el concejal José Viquendi, aludiendo a que cuando se le repuso en el cargo se hizo con la salvedad de no reconocerle ningún haber con carácter retroactivo. El 4 de febrero de 1946 este mismo hecho se volvió a repetir con el también sereno depurado de su puesto de trabajo entre 1936 y 1943 José Luis Iriarte Artola. De nuevo José Viquendi se opuso al acuerdo del resto de la corporación de abonarle un quinquenio.[48]

Asimismo, tal y como hemos señalado en el primer apartado, todos debieron demostrar su fidelidad al régimen mediante el respectivo certificado de adhesión. Una norma general para la obtención de un puesto de funcionario municipal fue la pertenencia a colectivos tales como el de excombatientes o mutilados de guerra franquistas, circunstancia que daba cierta prioridad a sus integrantes en cuanto a la obtención de un puesto de trabajo municipal, por encima de otros requisitos que pudieran tener mayor relación con la plaza disponible. Este proceder se fundamentaba en dos leyes aprobadas en 1939, la de depuración del funcionariado y la de empleo público. Mientras que con la primera se pretendió dejar fuera a todo aquel que no mostrara su afección a la

48 Udal aktak, “1945eko abenduaren 3ko ohiko batzarra”, AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod. // udal aktak, “1946ko otsailaren 4ko ohiko batzarra”, AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

48 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 3 de diciembre de 1945”, AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12. // Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 4 de febrero de 1946”, AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

ziren plazen % 80: elbarriak, soldadu ohiak, errepublikaren zapalkuntzak eragindako umezurtzak, e.a. Hala, lana ere "garaipenaren harrapakinetako funtsezko elementuetako bat bihurtu zen, altxamendua gailentzeko ahaleginean parte hartu zuten guztientzako ordaina"[49].

Bestalde, Azpeitiko Epaitegia (1945ean eskualdeko epaitegi izendatua) eta kartzela espazio bakar bat ziren, bi gunetan bereizita –XIX. mendearen amaieran hiru solairuko etxe bat jaso zen epaitegitzat erabiltzen zen eraikinaren atzealdean–. Kartzelak hemezortzi ziega zeuzkan gutxienez, sei solairu bakoitzean. Altxamendua gailendu ostean, Azpeitiko Epaitegiko ofizioak akusazioaren froga gisa erabili ziren azpeitiarrak zein eskualdeko beste herri batzuetako biztanleak prozesatu zituzten gerra-kontseilulu gehienetan. Era berean, bertako funtzionarioen lana izan zen 1940ko hamarkadan zehar Erantzukizun Politikoen Epaitegiak inposatutako zigor ekonomikoei aurre egiteko eskakizun zedulak bidaltzea. Horrez gain, funtzionario haiek ikuskatzen zituzten zigortuei enbargatu zekizkiekeen ondasun guztiak.[50]

1943an Zaintzapeko Askatasun Zerbitzua sortu ostean, lehen auzialdiko epailearen eta epaitegiko idazkariaren esku gelditu zen preso politiko ohiak kontrolatzeko ardura, eta ordainsaria jasotzen zuten lan horregatik. Azken finean, Azpeitiko Epaitegia eta kartzela pieza bat gehiago ziren engranaje instituzional frankistan eta, ondorioz, erregimenaren jardun zapaltzailean. Halere, epaitegi hark zapalkuntza arloan zeuzkan funtzioak murriztu egin ziren erregimena errotu ahala; kartzela behin betiko itxi zen 60ko hamarkadaren hasieran, eta epaitegiak udaletxera eraman zituzten.

Falangearen Tokiko Buruzagitza eta haren delegaziok (Tokiko Buruzagitza Sindikala, Sorospen Soziala, Informazioa eta Ikerketa, Gaztedien Frentea eta Prentsa eta Propaganda) funtsezko bilakatu ziren udal arloan erregimenaren sostengurako, bai sinbolikoki, bai ideologikoki eta baita zapalkuntzari zegokionez ere. 40ko hamarkadatik aurrera, herriko alkatea izaten zen Falangearen tokiko buruzagia; hala, Azpeitian Ignacio Egaña Otaegui izan zen erakunde hartako figura nagusia 1952 hasierara arte, eta gero Ignacio Echeverria Altamirak ordezkatu zuen, nola alkatetzan hala Falangean, 1961 arte (urte hartan Juan Astigarraga Viquendik ordezkatu zuen). Hala, alderdi bakarraren ideologia zuzenean txertatzen zen udalaren kudeaketan, eta erakunde bietako arduradun nagusia pertsona berbera zenez, ohikoa zen bi erakundeek elkar babestea hainbat arlotan (lan arloa, hirigintza, enpresak…), interes komunak baitzituzten.

49 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista".

50 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

dictadura, con la segunda se reservaba el 80% de las plazas que saliesen a concurso a los más fieles: mutilados, excombatientes, huérfanos de la represión republicana, etc. De este modo, el trabajo se convertía "en una parte fundamental del botín de la victoria, en la recompensa para todos aquellos que habían colaborado en el triunfo de la sublevación"[49].

Por su parte, el juzgado (designado como juzgado comarcal en 1945) y cárcel de Azpeitia constituían un único espacio desde que a finales del siglo XIX se construyera un edifico de tres plantas con un mínimo de dieciocho celdas (seis en cada planta) en la parte trasera del edificio, separadas de los espacios dedicados al juzgado. Tras el triunfo de los sublevados, los escritos del juzgado de Azpeitia para los diferentes consejos de guerra en los que fueron procesados tanto azpeitiarras como vecinos de las localidades de la comarca, sirvieron en la mayor parte de los casos como prueba acusatoria. Asimismo, sus funcionarios fueron también responsables de emitir las cédulas de requerimiento relativas a las sanciones económicas impuestas por el Tribunal de Responsabilidades Políticas durante la década de 1940. Además, eran los que procedían a examinar los bienes que pudieran tener los penados para ser embargados.[50]

Tras la creación del Servicio de Libertad Vigilada en 1943, el juez de primera instancia y el secretario del juzgado fueron a nivel local los máximos responsables de controlar a los expresidiarios políticos, labor por la que fueron remunerados. En definitiva, el juzgado y cárcel de Azpeitia formó parte del engranaje institucional franquista, y por ende de su actividad represora. Sin embargo, las funciones de este juzgado en esta materia fueron disminuyendo a medida que el régimen se fue consolidando, mientras que la prisión acabará siendo clausurada de manera definitiva a comienzos de los años 60 y los juzgados trasladados al edificio del ayuntamiento.

Con respecto a la Jefatura Local de Falange y sus delegaciones (la Jefatura Local Sindical, Auxilio Social, Información e Investigación, Frente de Juventudes, y Prensa y Propaganda), su papel en el sostenimiento del régimen, tanto en su aspecto simbólico-ideológico como represivo, resultaba esencial en el ámbito municipal. A partir de los años 40 la Jefatura Local de Falange fue ocupada normalmente por el alcalde, por lo que la figura principal de esta institución en Azpeitia fue hasta comienzos de 1952 Ignacio Egaña Otaegui, siendo sustituido tanto en la alcaldía como en Falange por Ignacio Echeverria Altamira, el cual ostentó ambos cargos hasta 1961 (año en el que fue suplantado por Juan Astigarraga Viquendi). De esta forma, la ideología del partido único penetraba directamente en la gestión municipal, y al acaparar una misma persona el cargo de máxima responsabilidad en ambas instituciones, se normalizó el clientelismo en ámbitos como el

49 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista".

50 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

### AZPEITIKO EPAITEGIKO FUNTZIONARIOAK 1940 ETA 1959 ARTEAN (DOKUMENTATUAK)
### FUNCIONARIOS DEL JUZGADO DE AZPEITIA DOCUMENTADOS ENTRE 1940 Y 1959

| KARGUA / Cargo | IZENA / Nombre |
|---|---|
| 1. auzialdiko epailea<br>Juez de 1ª instancia | Silvestre Otamendi Arocena<br>Luis Beguiristain Echeverria<br>Adalberto Miguel de Blas Fernández<br>José Álvarez Arredondo<br>Ramón Ciprián de la Riva<br>Jesús Gregorio Ciria<br>Joaquín Pagés García |
| Fiskala / Fiscal | Rafael González Pérez del Camino |
| Idazkariak<br>Secretarios | Pedro Olaizola Segurola<br>Julio Manuel Ortiz y de Novales<br>Juan Azcune Echeverria<br>José González Velasco |
| Mediku forentsea / Médico forense | Luis Baixas Castelví |

1936ko irailaz geroztik, Falangea Enparan kaleko 1. zenbakidun eraikinean zegoen, udalaren jabetzako etxe batean. 1951ko abenduaren 6an, Juan Bereciartua udal ikuskariak osoko bilkuran adierazi zuen Falangeak 4.200 pezetako zorra zuela udalarekin, 1947 eta 1950 urteetako alokairuagatik (errenta 262,50 pezetakoa zen) eta, horrez gain, 1951 urteari zegokion 1.050 pezetako alokairua ere ordaintzeko zeukala. Ikuskariak osoko bilkura hartan azaldu zuen erreklamazioak egiteko bilerak egin zituztela Falangeko buruarekin, zeina aretoan bertan baitzegoen, Azpeitiko alkate gisa. Paradoxa haren ondorioz, gaia konpondutzat eman zen Ignacio Egañak esan zuenean zor guztiak ordainduko zirela Falangeko Tokiko Buruzagitzak “horretarako dirua lortzen zuenean”[51].

Inon ez da ageri azkenean ordainketa egin zen ala ez. Gainera, kontuan izan behar da Falangearen gazteen sekzioak (Gaztedien Frentea) udal aurrekontuaren % 1 jasotzen zuela urtero. Horrek esan nahi du 1952. urterako 5.500 pezeta jaso zituztela udalarengandik; gero, diru hori herrian bertan inbertitu behar izaten zuten, askotariko jarduerak ordaintzeko: “kanpaldiak, ibilaldiak, literatur eta kultur lehiaketak, Ikastetxe Txikietan sartzeko lehentasunezko bekak, kirol txapelketak…”. Gainera, posible zen udalak berak diru gehiago jartzea halako jarduerak zuzenean laguntzeko[52]. Kontuak kontu, zor hura ez zen ordaindu, gutxienez, 1955era arte. Urte hartan, hainbat zinegotzik berriz gogora ekarri zuten Alderdi Bakarra zorretan zegoela udalarekin lagatako eraikinen alokairuagatik, izan ere Gaztedien Frenteak (bistan da, erakun-

51 Udal aktak, “1951ko abenduaren 6ko ohiko batzarra”, AUA, 1949-1952ko akta-liburua, 4273-02 sig., 12. kod.

52 AUA, 1366.03.03 sig.

laboral, el urbanístico, el empresarial, etc., en una clara confluencia de intereses.

Falange ocupaba desde septiembre de 1936 el edificio número 1 de la calle Enparan, un edificio de propiedad municipal. El 6 de diciembre de 1951 el interventor municipal (Juan Bereciartua) expuso en la sesión plenaria ordinaria la deuda de 4.200 pesetas (el alquiler fijado era de 262,50 pesetas) contraída por Falange en relación al alquiler de este inmueble entre los años 1947 y 1950, a lo que había que sumar las 1.050 pesetas correspondientes al alquiler de ese mismo año de 1951. El interventor, por tanto, exponía en dicha sesión plenaria los contactos y reclamaciones a este respecto con el jefe de Falange, el cual se encontraba en la sala como alcalde de Azpeitia. Esta paradoja y confluencia de intereses hizo que la cuestión se diera por solucionada con la afirmación de Ignacio Egaña de que se ingresaría las cantidades a deber cuando la Jefatura Local de Falange “dispusiera de las cantidades pertinentes”[51].

No consta que dicho pago llegara a realizarse, con el agravante de que solo la sección juvenil de Falange, Frente de Juventudes, percibía anualmente el 1% del presupuesto municipal. Para el año 1952 este cupo suponía 5.500 pesetas, cuyo gasto debía invertirse en la propia localidad para sufragar “los gastos de campamentos, marchas, concursos literarios y culturales, becas de estudio con preferencia en el Colegio Menor, competiciones deportivas (…)”, sin descartar que el ayuntamiento pudiera subvencionar directamente estas actividades[52]. A pesar de todo, la deuda continuó sin saldarse al menos hasta 1955, año en el cual varios concejales volvieron a recordar la citada deuda que acumulaba el *Partido Único* con el ayuntamiento por el alquiler de los inmuebles cedidos,

51 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 6 de diciembre de 1951”, AMA, Libro de actas 1949-1951, sig. 4273-02, cód. 12.

52 AMA, sig. 1366.03.03



Azpeitiko kartzela eta epaitegia.

Cárcel y juzgado de Azpeitia.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

**FALANGEAREN TOKIKO BURUZAGITZA 1936 ETA 1961 ARTEAN / JEFATURA LOCAL DE FALANGE ENTRE 1936 Y 1961**

| IZENA / Nombre | URTEA / Año |
|---|---|
| Ignacio Echeverria Altamira | 1936-1938 |
| Hilario Bereciartua Uranga | 1938-¿? |
| José Viquendi Zabaleta | ¿?-1945 |
| Ignacio Egaña Otegui | 1945-1952 |
| Ignacio Echeverria Altamira | 1952-1961 |

dearen arduradun nagusi eta herriko alkateak) ez zituen laga nahi udalaren jabetzakoak ziren lokal haiek Laneko Institutua behin behinekoz han kokatzeko. [53]

Ondorioz, bitxia da ikustea Gipuzkoako Falangearen Buruzagitza Probintzialak (gobernadore zibila bera zelarik presidente) 10.000 pezeta inbertitu zituela "Udalerrientzako laguntzaren" bitartez 1952an Azpeitiko parrokia konpontzeko, "1953ko lehen hiruhilekoan ere diru kopuru berbera emateko itxaropenarekin"[54].

a tenor de la negativa del Frente de Juventudes (es decir, de su máximo responsable, el alcalde de la localidad) de ceder los locales de propiedad municipal que ocupaban para alojar temporalmente el Instituto Laboral.[53]

Resulta paradójico, por tanto, que la Jefatura Provincial de Falange en Gipuzkoa (presidida por el mismo gobernador civil), a través de la obra "Ayuda a municipios", invirtiera 10.000 pesetas para arreglos constructivos en la parroquia de Azpeitia en 1952, "con la esperanza de poder asignar una cantidad análoga en el primer trimestre del año de 1953"[54].

53 Udal aktak, "1955eko ekainaren 16ko ohiko batzarra", AUA, 1955eko akta-liburua, 4285-03 sig., 13. kod.

54 AUA, 467.02.101 sig.

53 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 16 de junio de 1955", AMA, Libro de actas de la Comisión Municipal Permanente 1955, sig. 4285-03, cód. 13.

54 AMA, sig. 467.02.101



Odria baserria 1948an.

Caserío Odria. 1948.

© Indalecio Ojanguren. Gure Gipuzkoa

# 2.3. Biziraupen ekonomia

Diktadura frankistak eredu ekonomiko autarkikoa garatu zuen 1950eko hamarkadaren erdialdera arte. Eredu hura baliatu zuen gerraosteko larrialdi egoerari nahiz nazioarteko blokeoari erantzuteko, baina pixkanaka politika ekonomiko propio bilakatu zen, Espainiako Estatua benetan burujabe izan zitekeen sinesmenari eutsiz. Antonio Suances Fernandezek zioen –Industria eta Merkataritza ministroa 1945 eta 1951 artean–, “autarkia dela herrialde batek berez izatea ohorea, mugitzeko askatasuna eta, ondorioz, erabateko independentzia politikoa bermatzeko behar dituen bitarteko, testuinguru eta aukera guztiak, horrela bere jarduna modu egokian garatzeko eta bere premia espiritual zein materialak asetzeko”[55]. Aitzitik, politika autarkikoak berekin ekarri zituen nazioartetik isolatzea eta Estatuaren interbentzionismoa ekonomiaren sektore guztietan, herriaren elikadura krisia are gehiago sakonduz. Era berean, politika haren pean, garaileek kontrolatzen zituzten Estatuak zeuzkan bitarteko apurrak. Hala, maila lokalean, udalek egoera hura baliatzen zuten herritarrak sozialki zigortzeko, beraiena baitzen elikagaiak banatzeko ardura.[56]

Biziraupen ekonomiak erakusten du bizi-mailak zenbateraino egin zuen okerrera, garai hartako oinarrizko ezaugarri izan zirelarik premia biziko produktuen eskasia eta behar besterako ematen ez zuten soldatak; horregatik, biztanleriaren zati handiena pobrezian bizi zen. 1939ko maiatzaren 14an, agindu ministerial batek premia biziko produktuen arrazionamendua ezarri zuen. Neurri hura ez zen nahikoa izan herriaren gosea arintzeko, nahiz eta

55 GÓMEZ MENDIZA, A.: *De mitos y milagros: el Instituto Nacional de Autarquía, 1941-1963.*

56 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.

# 2.3. Economía de subsistencia

La autarquía fue el modelo económico desarrollado por la dictadura franquista hasta mediados de la década de 1950. Un modelo que no solo respondía a una situación de emergencia en la inmediata posguerra o al bloqueo internacional, sino que se configuró como una política económica propia, bajo la creencia de que el Estado español podría ser realmente autosuficiente. Para Juan Antonio Suances Fernández, ministro de Industria y Comercio entre 1945 y 1951, “la autarquía es el conjunto de medios, circunstancias y posibilidades que, garantizando a un país por sí mismo su existencia, honor, su libertad de movimiento y por consiguiente, su total independencia política, le permiten su normal y satisfactorio desenvolvimiento y la satisfacción de sus justas necesidades espirituales y materiales”[55]. Sin embargo, la realidad fue que la política autárquica llevó implícita el aislamiento internacional y un intervencionismo estatal en todos los sectores de la economía, cuestiones que no hicieron más que ahondar en la crisis alimenticia de la población. Asimismo, supuso el control por parte de los vencedores de los escasos recursos de los que se disponía, lo que en el ámbito local se convirtió en un modo de coerción social de los ayuntamientos sobre sus vecinos, al ser los primeros los encargados de la distribución de alimentos.[56]

La degradación del nivel de vida tuvo como máximo exponente una economía de subsistencia, caracterizada fundamentalmente por la escasez de abastecimiento de productos de primera necesidad y una insuficiencia salarial que condenaba a

55 GÓMEZ MENDIZA, A.: *De mitos y milagros: el Instituto Nacional de Autarquía, 1941-1963.*

56 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.



## «Orduan, salaketa bat nahikoa izaten zen norbait kuartelera eramateko»

**Asensio Zubillagari elkarrizketa (*Uztarria* aldizkaritik ateratako lekukotza. "Guardia zibilen itzalpean" izenburua duen erreportajea, Miren Garatek eta Ihintza Agirretxek (argazkia) 2006ko otsaileko argitalpenerako egina).**

* Gaztelaniazko itzulpena argitalpenaren bukaeran.

**Entrevista a Asensio Zubillaga (testimonio extraído de la revista *Uztarria*. Reportaje titulado "Guardia zibilen itzalpean", realizado por Miren Garate e Ihintza Agirretxe (fotografía) para la edición de febrero de 2006).**

* Traducción al castellano al final de la publicación.

*"Que feliz que seremos los dos; sin aceite, ni azucar, ni arroz; pasaremos más hambre que nunca; por culpa del señor gobernador"*. Kanta hori abestea izan zen Asensio Zubillaga lehen aldiz kuartelera eramatearen arrazoia. Espainiako Gerra Zibila pasatu berria zegoen eta errazionamendua zegoen ezarrita. Gabonak iristen zirenean, ordea, ohiko kopurua bikoiztu egiten zuten. Baina urte batean, Comisario de Orden y Transportes*-ek kopuru bikoitz hori ematea ezinezkoa izango zela jakinarazi zuen.

Marrazketa eskolan ikasten zuen Zubillagak eta albiste hura jakitean kanta hura abesten hasi ziren denak. "Niri 80 gramo ogi ematen zizkidaten egunean, ileapaindegia nuenez ez bainuen tailerrean lan egiten (tailerrean zebiltzanei 160 gramo ematen zizkioten); nik, ordea, 08:10erako jaten nuen hura eta gero izugarrizko gosea pasatzen nuen egun osoan". Hala, alkateak kanta haren berri izan zuen eta Zubillagari berehala joan zitzaion Guardia Zibila etxera, kuartelera joateko aginduz. "Orduan, salaketa bat nahikoa izaten zen norbait kuartelera eramateko", kontatzen du. Hara joan eta komandante buruak ea zergatik abesten zuen hori galdetu zion, haserre. "Nik gose nintzela erantzun nion eta orduan, berriro horrelako zerbait egiten banuen, kartzelara eramango nindutela esan zidaten", gogoratzen du Zubillagak.

Beste behin, berriz, udaletxe aurrean Hie Laborait Quinolum Laborare jarri zuen; hau da, 'hor lan egin nahi ez dutenek egiten dute lan' jarri zuen. Alkateak ez zuen ulertzen latina, baina apaizen bati esan zion itzultzeko, eta Zubillagari berriro joan zitzaion Guardia Zibila etxera bila. Kuartelera eraman eta galdera sorta bat egin ostean, kalera bidali zuten, baina beste zerbait eginez gero kartzelara sartuko zutela esanez.

agintariak ahalegindu ziren ekoizleak zorrotz kontrolatzen.[57] Derrigorrezko kupoak abeltzain eta nekazariengan izan zuen eragin handiena (nagusiki babarrun, patata eta gari ekoizleengan), ekoitzitakoa derrigorrez entregatu behar izaten

57 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

gran parte de la población a la pobreza. El 14 de mayo de 1939 una orden ministerial estableció el racionamiento alimenticio para productos de primera necesidad, una medida que no fue suficiente para paliar el hambre, a pesar del rígido control que las autoridades intentaron imponer a los productores.[57] Estos,

57 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*



Azpeitiaren zati bat.

Vista parcial de Azpeitia.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elias funtsa

baitzieten Ipar Eremuko Baliabideen Batzordeko Ikuskaritza Probintzialari edo Gari Zerbitzu Nazionalari. Aitzitik, sistemaren azpian ezkutatzen zen ustelkeria onuragarri izan zen erregimena babesten zutenentzat, zeintzuek interbentzionismoa eta baliabide gabezia gainditu ahal izan baitzituzten, desparekotasun sozialak handiagotuz.

Industria eta Merkataritza Ministerioaren menpeko Baliabideen Komisaldegiak ezartzen zuen zein zen udalerri bakoitzak landutako produktu bakoitzarentzat bete behar zuen derrigorrezko kupoa. Ondoren, herriko Merkatu-gaien Batzordeak aipatu kupo hori banatu behar zuen, ahalik eta modurik parekideenean eta Ikuskaritza Probintzialarekin lankidetzan. Produktuak jasotzeko, biltegizain bat izendatzen zen aldez aurretik eta ekoizleari ordaindu beharreko prezioak finkatzen ziren, eman beharrekoa Ikuskaritza Probintzialak finkatutako epemuga amaitu baino lehen entregatzen zutenak sarituz.[58] Halere, Azpeitiko ekoizleek gehienetan ezin izan zuten kupoan finkatutakoa bete eta, ondorioz, alkatetzak entregatzeko epea atzeratzeko eskatu behar izaten zuen. Luzapen haiek, ordea, zigor ekonomikoak ezartzeko mehatxupean iristen ziren, kasurik onenetan 40 eta 100 pezeta arteko zigorrak. Kasurik okerrenetan, berriz, isunak ekoizleak entregatu beharreko kilo kopuruaren araberakoak izan zitezkeen. Esate baterako, 1950eko abenduan José María Echeverria Odriozola ohartarazi zuten, esanaz 1951ko urtarrilaren 15a baino lehen ez bazuen zegokiona entregatzen

58 Adibidez, 1946an babarrun kiloaren prezioa 3 pezetakoa zen eta ezarritako data baino lehen entregatzen zutenek 0,80 pezetako hobaria zuten (AUA, 1385.07.18 sig.).

ganaderos y agricultores (principalmente productores de alubia, patata y trigo), fueron los más castigados en relación al cupo forzoso que debían entregar a organismos como la Inspección Provincial de la Comisión de Recursos de la Zona Norte, o al Servicio Nacional del Trigo. Por el contrario, la corrupción que subyacía a este sistema benefició a los afectos al régimen, puesto que les permitió huir del intervencionismo y la falta de recursos, aumentando de este modo la desigualdad social.

La Comisaría de Recursos, dependiente del Ministerio de Industria y Comercio, era el organismo encargado de fijar el cupo forzoso que cada municipio debía cumplir para cada producto que se cultivaba. Posteriormente, la Junta o Comisión de Abastos de la localidad debía distribuir el referido cupo de la manera que entendiera más equitativa posible, y en coordinación con la Inspección Provincial. Para la recogida se establecía previamente un almacenista encargado, y se fijaban los precios a pagar al productor, premiándose a aquellos que entregaran con anterioridad a la fecha límite (también fijada por la Inspección Provincial).[58] No obstante, la realidad fue que los productores azpeitiarras no pudieron asumir en la mayor parte de las ocasiones el cupo fijado, por lo que a través de alcaldía se solicitaba el aplazamiento de las entregas. Habitualmente se concedieron prórrogas bajo amenaza de sanciones económicas que oscilaban, en el mejor de los casos, entre las 40 y 100 pesetas. En el peor de los casos las multas podían establecerse en función de los kilos que el productor debía entregar. Por ejemplo, a José

58 Por ejemplo, en el caso de la alubia se estableció en 1946 un precio de 3 pesetas el kilo, con una prima de 0,80 pesetas para los que entregaran con anterioridad a la fecha fijada (AMA, sig.1385.07.18).



Derrigorrezko kuotaren inguruko dokumentua.

Documentación relativa al cupo forzoso.

© AMA, sig. 1312.01.16-16B

–270 kilo gari– 10 pezetako isuna ordaindu beharko zuela entregatu gabeko kilo bakoitzeko.[59]

1945eko ekainean ezarri zen hurrengo urterako Azpeitiko kupoa: 52.000 kilo babarrun eta 47.000 kilo patata[60]. 1946ko urrian, Ikuskaritza Probintzialak presazko ofizio bat bidali zuen udaletxera, jakinaraziz bi produktuen derrigorrezko kupoa gehiegi ari zela atzeratzen; gainera, ofizio hartan zioten jakin bazekitela bi produktuen salmenta eta zirkulazio klandestinoak gora egin zuela. Horregatik, komisarioak zioen "diziplina falta eta norberekoikeria pertsonala gero eta handiagoa" zirela atzerapenaren azpiko ezkutuko arrazoiak, eta udala ohartarazi zuen: "gaur, beti bezala, (…) zerbitzuak diziplinaz funtzionatzen duela zaintzeko (…), alkatetza ohartarazten dut nire erabakiaz eta borondate irmoaz, jakin dezan arau-hausteengatik dagozkion erantzukizun guztiak exijituko ditudala". Bistan da, beraz, ekoizleez gain, tokiko arduradunak ere ohartarazten zituztela, beraien ardura baitzen kupoak betetzea. "Aitzakiarik, atzerapenik eta desenkusarik gabe" ahalegindu behar zuten salmenta klandestinoa eragozten eta jazartzen, eta "ekoizle guztiak behartu berriz erein zezaten eta norbere kontsumorako erreserbak gorde ondoren gelditzen zitzaizkien kopuruak berehala entregatu zitzaten"[61]. Ohartarazpen haiek jasotakoan, Alkatetzak babestu egin zituen ekoizleak, lehortea izan zela argudiatuz: "ekoizpena eskasa izan da, baserri batzuetan hutsaren hu-

59 AUA, 1310.06.02 sig.

60 Hasierako patata kupoan ezarritakoa baino 13.000 kilo gutxiago, lurraren errendimenduari buruzko txosten tekniko baten ondoren (AUA, 1385.07.02 sig.).

61 AUA, 1385.07.02 sig.

María Echeverria Odriozola se le advirtió en diciembre de 1950 de que si para el 15 de enero de 1951 no entregaba los 270 kilos de trigo que se le había asignado, debía pagar una sanción de 10 pesetas por cada kilo no entregado.[59]

En junio de 1945 se fijó para Azpeitia un cupo de 52.000 kilos de alubias, y 47.000 kilos de patata para 1946[60]. En octubre de aquel año la Inspección Provincial envió un oficio urgente al ayuntamiento informando de que la recogida del cupo forzoso, tanto de patata como de alubia, estaba retrasándose demasiado; y sin embargo, decían estar informados sobre el aumento de la venta y circulación clandestina de ambos productos. Por ello, el comisario aludía en su misiva a que el único motivo era la "creciente indisciplina" y el "ininterrumpido aumento del egoísmo personal", y advertía: "decidido, ahora como siempre, (…) velar por que impere la disciplina en el servicio (…) advierto a la alcaldía mi decidido e inquebrantable propósito de exigir cuantas responsabilidades sean pertinentes por todo quebrantamiento". Por tanto, no solo se advertía a los productores, sino que también se hacía lo propio con las autoridades locales como responsables del cumplimiento del cupo, a los que se les exigía "sin excusas, dilaciones, ni pretextos" impedir y perseguir la venta clandestina; y que "se obligue a cada productor a la inmediata entrega de la cantidad que tenga después de la reserva de siembra y de las necesidades del propio consumo"[61]. Ante estas advertencias, desde alcaldía se excusó a los productores aludiendo

59 AMA, sig.1310.06.02

60 13.000 kilos menos del cupo inicial de patata tras un informe técnico sobre el rendimiento de la tierra (AMA, sig. 1385.07.02).

61 AMA, sig. 1385.07.02.

rrena, eta Komisaldegiak bertara etorrita egiazta dezake nire esanak egia direla”[62].

1951n, Pariseko prentsak Bizkaia eta Gipuzkoako arrazionamenduari buruz argitaratutako datuak zabaldu zituen *Euskadiko Prentsa Bulegoak* (erbesteko Eusko Jaurlaritzaren komunikazio organoa). Informazio haiek ziotenez, arrazionamendua hileko 34 pezeta eta 16.000 kaloriakoa zen, batez beste, Bilbon eta Donostian; hau da, eguneko 1,13 pezeta eta 500 kaloria eskas, nahiz eta “langile batek egunean 3.000 kaloria inguru behar dituen; ondorioz, merkatu beltzean bilatu behar ditu gainerako 2.500 kaloriak”[63]. Zentzu horretan, kontuan izan behar da 1951n familia langile batek 500 pezeta inguruko diru-sarrerak zituela batez beste. Adibidez, Damaso Azcue S.L. alpargata fabrikan, txirikordatze saileko langileek asteko 47,75 eta 96,06 pezeta arteko soldatak zeuzkaten 1943an, enpresako ordezkariek Alkatetzari esandakoaren arabera.[64] Era berean, *The Manchester Guardian* egunkarian argitaratutako azterlan batek zioenez, 1949an langile batek 83 orduz lan egin behar zuen Espainian (Italian 58, Frantzian 49, Mendebaldeko Alemanian 31 eta Ingalaterran 15) 24 kilo ogi, 30 kilo patata, 2 kilo okela, 3 kilo gurin edo olio eta kilo bat azukre erosi ahal izateko. Arrazionamendua 1952ko ekainean bukatu zen eta Espainia Ipar Amerikaren finantzaketa jasotzen hasi zen 1953an, 1948tik aurrera garatutako Marshall Planetik kanpo geratu ondoren –Bigarren Mundu Gerran neutrala izan ez zelako gertatu zen hori–.

Azpeitian, udal korporazioak 1946ko urriaren 28an aitortu zuen egoera “kezkagarria” zela eta “elikadura eskasa zela produktu faltagatik”. Halere, lehenago esan bezala, Azpeitian ez zegoen merkatu-gai eta benefizentzia batzorderik, ezta ekonomatorik ere.[65] Gutxieneko baliabiderik ez zuten pertsonei laguntzeko zerbitzua Azpeitiko parrokiaren karitate zerbitzuen eta Sorospen Sozialeko erakundearen (Falangearen menpekoa) esku zeuden. Sorospen Soziala Estatu osora zabalduta zegoen, gobernadore zibilek zuzendutako Batzar Probintzialen bitartez; delegatu probintzialek bokalen papera egiten zuten, beren jarduera-esparrua eremu lokaletara zabaltzeko. 1938ko martxoaren 19ko Legea onartu zenetik aurrera, gizarte lanen erabateko finantzaketa bermatu zen Ongintzako Babes Funts Sozialaren bitartez.

1945etik aurrera, gosetearen okerrena gaindituta eta arrazionamendua apur bat murriztearekin batera, Sorospen Sozialaren lana ere murriztu egin zen, itxuraz. Dena

62 AUA, 1310.04.19 sig.

63 1951ko LEP; 1001 zk.

64 AUA, 1310.01.21 sig.

65 Udal aktak, “1946ko urriaren 28ko ohiko batzarra”, AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

a la sequía que se padecía, la cual provocó que la producción hubiera sido escasa “llegando al extremo de ser nula en algunos caseríos, pudiendo comprobar esa Comisaria sobre el terreno la veracidad de mis manifestaciones”[62].

En 1951 la *Oficina de Prensa de Euskadi* (órgano de comunicación del Gobierno Vasco en el exilio) se hizo eco de los datos publicados en la prensa parisina sobre el racionamiento en las provincias de Bizkaia y Gipuzkoa. Según se informaba, dicho racionamiento se traducía en Bilbao y Donostia en 34 pesetas de promedio y 16.000 calorías mensuales, lo que diariamente serían 1,13 pesetas y poco más de 500 calorías; cuando “un obrero necesita alrededor de 3.000 calorías diarias; debe pues buscar las 2.500 calorías restantes en el mercado negro”[63]. En este sentido debemos de tener en cuenta que el ingreso medio de una familia obrera en 1951 era de 500 pesetas. Por ejemplo, en la fábrica de alpargatas Dámaso Azcue S.L. los sueldos de los trabajadores de la sección de trenzados en 1943 oscilaban entre las 47,75 y las 96,06 pesetas semanales, según informaron los representantes de dicha empresa a alcaldía .[64] Asimismo, un estudio aparecido en *The Manchester Guardian* precisaba que en 1949, para adquirir 24 kilos de pan, 30 kilos de patata, 2 kilos de carne, 3 kilos de mantequilla o de aceite y 1 kilo de azúcar, un obrero debía trabajar 83 horas en España, 58 en Italia, 49 en Francia, 31 en Alemania occidental, o 15 en Inglaterra. En junio de 1952 se suprimió el racionamiento, y en 1953 el Estado español comenzará a recibir financiación norteamericana tras haber sido excluido del Plan Marshall desarrollado a partir de 1948, debido a su posición no neutral durante la Segunda Guerra Mundial.

En Azpeitia, la corporación municipal reconocía en la sesión plenaria del 28 de octubre de 1946 que la situación era “alarmante”, ante la “deficiente alimentación por falta de productos”, y sin embargo, tal y como se ha señalado anteriormente, Azpeitia no contaba ni con una comisión de abastos y beneficencia, ni con un economato.[65] El servicio asistencial de las personas sin recursos mínimos estaba supeditado a los servicios de caridad de la parroquia de Azpeitia y a Auxilio Social, institución dependiente de Falange. Auxilio Social estaba desplegada en todo el Estado a través de las Juntas Provinciales presididas por el gobernador civil, en la que se integraban delegados provinciales como vocales, con el objetivo de ampliar su marco de actuación al ámbito local. A partir de la Ley del 19 de marzo de 1938 esta obra social tuvo garantizada su plena financiación a través del Fondo de Protección Benéfico Social.

62 AMA, sig. 1310.04.19.

63 OPE año 1951; núm. 1001.

64 AMA, sig. 1310.01.21

65 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 28 de octubre de 1946”, AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.




Agintariak ganaduaren intseminazio artifizialerako zentruak bisitatzen, tartean, Azpetiakoa.

Autoridades visitando diversos centros de inseminación artificial para ganado en las localidades. Entre ellas Azpeitia.

© Paco Marí. Kutxateka

den, organismoak berdin jarraitu zuen lanean Azpeitian, udalaren laguntzarekin, maila lokaleko arduradun nagusia herriko alkatea bera baitzen. 1953an Estatu Batuetatik iritsitako lehen laguntzekin batera, Alkatetzak, Sorospen Sozialak eta Azpeitiko parrokiak hartu zuten handik iristen ziren elikagaiak banatzeko ardura: 960 gramo azukre, 900 gramo babarrun, 900 gramo esne, 960 gramo okela eta 500 gramo arroz zekarten poltsak izaten ziren. Azpeitian, guztira hogeita hamar poltsa banatu zituzten.[66]

Nolanahi ere, hori guztia salbuespen bat baino ez da, izan ere, garai hartako udalak ez ziren asko arduratu baliabiderik gabeko pertsonei laguntzeaz, frankisten aldeko gerrako gatibu ohi edo elbarrien elkarteek emandako pentsioak kobratzen zituzten pertsonen kasuan izan ezik. Halakoetan, agintariek zorrotz bete zituzten beraien mantenurako hartutako erantzukizunak.

1958ra arte ez zen sortu benefizentziako batzorderik, eta udalak 1964an egin zuen lehen aldiz udal Benefizentziaren Errolda osatzeko udal ordenantza. Besteak beste, errolda hark epe baliodun bat ezartzen zuen eskaerak jasotzeko, eta udaleko iragarki taulan argitaratzen ziren emaitzak, erreklamazioak, e.a. Zehazki, Gobernazio Ministerioaren 1953ko azaroaren 27ko Dekretuak, Tokiko Osasun Zerbitzuetako Langileen Araudia onartzen zuenak, zehazten zuen Benefizentziako Erroldan sartu behar zirela "soilik legez pobretzat hartzeko moduko egoeran daudela froga dezaketenak". Hala, udalak "Ongintza eta osasun laguntza zerbitzuaren

66 AUA, 468.01.140 sig.

A partir de 1945, superada la fase de mayor hambruna y coincidiendo con una leve disminución del racionamiento, la actividad de Auxilio Social aparentemente descendió. Sin embargo, este organismo siguió operando en Azpeitia en sintonía con el ayuntamiento, ya que su máximo responsable a nivel local era el alcalde de la villa. Coincidiendo con las primeras ayudas llegadas de Estados Unidos en 1953, alcaldía, Auxilio Social y la parroquia de Azpeitia fueron las instituciones responsables del reparto de los víveres llegados de aquel país: bolsas con 960 gramos de azúcar, 900g de alubias, 900g de leche, 960g de carne, y 500g de arroz. En el caso de Azpeitia, el número de bolsas a repartir fueron treinta.[66]

En cualquier caso, este hecho no deja de ser una excepción ante la falta de preocupación de las sucesivas corporaciones municipales en cuanto a la asistencia de las personas sin recursos, con la salvedad de aquellas que cobraban pensiones derivadas de su encuadramiento en asociaciones de excautivos o exmutilados de guerra del bando franquista. En estos casos las autoridades fueron en todo momento escrupulosas en su manutención.

Hasta 1958 no se creó una comisión específica de beneficencia, y hubo que esperar a 1964 para que el ayuntamiento elaborara una ordenanza municipal que fijara la formación del Padrón de Beneficencia Municipal. Estas ordenanzas debían fijar, entre otros asuntos, un plazo hábil para la recepción de solicitudes y la publicación en el tablón de anuncios municipal de los resultados, reclamaciones, etc. En concreto, el Decreto de 27

66 AMA, sig. 468.01.140

## 1947KO URRIAN SOLDADU OHI NAZIONAL ELBARRIEI ORDAINDUTAKO PENTSIOAK[I]

## PENSIONES DEVENGADAS A EXMUTILADOS SUBLEVADOS PARA EL MES DE OCTUBRE DE 1947[I]

| IZENA<br>Nombre | KOBRATZEKOA<br>Cantidad a cobrar |
|---|---|
| Juan Esnaola | 440,38 ptas. |
| Carlos Olazabal | 440,38 ptas. |
| Pedro Aizpuru | 114,00 ptas. |
| Esteban Orbegozo | 114,00 ptas. |
| Aniceto Aizpuru | 93,00 ptas. |
| Demetrio Echevarria | 12,50 ptas. |
| Eustasio Eguia | 12,50 ptas. |
| Ignacio Eguiguren | 12,50 ptas. |
| Jesús Uranga | 155,50 ptas. |
| José Aizpuru | 62,50 ptas. |
| José I. Aramburu | 12,50 ptas. |
| José Cruz Arrue | 12,50 ptas. |
| José Ostolaza | 12,50 ptas. |
| José Viquendi | 12,50 ptas. |
| José María Oñederra | 155,50 ptas. |
| Luciano Larrañaga | 93,00 ptas. |
| Luis Aguirre | 105,50 ptas. |
| Remigio Eguiguren | 105,50 ptas. |
| Prudencio Iraeta | 12,50 ptas. |
| Victoriano Gurruchaga | 105,50 ptas. |
| José Altuna | 12,50 ptas. |
| Francisco Zubizarreta | 12,50 ptas. |
| **GUZTIRA TOTAL** | **2.109,76 ptas.** |

I. AUA, 1382.04.06 sig. // Zerrenda horretan agertzen diren pertsonetatik José Altunak bakarrik egin zuen borroka Euskal Ejertzitoan. 1937ko ekainean atxiki ondoren altxatuen tropetan sartu behar izan zuen (BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian*).

I. AMA, sig. 1382.04.06 // De las personas que aparecen en este listado, tan solo José Altuna combatió en un primer momento en las filas del Ejército Vasco. Tras ser apresado en junio de 1937 fue obligado a alistarse a las tropas sublevadas (BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian*).

## UDAL AURREKONTUETAN BENEFIZENTZIARA BIDERATUTAKO GASTUAREN PORTZENTAJEA[I]

## PORCENTAJE DE GASTO ESTIPULADO PARA BENEFICENCIA EN LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES[I]

| URTEA / Año | PORTZENTAJEA / Porcentaje |
|---|---|
| 1955 | %9 |
| 1956 | %6 |
| 1957 | %5,2 |
| 1958 | %4,2 |

I. Ibid / Ibíd.

noviembre 1953 del Ministerio de la Gobernación, por el que se aprobaba el Reglamento de Personal de los Servicios Sanitarios Locales, especificaba que en el Padrón de Beneficencia debían ser incluidos "tan solo los que justifiquen legalmente merecer la consideración de pobres". A tales efectos, el ayuntamiento debía proceder "a la aprobación de una Ordenanza o Reglamento del servicio de asistencia benéfico sanitaria, en la cual determinará, con todo detalle, las normas que teniendo en cuenta las circunstancias especiales de la localidad, han de servir para calificar la condición de pobreza." La iniciativa para la formación del Padrón o su rectificación anual correspondía al alcalde, y siempre antes del 15 de noviembre de cada año había de publicarse en el tablón de anuncios de la casa consistorial el oportuno aviso para que los cabezas de familia que se consideraran con derecho a ser incluidos en el Padrón de Beneficencia municipal lo solicitaran.[67]

En Azpeitia, hasta la toma en consideración de estas ordenanzas en 1964, el Padrón de Beneficencia elaborado anualmente por la corporación municipal fijaba en el mes de diciembre los cabezas de familia que debían quedar adscritos, sin perjuicio de modificaciones periódicas. Asimismo, solo a partir de la creación de una Comisión de Beneficencia en 1958, este registro quedó recogido en las actas municipales. En cambio, a lo que sí atendió la corporación municipal fue al artículo 57 del Reglamento de 1953 (y de acuerdo con la base 24 de la Ley de Sanidad de 1944), mediante el cual todos los ayuntamientos estaban obligados a facilitar asistencia médica y farmacéutica a "las familias pobres necesitadas en sus respectivos términos municipales." Por ese motivo, el Padrón de Beneficencia era remitido al personal sanitario local, así como a los farmacéuticos e inspectores municipales de la localidad. Estos eran Antonio Alzuru y Adrián Goenaga, a quienes se les abonaba cuatrimestralmente la cantidad correspondiente a los medicamentos suministrados "a los pobres de la villa" (a los incluidos en el Padrón de Beneficencia), y a los mutilados de guerra que habían combatido junto al bando sublevado. A modo de ejemplo, en el último cuatrimestre de 1947 Antonio Alzuru percibió por este concepto 1.052,40 pesetas, y Adrián Goenaga 607,47 pesetas.[68]

Lejos de disminuir, el listado de "pobres" no hizo más que aumentar entre finales de la década de 1950 y 1973. Por el contrario, a partir de esta última fecha y hasta la muerte del dictador el número de familias incluidas en el Padrón de la Beneficencia descendió. Y, sin embargo, en los presupuestos municipales elaborados entre 1955 y 1958 (años en los que es posible extraer este dato de las actas municipales), el porcentaje de gasto destinado a beneficencia fue disminuyendo anualmente de manera

67 BOE núm. 99, de 9 de abril de 1954, por el que se aprueba el Reglamento de personal de los Servicios Sanitarios Locales.

68 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 15 de enero de 1947", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

ordenantza edo araudia onartu behar zuen, bertan ezarriz, zehaztasun osoz, zein arau bete behar diren pertsona bat pobretzat hartzeko, udalerriaren baldintza bereziak kontuan hartuta". Errolda hura egiteko edo urtero zuzentzeko ardura alkateari zegokion eta azaroaren 15a baino lehen ohar bat argitaratu behar zuen, urtero, udaletxeko iragarki taulan, udal Benefizentziako Erroldan sartzeko eskubidea zutela uste zuten familia-buruentzat.[67]

Azpeitian, 1964an ordenantza haiek aplikatzen hasi artean, udal korporazioak egiten zuen Benefizentzia Errolda urtero, eta abenduan jakinarazten zuen zein ziren zerrendako familia-buruak, nahiz eta aldaketak egiten ziren periodikoki. Era berean, 1958an, Benefizentzia Batzordea sortu ondoren, hasi ziren erroldaren erregistroa udal aktetan jasotzen. Aitzitik, udal korporazioak bete zuen 1953ko Araudiaren 57. artikulua (bai eta 1944ko Osasun Legearen 24. oinarria), zeinaren bidez ezartzen baitzen udal guztiek osasun arreta eta arreta farmazeutikoa eman behar zietela, derrigorrez, "beren udal barrutietako familia txiroei". Horregatik, Benefizentziako Errolda bertako osasun langileei bidaltzen zieten, baita ere farmazeutikoei eta udal ikuskariei. Antonio Alzuru eta Adrian Goenaga ziren, zeintzuek ordainketa bat jasotzen baitzuten lau hilabetero "herriko pobreei" (Benefizentzia Erroldako kideei) eta altxamenduaren alde borrokatutako gerrako elbarriei ematen zizkieten medikamentuen truke. Esate baterako, 1947ko azken lauhilekoan Antonio Alzuruk 1.052,40 pezeta jaso zituen eta Adrian Goenagak 607,47 pezeta.[68]

Murriztu beharrean, "pobreen" zerrenda gero eta gehiago luzatu zen 1950eko hamarkada amaieraren eta 1973. urtearen artean. Aldiz, urte hartatik aurrera eta diktadorea hil arte, Benefizentziako Erroldetan bildutako familia kopuruak behera egin zuen. Hala ere, 1955. eta 1958. urteen artean eginiko udal aurrekontuetan (urte haietako datuak jasota daude udal aktetan), benefizentziara zuzendutako gastuaren portzentajea nabarmen murriztu zen urtez urte, eta beti zen "zaintza eta segurtasuna" edo "hiriko eta landa eremuetako polizia" bezalako partidak baino txikiagoa.[69]

Nolanahi ere, errolda haren ezaugarri nagusietako bat zen familia gehienak Azpeitiko herrigunean bizi zirela, eta ez landa eremuetan edo baserrietan. Bereziki aipatzekoak dira alde zaharreko eta Bustinzuri auzoko biztanleak. Era berean, 1973tik aurrera, udal aktetan ageri dira Miserikordia Etxearen laguntza jasotzen zuten familiak: Erroldan erregistratutako 82 familietatik 25 1973an, 30 hurrengo urtean eta 23 hurrengoan.

67 EAO, 99 zk., 1954ko apirilaren 9koa, zeinaren bidez onartu baitzen Tokiko Osasun Zerbitzuetako langileen Araudia.

68 Udal aktak, "1947ko urtarrilaren 15eko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

69 AUA, udal aktak.



Norte, Informazio orokorrerako buletina.

Norte. Boletín de Información General.
dic. 57, num. 1.

© AMA, sig. 468.01.140

significativa, siempre por debajo de partidas como "vigilancia y seguridad" o "policía urbana y rural".[69]

En cualquier caso, una de las características principales de este padrón fue que la mayor parte de estas familias residían en el casco urbano de Azpeitia y no en núcleos rurales o caseríos, destacando especialmente vecinos de centro histórico y el arrabal de Bustinzuri. Asimismo, a partir de 1973 se recogen en las actas municipales aquellas familias que se encontraban acogidas en la Casa de la Misericordia; 25 de las 82 familias registradas en el Padrón para 1973, 30 para 1974, y 23 para 1975.

Por otra parte, entre 1945 y 1950 las cuentas municipales arrojaron un saldo positivo, un superávit que dará a su fin en 1951, y que, en consecuencia, aumentará desde entonces las

69 AMA; Actas municipales.

**BENEFIZENTZIAKO ERROLDAN SARTUTAKO FAMILIA KOPURUA[I]**

**NÚMERO DE FAMILIAS INCLUIDAS EN EL PADRÓN DE BENEFICENCIA[I]**

| URTEA / Año | FAMILIA-BURU KOPURUA<br>Número de cabezas de familia |
|---|---|
| 1954 | 26 |
| 1957 | 19 |
| 1969 | 24 |
| 1971 | 43 |
| 1972 | 75 |
| 1973 | 82 |
| 1974 | 66 |
| 1975 | 66 |

I. Ibid / Ibíd.

**GUARDIA ZIBILAREN KUARTEL-ETXEKO GASTUAK. UDALARI EGOTZITAKOAK**

**GASTOS DE LA CASA-CUARTEL DE LA GUARDIA CIVIL IMPUTADOS AL AYUNTAMIENTO** [I]

| URTEA AÑO | GASTUA Gasto | KONTZEPTUA / Concepto |
|---|---|---|
| 1945 | 612 ptas. | Fatxadak zuritzea eta zehaztu gabeko hainbat konponketa. / Blanqueamiento de fachadas y varias reparaciones sin especificar. |
| 1946 | 2.623 ptas. | Zehaztu gabeko konponketak. Kuartela eta Ignacio Lasaren fabrika bereizten dituen hormako obrak. Zementuzko 156 bloke. Arreglos sin especificar. Obras del muro que separa el cuartel de la fábrica de Ignacio Lasa. 156 bloques de cemento. |
| 1947 | 180 ptas. | Zehaztu gabeko konponketak. / Arreglos sin especificar. |
| 1948 | 698 ptas. | Fatxadak zuritzea. / Blanqueamiento de fachadas. |
| 1949 | 571,50 ptas. | Fatxadak zuritzea eta zehaztu gabeko hainbat konponketa. Blanqueamiento de fachadas y varias reparaciones sin especificar. |
| 1950 | Zehaztu gabe / Sin especificar | Udal aparejadoreari jakinarazten zaio zuzendu ditzala egin beharreko obrak. Se comunica al aparejador municipal que dirija las obras necesarias. |
| 1951 | 1.376 ptas. | Iturgintza lanak. / Trabajos de linterneria. |
| 1952 | 363,66 ptas. | Fatxadak zuritzea. / Blanqueamiento de fachadas. |
| 1953 | 2.703 ptas. | Zehaztu gabeko konponketak. / Arreglos sin especificar. |
| 1954 | 1.000 ptas. | Obrak zalditegietan. / Obras de las caballerizas. |

I. Ibid / Ibíd.

Bestalde, udalaren kontuek emaitza positiboa izan zuten 1945 eta 1950 artean, baina superabita 1951n amaitu zen eta, ondorioz, udalak kreditu gehiago eskatu behar izan zituen. Lehenago, 1945eko urrian, udal korporazioak erabaki zuen bertan behera uztea Guardia Zibilaren kuartel-etxearentzat (Elorza etorbidea) *Banco Guipuzcoano* eta Donostiako Aurrezki Kutxa bankuekin hitzartua zuen mailegu hipotekarioa. Udalak berak eraiki eta atondu zuen etxe hura, eta dohain laga zion Estatuari epe mugagabe baterako 1935ean. Udal jabarikoa izaki, ez zuen errentarik sortzen diru-kutxa publikoentzat, eta bai mantenimendu nahiz kontserbazio gastuak, edota zerga gastuak. Kopurua 5.941,24 pezetakoa zen eta 1946ko aurrekontuaren barruan sartu zen.[70] Gainera, Guardia Zibilaren buruak periodikoki eskatzen zuen eraikina konpontzeko eta fatxadak zuritzeko; higiezinaren jabea zenez, udalak bere gain hartzen zituen gastu haiek guztiak: 1945 eta 1954 artean (ez dago 1950eko daturik), gutxienez 10.127,16 pezetako gastua suposatu zuen guztira.[71]

1946ko urtarrilaren 30ean, Azpeitiko udalak 145.758,85 pezetako zorra zuen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin.[72] Ondoren, 1947ko martxoaren 6an, aurrezki

70 Udal aktak, "1945eko urriaren 15ko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

71 AUA, udal aktak.

72 Udal aktak, "1946ko urtarrilaren 36ko ohiko batzarra", AUA, 1945-1947ko akta-liburua, 277-03 sig., 12. kod.

solicitudes de créditos por parte del ayuntamiento. Con anterioridad, en octubre de 1945, la corporación municipal acordó llevar a cabo la cancelación del préstamo hipotecario que con los bancos Guipuzcoano y la Caja de Ahorros de San Sebastián mantenía en relación a la casa cuartel de la Guardia Civil (sita en la avenida Elorza), la cual fue construida, acondicionada, y cedida gratuitamente por el ayuntamiento al Estado por tiempo indeterminado en 1935. Al ser propiedad municipal no producía renta alguna para las arcas públicas, y en cambio sí gastos en sostenimiento, conservación, y en el pago de la contribución e impuestos. La cantidad ascendía a 5.941,24 pesetas, y esta se consignó al presupuesto elaborado para 1946.[70] Además, periódicamente el jefe de línea de la Guardia Civil solicitó reparaciones en el edificio y blanqueamiento de las fachadas, gastos todos ellos que asumía el ayuntamiento como propietario del inmueble, y que entre 1945 y 1954 (sin los datos de 1950) supusieron un gasto de al menos 10.127,16 pesetas.[71]

El 30 de enero de 1946 el saldo deudor del ayuntamiento de Azpeitia con respecto a la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa era de 145.758,85 pesetas.[72] Posteriormente, el 6 de marzo de 1947, la Comisión Permanente de la misma caja de

70 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 15 de octubre de 1945", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.

71 AMA; Actas municipales.

72 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 36 de enero de 1946", AMA, Libro de actas 1945-1947, sig. 277-03, cód. 12.



Azoka eguna Azpeitian.

Día del mercado en Azpeitia.

© S. C. Aranzadi, Imanol Elías funtsa

kutxa hartako Batzorde Iraunkorrak 105.000 pezetako beste mailegu bat eman zion udalari "altxortegiko zerbitzu gisa, dagoeneko zabalik daukan kontu korrontearentzat hitzartutako baldintzen arabera".[73] Hala ere, 1951ko urtarrilaren 11ko osoko bilkuran, udal idazkariak adierazi zuen kobratzeko zeuden kredituak 112.469,53 pezetakoak zirela, eta ordaindu beharrekoak, berriz, 76.647,25 pezetakoak.[74]

Handik bost urtera, 1956ko apirilaren 18an, Korporazioak Espainiako Kreditu Lokaleko Bankuarekin sinatutako mailegu kontratuaren berri jaso zuen: 3.377.803,82 pezetakoa zen. Kopuru harekin, hiru arlotako gastuak estaliko ziren:

1. Estatuari egin beharreko ekarpenak: Laneko Institutua eraikitzeko kostuaren heren bat (1.475.000 pezeta), eta ur edangarriak ekartzeko beste proiektu bat exekutatzeko kostua (1.286.619,87 pezeta).
Durante la dictadura franquista la represión tuvo un carácter “absolutamente premeditado, sistemático, institucionalizado, hasta transformarse en un objetivo en sí mismo”[117]. Supuso la eliminación física del adversario durante la inmediata posguerra, no solo con el objetivo de conquistar el poder, sino también de preservar el orden económico, social y territorial de la oligarquía española cuestionado, en parte, por el sistema democrático de la Segunda República. Una eliminación física que provocó que gran parte de la oposición al régimen durante este periodo se encontrara en el exilio o enterrada. ¿Cuantos azpeitiarras huyeron, se exiliaron? Según Ignacio Arteche, huyeron de Azpeitia entre 800 y 1000 personas[118], la mayor parte de ellos el 19 de septiembre de 1936 (un día antes de la entrada de los sublevados en el municipio), en dos trenes que partieron de Azpeitia a las 15:00 horas. Los que huyeron en esa fecha se refugiaron en Bizkaia, y tras la caída del Frente Norte gran parte de estos regresaron.

Sin embargo, no todos pudieron retornar. Sebastiana Mata García, de 24 años de edad, abandonó su domicilio en Azpeitia junto a sus padres Daniel y Gumersinda. En 1954 el Juzgado

117 JULIÁ, S.: *Víctimas de la guerra civil.*

118 URKIA, J. M. (Coord.): *José de Arteche, un hombre de paz.*

**Paulina Bidasolo (Uztarria aldizkaritik ateratako lekukotza. Ihintza Agirretxek Paulina Bidasolori 2005eko urtarrileko argitalpenerako egindako elkarrizketa).**

*Gaztelaniazko itzulpena argitalpenaren bukaeran.

**Paulina Bidasolo (testimonio extraído de la revista Uztarria. Entrevista realizada por Ihintza Agirretxe a Paulina Bidasolo para la edición de enero de 2005).**

* Traducción al castellano al final de la publicación.

**« Jende asko hil zuten. Nire anaia bat han zen borrokan eta tarteka etortzen zitzaigun baserrira. Azkenean hil zuten»**



«Herrian koadrila bat elkartu eta Elorrioko baserri batera joan ginen. Egonaldia gogorra izan zen. Handik Durango-eta nola bonbardatzen zituzten ikusten genuen (Gernikan ere ari ziren). Jendea elizara joaten zen beldurtuta, eta bonbak elizara botatzen zituzten. Jende asko hil zuten. Nire anaia bat han zen borrokan eta tarteka etortzen zitzaigun baserrira. Azkenean hil zuten. (…) Gerra bukatutakoan itzuli nintzen berriro herrira. Egoera gerra hasi zenekoaren oso bestelakoa zen. Aita hilda, baita anaia bat ere, eta beste anaia kartzelan. (…) Hemen ez zegoen lanik. Mutil-laguna topatu, eta Kanariar Irletara joan nintzen».

erantzun zion "egin beharreko tramiteak egin zituela baina ez zuela emaitzarik lortu; ez zegoen Sebastianaren berririk mila bederatziehun eta hogeita hamaseigarren urtetik, hots, Tropa Nazionalak Azpeitian sartu zirenean, gurasoekin batera, herritik faltatu zenetik"[119]. Bizkaitik lurralde urrunetara joan zirenak ere ez ziren itzuli urte askoan. Pedrosa Mendoza anaiak Bilboko portutik Inglaterrara abiatu ziren 1937ko maiatzean (Alejandro, Cecilia, Lolita eta Jesús). José Loinaz Echaniz eta Carmelo Loinaz Galarraga Filipinetara joan ziren; aldiz, Iñaki Azpiazu Olaizola, José Antonio Oyarzabal Oyarzabal, Bienvenido Gurruchaga Echeverria eta Eugenio eta Segundo Bereciartua Arocena anaiak kontinente amerikarrean jarri ziren bizitzen. Eta erbestean jarraitu behar izan zuten gerra amaitu eta gero ere. Juan Goicoechea Cendoyak hiru urte egin zituen Burgoseko espetxean, eta 1945ean baldintzapeko askatasunarekin irten ondoren erabaki zuen Azpeitia utzi eta Iparraldera joatea. Era berean, ihes egin zuten

119 AUA, 439.01.01 sig.

de Azpeitia solicitó información a alcaldía sobre el paradero de Sebastiana, a lo que desde el ayuntamiento se contestó que "realizadas las oportunas gestiones, han resultado negativas, no teniéndose conocimiento de la misma desde el año de mil novecientos treinta y seis, que juntamente con sus padres se ausentó de esta Villa a la entrada de las Tropas Nacionales"[119]. Tampoco regresaron en décadas aquellos que desde Bizkaia embarcarían a tierras lejanas. Los hermanos Pedrosa Mendoza partieron del puerto de Bilbao hacía Inglaterra en mayo de 1937 (Alejandro, Cecilia, Lolita y Jesús). Filipinas fue el destino de José Loinaz Echaniz y Carmelo Loinaz Galarraga, e Iñaki Azpiazu Olaizola, José Antonio Oyarzabal Oyarzabal, Bienvenido Juan Gurruchaga Echeverria, o los hermanos Eugenio y Segundo Bereciartua Arocena, se instalaron en el continente americano. El exilio no concluyó tras finalizar la guerra. Juan Goicoechea Cendoya pasó tres años en la prisión de Burgos, y tras su salida en régimen de libertad condicional en 1945 decidió abandonar Azpeitia e instalarse en Iparralde. Asimismo, al menos un azpeitiarra

119 AMA, sig. 439.01.01





Joxe Bernabe Orbegozo eta bere inguruko dokumentazioa.

Documento relativo a José Bernabé Orbegozo.

© Orbegozo Familia.
© AMA. Sig. 467.02.96

ehunka azpeitiarren artean izan zen bat desagertua, sekula etxera itzuli ez zena: Faustino Azpiazu Arrieta.[120]

Espainiako Estatuan biziraun zutenei isiltasuna, menpekotasuna eta beldurragatiko autozentsura inposatu zizkieten, eskuarki. Gutxi batzuk ausartu ziren diktaduraren aurka aktiboki borrokan jarraitzen. 1949ko martxoaren 20an, diligentziak abiatu zituzten hamaika "euskaldun separatistaren" aurka, *Gu* eta *Euzkadi* aldizkariak eta "kolore separatistak dituzten bost mila banderatxo" inprimatzea leporatuta. Handik hamar egunera hemezortzi ikasle atxilotu zituzten, 17 eta 20 urte bitarteko ikasleek 1941ean sortutako EIA (Eusko Ikasle Alkartasuna) elkartekoak. Urte hartan bertan, maiatzean, hiru gazte komunista atxilotu zituzten Irunen, jendea erreklutatzen zutelako iheslariei muga pasa eta modu klandestinoan Toulousera iristen laguntzeko. 1946 eta 1949 artean, 7.885 pertsona atxilotu zituzten Espainiako Estatu osoan (1947an bakarrik 3.899): denak ziren ideologia desberdinetako oposizio politikoko kideak, baina Alderdi Komunistako ustezko kide izateagatik atxilotu zituzten gehienak (4.257). Euskal nazionalistei dagokienez, Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiko agirien arabera, 443 pertsona atxilotu zituzten.[121]

1950eko maiatzaren 1ean, Donostiako Brigada Politiko Sozialeko poliziak ustezko militante anarkista bat atxilotu

de los cientos que huyeron, desapareció y nunca más regreso a casa: Faustino Azpiazu Arrieta.[120]

Entre los que sobrevivieron en el interior del Estado español se impuso, por lo general, el silencio, la sumisión, y a la autocensura por miedo. Solo unos pocos se atrevieron a mantenerse activos contra la dictadura. El 20 de marzo de 1949 se instruyeron diligencias contra once "separatistas vascos" acusados de la impresión de la revista *Gu* y *Euzkadi*, y de "cinco mil banderitas con los colores separatistas". Diez días más tarde fueron detenidos dieciocho estudiantes pertenecientes a E.I.A. (Eusko Ikasle Alkartasuna), una asociación fundada en 1941 por estudiantes de entre 17 y 20 años. En mayo del mismo año tres jóvenes comunistas fueron detenidos en Irún acusados de reclutar a personas que de forma clandestina se les ayudaba a cruzar la frontera y llegar a Toulouse. Entre 1946 y 1949 fueron detenidos en el conjunto del Estado español 7.885 (3.899 solo en 1947) opositores políticos de diferentes ideologías, aunque la mayor parte de ellos (4.257) eran supuestos miembros del Partido Comunista. En cuanto a nacionalistas vascos, los detenidos documentados en ese período por la Dirección General de Seguridad fueron 443.[121]

El 1 de mayo de 1950 la policía de la Brigada Político-Social de Donostia detuvo a un supuesto militante anarquista "que

120 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

121 Segurtasun Zuzendaritza Nagusia. Komisaldegi Politiko Sozial Nagusia, "Espainiako jarduera politiko-sozial klandestinoa 1949an. Espainiako poliziak espezialitate horretan emandako zerbitzuen laburpena", Madril, 1950, EN Blog "Justicia y dictadura".

120 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

121 Dirección General de Seguridad. Comisaria General Político-social, "La actividad político-social clandestina en España durante 1949. Resumen de los servicios practicados en la especialidad por la policía española", Madrid, 1950, EN Blog "Justicia y dictadura".

zuen, “lotura lanak egiten zituela” leporatuz. Urte hartan, gutxienez hiru pertsona atxilotu zituzten Donostian, erbesteko “separatistentzat” funtsak biltzeaz akusatuta. Irunen Alderdi Sozialistaren eta UGTren Batzorde Probintziala desartikulatu zituzten, eta Bizkaia eta Araban beste 57 pertsona atxilotu zituzten Euzkadiko Batzorde Zentraleko kide izateagatik.[122] 1951n jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat gertatu zen euskal nazionalisten aurkako operazio polizialetan: 1950eko izandako 3 atxilotuen ordez, 73 atxiloketa gertatu ziren hurrengo urtean.[123] 1952ko azaroaren 18an José Bernabe Orbegozo Orbegozo azpeitiarra atxilotu eta espetxeratu zuten (Ondarretako kartzelan), Venezuelatik itzuli zenetik ANV alderdia berreraikitzen ahalegindu zelakoan; inputazio hura artxibatu egin zen gero, Orbegozo 1953an hil baitzen Zestoan, ibaiak gainezka egindakoan gertatutako autobus istripu batean.[124] José Bernabek 30 urteko espetxe zigorra jaso zuen 1937an, baina baldintzapeko askatasuna eman zioten 1943an. Itxuraz, hurrengo bi urteetan klandestinitatean bizi izan zen Madrilen, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura, gaixotu eta Frantziatik Venezuelara ihes egin zuen arte.[125]

Hala eta guztiz ere, garai hartan indar polizial militarizatuak izan ziren Estatuaren indarkeriaren oinarri sendoena, batik bat Guardia Zibila –gerra ondorengo okupazio militarraren luzapena[126]–, eta baita jurisdikzio militarra ere. Gerra-egoera 1948ko apirilaren 7an indargabetu bazen ere, Estatuak arbitrarioki jarraitu zuen jurisdikzio militarra aplikatzen, prozesuetarako inolako bermerik gabe, eta zapalkuntza fisikoaren tresna baliagarriena izan zen urtetan.[127] Jarduera polizialaren eta judizialaren ondoren, berez etorri zen espetxe politika, “Estatu Berriaren” hirugarren hanka instituzionala, Espainiako Estatua “espetxe erraldoi” bihurtzeraino.

Francoren diktadurak hildako gehiago eragin zituen bake garaian Hitler eta Mussoliniren diktadurek baino[128], eta berea izan zen atxiloketa gehien egin zituen erregimena[129]. Justizia Ministerioaren arabera, 1940ko urtarrilaren 1ean 270.719 preso zeuden Espainian, haietatik 2.828 heriotzara

asumía funciones de enlace”. Durante este año al menos tres personas fueron arrestadas en Donostia acusadas de recaudar fondos para los “separatistas” en el exilio, fue “desarticulado el Comité Provincial del Partido Socialista y de la UGT” en Irún, y 57 personas acusadas de pertenecer al Comité Central de Euzkadi fueron detenidas en Bizkaia y Araba.[122] En 1951 se produjo un salto tanto cualitativo como cuantitativo en las operaciones policiales contra nacionalistas vascos, pasando de los 3 detenidos en 1950 a 73 en 1951.[123] Al año siguiente fue arrestado y encarcelado en la prisión de Ondarreta (hasta el 18 de noviembre de 1952) el azpeitiarra José Bernabé Orbegozo Orbegozo, acusado de intentar reconstruir ANV desde su vuelta de Venezuela, imputación que quedó archivada tras su fallecimiento en 1953 a consecuencia de un accidente de autobús ocurrido en Zestoa por una riada.[124] José Bernabé había sido condenado a 30 años de prisión en 1937, si bien le fue concedida la libertad condicional en 1943. Durante los siguientes dos años residió en Madrid en la clandestinidad al servicio del Gobierno Vasco en el exilio, hasta que cayó enfermo y huyó a Venezuela desde Francia.[125]

Con todo, durante este período la violencia ejercida por el Estado se apoyó fundamentalmente en unos cuerpos policiales militarizados, principalmente la Guardia Civil, como prolongación de la ocupación militar tras la guerra[126], así como en la jurisdicción militar. Esta última, a pesar de que el estado de guerra quedó derogado el 7 de abril de 1948, fue ejercida de forma arbitraria y en ausencia de cualquier tipo de garantía procesal, por lo que continuó siendo un instrumento principal de la represión física.[127] Derivada de la actividad policial y judicial se configuró la política penitenciaria, la tercera pata del tablero institucional del “Nuevo Estado”, que convertiría al Estado español en una “inmensa prisión”.

La dictadura de Franco no solo mató en tiempos de paz más que la de Hitler y Mussolini,[128] sino que también fue la que más encarceló.[129] Según el Ministerio de Justicia, a fecha de 1 de enero de 1940 la población penal española era de 270.719 personas, mientras que el número de condenados a muerte ascen-

122 Segurtasun Zuzendaritza Nagusia. Komisaldegi Politiko Sozial Nagusia, “Espainiako jarduera politiko-sozial klandestinoa 1950ean. Espainiako poliziak espezialitate horretan emandako zerbitzuen laburpena”, Madril, 1951 EN Blog “Justicia y dictadura”.

123 Segurtasun Zuzendaritza Nagusia. Komisaldegi Politiko Sozial Nagusia, “Espainiako jarduera politiko-sozial klandestinoa 1952an. Espainiako poliziak espezialitate horretan emandako zerbitzuen laburpena”, Madril, 1951, EN Blog “Justicia y dictadura”.

124 EGAÑA, I.: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria, 1936-1940.*

125 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

126 YUSTA, M.: “Rebeldía individual, compromiso familiar, acción colectiva: las mujeres en la resistencia al franquismo durante los años cuarenta”.

127 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.

128 MALEFAKIS, E.: “La dictadura de Franco en una perspectiva comparada”.

129 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.

122 Dirección General de Seguridad. Comisaria General Político-social, “La actividad político-social clandestina en España durante 1950. Resumen de los servicios practicados en la especialidad por la policía española”, Madrid, 1951, EN Blog “Justicia y dictadura”.

123 Dirección General de Seguridad. Comisaria General Político-social, “La actividad político-social clandestina en España durante 1952. Resumen de los servicios practicados en la especialidad por la policía española”, Madrid, 1951, EN Blog “Justicia y dictadura”.

124 EGAÑA, I.: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria, 1936-1940.*

125 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

126 YUSTA, M.: “Rebeldía individual, compromiso familiar, acción colectiva: las mujeres en la resistencia al franquismo durante los años cuarenta”.

127 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.

128 MALEFAKIS, E.: “La dictadura de Franco en una perspectiva comparada”.

129 GONZÁLEZ MADRID, D.: “Violencia política y dictadura franquista”.



Presoen senideak Ondarretako kartzelan, 1942an.

Familiares de presos en la cárcel de Ondarreta. 1942.

© Pascual Marin. Kutxateka

kondenatuak. Kalkuluen arabera, biztanleriaren % 10 inguru preso zegoen gerra amaitu berritan (1936 eta 1940ko hamarkadaren hasiera artean). Ejertzitoak berak adierazi zuen egoera sostengaezina zela, eta 1939 amaieran bere kezkak azaldu zituen, ez gizatiartasunagatik, baizik eta kuartelak espetxe gisa erabiltzen hasi behar izan zutelako eta, ondorioz, unitate militarrek kanpin dendetan bizi behar zutelako. 1944rako asko murriztu zen preso kopurua (74.000[130]), eta espetxeetako baldintzak hobetu egin ziren pixkanaka, baina halere 15.000 hildako izan ziren saturazio arazoengatik, gaixotasunengatik eta goseteengatik.[131] Espetxeez gain, 150 eta 300 kontzentrazio-esparru eta langile behartuen batailoi sortu ziren hainbat modalitate desberdinetan (gerra garaian laneko batailoiak, eta gerraostean langile soldaduen diziplina batailoiak, espetxe-kolonia militarizatuak, espetxe destakamentuak, e.a.), non 367.000 preso gatibatu baitzituzten.[132] Halako zentroetan

130 CAPELLÀ, M., GINARD, D. (Coord.). 2009. *Represión política, justicia y reparación. La memoria histórica en perspectiva jurídica (1936-2008).*

131 MORENO GOMEZ, F.: *La gran acción represiva de Franco que se quiere ocultar.*

132 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista". / HERNÁNDEZ DE MIGUEL, C.: *Los campos de concentración de Franco.*

día a 2.828, de tal forma que se ha calculado que el número total de presos en la inmediata posguerra (entre 1936 y comienzos de la década de 1940) representó el 10% de la población. El propio ejército consideraba insostenible la situación, y a finales de 1939 se mostraba preocupado, no por humanismo, sino por la habilitación de los cuarteles como prisiones, lo que provocaba que las unidades militares tuvieran que alojarse en tiendas de campaña. En 1944 la cifra de reclusos había descendido a 74.000[130], y a pesar de que las condiciones carcelarias fueron paulatinamente mejorando, los problemas de saturación, enfermedades y hambruna provocaron en torno a 15.000 fallecidos.[131] Pero además de las prisiones existieron entre 150 y 300 campos de concentración y batallones de trabajadores forzosos en sus diferentes modalidades (Batallones de Trabajo durante la guerra y Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores, Colonias Penitenciarias Militarizadas, Destacamentos Penales, etc. en la posguerra), los cuales albergaron a al menos 367.000 prisioneros.[132] Estos centros utilizaron a los presos políticos como mano de obra forzosa, sobre todo a partir de la finalización de la guerra, pero también durante la década de 1940.

Solo en Azpeitia, un municipio de menos de 9.000 habitantes hasta 1951, al menos 82 de sus vecinos estuvieron recluidos en Campos de Concentración, Batallones de Trabajadores (BB.TT.), Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores (BDST) y BDST (Penados) hasta mediados de los años 40,

130 CAPELLÀ, M., GINARD, D. (Coord.). 2009. *Represión política, justicia y reparación. La memoria histórica en perspectiva jurídica (1936-2008).*

131 MORENO GOMEZ, F.: *La gran acción represiva de Franco que se quiere ocultar.*

132 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista" / HERNÁNDEZ DE MIGUEL, C.: *Los campos de concentración de Franco.*



Ondarretako Kartzela.

Cárcel de Ondarreta.

© Pascual Marín. Kutxateka

preso politikoak baliatu zituzten eskulan behartu gisa, batez ere gerra amaitu ondoren, baina baita 1940ko hamarkadan zehar ere.

Azpeitian bakarrik –1951 bitartean 9.000 biztanle baino gutxiago zituen–, 82 herritar egon ziren preso kontzentrazio-esparru, langileen batailoietan (BBTT), langile soldaduen diziplina batailoietan (BDST) eta zigortuentzako BDSTetan 40ko hamarkadaren erdialdera arte. Gainera, gutxienez 163 epaitu zituzten gerra-kontseiluetan. Horrek esan nahi du azpeitiarren % 1 egon zirela preso horrelako guneetan eta % 2 izan zirela tribunal militarretan epaituak.[133] Nahiz eta 1942an langile zelai eta batailoien buruzagitza desegiteko agindua eman, zigortuentzako BDSTak ez ziren ofizialki desagertu 1948ra arte; hain zuzen, halakoak baliatzen zituzten 1936 eta 1954 arteko kintetakoak eta Zergen Fiskaltzak zigortutakoak giltzapetzeko.[134] Eta, hala ere, 1952ko martxoa eta 1953ko ekaina bitartean gutxienez bost azpeitiar egon ziren zigortuentzako BDST batean sartzeko arriskuan. Zergen Fiskaltzak zigortuei (edo udalari, bitartekari gisa) bidalitako ofizioetan mehatxu egiten zitzaien BDST batera bidaliko zituztela ezarritako isuna ez bazuten ordaintzen 48 ordutan. Manuel Guridi Kerejeta, Joaquin Aizpuru Lesaka, Diego Gurruchaga Mendiola, José María Unanue Korta eta Victor Loinazek jaso zituzten horrelako ofizioak; gainera, lehenengoak bere aitari (Bautista Guridi Unanue) ezarritako isun bat bere gain hartzeagatik jaso zuen ofizio hura.[135]

mientras que un mínimo de 163 fueron juzgados en consejos de guerra. Esto supone que el 1% de la población azpeitiarra estuvo recluida en este tipo de centros, y que el 2% fue juzgada por tribunales militares.[133] Y aunque a finales de 1942 se dio la orden de disolver la Jefatura de Campos y Batallones de Trabajadores, oficialmente hasta 1948 existieron los BDST (Penados) para penados comprendidos entre las quintas de 1936 y 1954, y para los condenados por la Fiscalía de Tasas.[134] Sin embargo, un mínimo de cinco azpeitiarras corrieron el riesgo de ser recluidos en un BDST (Penados) entre marzo de 1952 y junio de 1953. En los oficios que la Fiscalía de Tasas envió a los condenados (o al ayuntamiento como intermediario) se les amenazaba con ingresarlos en un BDST sino hacían efectivo el pago de la multa impuesta en un plazo de 48 horas. Los afectados fueron Manuel Guridi Querejeta, Joaquín Aizpuru Lesaca, Diego Gurruchaga Mendiola, José María Unanue Corta y Víctor Loinaz, siendo en el primero de los casos una multa impuesta al padre del afectado (Bautista Guridi Unanue) de la que el hijo se hacía cargo.[135]

133 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

134 BEAMUNT ESANDI, E., MENDIOLA GONZALO, F.: "Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: castigo político, trabajos forzados y cautividad".

135 AUA, 46702.80/42/43/44/109 sig.

133 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

134 BEAMUNT ESANDI, E., MENDIOLA GONZALO, F.: "Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: castigo político, trabajos forzados y cautividad".

135 AMA, sig. 46702.80/42/43/44/109.

## FRANKISMOAREN HASIERAN HERIOTZA ZIGORRAREKIN KONDENATU ETA 1945ETIK AURRERA PRESO EDO ZAINTZAPEKO ASKATASUN ZERBITZUAK KONTROLATUTA JARRAITU ZUTEN AZPEITIARRAK[136]

## AZPEITIARRAS CONDENADOS DURANTE EL PRIMER FRANQUISMO Y QUE CONTINUARON PRESOS O CONTROLADOS POR EL SERVICIO DE LIBERTAD VIGILADA A PARTIR DE 1945[136]



### Pablo Altuna Mendia

1912an jaio zen Azpeitian eta bertan bizi izan zen. *Amaiur* batailoi nazionalistako kide izan zen teniente graduan, eta Artxanda mendian zauritu zuten 1937ko ekainaren 17an. Handik bi egunera Bilboko Iralabarri erietxe militarrera eraman zuten, berehala hartu zutelarik preso. Hainbat hilabete ingresatuta pasa ondoren, Algortako Trinitarioetara (Bizkaia) bidali zuten, eta gerora erietxe gisa erabiltzeko atondutako Bilboko moja-eskola batera eta Sondikan jarritako beste behin-behineko erietxe batera. 1938ko otsailaren 21ean, Deustuko kontzentrazio-esparrutik Eskolapioetako espetxera bidali zuten, baina maiz atera behar izan zuen handik Basurtuko erietxera, ebakuntzak egiteko.

1939ko martxoan, epaitegi militar batek urtebeteko espetxe zigorra ezarri zion "iraultza militarra" leporatuta ustezko delitutzat. Epaiak zioen zigorra laburra izango zela bere jarduera guztiak aitortu zituelako. Halere, handik gutxira, Madrileko Justizia Militarreko Auzitegi Gorenak kendu egin zion zigor hura eta "iraultzarekin bat egiteko" delituaz akusatu zuen, 30 urteko giltzapealdi handiarekin zigortuz.

1940ko urrian askatu zuten El Carmelo espetxetik, Zigorrak aztertzeko Batzordeak 3 urtera murriztu baitzion 30 urteko zigor hura. Dena den, Bizkaiko Zaintzapeko Askatasuneko Batzorde Probintzialak kontrolatuta izan zuen, gutxienez, 1959ra arte.

Natural y vecino de Azpeitia, localidad en la que nació en 1912. Formando parte del batallón nacionalista *Amaiur* con el grado de teniente, fue herido en el monte Artxanda el 17 de junio de 1937. Dos días más tarde ingresó en Hospital Militar de Iralabarri de Bilbao, siendo inmediatamente hecho prisionero. Después de algunos meses en este centro, fue enviado a los Trinitarios de Algorta (Vizcaya) y posteriormente a un colegio de monjas de Bilbao habilitado provisionalmente como hospital, así como a otro centro sanitario provisional instalado en Sondika. El 21 de febrero de 1938 fue trasladado desde el Campo de Concentración de Deusto a la prisión de Los Escolapios, penitenciaria de la que salió en varias ocasiones para ser intervenido quirúrgicamente en el hospital de Basurto.

En marzo de 1939 fue condenado por un tribunal militar por un supuesto delito de "rebelión militar" a 1 año de cárcel. Según la sentencia, lo exiguo de la condena se debía a que toda su actividad había sido confesada. Sin embargo, poco después el Alto Tribunal de Justicia Militar de Madrid revocó la condena declarándole responsable de un delito de "adhesión a la rebelión", condenándolo a 30 años de reclusión mayor.

En octubre de 1940 fue liberado definitivamente de la prisión de El Carmelo, tras haber sido rebajada la condena de 30 a 3 años por la Comisión de Examen de Penas. No obstante, al menos hasta 1959 estuvo controlado por la Junta Provincial de Libertad Vigilada de Bizkaia.

### Agustín Arrieta Ibarbia

Azpeitian jaio zen 1911n eta Azkoitian bizi izan zen. 1945eko ekainean, Donostiako auzitegi militar batek sumario arrunt batean sartu zuen, "Estatuko Defentsa eta Segurtasun Legearen" aurkako ustezko delitu bat leporatuta. Hogeita hamar bat lagun akusatu zituzten, Donostian ANVren batzordea eta Frantziako Estatuan Euskal Brigada eratzeagatik klandestinoki. Epaileen ikerketak urtetan iraun zuen, eta 1948ko martxoaren 30ean ebatzi

Nacido en Azpeitia en 1911 y vecino de Azkoitia. En junio de 1945 se vio envuelto en un procedimiento sumarísimo ordinario instruido por un juzgado militar de Donostia por un posible delito contra la "Ley de Defensa y Seguridad del Estado". Una treintena de personas fueron acusadas de constituir de manera clandestina el comité de ANV en Donostia y la Brigada Vasca en el Estado francés. Las pesquisas judiciales se alargaron durante varios años, hasta que el 30 de marzo de

136 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

136 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian.*

zuten Arrietari absoluzioa ematea, iritzirik Bermeotik itsasoz Frantziara ihes egiteko saiakeraren helburua ez zela "Frantzian erbesteratutako euskaldunek osatutako unitate militar batean izena ematea", baizik eta lana bilatzea.

1948 el consejo de guerra dictó la libre absolución de Arrieta, al considerar que su intento de huir al país vecino por mar desde Bermeo no tenía como objetivo "enrolarse en una unidad de carácter militar compuesta por vascos exiliados en Francia", sino la búsqueda de trabajo.



## Eleuterio Azpiazu Gómez

1918an Azpeitian jaioa. Errepublika garaian José Iturzaetaren altzari fabriketan eta Hijos de Andres Arruti enpresan lan egin zuen ebanista modura. Gerra hasi ostean, guardia armatuan sartu zen, eta Azpeitiara errepidez sartzeko baimenak kontrolatzen aritu zen. Eleuteriok hala osatzen zuen bere jornala, "fabrika itxita zegoenez dirua behar baitzuen jateko". 1936ko irailaren 18an Bilbora ihes egin zuen, altxatuen tropak herrian sartzera zihoazela ikusita. Inolako dirusarrerarik gabe, Eusko Jaurlaritzaren Laguntza Sozialei esker biziraun zuen, 1937ko martxoaren amaieran zulatzaileen batailoi batean sartu zen arte. Tropa frankistak Bilbon sartu baino apur bat lehenago mobilizatu zuten bere kinta eta infanteriako batailoi batean sartu zen fusilari: Barakaldo, Gallarta eta Ontóneko (Kantabria) frenteetan egin zuen borroka. Gerora, berriz ere zulatzaileen batailoira itzuli zen eta lubakiak egiten aritu zen, 1937ko urriaren 21ean Pola de Cieron (Asturias) atxiki zuten arte.

Atxilotu ostean Oviedoko kartzelara eraman zuten, eta Santoñara gero. Azken horretan, Presoak sailkatzeko Batzordeak "C atalean" sartu zuen 1937 amaieran eta, handik gutxira, Bilboko Eskolapioen kartzelara eraman zuten. 1938ko ekainaren 25ean presazko sumario bat hasi zuten Eleuterioren aurka eta Ondarretako espetxera lekualdatu zuten. Ikerketa judizialak iraun zuen bitartean, erabakigarriak izan ziren Falangearen, Azpeitiko Alkatetzaren, José Iturzaeta enpresariaren nahiz Ramon Echaniz abadearen txostenak. Azkenean, kasua artxibatu egin zen eta "C atalean" sailkatzeko erabakia indargabetu zuten. Izan ere, denek deklaratu zuten Eleuterio ideia nazionalistak zituen gaztea zela, baina baita ere "oso langilea" zela eta "jarrera pasiboa izan zuela gorriak agintean zeudenean". 1939ko otsailaren 18an askatu eta egun gutxira, Iruñeko erreklutatze-bulegoan erregistratu zuten. Maiatzaren 12an, Infanteriako 23. erregimenduan (Amerika) sartu zen eta Lekarozen jarri zen bizitzen, non Zaintzapeko Askatasun zerbitzuaren kontrolpean egon baitzen, gutxienez, 1945eko irailera arte.

Nacido en Azpeitia en 1918. Trabajó durante el período republicano en las fábricas de muebles de José Iturzaeta y en la de Hijos de Andrés Arruti como ebanista. Tras el inicio de la guerra prestó servicios de guardia armada controlando los salvoconductos de acceso por carretera a Azpeitia. De este modo, Eleuterio conseguía cobrar un jornal "pues estando la fábrica cerrada necesitaba el dinero para comer". El 18 de septiembre de 1936 huyó a Bilbao ante la inminente entrada de los sublevados. Sin ningún tipo de ingreso, subsistió gracias a Asistencia Social del Gobierno Vasco, hasta que a finales de marzo de 1937 ingresó en un batallón de zapadores. Poco antes de la entrada de las tropas franquistas en Bilbao, fue movilizada su quinta y destinado a un batallón de infantería como fusilero, actuando en los frentes de Barakaldo, Gallarta y Ontón (Cantabria). Posteriormente, estuvo de nuevo enrolado en un batallón de zapadores ejecutando trincheras hasta ser apresado en Pola de Ciero (Asturias) el 21 de octubre de 1937.

Tras su detención fue trasladado a la prisión de Oviedo, para posteriormente recalar en la de Santoña. En ésta, la Comisión Clasificadora de Prisioneros lo encuadró en el "apartado C" a finales de 1937, siendo trasladado poco después a la cárcel de Los Escolapios en Bilbao. El 25 de junio de 1938 se inició a un proceso sumarísimo de urgencia contra Eleuterio, el cual fue trasladado a la prisión de Ondarreta. Durante la fase de investigación judicial, los informes de Falange y alcaldía de Azpeitia, así como los del empresario José Iturzaeta y el sacerdote Ramón Echaniz, resultaron determinantes para el sobreseimiento del caso y la rectificación de la clasificación impuesta para incluirle en el "apartado C". Y es que tanto unos como otros declararon que Eleuterio era un joven de ideas nacionalistas, pero "muy trabajador" y con una "actitud meramente pasiva" durante el "dominio rojo". Puesto en libertad el 18 de febrero de 1939, pocos días después fue incorporado a la caja de reclutas de Pamplona. El 12 de mayo ingresó en el regimiento de Infantería América nº 23, estableciendo su residencia en Lecaroz, donde sería controlado por el servicio de Libertad Vigilada al menos hasta septiembre de 1945.

## Angel Ezenarro Uribe

Donostian jaioa, Azpeitian bizi zen. Inprimatzailea ogibidez. 1944an Lleidan espetxeratu zuten eta urte hartako abenduaren 15ean "Lotura Dibisioen taldeko Estatu Nagusiaren" esku utzi zuten. 29 urteko espetxe zigorra ezarri ondoren, hainbat kartzelatan egon zen. Gerora, 1952ko uztailaren 8an, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak –Burgoseko Espetxe Zentralaren bitartez– baldintzapeko askatasuna eman zion.

Nacido en Donostia y vecino de Azpeitia. Impresor de profesión. En 1944 fue encarcelado en la prisión de Lleida y posteriormente, el 15 de diciembre de ese mismo año, fue puesto a disposición del "Estado Mayor del Grupo de Divisiones de Enlace". Condenado a 29 años de prisión, pasó por diferentes centros penitenciarios hasta que el 8 julio de 1952 la Dirección General de Prisiones, a través de la Prisión Central de Burgos, le otorgó la libertad condicional.



## José María Garmendia Errasti

José María Garmendia *Koipe* Azpeitian jaio zen 1907an eta Eliza kalean bizi izan zen. Aldare eta erretaula margolaria ogibidez ("urreztatzaile" izenez ere ezagutzen da ofizio hori), EAJko militantea eta ELAko afiliatua zen 1932tik. Gerra Zibilaren hasieran alderdiko eta Ordena Publikoko Batzorde Lokaleko bokal izendatu zuten. 1936ko irailaren 19an alde egin zuen Azpeititik, eta Euskal Ejertzitoaren Intendentziako 5. Batailoian erroldatu zen. Elorriora bidali zuten lehenbizi, baina hainbat frentetan egin zuen borroka, 1937ko abuztuaren 25ean Laredon atxilotu zuten arte.

Aranda del Dueroko kontzentrazio-esparrura eraman ondoren, 1937ko urriaren 20an ebatzi zuten bere sailkapena eta espetxean mantentzea erabaki zuten ("C atalean" sailkatuta), bere deklarazioa eta Azpeitiko Guardia Zibilaren txostena aztertu ondoren. Presazko sumarioa ireki eta, 1938ko maiatzaren 16an, Eskolapioetako espetxera eraman zuten. Apirilean zehar, Falangearen eta Azpeitiko Alkatetzaren txostenak iritsi ziren Bilboko 12. auzitegi militarrera, adieraziz Garmendia "eskuineko pertsonen" etxeetan ibili zela irrati aparatuak konfiskatzen (besteak beste Casto Orbegozorenean). Kasu zehatz honetan, "inkautazio erreziboaren kopia bat" sartu zuten espediente judizialean, José Maríak berak sinatua, non adierazten baitzen "idazmahai bat eta bere aulkia" konfiskatu zituztela. Orobat aipatzen zen Nuarben eginiko ustezko konfiskazio hartan inplikatutako emakumeetako bat erruztatuaren "emaztegaia zela, edo bikotea gutxienez". Gerora bere emazte izango zena zen: María Joséfa Altuna Astigarraga.

Gainera, Azpeitiko bi herritarren lekukotzak aurkeztu ziren. Batetik, José Antonio Segurola Iturriozek deklaratu zuen José Maríak eta Guardia Zibilaren teniente batek atxilotu egin zutela 1936ko abuztuaren 19an. Bestetik, Victoria Aizarna Lizasok adierazi zuen "Zirkulu Tradizionalistan eginiko harrapaketaren" lekuko izan zela eta erruztatuak konfiskazio ekintza hartan parte hartu zuela.

José María "Koipe" nació en Azpeitia en 1907 y era vecino de la calle Iglesia. Pintor de altares y retablos de profesión, oficio más conocido como "dorador", era militante del PNV y afiliado a STV desde 1932. Tras el inicio de la Guerra Civil fue nombrado vocal del partido y del Comité Local de Orden Público. El 19 de septiembre de 1936 abandonó Azpeitia, enrolándose posteriormente en el batallón de Intendencia nº 5 del Ejército Vasco. Su primer destino fue Elorrio, si bien, actuó en varios frentes hasta su detención en Laredo el 25 de agosto de 1937.

Trasladado al Campo de Concentración de Aranda del Duero, el 20 de octubre de 1937 se emitió el acta de clasificación que resolvió mantenerlo en prisión (clasificado en el "apartado C") tras su declaración y el informe de la Guardia Civil de Azpeitia. Una vez se dio apertura al proceso sumarísimo de urgencia, fue trasladado a la prisión de Los Escolapios el 16 de mayo de 1938. Durante el mes de abril, llegaron al juzgado militar nº 12 de Bilbao informes de Falange y alcaldía de Azpeitia en los que se le acusaba de haber participado en varias requisas de aparatos de radio en domicilios de "personas de derechas", entre las que se mencionaba a Casto Orbegozo. En este caso concreto se aportó al expediente judicial "la copia exacta de un recibo de incautación" firmada por José María y en la que se especificaba la requisa de un "escritorio con su silla". Asimismo, se hacía mención a que una de las mujeres implicadas en la supuesta requisa llevada a cabo en Nuarbe era la "prometida o por lo menos en plan de noviazgo" del encausado. Se refería el informe a la que posteriormente fue su mujer, María Joséfa Altuna Astigarraga.

Además de ello, se presentó el testimonio de dos vecinos de Azpeitia. Por un lado, José Antonio Segurola Iturrioz declaró haber sido detenido el 19 de agosto de 1936 por José María y un teniente de la Guardia Civil. Por su parte, Victoria Aizarna Lizaso declaró como testigo del "saqueo del Circulo Tradicionalista", señalando al encausado como participante

Bere hitzetan, “Garmendiak pertsona zintzoekiko sentimendu gaiztoak zituen, batik bat eskuineko pertsonekiko”. Hain zuzen, Victoriak bere aitorpenean gaineratu zuen José Maríak ustezko boikot bat gidatu zuela Juan Pablo Lojendio eskuindarrak Azpeitian eman zuen mitin baten aurka: “gizatxar horrek modu txarrean eten zion eta bere jarraitzaileek behin baino gehiagotan egin zioten txistu eta oihu”. 1938ko maiatzaren 19an, José Maríak lehenago eginiko adierazpena berretsi zuen epailearen aurrean; hau da, bere militantzia politikoa eta frenteko jarduerak aitortu zituen, baina ez zuen onartu Juan Pablo Lojendio hautagai eskuindarra eten izana eta esan zuen ez zuela gogoan José Antonio Segurola atxilotu izana. Ondorioz, 1938ko uztailaren 7an 20 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, “iraultza delituan laguntzea” leporatuta. Azkenik, 1941eko uztailaren 1ean baldintzapeko askatasuna eman zioten, zigorra 6 urte eta egun 1 murriztu ondoren. 1948ko irailaren 8an behin betiko askapen ziurtagiria eman zioten.

en dicha requisa y calificándolo como un individuo “de malos sentimientos con las personas de orden y sobre todo con las de derechas”. De hecho, Victoria quiso añadir a su declaración el supuesto boicot que José María capitaneó contra un mitin del derechista Juan Pablo Lojendio en Azpeitia: “fue interrumpido por este sujeto de mala manera, siendo varias veces interrumpido y abucheado por este y sus secuaces”. Con todo, el 19 de mayo de 1938 José María ratificó ante el juez militar su declaración anterior en la que reconocía tanto su militancia política como su actuación en el frente, si bien, negó haber interrumpido al candidato derechista Juan Pablo Lojendio, y dijo no recordar haber detenido a José Antonio Segurola. En consecuencia, el 7 de julio de 1938 José María fue condenado a 20 años de prisión por un supuesto delito de “auxilio a la rebelión”. Finalmente, el 1 de julio de 1941 le fue concedida la libertad condicional tras ser conmutada la pena por 6 años y 1 día de prisión. El 8 de septiembre de 1948 le fue otorgado el “certificado de liberación definitiva”.



**Juan Iturralde Bereciartua**

1914an jaio zen Urrestillan. Ebanista ogibidez, ELA eta EAJko militantea izan zen errepublika garaian. Gerra hasi ondoren guardia lanak egin zituen Defentsa Batzordearentzat, bere anaia Vicentek bezalaxe. 1936an *Loiola*ko batailoian erroldatu zen eta hainbat frentetan egin zuen borroka, 1936ko abuztuaren 26an Limpiasen (Kantabria) atxiki zuten arte. Handik urtebetera, Aranda del Dueroko kontzentrazio-esparrura eraman zuten eta Zigorrak aztertzeko Batzordeak “C atalean” sailkatu zuen; ondorioz, espetxean gelditu behar izan zuen gerra-kontseilu batek epaitzeko zain. Itxuraz, Batzordeak kontuan hartu zuen Euskal Ejertzitoan bere borondatez sartu zela, eta politiko militantea zela, eta Azpeitiko Guardia Zibilaren txosten bat ere jaso zuen, non esaten baitzen Juanek harrapaketa eta atxiloketetan parte hartu zuela.

1937ko azaroaren 22an Burgoseko espetxera bidali zuten eta hantxe egon zen giltzapetuta Bilboko Eskolapioetako kartzelara bidali zuten arte, bera epaitzeko presazko sumarioa ireki bezain laster. 1938ko abenduaren 13an, justizia militar frankistak kasua artxibatzea erabaki zuen, eta 1939ko irailaren hasieran langileen batailoira bidali zuten. 1940ko uztailaren 26an, ordurako aske zelarik, berriz atxilotu eta espetxeratu zuten abuztuaren 1era arte, “agintaritzaren aurkako atentatu” bat egitea leporatuta. Gerora, 1947ko ekainak 16 eta abenduak 2

Juan nació en 1914 en Urrestilla. Ebanista de profesión, durante el período republicano estuvo afiliado a STV y al PNV. Tras el inicio de la guerra probablemente prestó servicios de guardia para el Comité de Defensa al igual que su hermano Vicente. En 1936 se enroló en el batallón *Loyola* con el que combatió en diferentes frentes hasta ser capturado en la localidad cántabra de Limpias el 26 de agosto de 1936. Un año más tarde fue trasladado al Campo de Concentración de Aranda del Duero, donde la Comisión de Examen de Penas lo clasificó en el “apartado C”, lo que supuso permanecer en prisión a la espera de ser juzgado en consejo de guerra. Al parecer, además de su alistamiento voluntario en el Ejército Vasco y su filiación política, la Comisión tuvo en cuenta el informe de la Guardia Civil de Azpeitia en el que se decía que Juan había participado en saqueos y detenciones.

El 22 de noviembre de 1937 fue enviado a la penitenciaria de Burgos, donde permaneció recluido hasta su traslado a la prisión de Los Escolapios en Bilbao tras abrirse el procedimiento sumarísimo de urgencia que lo juzgaría. El 14 de diciembre de 1938 la justicia militar franquista decidió sobreseer el caso y enviarlo a un batallón de trabajadores a comienzos de septiembre de 1939. A mediados de julio de 1940, en concreto el 26 de julio, encontrándose ya en situación de libertad, fue detenido y encarcelado hasta el 1 de agosto acusado de un delito de “atentado a la autoridad”. Posteriormente, entre el 16 de junio y el 2

artean, berriz atxilotu zuten arrazoi beragatik, eta inkomunikatuta eduki zuten. Francok Donostian egin behar zituen ekitaldiekin batera gertatu ziren espetxeratze arbitrario eta prebentibo haiek. Hala, Juanek 180 egun egin zituen giltzapean (1936ko abuztutik 1940 hasiera edo erdialdera arte eginikoez gain).

de diciembre de 1947 fue de nuevo detenido e incomunicado por el mismo motivo que en 1940. Estos encarcelamientos arbitrarios y preventivos coincidieron probablemente con actos de Franco en la capital guipuzcoana, lo que le costó a Juan un total de 180 días encarcelado, a los que habría que sumar el tiempo ininterrumpido de reclusión padecido entre agosto de 1936 y principios o mediados de 1940.

## Julián Lazcano Urcelay

Oñatiarra jaiotzez, Julian Azpeitian eta Zarautzen ere bizi izan zen errepublika garaian. Hain zuzen, Azpeitira joan zen bizitzera Urolako Trenbide Konpainian hasi zelako lanean, "behin-behineko ikuskaritza eta estatistika buru" bezala. 1934ko urrian, Azpeitiko Askotariko Ogibideetako Sindikatu Katoliko sortu berriaren lehen Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen. 1936ko irailaren 20an, Azpeititik ihes egin eta egun batera, Konpainiatik bota zuten "lanpostua utzi izanagatik".

1937ko abuztuan atxilotu zuten Kantabrian eta gerra-kontseilu batek epaitu zuen Santoñako plazan. Irailaren 7ko ebazpenaren arabera, Julian "batailoi gorri" bateko komisario politikoa eta "garraioen arduraduna" izan zen. Horregatik, heriotza zigorra ezarri zioten. Halere, Estatuko Idazkaritza Nagusiak zigor hura barkatu zion eta "hurrengo zigor astunena" ezarri, hau da, biziarteko espetxea. Gerora Eskolapioetako kartzelara eraman zuten, eta 1938ko uztailean Burgoseko espetxe zentralera.

1939ko abuztuan, artean Burgoseko espetxean giltzapeturik zegoela, Bilboko behin-behineko 1. auzitegi militarrak diligentziak hasi zituen Julian eta beste preso batzuen aurka, atzerriko eta Eusko Jaurlaritzako billeteak ezkutatu zituztelako trukatzeko asmoz. Hori 1938ko maiatzaren 2an gertatu zen, akusatuak Eskolapioetan preso zeudenean, eta espetxeetako funtzionarioek billeteak aurkitu zizkieten miatu zituztenean. Bigarren prozesu hark urteak iraun zituen eta instrukzio fasea amaitu gabe egon arren, Juliani espetxe zigor arindua ezarri zioten 1943an. Hala, Madrilen jarri zen bizitzen. 1944ko abenduaren 1ean, Bilboko auzitegi militarrak hala eskaturik, Julian atxilotu egin zuten eta Bilboko espetxe probintzialera eraman, han gerra-kontseiluak epaitu zezan. Handik bi hilabetera, 1945eko otsailaren 24an, epaitegiak absolbitu egin zituen erruztatu guztiak eta Julian zaintzapeko askatasunean gelditu zen berriz.

Natural de Oñati, Julián residió en Azpeitia durante el período republicano, aunque también fue vecino de Zarautz. El establecimiento de su domicilio en Azpeitia se debió a su trabajo en la Compañía del Ferrocarril de Urola, en la que ocupó el cargo de "jefe accidental de Intervención y estadística". En octubre de 1934 formaba parte de la primera Junta Directiva del recién creado Sindicato Católico de Oficios Varios de Azpeitia. El 20 de septiembre de 1936, un día después de que escapara de Azpeitia, fue expulsado de la Compañía por "abandono del puesto de trabajo".

En agosto de 1937 fue detenido en Cantabria y juzgado en consejo de guerra en la plaza de Santoña. Según la sentencia del 7 de septiembre de ese mismo año, Julián fue comisario político de un "batallón rojo" y "el encargado de transportes". Por estos motivos fue condenado a la pena de muerte, si bien, la Secretaria General de Estado le conmutó la pena "por la de inferior en rango", es decir, por la reclusión perpetua. Posteriormente fue trasladado a la prisión de Los Escolapios, y ya en julio de 1938 a la prisión central de Burgos.

En agosto de 1939, encontrándose recluido en el penal de Burgos, el juzgado militar eventual nº 1 de Bilbao abrió diligencias previas contra Julián y otros reclusos, acusándoles de haber ocultado billetes extranjeros y del Gobierno Vasco con el fin de canjearlos. Los hechos ocurrieron el 2 de mayo de 1938 cuando los encausados se encontraban presos en Los Escolapios, y fueron descubiertos al proceder varios funcionarios de prisiones al cacheo de los reclusos. Este nuevo procedimiento se alargó varios años, e incluso sin darse por concluida la fase de instrucción, a Julián le fue otorgada la prisión atenuada en mayo de 1943, estableciendo su residencia en Madrid. El 1 de diciembre de 1944, a requerimiento del juzgado militar de Bilbao, Julián fue detenido y trasladado a la prisión provincial de Bilbao a la espera de ser juzgado en consejo de guerra. Dos meses más tarde, concretamente el 24 de febrero de 1945, el tribunal emitió su sentencia absolviendo a todos los encausados, por lo que Julián volvía a quedar en libertad vigilada.



**Antonio Olaizola Echeverria**

Zinegotzi nazionalista, hautagaitza baserritarraren ordezkaria, Batzokiko presidentea eta *El Día* egunkariko berriemailea, euskal nazionalsimoak Azpeitian izan zuen pertsonaiarik garrantzitsuenetako bat izan zen Antonio. Gerra hasi ostean, 1936ko uztailaren 20tik 26ra, behin-behineko alkate izan zen; hala, berak idatzi zuen Errepublikarekiko atxikimendua eta "mugimendu sedizionistarekiko" aurkakotasuna adierazten zuen telegrama, Gipuzkoako gobernadore zibilari bidaltzeko. Era berean, Azpeitiko Defentsa Batzordeko kide izan zen, milizianoentzat ezarritako sukalde eta jangelen arduraduna.

Altxamenduaren tropak herrian sartzerako alde egin zuen, Bilbora lehenbizi eta Balmasedara gero, bertan atxilotu zutelarik 1937ko ekainaren 29an. Handik Logroñora eraman zuten uztailaren 29an; Presoak sailkatzeko Batzordeak erabaki zuen kartzelan utziko zutela eta epaiketa atzeratu, "Azpeitiko egungo alkateak eginiko akusazioak kontuan harturik". Ondorioz, 1938 hasieran eraman zuten Bilboko espetxe probintzialera, gerra-kontseilu batek epaitu zezan. Otsailean zehar, Falangeak, Guardia Zibilak eta Azpeitiko Alkatetzak Antonioren aurkako txostenak egin zituzten, askotariko akusazioekin: konfiskazioetan parte hartzea, atxiloketak agintzea, Batzordeari armak entregatzea eta Azpeitiaren ebakuazioa behartzea ere bai. Bestalde, epaile militarraren aurrean deklaratzean, Antoniok onartu zuen Azpeitiko agintari frankisten txostenetan agertzen ziren kargu guztiak izan zituela, baina ukatu egin zituen aipatutako akusazio guztiak.

Halere, 1938ko martxoaren 26an erruduntzat jo zuten Antonio, "iraultzarekin bat egiteagatik". Biziarteko espetxe zigorra ezarri zioten, bi zigor erantsirekin: "ikuskapen zibila eta erabateko desgaikuntzaren". Uztailaren 1ean Puerto de Santa María (Cadiz) espetxera eraman zuten eta hantxe egon zen giltzapetuta 1941era arte, hots, zigorra 6 urte eta egun 1 murriztu eta baldintzapeko askatasunean utzi zuten arte. 1946ko uztailaren 14an, Antoniok ofizio bat bidali zien Burgoseko Gerra Ikuskaritzako agintari militarrei eta indultua eskatu zuen 1945eko urriaren 9ko dekretuaren berri izan ondoren. 1946ko abuztuaren 9an eman zioten indultua, nahiz eta desgaikuntza eta beste zigor osagarri batzuk mantendu.

Concejal nacionalista, representante de la candidatura baserritarra, presidente del batzoki y corresponsal del diario *El Día*, Antonio fue sin duda uno de los personajes más influyentes del nacionalismo vasco en Azpeitia. Tras el inicio de la guerra, concretamente entre el 20 y el 26 de julio de 1936, ocupó el cargo de alcalde interino, siendo el responsable de redactar y enviar al gobernador civil de Gipuzkoa el telegrama de adhesión a la República y en contra del "movimiento sedicioso". Asimismo, formó parte del Comité de Defensa de Azpeitia, siendo el encargado de cocinas y comedores habilitados para los milicianos.

Poco antes de la entada de las tropas sublevadas en la localidad huyó a Bilbao, y de ahí a Balmaseda donde fue capturado el 29 de junio de 1937. Trasladado a Logroño, el 29 de julio de ese mismo año la Comisión Clasificadora de Prisioneros decidió mantenerlo en prisión y proponer su enjuiciamiento "teniendo en cuenta las acusaciones formuladas por el alcalde actual de Azpeitia". En consecuencia, a comienzos de 1938 fue trasladado a la prisión provincial de Bilbao a la espera de ser juzgado en consejo de guerra. Durante el mes de febrero Falange, Guardia Civil y alcaldía de Azpeitia emitieron sus respectivos informes en contra de Antonio, en los que se le acusaba de participar en requisas, ordenar detenciones y entrega de armas para el Comité, y finalmente forzar la evacuación de Azpeitia. Por su parte, en su declaración ante el juez militar, Antonio reconoció el haber ocupado todos y cada uno de los cargos a los que hacían referencia los informes de las autoridades franquistas de Azpeitia, aunque negaba las actuaciones mencionadas anteriormente.

Ibiltzeko baimena.

Salvoconducto.

AMA 919 01. 1

haiek “profanazio ekintza bat egin zutela Jainkoaren Etxean, eta hori zigortu beharra zegoela”. Erlijiosoak zerrenda bat egin zuen zigortu beharreko 13 haurren izenekin, eta haietako hamarrek 15 pezetako isun bana ordaindu behar izan zuten.[173]

Era berean, inork ezin zuen herritik atera horretarako baimenik gabe. Garai hartan huraxe izan zen isun gehienen sorburua. Horrek erakusten du zein neurritarainokoa zen kontrol soziala. Ematen ziren baimenek sei hilabeteko indarraldia izaten zuten eta herritik baimenik gabe ateratzeak 100 pezetako isuna izan zezakeen. 1953ko ekainaren 30 eta uztailaren 4a artean lau azpeitiar zigortu zituzten: Juan Garate, Juan Gabarik, Juan Sabegun Urbieta eta Valentin Labaka Uzanga. Erregimenarekiko atxikimendua frogatu zezaketenek, agintari eskudunei eskatzailearen aurrekariei eta jokabideei buruzko informazioa helarazi ostean, ez zuten arazorik izaten herritik irteteko dokumentuak eskuratzeko –pasaportea adibidez–.[174]

Azkenik, debekuak –zentsura nazionalkatolikoa– arte eszenikoetara ere iritsi zen. Ikuskizunen Sindikatu Probintziala eta probintzia bakoitzeko Ikuskizunen Kontsulta eta Ikuskaritzarako Batzordeak izan ziren Falangeak zuzendutako Zentral Nazional Sindikalistaren araudia betearazi zutenak. Zentsoreak, alegia. Enpresari zein langileek sindikatu bertikal bakarreko afiliatu izan behar zuten, programak aldez aurretik aztertzen ziren eta, obran langile atzerritarrak bazeuden, Zentral Nazional Sindikalista informatu behar zen langile haiek kontrolatu zitzan.[175] udal barrutian “ikuskizun ikuskariaren” kargua zegoen, hura zen herriko zentsorea. Azpeitian, alkateak hartu zuen kargua bere gain.[176]

173 AUA, 900.02.131 sig.

174 AUA, 468.01 sig.

175 AUA, 1310.16.04 sig.

176 AUA, 1310.06.30 sig.

debían ser castigados, siendo diez de ellos multados con 15 pesetas cada uno.[173]

Asimismo, quedaba desautorizada la salida del municipio de cualquier persona sin permiso, sin salvoconducto. Fue una de las multas más recurrentes durante este período, lo que nos da una idea del control social que se ejercía sobre la población. Cuando se otorgaban, la vigencia era de seis meses, y en el caso de ausentarse de la localidad sin salvoconducto la multa ascendía a 100 pesetas. Solo entre el 30 de junio y el 4 de julio de 1953 fueron sancionados cuatro azpeitiarras: Juan Garate, Juan Gabarik, Juan Sabegun Urbieta y Valentín Labaca Uzanga. Para los que pudieron mostrar su adhesión al régimen, y tras ser informadas las autoridades competentes de los antecedentes y conductas del solicitante, documentos como el pasaporte para salir al exterior fueron tramitados sin mayores dificultades.[174]

Por último, las prohibiciones, la censura nacionalcatólica, llegó también a las artes escénicas. El Sindicato Provincial del Espectáculo y las Juntas Consultivas e Inspectoras de Espectáculos de cada provincia fueron los organismos censores responsables del cumplimiento de la normativa fijada por la C.N.S. (Central Nacional Sindicalista) dirigida por Falange. Empresarios y trabajadores debían estar afiliados al sindicato único vertical, los programas visados, y si la obra contara con trabajadores extranjeros la C.N.S. debía ser correctamente informada para su control.[175] En el ámbito municipal existió la figura del “inspector de espectáculos”, un censor local que en el caso de Azpeitia fue durante estos años un cargo ostentado por el alcalde.[176]

173 AMA, sig. 900.02.131.

174 AMA, sig. 468.01.

175 AMA, sig. 1310.16.04.

176 AMA, sig. 1310.06.30.



# AZPEITIA

## 1960 – 1975

Txiki eta Otaegi heriotza zigorrera kondenatu zituen Gerra kontseiluaren aurkako protestak, 1975. urteko abenduaren 26an, Donostian.
Protestas el 26 de diciembre de 1975 en Donostia en contra de los consejos de guerra que condenaron a muerte a Otaegi y Txiki.

© *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*eko 4 aletik hartutako irudia / Imagen extraída de *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, tomo 4

# 3.1. Erregimen frankista 1960 eta 1975 artean

1950eko hamarkada erdialdetik aurrera, Espainiako diktadurak hainbat politika jarri zituen martxan erregimena babesteko. Estrategia frankistek bi arlo landu zituzten nagusiki: instituzionala eta ekonomikoa, hau da, barne egonkortasuna eta nazioartearen onarpena.

1954ko abenduaren 30ean, erregimen frankistako komunikabideek jakinarazi zuten diktadoreak bilera bat egin zuela Juan Borboikoarekin, eta bien artean adostu zutela azkenaren seme zaharrenak "Espainian jarraitu eta bukatuko zituela ikasketak, Aberria hobeto zerbitzatu ahal izateko". Handik gutxira, 1955eko urtarrilaren 19an, Juan Carlos Borboikoa Barajaseko aireportura iritsi zen De la Torre dukearekin batera eta Madrileko kapitain nagusiak egin zion harrera. Goiz izanik ere, argi ikusi zen erregimena bere jarraipena prestatzen ari zela dinastia borboikoaren bitartez. Francok berak adierazpenok egin behar izan zizkion *Arriba* egunkari falangistari: "ez dugu ekitaldi edo aitortza formalik egin, baina hainbat urrats eman ditugu zuhurtasunez jokatzeko eta neurriak hartu ditugu etorkizunean batasuna inolaz ere hautsi ez dadin"[177].

Halere, urte asko igaro ziren diktadurak bere plan guztiak sendo lotu arte. Francok eta Juan Borboikoak eginiko bileratik 15 urte igaro zirenean, 1969ko abenduaren 30ean, diktadoreak Gabonetako diskurtsoa eman zuen gaueko 22:00etan, Adolfo Suarezek gainbegiraturik:

«Estatuko Buruzagitzaren ondorengotzari dagokionez, gure Mugimenduaren jarraipena zalantzan jartzen zutenen asmo gaiztoko espekulazio guztien gainetik, dena lotuta gelditu da, ongi lotuta, Gorteek onartu dutelarik nire proposamena, Juan Carlos Borboikoa printzea izatea errege tituluaren ondorengoa. Erabaki zuhur eta garrantzitsu honek onarpena jaso du Espainian zein atzerrian, dela txalo artean edo isiltasunean».[178]

1975eko azaroaren 22an, Franco hil eta bi egunera, Juan Carlos Borboikoa Espainiako Estatuko errege izendatua izan zen. Aldarrikapen ekintza hartan, erregeak "zin egin zuen, Jainkoagatik eta Ebanjelio Santuengatik, Erresumako oinarrizko legeak bete eta betearaziko zituela eta leialtasunez zainduko zituela Mugimendu Nazionalaren printzipioak"[179].

177 "La juventud carlista a los españoles", AHL, Fondo Historia, 39/6 sig.

178 UCEDA, R.: *Atado y bien atado. La transición golpe a golpe (1969-1981).*

179 Udalbatzaren saioen egunerokoa, "Espainiako Gorteek Erresumako Kontseiluarekin eginiko ezohiko batzarra, Juan Carlos Borboikoaren zina jaso eta bera errege izendatzeko" Espainiako Gorteen Buletin Ofiziala, X. Legealdia, 21. zk.

# 3.1. El régimen franquista entre 1960 y 1975

Desde mediados de la década de 1950 la dictadura española inició una serie de maniobras políticas encaminadas a la salvaguarda del régimen. Los ámbitos en los que operaron los estrategas franquistas fueron fundamentalmente dos, el institucional y el económico; la estabilidad interna y la bendición exterior.

El 30 de diciembre de 1954 los medios de comunicación del régimen franquista informaban de que tras la reunión del dictador con Juan de Borbón se había llegado al acuerdo de que el primogénito de este "continúe sus estudios y complete su formación en España para el mejor servicio de la Patria". Poco después, concretamente el 19 de enero de 1955, llegaba Juan Carlos de Borbón al aeropuerto de Barajas, acompañado por el duque de la Torre y recibido por el Capitán General de Madrid. Ante la evidencia de que el régimen comenzaba a preparar su continuidad a través de la dinastía borbónica a fecha tan temprana, el propio Franco hubo de aclarar en esos días en el diario falangista *Arriba* que con estas maniobras "no se ha tratado de realizar actos ni reconocimientos formales", pero que sin embargo "los pasos dados constituyen una sensata previsión" que "asegura que la unidad no pueda en ningún caso romperse"[177].

Debieron de pasar aún varios años para que los planes de la dictadura quedaran apuntalados. Justo 15 años después de aquella reunión entre Franco y Juan de Borbón, el 30 de diciembre de 1969 a las 22:00 horas, el discurso de navidad del dictador, supervisado por Adolfo Suárez, rezaba así:

«Respecto a la sucesión a la Jefatura del Estado, sobre la que tantas maliciosas especulaciones hicieron quienes dudaron de la continuidad de nuestro Movimiento, todo ha quedado atado, y bien atado, con mi propuesta y la aprobación por las Cortes de la designación como sucesor a título de Rey del Príncipe Don Juan Carlos de Borbón. Dentro y fuera de España se ha reconocido, tanto con los aplausos como con los silencios, la prudencia de esta decisión trascendental».[178]

El 22 de noviembre de 1975, tan solo dos días después de la muerte de Franco, Juan Carlos de Borbón fue nombrado rey del Estado español. En aquel acto de proclamación el monarca juró "por Dios y sobre los Santos Evangelios cumplir y hacer cumplir las leyes fundamentales del Reino y guardar lealtad a los principios que informan el Movimiento Nacional"[179].

177 "La juventud carlista a los españoles", AHL, Fondo Historia, Sig. 39/6.

178 UCEDA, R.: *Atado y bien atado. La transición golpe a golpe (1969-1981).*

179 Diario de las sesiones del Pleno, "Sesión Extraordinaria y Conjunta de las Cortes Españolas con el Consejo del Reino, para recibir juramento y proclamar Rey a S.A.R. Don Juan Carlos de Borbón y Borbón", Boletín Oficial de las Cortes Españolas, X Legislatura, núm. 21.

Beste alde batetik, 60ko hamarkadara arte, administrazio periferikoak (probintzia eta udalerriak) Falangearen kontrolpean egon ziren, gobernadore zibilak alderdi bakarreko militanteak zirelako eta beraiek kontrolatzen zituztelako udaletarako hautagaien zerrenda ofizialak. Arlo instituzional eta ekonomikoan eginiko aldaketen ondorioz, administrazio probintzial eta lokaletako hautetsiak ere aldatzen hasi ziren pixkanaka, teknokrata profilak lehenesten hasi baitziren militante falangistarenaren gainetik.[180] Era berean, eskubide politikoei, profesionalei eta emakumeen lanerako eskubideei buruzko 1961eko uztailaren 22ko Legeak gaitasuna eman zien emakumeei hauteskundeetan parte hartzeko eta hautetsi izateko, bai eta edozein kargu publiko eskuratzeko. Dena den, Espainian ez zen emakumezko alkaterik izan 1967ra arte. [181] Eta gainera, ezin da esan kargu publikoak izan zituzten pertsonak erregimenaren aurkakoak zirenik.[182]

Alderdi instituzionalean diktadorea bere ondorengoa prestatzen ari zen bitartean, alderdi ekonomikoan bazterrean utzi zen eredu autarkikoa eta Europa kapitalistan nagusi zen eredu desarrollista lehenetsi zen. 1956. urtea ordainketa-etetea deklaratzeko zorian amaitu ondoren, diktadurak Egonkortze Plana aurkeztu zuen 1959ko uztailaren 20an. Handik urtebetera, 1960ko uztailaren 20an, Espainiako Estatua Lankidetza Ekonomikorako Europako Elkartean (OECD) sartu zen, urrats bat gehiago emanaz Espainiako ekonomia gainerako herrialde kapitalistekin homogeneizatzeko. Hori baino lehen, 1958an, onartua izan zen Nazioarteko Diru Funtsean nahiz Munduko Bankuan, eta 1963an GATTen ere sartu zen (Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia).

Opus Dei taldearekin lotutako teknokrata eta neo-kapitalista frankistak izan ziren ekintza haiek guztiak sustatu zituztenak, ekonomia liberalizatzeko prozesuaren oinarri izan zirelarik. Handik aurrera egiturazko aldaketa gehiago ere etorri ziren: Estatuaren interbentzionismoa nabarmen murriztu zen eta atzerriko inbertsioa sustatu zen, herrialdearen industrializazioa bultzatzeko asmoz. Politika haiei esker, ekonomia hazten hasi zen enpresa handien irabazietan oinarrituta eta, batez ere, enpresa multinazionalak Espainian ezartzean lortutako atzerriko kapitalarekin. 1973an, munduko 100 multinazional handienetako 64k ezarpenak zeuzkaten Espainian; hau da, atzerriko multinazionalen eskuetan zeuden, besteak beste, Espainiako industria kimikoaren % 80, auto industriaren % 65 eta turismoaren % 50.[183]

180 DOMPER LASUS, C.: “El franquismo a través de las urnas. Metodología, fuentes y retos para una aproximación electoral al régimen de Franco”.

181 NIELFA CRISTÓBAL, G.: “Mujeres y política en el Franquismo: el régimen y la oposición”.

182 DOMPER LASUS, C.: “El franquismo a través de las urnas. Metodología, fuentes y retos para una aproximación electoral al régimen de Franco”.

183 “Triunfalismo económico del régimen”, hileroko informazioa, Karlismoaren Barne-buletina, 26. zk.




Francisco Franco eta Juan Carlos Borboikoa.

Francisco Franco y Juan Carlos de Borbón.

© *La actualidad española*tik hartutako irudia.
Imagen extraída de *La actualidad española*, número fuera de serie, AHL, Fondo Historia 20/1

En un orden inferior, hasta mediados de los años 60 la administración periférica (en provincias y municipios) estuvo controlada por Falange, ya que los gobernadores civiles fueron militantes del partido único y eran ellos los que controlaban la configuración de las listas de candidatos municipales oficiales. No obstante, como consecuencia de los cambios estratégicos en materia institucional y económica, hubo una cierta flexibilización en las personas que ocuparon cargos representativos en las administraciones provinciales y locales, cargos con un perfil más cercano a la búsqueda del tecnócrata que del militante falangista.[180] Asimismo, mediante la Ley de 22 de julio de 1961 de derechos políticos, profesionales y de trabajo de la mujer se permitía a estas participar en las elecciones y ser elegida, además de poder ser designada para el desempeño de cualquier cargo

180 DOMPER LASUS, C.: “El franquismo a través de las urnas. Metodología, fuentes y retos para una aproximación electoral al régimen de Franco”.



Ministroen kontseiluak Aieteko jauregian eginiko bilera, 1960. urtean Donostian.

Celebración del Consejo de Ministros en el palacio de Aiete en Donostia. 1960.

© Paco Marí, Kutxateka

Ekonomiaren egiturazko aldaketak ondorio sozial nabarmenak izan zituen, lau fenomeno nagusitan laburbiltzen direnak: produkzio sistema tradizionalen desagertze bidean jarri zen, jendea landa eremuetatik hirietarantz emigratzen hasi zen (eta ondorioz, urbanizazio prozesu azeleratu bat gertatu zen), kontsumoaren gizartea garatu zen eta ongizate estatu hasiberria ernaldu zen.[184] Horrekin guztiarekin batera, aipatzekoa da eskala handiko emigrazio bat eman zela Europako herrialdeetarantz ere, zeinaren ondorioz, emigratuek bidalitako dibisa bolumen handi bat jasotzen hasi baitzen Espainia, eta ia enplegu beteko egoera iritsi zen gainera.[185] Hala eta guztiz ere, praktikan, beste ondorio zuzen batzuk izan zituen horrek: bizitzaren kostua handitu egin zen eta desberdintasun sozialak esponentzialki hazi ziren,

184 MALUQUER DE MONTES BRENET, J.: *La economía española en perspectiva histórica: Siglos XVIII-XXI.*

185 ISÀS, P.: "¿Una sociedad pasiva? Actitudes, activismo y conflictividad social en el franquismo tardío".

público; si bien hasta 1967 no figura ninguna mujer como alcaldesa de un municipio español.[181] No obstante, en ninguno de los casos las personas que ocuparon cargos públicos pudieron ser consideradas opositoras al régimen.[182]

Mientras que en el plano institucional el dictador formaba a su sucesor, en el apartado económico se abandonaba el modelo autárquico para dar paso al desarrollista, imperante en la Europa capitalista. Tras haber estado al borde de la suspensión de pagos en 1956, el 20 de julio de 1959 la dictadura presentó su Plan de Estabilización. Un año más tarde, el 20 de julio de 1960, el estado español ingresó en la Organización Europea de Cooperación Económica (OECE), en un paso más hacia la homogenización de la economía española con el resto de países capitalistas. Anteriormente, en mayo de 1958, fue aceptado en el FMI y en el Banco Mundial, mientras que en 1963 ingresó en el GATT (Acuerdo General sobre Aranceles Aduaneros y Comercio).

Estos hechos, impulsados por tecnócratas y neocapitalistas franquistas vinculados al Opus Dei, fueron la base de un proceso de liberalización de la economía, a través de una serie de cambios estructurales basados principalmente en una restricción acusada del intervencionismo estatal y en el fomento de la inversión extranjera con el objetivo de impulsar la industrialización del país. El resultado de esta política supuso un crecimiento económico basado en el beneficio de las grandes empresas, sobre todo de capital extranjero mediante la implantación de empresas multinacionales. En 1973, 64 de las 100 mayores multinacionales estaban instaladas en el Estado español, lo que se traducía en que, entre otros, el 80% de la industria química, el 65% del sector del automóvil y el 50% del turismo estuviera en manos de multinacionales extranjeras.[183]

El cambio estructural de la economía tuvo importantes repercusiones sociales, las cuales pueden sintetizarse en cuatro fenómenos: el ocaso de las formas de producción tradicionales, la emigración del campo a la ciudad de manera generalizada (y en consecuencia un proceso de urbanización acelerada), el desarrollo de una sociedad de consumo, y el incipiente estado de bienestar.[184] A todo ello habría que sumar el fenómeno de la emigración a gran escala hacia países europeos, lo que en el terreno económico supuso la recepción de un volumen considerable de divisas enviadas por los emigrados, y una situación próxima al pleno empleo en el Estado.[185] Sin embargo, en la práctica, el efecto inmediato fue el

181 NIELFA CRISTÓBAL, G.: "Mujeres y política en el Franquismo: el régimen y la oposición".

182 DOMPER LASUS, C.: "El franquismo a través de las urnas. Metodología, fuentes y retos para una aproximación electoral al régimen de Franco".

183 "Triunfalismo económico del régimen", Información Mensual, Boletín interno del Carlismo, núm. 26.

184 MALUQUER DE MONTES BRENET, J.: *La economía española en perspectiva histórica: Siglos XVIII-XXI.*

185 ISÀS, P.: "¿Una sociedad pasiva? Actitudes, activismo y conflictividad social en el franquismo tardío".



Burgosko prozesuaren kontrako protestak Baionan.

Protesta contra el Proceso de Burgos en Baiona. 1970

© *Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes* liburutik hartutako irudia / Imagen extraída de *Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes*, tomo 4

erregimenak bere politika ekonomiko guztia aldatu baitzuen elementu bakar bat izan ezik: bezerokeria. Hau da, ustelkeria ez zen desagertu, eta aberats handiek zerga-iruzurrak egiten jarraitu zuten, kudeatzaile politikoen onespenarekin. 1970eko hamarkadaren hasieran, gutxieneko soldata 186 pezetakoa zen eta 14 eta 18 urte bitarteko 200.000 haur inguruk lan egiten zuten Espainiako produkzio sisteman. Nekazaritzako milioi bat langile baino gehiagok eta beren familiek ez zeukaten Gizarte Segurantzaren estaldurarik; babes sozialeko sistema hura BPGaren % 6koa bakarrik zen Espainian, Europako gainerako herrialde kapitalistetan % 12 eta 19 bitartekoa izan arren.[186]

Aldaketa haiek guztiekin batera, 36ko gerraren ostean jaiotako langile eta ikasle klase bat sortu zen. Hego Euskal Herrian, atzerritik funtzionatzen zuen oposizio politikoak ez zuen eragin handirik izan gazte haiengan, bai ordea Alderdi Komunistak –bere organigrama klandestinoarekin eta sortzen ari ziren Langile Komisioen bitartez– eta euskal nazionalismoak –EGI gazte elkarteen eta EKI unibertsitateko gazte taldeen bitartez–. Europan eta Latinoamerikan gertatzen ari ziren eraldaketa sozialetatik sortutako borroka metodo berriak ere iritsi ziren hiritarrengana, gazte haiek guztiak sortzen ari ziren erakunde ihardukitzaileen abangoardia eta lehen lanuzte eta unibertsitateko greben protagonista bilakatu zirelarik.

186 “Ausencia de un desarrollo social y político”, hileroko informazioa, Karlismoaren Barne-buletina, 26. zk.

aumento del coste de la vida y crecimiento exponencial de la desigualdad social, en un régimen que se había mostrado dispuesto a modificar su política económica en todos sus aspectos salvo en uno: el clientelismo, es decir, la corrupción y el fraude fiscal de las grandes fortunas en connivencia con los gestores políticos. Para comienzos de la década de 1970 el sueldo mínimo era de 186 pesetas y unos 200.000 niños de entre 14 y 18 años eran empleados en el sistema productivo español. Más de un millón de trabajadores agrícolas y sus familias carecían de cobertura por parte de la Seguridad Social, un sistema de protección social que tan solo suponía el 6% del PNB (Producto Nacional Bruto), mientras que en el resto de los países capitalistas europeos oscilaba entre el 12 y el 19%.[186]

Estos cambios coincidieron con el surgimiento de una clase trabajadora y estudiantil nacida con posterioridad a la guerra del 36. En Hego Euskal Herria, salvo el Partido Comunista, a través de su organigrama clandestino y su influencia en las incipientes Comisiones Obreras, y el nacionalismo vasco mediante agrupaciones juveniles como EGI y de universitarios en torno a EKI, la influencia en estos jóvenes de la oposición política desde el exilio fue relativa. Nuevos métodos de lucha surgidos de las transformaciones sociales que se estaban viviendo en el resto de Europa y América Latina calaron en parte de la ciudadanía, vanguardia de organizaciones contestarías emergentes, y en consecuencia protagonistas de las primeras huelgas y paros laborales y universitarios.

186 “Ausencia de un desarrollo social y político”, Información Mensual, Boletín interno del Carlismo, núm. 26.

Diktadurak orduan, berriz aktibatu zuen gerraosteko lehen urte gogorrenetako zapalkuntza zuzena: indar polizialen bortizkeria (Polizia Gorputz Orokorra, Polizia Armatua eta Guardia Zibila, azken biak ejertzitoaren menpeko kidegoak), epaitegi militarren eta salbuespenezko auzitegi arrunten lana eta salbuespen egoera. "Gorri", "gorri-separatista" edo "euskaldun-separatista" akusazioak froga ukaezin bihurtu ziren berriz Estatu frankistaren zapalkuntza aparatuarentzat, dozenaka hildako eta ehunka tortura kasu eragin zituen zapalkuntza erakustaldi batean. 1961 eta 1962 artean, gerra-kontseiluek 790 pertsona zigortu zituzten Espainia osoan.[187] Era berean, 1959ko Ordena Publikoko Legea indarrean sartzean, 1963an sortutako Ordena Publikoko Epaitegiak ustezko milaka delitu politiko epaitu zituen (manifestazioak, bilerak, adierazpen askatasuna, e.a.) edozein herrialde demokratikotan onartuak egon arren.

Bestalde, zapalkuntzaren hirugarren zutabea, salbuespenezko egoerena izan zen, zeinak indarrik gabe utzi baitzituen 1945eko Espainiarren Foruan jasotako hainbat oinarrizko eskubide. 1962ko maiatza eta 1975eko apirila bitartean bederatzi salbuespen egoera deklaratu ziren euskal lurraldean, eta giza eskubideen urraketa kasuak izugarri ugaritu ziren, bai Estatuaren aldetik eta baita ere talde ihardukitzaileenetik, hots, 1970eko hamarkadatik aurrera sortu ziren eskuin muturreko taldeen eta erakunde parapolizialen aldetik. 2.000tik gora atxilotu eta 400 erbesteratu inguru izan ziren garai hartako zapalkuntzaren emaitza.[188]

Ondorioz, arlo instituzionalean zein ekonomikoan eman ziren aldaketa estrategikoak gorabehera, jite faxistako diktadura baten salbuespen politika mantendu zen Estatu osoan. Laburbilduz, zertxobait modernizatu bai, baina ez demokratizatu. Gainera, ezinbestekoa da bi kontzeptuak ongi bereiztea, Espainiako Estatuak argi erakutsi zuen bezala, batak ez baitakar bestea. Erregimen frankistak ez zituen inolaz ere errespetatzen giza eskubideak bere antolakuntza politikoan, eta zapalkuntza jarduera urraketa bat gehiago zen panorama hartan. Europako zirkulu komunistek zein atzerrian funtzionatzen zuten alderdiek etengabe salatu zuten errealitate hura NBEren aurrean. Eta are garrantzitsuago, diktaduraren indarkeriazko politikak ondorio zuzen bat izan zuen: biztanleria zibila erakunde ihardukitzaileak babesten hasi zen gero eta gehiago, bereziki Hego Euskal Herrian.

Agian horregatik guztiagatik, Informazio eta Turismo ministro (1962-1969), Barne ministro (1975-1976), eta gerora *Alianza Popular* eta Alderdi Popularreko presidente izan zenak hauxe adierazi zuen 1969an: "Arerio politikoa da denetan arerio okerrena. Eta denetan okerrena dela diot, bere helburua ez delako diru-zorro bat lapurtzea edo lege bat

187 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista".

188 Zamorako apaizen lekukotza kolektiboa, Buenos Aireseko (Argentinako Errepublika) 1. auzitegian aurkeztutako 4591/10 kereilarako.

La respuesta del régimen dictatorial fue reactivar la represión directa de los años más duros de la inmediata posguerra, a través del uso indiscriminado de la fuerza por parte de los diferentes cuerpos policiales (Cuerpo General de Policía, Policía Armada y Guardia Civil, estos dos últimos dependientes del ejército), de la intervención de tribunales militares y ordinarios de excepción, y mediante el recurso al estado de excepción. De nuevo, los aparatos represivos del Estado franquista volverán a generalizar las acusaciones de "rojo", "rojo-separatista", o "vasco-separatista" como elemento irrefutable de prueba, en un ejercicio represivo que causó decenas de muertos y centenares de casos de torturas. Solo entre 1961 y 1962 fueron condenadas en consejo de guerra 790 personas en el conjunto del Estado español.[187] Asimismo, con la Ley de Orden Público de 1959 y la creación del Tribunal en 1963 miles de supuestos delitos políticos que en cualquier país democrático serían permitidos (manifestación, reunión, libertad de expresión etc.) fueron juzgados por este tribunal ordinario de excepción.

Por su parte, el tercer pilar represivo, los estados de excepción, consistieron en la suspensión de varios derechos fundamentales recogidos en el Fuero de los Españoles de 1945. Entre mayo de 1962 y abril de 1975 hubo en territorio vasco nueve estados de excepción, y los casos de vulneraciones de derechos humanos graves aumentaron considerablemente tanto por parte del Estado como de organizaciones contestatarias, a los que habría que incluir acciones de grupos de extrema derecha y parapoliciales a partir de la década de 1970. Más de 2.000 personas fueron detenidas y alrededor de 400 tuvieron que exiliarse.[188]

Por tanto, a pesar de los cambios estratégicos tanto en el ámbito institucional como en el económico, se mantuvo la excepcionalidad política de una dictadura de corte fascista. En síntesis, hubo modernización, pero no democratización, y resulta necesario diferenciar ambos conceptos ya que, como se demostró en el Estado español, una cosa no lleva irremediablemente a la otra. El régimen franquista resultaba en su organización política y en su actividad represiva incompatible a los derechos humanos fundamentales, y esta realidad fue denunciada tanto por los círculos comunistas europeos como por los partidos en el exilio ante la ONU. Y lo que fue más relevante, la violencia política de la dictadura tuvo como consecuencia directa un aumento significativo del apoyo de la población civil hacía organizaciones contestatarias, con especial incidencia en Hego Euskal Herria.

Quizá por todo ello, el que fuera ministro de Información y Turismo (1962-1969), de Interior (1975-1976), y posteriormente presidente tanto de Alianza Popular como del Partido Popular, declaró en 1969 que "el enemigo político es el peor de todos. Precisamente porque no persigue robar una cartera o

187 GONZÁLEZ MADRID, D.: "Violencia política y dictadura franquista".

188 Testimonio Colectivo de los Sacerdotes de Zamora para la Querella 4591/10 presentada al Juzgado Nº 1 de Buenos Aires, República Argentina.




Juan Paredes Txikiren hilkutxa.

Traslado del féretro de Juan Paredes "Txiki".

© Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad -tik hartutako irudia / Imagen extraída de Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad, tomo 4

| URTEA Año | GERRA-KONTSEILUETAN KONDENATUAK (ZIBILAK) I Condenados en consejo de guerra (civiles)I | ORDENA PUBLIKOKO EPAITEGIAK PROZESATUAK / Procesados por el TOP II |
|---|---|---|
| 1967 | 232 | 374 |
| 1968 | 254 | 585 |
| 1969 | 400 | 946 |
| 1970 | 403 | 918 |

I. RINCÓN, L. 2012. *Espetxe frankistei buruzko liburu zuria*. Ángel Suárez, Colectivo 36. / RINCÓN, L. 2012. *Libro blanco sobre las cárceles franquistas*. Ángel Suárez, Colectivo 36.
II. Ibid. / Ibíd.

| URTEA / Año | SALBUESPEN EGOERAN ZEHAR ATXILOTUAK / Nº de detenidos durante estado de excepción |
|---|---|
| 1968 | 279 (Gipuzkoan, abuztuaren 31era arte) (En Gipuzkoa. Hasta el 31 de agosto)I |
| 1969 | 735 (Espainiako Estatuan) (Estado español) II |
| 1970 | 1221 (Espainiako Estatuan) (Estado español) – 59/398 (Gipuzkoa)III |

I. BUCES CABELLO, J. et al.: *1968. Gipuzkoa en estado de excepcion.*
II. YSÀS, P.: *Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por su supervivencia.* 1960-1975.
III. Atxilotuen kopurua, Estatuan 1.221 eta Gipuzkoan 59, Pere Ysàs-ena da. 398ko kopurua Iñaki Egañarena (*El franquismo en Euskal Herria. La solución final*)

I. BUCES CABELLO, J. et al.: *1968. Gipuzkoa en estado de excepcion.*
II. YSÀS, P.: *Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por su supervivencia.* 1960-1975.
III. La cifra de 1.221 detenidos en el Estado y 59 en Gipuzkoa es de Pere Ysàs. La de 398 de Iñaki Egaña (*El franquismo en Euskal Herria. La solución final*)

haustea, baizik eta dena apurtzea. Horregatik da denetan arriskutsuena eta zorrotzen tratatu behar dena. Uste dut horixe dela politikaren egia immanentea (.), delitu politikoaren krimena da krimen larriena bere burua errespetatzen duen edozein erregimen seriorentzat".[189]

romper una ley, sino porque persigue romperlo todo. Por eso es el más peligroso y el que debe ser tratado con el mayor rigor. Creo que esta es la verdad inmanente de la política (.) el crimen de lesa majestad [el delito político] es el más grave de todos para cualquier régimen serio y que se respete a sí mismo".[189]

189 Manuel Fraga Iribarne (Informazio eta Turismo Ministroa) eta Salvador Panikerren arteko elkarrizketa 1969an. Informazio iturria: CELHAY, P.: *Consejos de guerra en España: fascismo contra Euskadi* (Miguel Castells Artechek Pierre

189 Conversación de Manuel Fraga Iribarne (ministro de Información y Turismo) con Salvador Paniker en 1969. Información extraída de: CELHAY, P.: *Consejos de guerra en España: fascismo contra Euskadi* (Pierre Celhay fue el seudónimo

## HILDAKO BIKTIMEN KONTAKETA (1960-1975) / RECUENTO DE VÍCTIMAS MORTALES (1960-1975) *

| | ETA | FSE | TALDE PARAPOLIZIALAK ETA ESKUIN MUTURREKOAK<br>Grupos parapoliciales y extrema derecha |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza (Bakearen eta Bizikidetzaren Idazkaritza)<br>Gobierno Vasco (Secretaria de Paz y Convivencia)[I] | 29[II] | 26 | 2 |
| Valentin Foronda Institutua / Instituto Valentín Foronda[III] | 43[IV] | | 2 |
| Covite | 41[V] | | 1 |
| Euskal Memoria | | 85[VI] | |
| Liburu Zuria / Libro Blanco[VII] | | 36[VIII] | |
| Casanellas[IX] | 59[X] | 23[XI] | |
| **AZPEITIA** | **1** | **1** | **0** |

I. Euskal kasuan urratutako giza eskubideei buruzko oinarrizko txostenean aurkeztutako datuak (1960-2013). Barne hartzen ditu ETA, ETApm, KAA eta ezker muturreko beste talde armatu batzuk Espainia osoan eragindako biktimak eta Estatuko segurtasun indarrek, talde parapolizialek eta eskuin muturreko taldeek Euskal Autonomia Erkidegoan utzitakoak.

II. Barne hartzen ditu ETAren zatiketa desberdinen biktimak. Ez du kontuan hartzen DRIL talde armatuaren atentatuko hildakoa

III. Informe Foronda. Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas 1968-2010 (1968 eta 2010 arteko urteei buruzko datuak)

IV. Barne hartzen ditu ETAren zatiketa desberdinen biktimak eta beste talde armatu batzuenak.

V. Barne hartzen ditu ETAren zatiketa desberdinek eragindako hildakoak.

VI. Euskal Memoria webgunean jasotakoaren arabera, 1960tik aurrera "gatazkaren testuinguruan eta zapalkuntzaren ondorioz hildakoak" hartzen ditu kontuan.

VII. 1968 eta 1975 urteen artean hildakoak, 1971. urtekoak izan ezik; diktadura frankistaren "zapalkuntzaren" ondorioz, ez dago urte hartako daturik.

VIII. Gerra-kontseiluek ezarritako heriotza zigorren ondorengo 34 heriotza eta 2 exekuzio, bereizita.

IX. 1968 eta 1977 urteen arteko datuak.

X. Barne hartzen ditu ETAren zatiketa desberdinen biktimak.

XI. "Poliziaren eta justiziaren zapalkuntza ekintzetan" hildako talde armatuetako kideak. Barne hartzen ditu ETAren zatiketa desberdinen biktimak.

I. Datos presentados en el Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en el caso vasco (1960-2013). El conjunto de las víctimas causadas por ETA, ETApm, CAA y otros grupos armados de extrema izquierda se circunscriben al conjunto del Estado español, mientras que las relativas a las causadas por las fuerzas de seguridad del Estado, grupos parapoliciales y extrema derecha se refieren al ámbito exclusivo de la Comunidad Autónoma Vasca.

II. Incluye a las víctimas de las diferentes escisiones de ETA. No incluye a la víctima mortal causada por la organización armada DRIL.

III. Informe Foronda. Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas 1968-2010 (Datos relativos a los años comprendidos entre 1968 y 2010)

IV. Incluye a las víctimas de las diferentes escisiones de ETA y otras organizaciones armadas

V. Incluye a las víctimas mortales de las diferentes escisiones de ETA

VI. Según se recoge en la página web de Euskal Memoria esta cuantificación alude a "fallecidos en el contexto del conflicto y a causa de la represión" a partir de 1960.

VII. Fallecidos entre los años 1968 y 1975, a excepción del año 1971 de los que no se aportan datos, a consecuencia de la "represión" de la dictadura franquista.

VIII. Se diferencia entre 34 muertes y 2 ejecuciones tras condenas a penas de muerte en consejo de guerra.

IX. Datos comprendidos entre los años 1968 y 1977.

X. Incluye a las víctimas de las diferentes escisiones de ETA

XI. Victimas mortales integrantes de organizaciones armadas fallecidas en "acciones de represión policial y judicial". Incluye a las víctimas de las diferentes escisiones de ETA

## TORTURATUTAKO BIKTIMEN KONTAKETA / RECUENTO DE VÍCTIMAS DE TORTURAS (1960-1975) *

| | GUARDIA ZIBILA<br>Guardia Civil | POLIZIA<br>Cuerpo General de Policía | BESTE BATZUK<br>Otros | GUZTIRA<br>Total |
|---|---|---|---|---|
| KREI / IVAC[I] | 424 | 368 | n.c. | 792 |
| Euskal Memoria[II] | 467 | 498 | n.c./25 | 990 |
| **AZPEITIA** | **13** | **12** | **1** | **25** |

I. ECHEVERRIA, F., MARTÍN BERISTAIN, C., PEGO, L.: "Proyecto de investigación de la tortura en el País Vasco (1960-2014). Informe final".

II. Hemendik ateratako datuak: Informe de investigación sobre la tortura en Euskal Herria.

I. ECHEVERRIA, F., MARTÍN BERISTAIN, C., PEGO, L.: "Proyecto de investigación de la tortura en el País Vasco (1960-2014). Informe final".

II. Datos extraídos del Informe de investigación sobre la tortura en Euskal Herria.

* KREIk emandako datuak Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoak dira soilik, Euskal Memoriaren datuek barne hartzen dute Euskal Herri osoa.

* Los datos aporta el IVAC se refieren exclusivamente a la Comunidad Autónoma Vasca, mientras que los de Euskal Memoria se refieren al conjunto de Euskal Herria.



60 hamarkadako Azpeitiaren irudi partziala.

Imagen parcial de Azpeitia. Década de 1960

© S. C. Aranzadi, Fondo Imanol Elías

# 3.2. Azpeitia 1960 eta 1975 artean

*"Alargun gelditu zen duela bost urte, 14, 13 eta 11 urteko hiru seme-alabarekin. Urtero 1.200 pezeta jasotzen ditu Zuraren Montepiotik eta 14 urteko alaba lanean hasi da, ikastun modura, herriko aterki fabrika batean, non 175 pezetako jornala irabazten baitu hilero. Ez dauka beste dirusarrerarik etxean. Urtero 1.200 pezeta ordaintzen ditu errentan etxeagatik".*[190]

*"Francisco Carrasco Caballeroren eskabidea –adinez nagusia, ezkondua, Valle de la Serenakoa (Badajoz) eta Azpeitiko biztanlea, Mendeurreneko etxeen atzealdean du etxea–, non adierazten duen familia ugaria duela eta hura mantentzeko txikizkako gaileta eta gozoki salmentan ibiltzen dela herri honetan zein ondokoetan. Hala, akordio bat lortu nahi du Azpeitiko udalarekin, egiten dituen salmentei dagozkien udal zergak ordaintzeko, eta konpromisoa hartzen du hilero 200 pezeta ordaintzeko".*[191]

Celhay seudonimoa erabili zuen diktaduran zehar bere liburuetako batzuk argitaratzeko).

190 1964. urtea. "Joséfa Kerejeta Osinalderen txostenetik" ateratakoa, AUA, 1310 sig.16

191 Udal aktak, "1962ko azaroaren 8ko ohiko batzarra", AUA, 1962-1963ko akta-liburua, 4275-01 sig., 12. kod.

# 3.2. Azpeitia entre 1960 y 1975

*"Quedó viuda hace cinco años, teniendo a su cargo tres hijos de 14, 13 y 11 años de edad. Percibe mensualmente la cantidad de 1.200 pesetas del Montepio de la Madera, habiendo comenzado a trabajar la hija de 14 años en calidad de aprendiza en una fábrica de paraguas en esta localidad, con un jornal de 175 pesetas mensuales. No tiene otro ingreso en su domicilio. La renta que satisface de su vivienda es de 1.200 pesetas anuales".*[190]

*"Se da cuenta de la instancia suscrita por Francisco Carrasco Caballero, mayor de edad, casado, natural del Valle de la Serena (Badajoz) y vecino de esta villa, con domicilio en la casa situada en la parte posterior de las casas llamadas del Centenario, en la que se manifiesta que es padre de familia numerosa y para poderla sostener se dedica en esta localidad y pueblos limítrofes a la venta al por menor de galletas, caramelos, etc.; que siendo su deseo llegar a un acuerdo para establecer un convenio con el Ilustre ayuntamiento para el pago de los impuestos municipales de las ventas que efectúa, se compromete a pagar la cantidad mensual de 200 pesetas".*[191]

que utilizó Miguel Castells Arteche durante la dictadura para publicar varios de sus libros).

190 Año 1964. Extracto de "Informe de doña Joséfa Querejeta Osinalde", AMA, sig. 1310.16

191 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 8 de noviembre de 1962", AMA, Libro de actas 1962-1963, sig. 4275-01, cód. 12.

## BIZTANLE KOPURUA[I] / NÚMERO DE HABITANTES[I]

| URTEA / Año | BIZTANLE KOPURUA / Número de habitantes |
|---|---|
| 1960 | 9.424 |
| 1961 | - |
| 1962 | 9.779 |
| 1963 | 9.968 |
| 1964 | 10.150 |
| 1965 | 10.308 |
| 1966 | 10.478 |
| 1967 | 10.674 |
| 1968 | 10.931 |
| 1969 | 10.953 |
| 1970 | 11.118 |
| 1971 | 11.310 |
| 1972 | - |
| 1973 | - |
| 1974 | - |
| 1975 | 12.171 |

I. AUA, 1960-1975eko udal aktak / GUIBERT AZCUE, V.: "Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia" (AUA, 962.01 SIG., 251. kod.). / "Comarca del Urola. Estudio socio-económico", Siadeco, 1975-1977.

I. AMA, Actas municipales 1960-1975 / GUIBERT AZCUE, V.: "Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia" (AMA, SIG. 962.01, cód. 251). / "Comarca del Urola. Estudio socio-económico", Siadeco, 1975-1977.

## UDAL KORPORAZIOAK 1964KO UZTAILEAN AURREIKUSITAKO BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA[I]

## CRECIMIENTO POBLACIONAL PREVISTO POR LA CORPORACIÓN MUNICIPAL EN JULIO DE 1964[I]

| URTEA / Año | BIZTANLE KOPURUA / Número de habitantes |
|---|---|
| 1970 | 10.591 |
| 1980 | 11.551 |
| 1990 | 12.816 |
| 2000 | 14.098 |
| 2010 | 15.508 |

I. Udal aktak, "1964ko uztailaren 9ko ohiko batzarra", AUA, 1963-1964ko akta-liburua, 4273-05 sig., 12. kod.

I. Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 9 de julio de 1964", AMA, Libro de actas 1963-1964 sig. 4273-05, cód. 12.

## NEGOZIOAK ETA INDUSTRIAK MATRIKULAZIO ZERGAREN ARABERA[I]

## NEGOCIOS E INDUSTRIAS SEGÚN EL IMPUESTO DE MATRICULACIÓN[I]

| ADARRA / Rama | 1962 | 1965 |
|---|---|---|
| Elikadura / Alimentación | 26 | 97 |
| Arroparen industria / Industria textil | 4 | 25 |
| Zura / Madera | 15 | 57 |
| Larrua, oinetakoak eta kautxua / Piel, calzados y caucho | 4 | 10 |
| Industria kimikoak / Industrias químicas | 5 | 10 |
| Eraikuntza / Industrias químicas | 5 | 27 |
| Industria metalurgikoak / Industrias metalúrgicas | 10 | 58 |
| Argindarra, gasa, ura / Electricidad, gas, agua | 9 | 12 |
| Askotariko jarduerak / Actividades varias | 5 | 168 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **83** | **464** |

I. AUA, 829.17 sig., 322. kod. / AUA, 583.03 sig., 322. kod.

I. AMA, sig. 829.17, cód. 322. / AMA, sig. 583.03, cód. 322.

1960an Azpeitiak 9.424 biztanle zituen; horietatik 5.245 bizi ziren herrigune historikoan eta gainerakoak (4.179) inguruko auzoetan edo udalerria osatzen duten beste eremu batzuetan: Aratz-erreka, Loiola, Nuarbe, Oinatz eta Urrestillan.[192] Biztanle kopurua handitzen joan zen urtez urte, 1975ean 12.171 izatera iritsi arte. Beraz, 1960 eta 1970 artean biztanleria % 15,30 hazi zen; Gipuzkoako batez bestekoa baino gutxiago zen hori (% 32), baina aurreko hamarkadan izandako hazkundea baino askoz ere gehiago (% 4,50).[193] Biztanleria ugaritu heinean, baserrietan bizi zen herritar kopurua murriztu egin zen: 1970ean biztanledun 250 baserri zeuden eta haietan bizi zen azpeitiarren % 16a (1.750 biztanle)[194]; 1975ean berriz, okupatutako baserriak 150eraino murriztu ziren eta herriko biztanleria osoaren % 7,2 baino ez zuten suposatzen.[195]

> *Azpeitian 60. Hamarkadaren erdi aldean hasi ziren etorkinak etortzen. Etorkin hauek , batez ere Extremaduratik zetozen, hain zuzen, Valle de la Serenatik eta kopuruari dagokionez inoiz ez dira izan mila lagun baino gehiago. Hauen integrazioari dagokionez berriz, esan bigarren belaunaldia heldu zenean gehienak integratuak zirela herrian.*
>
> (Jexux Arrizabalagaren testigantza)

Hazkunde demografikoak berekin ekarri zuen hazkunde urbanistikoa, bai eta negozio berrien eta aisialdirako guneen sorrera. 1961ean 35 ostalaritza negozio zeuden, eta haietatik 8 bakarrik zeuden auzoetan, hots, hirigune historikotik kanpo.[196] Gainera, Azpeitian bazeuden 3.800 lagunentzako zezen-plaza bat, 1.200 ikuslerentzako Vista Alegre frontoia eta Zelaitxo (700 eserleku) eta Soreasu (900 eserleku) zinemak.[197] Matrikulazio zergari eta udalak eginiko lizentzia fiskalen kobrantza zerrendei erreparatuz gero, ikus liteke zergadun kopurua handitu egin zela Azpeitian hiru urtean: 1962an 83 izatetik 1965ean 464 izatera.

Elkarrengandik bereizi ezinezko bi faktore izan ziren biztanleriaren hazkundearen atzeko arrazoi garrantzitsuenak: bultzada industriatzailea eta migrazio olatu berri bat. 1971n, Azpeitiko herritarren % 40,5 biztanleria aktiboa zen (4.580 pertsona); haietatik % 16,3 lehen sektoreko langileak ziren (750), % 12,7 hirugarren sektorekoak (580) eta gehiengoa, % 71, bigarren sektorekoak, non zuraren sektoreak

192 AUA, 1388-08 sig., 214. kod.

193 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AUA, 962.01 SIG., 251. kod.).

194 Ibid.

195 “Comarca del Urola. Estudio socio-económico”, Siadeco, 1975-1977.

196 Udal aktak, “1961eko abenduaren 28ko ohiko batzarra”, AUA, 1961eko aktaliburua, 4276-03 sig., 12. kod.

197 AUA, 829.19 sig., 322. kod.

Azpeitia contaba en 1960 con una población total de 9.424 habitantes, 5.245 residentes en el núcleo histórico de la villa y el resto (4.179) en los barrios o entidades de población que completaban el municipio: Aratz-erreka, Loiola, Nuarbe, Oinatz y Urrestilla.[192] Durante los años siguientes la población fue creciendo de manera paulatina, hasta que en 1975 se situó en los 12.171 habitantes. Entre 1960 y 1970 la población creció un 15,30%, muy por debajo del 32% de Gipuzkoa, pero significativamente superior al 4,50% del período comprendido entre 1950 y 1960.[193] A medida que la población total fue aumentando, el número de personas residentes en caseríos fue disminuyendo, de tal forma que si en 1970 existían 250 caseríos habitados en los que residían el 16% de la población azpeitiarra (1.750 habitantes),[194] en 1975 los caseríos ocupados eran 150 y el porcentaje de habitantes sobre la población total del municipio era el 7,2%.[195]

> *Los emigrantes empezaron a llegar a Azpeitia a mediados de la década de los sesenta. Venían, sobre todo, de Extremadura, del Valle de la Serena; y, en lo que respecta al número, nunca han sido más de un millar. En cuanto a cómo se integraron, hay que decir que para la segunda generación, la mayoría de las personas inmigrantes ya estaban integradas.*
>
> (Testimonio de Jexux Arrizabalaga)

Una consecuencia directa del aumento demográfico fue el crecimiento urbanístico, así como la apertura de negocios y lugares de ocio. En 1961 existían 35 negocios de hostelería, de los que tan solo 8 de ellos estaban localizados en barrios, fuera del núcleo urbano histórico.[196] Además, Azpeitia contaba con una plaza de toros con capacidad para 3.800 personas, el frontón de Vista Alegre con 1.200 localidades, y los cines de Zelaitxo (700 localidades) y Soreasu (900).[197] Si atendemos al impuesto de matriculación y a las listas cobratorias de licencia fiscal elaboradas por el ayuntamiento, Azpeitia pasó en apenas tres años de 83 a 464 contribuyentes (entre 1962 y 1965).

El crecimiento de la población estuvo determinado por dos factores indisociables: el impulso industrializador y una nueva oleada migratoria. Para 1971 la población activa en Azpeitia era del 40,5% (4.580 personas), de las cuales el 16,3% (750) estaban empleadas en el sector primario, 12,7% (580) en el terciario y el 71% (3.250) en el secundario, siendo el sector de la madera el

192 AMA, sig. 1388.08, cód. 214.

193 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AMA, SIG. 962.01, cód. 251).

194 Ibíd.

195 “Comarca del Urola. Estudio socio-económico”, Siadeco, 1975-1977.

196 Actas municipales, “Sesión ordinaria del día 28 de diciembre de 1961”, AMA, Libro de actas 1961, sig. 4276-03, cód. 12.

197 AMA, sig. 829.19, cód. 322.



Herri-zalek eta udalak antolatuta Bizente Beloki tenoreari, José Arruti enterradoreari eta Felix Epelde sakristauari eginiko omenaldia Azpeitian. 1974. urtean.

Homenaje al tenor Bizente Beloki, el enterrador José Arruti y al sacristán Fellix Epelde, organizado por Herri-zale y el ayuntamiento.

Aranzadi Z.E., Fondo Imanol Elías funtsa

baitzuen pisu gehien.[198] Beraz, bistan da enplegu bat zuten azpeitiarren bi heren baino gehiago industrian aritzen zirela lanean eta 40-70 pezeta bitarteko eguneroko soldata zuten batez beste –soldata altuenak siderurgia sektorekoak izaten ziren eskuarki–.[199] Aldiz, migrazioaren faktoreak Gipuzkoako beste herri batzuetan baino garrantzi gutxiago izan zuen Azpeitian. 1975ean 11.893 pertsonako biztanleriatik 1.344 bakarrik ziren Espainiako Estatutik iritsitakoak (% 11,3); % 65,2 Azpeitian bertan jaioak ziren (7.751 pertsona), % 8,8 (1.047) Urolakoak izatez, eta gainerako % 12,2 (1.454) Hego Euskal Herrikoak[200]. Gainera, etorkinen portzentajea % 8,6raino murriztu zen 1986rako, eta huraxe izan zen 10.000 biztanletik gorako herri gipuzkoarretako immigrazio portzentajerik baxuena.[201]

Ondorioz, esan liteke Azpeitiko biztanleria aktiboa herrian bertan jaiotakoek osatzen zutela nagusiki. Oinarrizko hezkuntza orokorra bukatzen zuten azpeitiar gazte gehienak lanbide heziketan sartzen ziren, batez ere, eskualdean nagusi zen industriari buruzko ikastaroetan (tornulariak, doitzaileak edo delineatzaileak)[202]; aldiz, etorkinek kualifikazio baxuagoko lanpostuak betetzen zituzten. Hala eta guztiz ere, garapen desarrollistak jasan zuen atzerakadaren eta 1970eko hamarkadan hasitako krisi industrial orokortuaren

198 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AUA, 962.01 SIG., 251. kod.).

199 AUA, 1388-08 sig., 214. kod.

200 “Comarca del Urola. Estudio socio-económico”, Siadeco, 1975-1977.

201 CASTELLS ARTECHE, L. et al.: *Gipuzkoa, inmigración e integración. Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975).*

202 “La enseñanza en el Valle del Urola”, Gaur, 1972 (AHL, Fondo Pueblos, L.64 sig.).

de mayor relevancia.[198] En consecuencia, más de dos tercios de los azpeitiarras empleados trabajaban en la industria, los cuales percibían para 1960 un salario medio diario de entre 40 y 70 pesetas, cantidad esta última más frecuente en el sector siderúrgico.[199] Sin embargo, el factor migratorio tuvo menos peso en Azpeitia que en otros municipios de Gipuzkoa, ya que para 1975 tan solo 1.344 habitantes de los 11.893 residentes (11,3%) procedían del Estado español; el 65,2% había nacido en Azpeitia (7.751 personas), y el 8,8 (1.047) en la misma comarca del Urola, el 12,2% (1.454) en el resto de Hego Euskal Herria;[200] mientras que para 1986 el porcentaje de inmigrantes se reducía al 8,6%, el más bajo de las localidades guipuzcoanas con más de 10.000 habitantes.[201]

Por tanto, la población activa en Azpeitia la constituía principalmente personas nacidas en el mismo municipio. La mayor parte de los jóvenes azpeitiarras que finalizaban sus estudios de educación general básica se incorporaban a la formación profesional, sobre todo a aquella ligada a la industria asentada en la comarca (torneros, ajustadores o delineantes),[202] mientras que los inmigrantes ocuparon puestos de trabajo menos cualificados. No obstante, debido a la recesión del proceso desarrollista, de la crisis industrial generalizada a partir de la década de 1970, el número de trabajadores fue disminuyendo progresivamente, siendo 3.081 las personas empleadas en el sector secundario en 1975.

250 Udal aktak, "1953ko abuztuaren 28ko ohiko batzarra", AUA, 1953ko akta-liburua, 4272-04 sig., 12. kod.

251 Udal aktak, "1953ko urriaren 9ko ohiko batzarra", AUA, 1953ko akta-liburua, 4272-04 sig., 12. kod.

252 Udal aktak, "1954ko ekainaren 8ko ohiko batzarra", AUA, 1954ko akta-liburua, 4271-02 sig., 12. kod.

253 Udal aktak, "1958ko uztailaren 21eko ohiko batzarra", AUA, 1958-1959ko akta-liburua, 4276-01 sig., 12. kod.

254 Udal aktak, "1964ko azaroaren 20ko ohiko batzarra", AUA, 1963-1964ko akta-liburua, 4273-05 sig., 12. kod.

obrera, un parque de bomberos, y mejorar las vías públicas, tales como la urbanización de la avenida de Loiola o el alcantarillado de los núcleos urbanos.[249]

Uno de los máximos propietarios de terrenos en Azpeitia, susceptibles de ser adquiridos por el ayuntamiento para la urbanización y edificación de viviendas, fue el duque del Infantado, en manos de Iñigo de Arteaga Falguera entre 1948 y 1997. Comandante del Estado Mayor del ejército golpista en la 61.ª División (posteriormente renombrado Cuerpo de Ejército de Navarra), en 1961 fue nombrado director de la Escuela Superior del Ejército tras ser ascendido a general. Además, ocupó los cargos de gobernador militar en Madrid y capitán general en Sevilla y en las Islas Baleares.

En Azpeitia, eran los terrenos en torno al paraje de Perdillegi y su caserío los lugares en los que se proyectaba construir 60 viviendas protegidas a partir del estudio realizado por el arquitecto Ramón Martiarena. Ante la negativa del Infantado, el ayuntamiento decidió el 28 de agosto de 1953 tramitar la expropiación de los terrenos[250]; si bien una vez iniciado el trámite y contactar con un perito designado por el Infantado el ayuntamiento ofreció 434.314 pesetas por la compra de los terrenos.[251] La cantidad fue rechazada, por lo que se continuó con el proceso de expropiación, habiendo establecido el gobernador civil de Gipuzkoa en 1954 un "precio justo" de 365.794,83 pesetas[252], el cual fue recurrido en los tribunales por el Infantado. El 30 de abril de 1958 el Tribunal Superior anuló el proceso y obligó al ayuntamiento a iniciar de nuevo el trámite de expropiación.[253] El asunto quedó estancado hasta 1964, cuando aún sin haberse resuelto el proceso de expropiación, el ayuntamiento aceptó la tasación del perito propuesto por el Infantado de pagar por el solar de 39.703m$^2$ la cantidad de 1.300.000 pesetas.[254] Sin embargo, tres años más tarde, en abril de 1967, el pleno daba cuenta de la imposibilidad de acceder al pago, ni siquiera pidiendo un crédito ante la situación de las arcas municipales, por lo que se acordó enajenar un solar municipal tasado en 1.675.000 pesetas para poder pagar los terrenos del Infantado. Para entonces, debido al interés del 5% y al cálculo de la depreciación que pudiera sufrir la moneda hasta la fecha efectiva de pago, la

249 Actas municipales, "Sesión ordinaria del día 6 de abril de 1951", AMA, Libro de actas 1948-1950, sig. 4273-01, cód. 12.

250 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 28 de agosto de 1953", AMA, Libro de actas 1953, sig. 4272-04, cód. 12.

251 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 9 de octubre de 1953", AMA, Libro de actas 1953, sig. 4272-04, cód. 12.

252 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 8 de junio de 1954", AMA, Libro de actas 1954, sig. 4271-02, cód. 12.

253 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 21 de julio de 1958", AMA, Libro de actas 1958-1959, sig. 4276-01, cód. 12.

254 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 20 de noviembre de 1964", AMA, Libro de actas 1963-1964, sig. 4273-05, cód. 12.



Azpeitiko plano
orokorra , 1949. urtean.

Plano general de
Azpeitia. 1949.

© AMA

batzak jakinarazi zuen ezin zuela ordainketa hura egin, ezta kreditu bat eskatuta ere, udal diru-kutxaren egoera ikusita. Hala, 1.675.000 pezetako balioa zuen udal lursail bat besterentzea erabaki zuen, Infanterriaren lursailak ordaindu ahal izateko. Dena den, % 5eko interes tasa eta ordainketa egiteko egunera arte txanponak jasan zezakeen depreziazioa kontuan hartuta, Iñigo Arteaga Falguerari ordaindu beharreko diru kopurua 1.971.905 pezetakoa zen ordurako.[255]

Horrelako gorabeheren ondorioz, 1950eko hamarkadan proiektatutako etxebizitzak proiektu hutsean gelditu ziren edo 1960tik aurrera eraiki ziren. Esate baterako, udalak 65 etxebizitza eraikitzeko proiektua onartu zuen Infanterriko dukearenak ez ziren Perdillegi inguruko lursailetan, baina Foru Aldundiak baztertu egin zuen proiektu hura handik

255 Udal aktak, "1967ko apirilaren 27ko ohiko batzarra", AUA, 1966-1967ko akta-liburua, 4274-04 sig., 12. kod.

suma total a pagar a Iñigo de Arteaga Falguera era de 1.971.905 pesetas.[255]

Vicisitudes como la anterior provocaron que las viviendas proyectadas en la década de 1950 cayeran en saco roto o fueran construidas a partir de 1960. Por ejemplo, en 1955 el ayuntamiento aprobó un grupo de 65 viviendas en los solares del paraje de Perdillegi que no eran propiedad del duque del Infantado, si bien el proyecto fue desestimado por la Diputación un año más tarde.[256] Finalmente, el 15 de junio de 1959 se aprobaría dar inicio a un proyecto de construcción de cuatro escuelas y cuatro viviendas para profesores, coincidiendo con la inauguración del Instituto Laboral, y en virtud de la subvención otorgada por la Junta Provincial de Construcciones Escolares.[257] Por su parte, en enero de 1961 finalizaron las obras de 24 viviendas iniciadas en 1958 y ejecutadas por Marcelino Altuna Otamendi,[258] constructor que realizó varias obras en el municipio durante la década de 1960, y que no estuvo ausente de incidentes en alguna de

255 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 27 de abril de 1967", AMA, Libro de actas 1966-1967, sig. 4274-04, cód. 12.

256 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 16 de enero de 1956", AMA, Libro de actas 1956, sig. 4275-03, cód. 12.

257 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 15 de junio de 1959", AMA, Libro de actas 1956, sig. 4276-01, cód. 12.

258 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 31 de enero de 1961", AMA, Libro de actas de la Comisión Permanente 1961, sig. 4288-01, cód. 12.



urtebetera.[256] Azkenik, 1959ko ekainaren 15ean lau eskola eta maisuentzako etxebizitzak eraikitzeko proiektu bat onartu zuten, Laneko Institutua inauguratzearekin batera eta Eskolen Eraikuntzarako Batzorde Probintzialak emandako dirulaguntza bati esker.[257] Bestalde, 1958an Marcelino Altuna Otamendi[258] eraikitzaileak hasitako 24 etxebizitzak 1961eko urtarrilean amaitu ziren; kontratista hark hainbat lan egin zituen udalerrian 1960ko hamarkadan, hainbat tira-bira tarteko, Marcelino Altunak berak ez baitzituen kontratuak bete lan haietako batzuetan (Udal-aktetan jasotakoaren arabera).[259]

Era berean, 1956ko bigarren seihilekora arte ez ziren hasi Arana auzoa inausten, nahiz eta 1950erako udalbatzak adierazia zuen etxebizitzak eraiki beharra zegoela. [260] Urte hartan bertan, Laneko Ministerioak esan zuen Plan Nazionalaren baitako etxebizitzak eraikitzeko proiektuak martxan jarri behar zirela berehala Gipuzkoako 11 udalerritan,

256 Udal aktak, “1956ko urtarrilaren 16ko ohiko batzarra”, AUA, 1956ko akta-liburua, 4275-03 sig., 12. kod.

257 Udal aktak, “1959ko ekainaren 15eko ohiko batzarra”, AUA, 1956ko akta-liburua, 4276-01 sig., 12. kod.

258 Udal aktak, “1961eko urtarrilaren 31ko ohiko batzarra”, AUA, 1961eko Batzorde Iraunkorreko akta-liburua, 4288-01 sig., 12. kod.

259 Udal aktak, “1964ko urtarrilaren 23ko ohiko batzarra”, AUA, 1963-1964ko akta-liburua, 4273-05 sig., 12. kod.

260 Udal aktak, “1956ko abuztuaren 5eko ohiko batzarra”, AUA, 1956ko akta-liburua, 4275-04 sig., 12. kod.

ellas por incumplimiento del contrato por parte de Marcelino Altuna (según se recoge en las actas municipales).[259]

Asimismo, hasta el segundo semestre de 1956 no comenzó el desmonte del lugar en el arrabal de Arana donde ya en 1950 el pleno municipal apuntaba a la necesidad de construir viviendas.[260] Ese mismo año el Ministerio de Trabajo declaró de urgencia los proyectos para la construcción de viviendas correspondientes al Plan Nacional en 11 municipios de Gipuzkoa, entre los que se incluía Azpeitia. En concreto, se fijaba la expropiación forzosa de 53.390m$^2$, los cuales correspondían a 15 parcelas propiedad de 12 propietarios.[261]

Otro lugar en el que se proyectaron viviendas a finales de la década de 1950 fue en el barrio de Loiola. Aquí, fue *Entidad Constructora Benéfica San Ignacio* (bajo los designios del rector de la Compañía de Jesús) quien promovió la construcción de 48 viviendas para personas con renta limitada. Esta Entidad solicitó al ayuntamiento la condonación del impuesto de plusvalía sobre el terreno a urbanizar y una subvención para la ejecución de las obras, respondiendo negativamente en el primer caso y acordando subvencionar el proyecto con 7.000 pesetas. Además, solicitó la reserva de tres viviendas con el fin de que

259 Actas municipales, “Sesión ordinaria del 23 de enero de 1964”, AMA, Libro de actas 1963-1964, sig. 4273-05, cód. 12.

260 Actas municipales, “Sesión ordinaria del 5 de agosto de 1956”, AMA, Libro de actas 1956, sig. 4275-04, cód. 12.

261 BOE; núm. 266; de 22 de septiembre de 1956.



Amueko zubia, atzean Corrugados Azpeitiaren zati bat ikus daiteke.

Puente Amue. Al fondo, vista parcial de Corrugados Azpeitia.

© S. C. Aranzadi, Fondo Imanol Elías funtsa

besteak beste Azpeitian. Zehazki, 53.390m$^2$ko lursailen desjabetze behartua agindu zuen, 12 jabe desberdinen 15 lursail guztira.[261]

1950eko hamarkadaren amaieran bazen beste proiektu bat Loiolako auzoan etxebizitzak egiteko. *Kasu hartan, Entidad Constructora Benéfica San Ignacio* (Jesúsen Konpainiako zuzendariaren agindupean) erakundea zegoen errenta mugatua zuten pertsonentzako 48 etxebizitza eraikitzeko proiektuaren atzean. Udalari eskatu zion barka ziezaiola urbanizatu behar zen lursailaren gaineko gainbalio zerga, eta eman ziezaiola dirulaguntza bat obrak egiteko. Lehen eskaera ukatua izan zen, bigarrenari berriz, eraikuntza proiekturako 7.000 pezetako dirulaguntzarekin erantzun zion udalak. Gainera, hiru etxebizitza udalarentzat erreserbatzeko eskatu zuen, larrialdi egoeretan erabiltzeko.[262] 1971n, udalak 8 Eskola Nazional eta maisuentzako etxebizitzak eraikitzea erabaki zuen, herriko gabezia larriak kontuan hartuta. Vicente Guibert arkitektoak idatzi zuen proiektu hura.[263]

1971 iritsi zenerako, bizileku eremuek eta haien inguruko gune bereziek 1.219.872 m$^2$ko azalera hartzen zuten, nahiz eta benetan okupatutako espazioa 493.566 m$^2$koa izan

261 EAO; 266. zk.; 1956ko irailaren 22koa.

262 Udal aktak, “1957ko martxoaren 28ko ohiko batzarra”, AUA, 1956-1958ko akta-liburua, 4272-01 sig., 12. kod.

263 Udal aktak, “1971ko ekainaren 23ko ohiko batzarra”, AUA, 1970-1972ko akta-liburua, 4270-02 sig., 12. kod.

el consistorio las pudiera utilizar en casos de urgencia.[262] Ya en 1971 el ayuntamiento acordó la construcción de 8 Escuelas Nacionales y un grupo de viviendas para el profesorado ante las acuciantes necesidades que tenía la villa. El proyecto sería redactado por Vicente Guibert.[263]

Para 1971 los polígonos residenciales y sus zonas especiales sumaban una superficie de 1.219.872 m$^2$, si bien la ocupación de este espacio descendía a 493.566 m2 (el 40,46% de la superficie residencial total).[264] Por tanto, la superficie residencial aún contaba con amplios espacios donde construir, a cambio de perder terrenos dedicados a huertas, ganado o zonas verdes. En este sentido, cabe destacar la desaparición durante los años 60 de la mayor parte de huertas y establos en el núcleo urbano, si bien, aún en 1957, tan solo en las céntricas calles de San Ignacio, Enparan y Santiago existían 11 establos de diferente tipo de ganado.[265] En este sentido, en aquellos años de finales de la década de 1950 ya se discutía asiduamente en el pleno municipal sobre la idoneidad de “autorizar en todo lo posible la construcción de viviendas”, frente a aquellos concejales preocupados por

262 Actas municipales, “Sesión ordinaria del 28 de marzo de 1957”, AMA, Libro de actas 1956-1958, sig. 4272-01, cód. 12.

263 Actas municipales, “Sesión ordinaria del 23 de junio de 1971”, AMA, Libro de actas 1970-1972, sig. 4270-02, cód. 12.

264 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AMA, SIG. 962.01, cód. 251).

265 AMA, sig. 1310.12.03



Azpeitiko Instituto Laboraleko irakasleen etxebizitzen inguruko planoak.

Planos relativos a la construcción de viviendas para profesores destinados al instituto Laboral de Azpeitia

© AMA, sig. 681.33, cód. 25

(bizilekuetarako azalera osoaren % 40,46).[264] Ondorioz, bizilekuetarako azaleran oraindik espazio asko zegoen eraikitzeko, baratzeak, ganaduarentzako guneak edo eremu berdeak galtzearen truke. Zentzu horretan, aipatzekoa da hiriguneko baratze eta ukuilu gehienak 60ko hamarkadan zehar desagertu zirela, nahiz eta 1957an ganadu mota desberdinentzako 11 ukuilu zeuden San Ignazio, Enparan eta Santiago kale zentrikoetan.[265] Izan ere, 1950eko hamarkadaren amaiera aldera, osoko bilkuretan ohiko eztabaidagaia izaten zen "ahalik eta etxebizitza gehien eraikitzeko baimena ematea" egokia ote zen, goragoko agintariek finkatutako araudia betearazi nahi zuten zinegotziei aurka eginaz. [266] Egiazki, baimenekin malgutasunez jokatu nahi zutenak gailendu egin ziren beti, esanaz zenbait desabantaila kontuan hartuz gero "ezin izango zitzaiela aprobetxamendu urbanorik eman hiriguneko lursail interesgarri batzuei"[267]. Horrez gain, gogoan izan behar da 1964an udalak gaizki kalkulatu zuela hurrengo urteetarako espero zen biztanleriaren hazkundea. Azpeitiak 11.118 biztanle zeuzkan 1970ean, nahiz eta kalkuluen arabera 10.591 izan behar zituen urte hartan.[268]

Era berean, hainbat herritarrek negozioa egiteko aukera ikusi zuten, eraikuntza sektorearekin zerikusirik izan ez arren. Azpeitiko plan urbanistiko desberdinek izandako aldaketen ondorioz, *a priori* urbanizatu ezin ziren lursailetan bizi zirenek kexak helarazi zizkioten udalari, sailkapen hura berrikus zezan. Adibidez, bederatzi herritarrek idazki bat bidali zuten 1969an, eskatuz egin zedila poligono bat beren lursailekin, eta indargabetu zezala landa eremu gisa

264 GUIBERT AZCUE, V.: "Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia" (AUA, 962.01 SIG., 251. kod.).

265 AUA, 1310.12.03 sig.

266 Udal aktak, "1958ko apirilaren 24ko ohiko batzarra", AUA, 1956-1958ko akta-liburua, 4272-01 sig., 12. kod.

267 Udal aktak, "1958ko azaroaren 4ko ohiko batzarra", AUA, 1958-1959ko akta-liburua, 4276-01 sig., 12. kod.

268 Udal aktak, "1964ko uztailaren 9ko ohiko batzarra", AUA, 1963-1964ko akta-liburua, 4273-05 sig., 12. kod.

cumplir la normativa fijada por las autoridades superiores.[266] La realidad fue que en todos los casos los partidarios de ser laxos con las autorizaciones impusieron su mayoría, ya que si se atendía a ciertos inconvenientes "quedaría sin posible aprovechamiento urbano una zona muy interesante de terrenos urbanos de la villa"[267]. A este hecho hubo de sumarse el cálculo erróneo que el ayuntamiento había hecho en 1964 respecto al aumento de la población en los años siguientes. Así, por ejemplo, Azpetia tenía una población de 11.118 habitantes en 1970, cuando la estimación realizada la cifraba en 10.591.[268]

Asimismo, hubo vecinos que vieron la oportunidad de hacer negocio y que nada tenían que ver con el sector de la construcción. Las sucesivas variaciones en los planes urbanísticos de Azpeitia, motivo que aquellos que residían en terrenos a priori no urbanizables elevaran quejas al ayuntamiento para que se revisara tal categorización. Este fue el caso de un escrito firmado por nueve vecinos del municipio que solicitaron en 1969 que sus terrenos formaran un polígono, y que por tanto se revocara la decisión de catalogarlo como zona rural, ya que esta categoría no permitía la edificación del espacio.[269]

No es de extrañar, por tanto, que ante tal auge constructivo varios miembros de la Comisión de Urbanismo y Obras llegaran a presentar su dimisión ante las "presiones externas e incluso por qué no decirlo, por sobornos" en 1964. En un escrito leído en el pleno el 12 de marzo se mostraban asombrados por las licencias de obras dadas sin contar con la opinión de dicha Comisión, y se preguntaban cuál era el criterio de los funcionarios que otorgaban los permisos "sin que ni siquiera haya sido redactado el proyecto técnico (…) Se puede imaginar V.S. que por

266 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 24 de abril de 1958", AMA, Libro de actas 1956-1958, sig. 4272-01, cód. 12.

267 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 4 de noviembre de 1958", AMA, Libro de actas 1958-1959, sig. 4276-01, cód. 12.

268 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 9 de julio de 1964", AMA, Libro de actas 1963-1964, sig. 4273-05, cód. 12.

269 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 29 de mayo de 1969", AMA, Libro de actas 1968-1969, sig. 4274-02, cód. 12.

Done Jakue kalearen irudi orokorra.

Vista general de la calle Santiago.

© S. C. Aranzadi, Fondo Imanol Elías funtsa



sailkatzeko erabakia, kategoria horretan egonik ezinezkoa baitzen espazio haietan eraikitzea.[269]

Horrela bada, eta eraikuntzaren gorakada ikusirik, ez da harritzekoa 1964an Hirigintza eta Obra Batzordeko hainbat kidek beren dimisioa aurkeztea jasotzen zituzten "kanpoko presioengatik eta, zergatik ez kontatu, herritarrak zinegotziak erosten ahalegintzen direlako". Martxoaren 12ko osoko bilkuran idatzi bat irakurri zuten, adieraziz txundituta zeudela Batzorde hari iritzirik eskatu gabe ematen ziren obra lizentziekin, eta galdetzen zuten funtzionario haiek zein irizpide zeuzkaten, baimenak ematen baitzituzten "proiektu teknikoa idatzi baino lehen ere (…) batzordetik kanpoko kideek jakinarazi digute zenbait obra data zehatz batean hasiko direla, nahiz eta oraindik ez den aurkeztu obraren lizentzia eskatzeko eskabidea ere". Idazki hura Etxebizitza Delegazio Probintzialera iritsi zen, baina Organismo hark zein udalak ez zuten ezertxo ere egin, dimititu zuten hiru pertsonak ordezkatzea besterik.[270]

Bestalde, politika urbanistikoak ondorio kaltegarriak izan zituen azpeitiar askorentzat. Urte haietan guztietan udalak hamaika kexa jaso zituen herrian egiten ari ziren obrek eragiten zituzten eragozpenengatik. Korporazioak berak 1975eko martxoaren 6ko bilkuran esanda bezala, "udal batzarretan lantzen diren gai guztien % 90 obrei buruzkoak dira"[271]. Baina arazorik handienak etxegabetuenak izan ziren. Esate baterako, Nicolas Zubeldiaren maizterrak (José Galdos eta Jesús Odriozolaren familiak) euren bizilekuetatik bota zituzten, etxea eraitsi baitzuten Loiola etorbidea handitzeko. Familia haien egoera "larria eta presazkoa" zela adierazi arren, udalak ez zuen askorik egin: José Galdosen familia Erietxera bidali zuen aldi baterako eta Jesús Odriozolarena Enparan kaleko etxebizitza baten "3. solairuko hegoaldeko zatian" sartu zuen.[272]

1963an Antxieta etxeko herritarrak etxejabetu zituen. Politika desarrollistan ez zen tokirik izan lehendik existitzen

miembros extraños a la corporación se nos ha asegurado que determinadas obras comenzarán en fechas concretas, cuando ni siquiera ha sido presentada la instancia solicitando la licencia de obra". Este escrito fue elevado a la Delegación Provincial de Vivienda, si bien tanto este organismo como el ayuntamiento se limitaron a sustituir a las tres personas que dimitieron.[270]

Por otra parte, la política urbanística tuvo un efecto negativo en no pocos azpeitiarras. Durante todos estos años el ayuntamiento recibió multitud de quejas por las molestias causadas por las innumerables obras habidas en la localidad, las cuales, según la propia corporación del 6 de marzo de 1975 "ocupan el 90% de los asuntos tratados en los plenos municipales"[271]. Pero sin lugar a dudas el mayor problema causado fue para quienes fueron desahuciados. Por ejemplo, los inquilinos de Nicolás Zubeldia, las familias de José Galdós y Jesús Odriozola, fueron expulsados tras el derribo de la casa para la ampliación de la avenida de Loiola. En respuesta, el ayuntamiento, a pesar de calificar de "angustiosa y urgente" la situación de estas familias, se limitó a recolocar temporalmente a la familia de José Galdos en el Lazareto y a la de Jesús Odriozola "en la parte sur del 3º piso" de una vivienda de la calle Enparan.[272]

269 Udal aktak, "1969ko maiatzaren 29ko ohiko batzarra", AUA, 1968-1969ko akta-liburua, 4274-02 sig., 12. kod.

270 Udal aktak, "1964ko martxoaren 12ko ohiko batzarra", AUA, 1963-1964ko akta-liburua, 4273-05 sig., 12. kod.

271 Udal aktak, "1975eko martxoaren 6ko ohiko batzarra", AUA, 1974-1975eko akta-liburua, 4278-01 sig., 12. kod.

272 Udal aktak, "1953ko maiatzaren 15eko ohiko batzarra", AUA, 1953ko akta-liburua, 4283-01 sig., 12. kod.

270 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 12 de marzo de 1964", AMA, Libro de actas 1963-1964, sig. 4273-05, cód. 12.

271 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 6 de marzo de 1975", AMA, Libro de actas 1974-1975, sig. 4278-01, cód. 12.

272 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 15 de mayo de 1953", AMA, Libro de actas 1953, sig. 4283-01, cód. 12.

### AZPEITIKO ERAIKUNTZA ENPRESAK, JARDUERA INDUSTRIALAREN ARABERA (1967)

### EMPRESAS DE CONSTRUCCIÓN ASENTADAS EN AZPEITIA POR ACTIVIDAD INDUSTRIAL (1967)[I]

| ZERGADUNA / Contribuyente | JARDUERA INDUSTRIALA | Actividad industrial |
|---|---|---|
| Ramón Abaunza Muñoa | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio Aizpuru Eguiguren | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Lucio Amenbar Errasti | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio Arrieta Tejería | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| José Brey Villar | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Félix Eguiguren Aizpuru | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| José María Emparan Ur. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Juan José Garmendia Oria | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio Iparraguirre Ecen | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Manuel Lazcano Uranga | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Eugenio Lizarralde Arguin | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio Merquetegui Aizpi. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio María Olaizola G. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| José María Otaegui Ol. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Odon Prat Bellveure | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |

I. 1967. Erroldak eta matrikulak, "Zerga industriala, lizentzia fiskala", AUA, 583.01 sig., 322. kod.

I. 1967. Padrones y matrículas, "Impuesto industrial, licencia fiscal", AMA, sig. 583.01, cód. 322.

### AZPEITIKO ERAIKUNTZA ENPRESAK ETA ETXEBIZITZA SALMENTAKO ENPRESAK, JARDUERA INDUSTRIALAREN ARABERA (1975)

### EMPRESAS DE CONSTRUCCIÓN Y VENTA DE VIVIENDAS ASENTADAS EN AZPEITIA POR ACTIVIDAD INDUSTRIAL (1975)

| CONTRIBUYENTE | JARDUERA INDUSTRIALA | Actividad industrial |
|---|---|---|
| Javier Aguirre Elorza | Etxebizitza salmenta | Venta de pisos |
| Lucio Altuna Arrizabalaga | Etxebizitza salmenta | Venta de pisos |
| Luciano Soraluce Narvaiza | Etxebizitza salmenta | Venta de pisos |
| Manuel Uria Mendizabal | Etxebizitza salmenta | Venta de pisos |
| Nicolás Zubeldia Larrañaga | Etxebizitza salmenta | Venta de pisos |
| Ramón Abaunz Muñoa | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Andrés Aizpuru Bastida | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Miguel Aldalur Alberdi | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Altuna y Uria S.A. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Joaquín Amenabar Errasti | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| José María Emparan Ur. | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Juan José Garmendia Oria | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Juan Gurruchaga Peña | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Manuel Lazcano Uranga | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| J. Miguel Muguruza Imaz | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Ignacio María Olaizola | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |
| Agustín Prat Soraluce | Obra urbano berriak | Obras nuevas urbanas |

I. 1975. Erroldak eta matrikulak, "Zerga industriala, lizentzia fiskala", AUA, 583.01 sig., 322. kod.

I. 1975. Padrones y matrículas, "Impuesto industrial, licencia fiscal", AMA, sig. 583.01, cód. 322.

## GOGAIKARRI, OSASUNGAITZ, KALTEGARRI EDO ARRISKUTSUTZAT SAILKATUTAKO ENPRESAK AZPEITIAN (1965 ETA 1970 ARTEKO LIZENTZIA BERRIAK BAKARRIK)

## EMPRESAS AZPEITIARRAS CLASIFICADAS COMO MOLESTAS, INSALUBRES, NOCIVAS O PELIGROSAS (SOLO NUEVAS LICENCIAS DADAS ENTRE 1965 Y 1970)[1]

| JARDUERA | Actividad | KOKALEKUA Emplazamiento | JARDUERAREN TITULARRA Titular de la actividad | SAILKAPENA | Clasificación |
|---|---|---|---|---|---|
| Aroztegia | Taller de carpintería | Arangoikoa | Lucio Amenabar Errasti | Gogaikarria | Molesta |
| Nekazaritzako materialen konponketa tailerra | Taller reparación material agrícola | Landeta | Marcelino Aramburu Albizu | Gogaikarria | Molesta |
| Errementeria tailerra | Talller de herrería | Landeta | Marcelino Olariaga Egaña | Gogaikarria | Molesta |
| Ibilgailuen konponketa tailerra | Taller de reparación de vehículos | Arana | José María Arrizabalaga Orbegozo | Gogaikarria | Molesta |
| Harrobia | Cantera | Ezkuzta | Lino Arregui Echeverria | Gogaikarria | Molesta |
| Ebaketa eta ahokatze tailerra | Taller de corte y empalmado | Landeta | Manuel Odriozola Zuazolacigorraga | Gogaikarria | Molesta |
| Aleazio arinen fusioa | Fusión de aleaciones ligeras | Urrestilla | José María Altuna Bereciartua | Gogaikarria | Molesta |
| Langa biltegia | Fábrica de largueros | Landeta | Juan José Marquina Juanche | Gogaikarria | Molesta |
| Butano biltegia | Almacén de butano | Garmendia | Luciano Larramendi Elorza | Arriskutsua | Peligrosa |
| Butano biltegia | Almacén de butano | Garmendia | Acitain S.A. | Arriskutsua | Peligrosa |
| Mekanika tailerra | Taller mecánico | Avda. Ortiz de S. Pelayo | Leocadio Badiola Aldecoa | Gogaikarria | Molesta |
| Altzari fabrika | Fábrica de muebles | Landeta | Francisco Olaizola (Cooperativa Danona) | Gogaikarria | Molesta |
| Metal leunketa tailerra | Taller pulido de metales | Magdalena | Francisco Teno González | Gogaikarria | Molesta |
| Erreminta tailerra | Taller de herramientas | Landeta | José Odriozola Iruñeta | Gogaikarria | Molesta |
| Genero fabrika | Fábrica de géneros | Juan XXIII | María Aranzazu Martínez Lasa | Gogaikarria | Molesta |
| Aroztegia | Taller de carpintería | Ezkuzta | Julián Arruti Ecenarro | Gogaikarria | Molesta |
| Butano biltegia | Almacén de butano | Garmendia | Ángela Iñarra Trocaola (Acitain S.A.) | Arriskutsua | Peligrosa |
| Butano biltegia | Almacén de butano | Garmendia | Luciano Larramend) Elorza (Benicoba S.L.) | Arriskutsua | Peligrosa |
| Altzari fabrika | Fábrica de muebles | Landeta | Cooperativa Obrera del Mueble | Gogaikarria | Molesta |
| Konponketa mekanikoak | Reparaciones mecánicas | Landeta | Sabino Eguiguren Unanue | Gogaikarria | Molesta |
| Altzari fabrika | Fábrica de muebles | Landeta | Muebles Euskalduna S.C.I. | Gogaikarria | Molesta |
| Aroztegia | Carpintería | Arana | Manuel Larrañaga Zabala | Gogaikarria | Molesta |
| Marko fabrika | Fábrica de marcos | Landeta | Tomás Lopetegui Aranguren | Gogaikarria | Molesta |
| Auto margoketa | Pintura automóviles | Carretera Loiola | Florentino Martín García | Gogaikarria | Molesta |
| Tailaketa mekanikoak | Tallas mecánicas | Avda. Loiola | Jacinto Arregui Echaniz | Gogaikarria | Molesta |
| Propano gas depositua | Depósito gas propano | Marcial Ucin S.A. | Jesús Guibert Azcue | Arriskutsua | Peligrosa |
| Arropa fabrika | Confección ropas | Enparan | Manuel Madrazo Arteche | Gogaikarria | Molesta |
| Mekanika garajea | Garaje mecánico | Avda. Ortiz de S. Pelayo | José Odriozola Elustondo | Gogaikarria | Molesta |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Colegio Hijas de Jesús | Juana María Ibáñez Sagardoy | Arriskutsua | Peligrosa |
| Propano gas depositua | Depósito de gas propano | Colegio Hijas de Jesús | Juana María Ibáñez Sagardoy | Arriskutsua | Peligrosa |
| Petrolio depositua | Depósito petróleo | Avda. Loiola | Nicolás Zubeldia Larrañaga | Arriskutsua | Peligrosa |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Convento Esclavas | Begoña Lizarraga Barandiaran | Arriskutsua | Peligrosa |
| Propano depositua | Depósito propano | Convento Concepcionalistas | María Iciar Labaca | Arriskutsua | Peligrosa |
| Altzari fabrika | Fábrica de muebles | Magdalena | José Luis Odriozola Alberdi | Gogaikarria | Molesta |
| Makina-erreminta fabrika | Fábrica de máquina-herramienta | Landeta | Talleres Sprint | Gogaikarria | Molesta |
| Propano depositua | Depósito de propano | Zona residencial Paulo VI | Cruz María Beovide Galarza | Arriskutsua | Peligrosa |
| Zurgintza mekanikoa | Carpintería mecánica | Ausarasa | Pedro Segurola Odria | Gogaikarria | Molesta |
| Inprenta | Imprenta | San Ignacio | Máximo Zubizarreta Azcue | Gogaikarria | Molesta |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Colegio Jesús y María | María del Carmen Martínez | Arriskutsua | Peligrosa |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Santuario de Loiola | Carmelo Urruzuno | Arriskutsua | Peligrosa |
| Dantzalekua | Sala de fiestas | Zona residencial Paulo VI | Francisco Aizpuru Aizpuru | Gogaikarria | Molesta |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Landeta | Román Ucin | Arriskutsua | Peligrosa |
| Fuel-oil depositua | Depósito fuel-oíl | Landeta | Cooperativa Obrera del Mueble | Arriskutsua | Peligrosa |
| Lehorreko garbiketa | Limpieza en seco | Zona residencial Paulo VI | Ángel Uranga Olaizola | Gogaikarria | Molesta |
| Galdaketa tailerra | Taller calderería | Landeta | Sebastián Aguera Moyano | Gogaikarria | Molesta |
| Mekanika tailerra | Taller mecánico | Landeta | Talleres Zubiola S.C.I. | Gogaikarria | Molesta |
| Tornu-errebolber fabrika | Fábrica de tornos-revólveres | | Joséfa Barandiaran Oñativia | Gogaikarria | Molesta |



Corrugados
Azpeitia S.L.

© Uztarria

ziren etxebizitzak zaharberritzeko, horregatik zeuden Azpeitiko alde zaharreko etxebizitzak hain egoera kaskarrean, eta baita Antxietakoa ere; horregatik, bertako herritarrak atera egin behar izan zituzten eraikinaren zati bat bere kabuz erori aurretik. Era berean, Berdelari baserriko maizterrak (Infanterriko dukearen jabetzakoa) ere etxejabetu egin behar zituztenez, maizter haiek 1970ean eskatu zioten udalari konpondu zezala "beren etxebizitzaren eta bizimoduaren arazoa". Udalbatzak erantzun soila eman zien: baserriaren jabeari eskatu zion "kalte-ordainak emateko".[273]

Azkenik, esan behar da Azpeitiko narriadura urbanistikoa eta ingurumenaren narriadura areagotu egin zirela aipatutako irregulartasunen eta, oro har, politika desarrollisten ondorioz.

Hirigintzari dagokionez, 1961eko urriaren 30ean Industria Ministerioak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko Araudia onartu zuen, bertan adieraziz udalek zein neurri hartu behar zituzten jarduera industrial bakoitzaren kalifikazioaren arabera. 1965 hasieran, Gipuzkoako Gobernu Zibilak Azpeitiko udalari eskatu zion sailka zitzala berriz araudia hura indarrean sartu aurretik herrian ezarrita zeuden industria guztiak. Hala, 21 altzari fabrika enpresa gogaikarrien kategorian sailkatu zituzten, Osasun arloko tokiko buruzagiak eta udal aparejadoreak eginiko txostenaren ondoren. Dena den, Foru Aldundiko Zerbitzu Teknikoetako Batzorde Probintzialak ofizio bat

273 Udal aktak, "1970eko irailaren 24ko ohiko batzarra", AUA, 1969-1970eko akta-liburua, 4277-01 sig., 12. kod.

Otros vecinos desalojados fueron los residentes en la casa Antxieta en 1963. En la política desarrollista no tuvo apenas cabida la rehabilitación de las viviendas existentes, de ahí el estado de los hogares de la parte vieja azpeitiarra, pero también de casas como Antxieta, de las que sus ocupantes fueron desalojados poco antes de que parte del edificio se hundiera. Asimismo, los arrendatarios del caserío Berdelari (propiedad del duque del Infantado) solicitaban en septiembre de 1970 que ante el inminente desalojo "se le solucione el problema de la vivienda y su modo de vida". La respuesta del pleno fue escueta: solicitar al propietario del caserío "hacer efectivas las indemnizaciones".[273]

Por último, cabe señalar cómo las irregularidades citadas, y en general, las políticas desarrollistas, tanto en el ámbito industrial como en el urbano, aumentaron la degradación urbanística y ambiental en Azpeitia.

Con respecto al primer ámbito, el 30 de octubre de 1961 el Ministerio de Industria aprobó el Reglamento sobre actividades molestas, insalubres nocivas y peligrosas, indicando a los ayuntamientos las medidas que había que tomarse en función de la calificación dada a cada actividad industrial. A comienzos de 1965 el Gobierno Civil de Gipuzkoa solicitó al ayuntamiento de Azpeitia una nueva clasificación de las industrias instaladas en la villa con anterioridad a la puesta en marcha del reglamento citado. En respuesta, 21 fábricas de muebles de la localidad fueron declaradas molestas tras el informe emitido por el jefe local de Sanidad y el aparejador municipal. Sin embargo, en el mes de julio la Comisión Provincial de Servicios Técnicos de la

273 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 24 de septiembre de 1970", AMA, Libro de actas 1969-1970, sig. 4277-01, cód. 12.

bidali zion udalari uztailean, honakoa adieraziz: “txosten horien arabera, aipatu industriek ez diete enbarazu nabarmenik eragiten bizilagunei”. Horregatik eskatu zioten argitu zezala zergatik sailkatu zituen gogaikarrien kategorian, jarduera bera gogaikarria zelako edo benetan eragozpenak eragiten zituelako –kasu horretan neurriak hartu behar ziren haiek zuzentzeko edo enpresa beste norabait eramatea erabaki behar zen–. Ofizio hura jasotakoan, udalak aurreko irizpideak zuzentzea erabaki zuen.[274]

Ondoren, 1966ko otsailean, udalak beste 14 instalazio industrial sailkatu zituen: Landeta auzoko 9, Santiago kaleko 2. zenbakian zegoen beste bat, Ortiz de Pelayo etorbideko bat, Mojen pasealekuko bat eta Iturrikaleko bat. Lehen txostenetik, denak sailkatu zituzten ez gogaikarrien kategorian: “ondorioztatu dugu berdin jarraitu dezaketela lanean gaur egun dauden tokian eta egoeran, eta ez dela beharrezkoa neurri zuzentzailerik hartzea, ezta jarduera beste norabait eramatea ere”. Dena den, urtero zuzenketak eta txosten berriak egiten jarraitu zuten Azpeitian ezarritako industriei buruz, nahiz eta inon ez den ageri neurri zuzentzailerik hartu zenik edo gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat hartutako industriaren bat beste norabait eraman zutenik. [275]

Ingurumenean izandako inpaktuari dagokionez, garapen urbanistikoak kontatu ezinezko arazoak eragin zituen 1950eko hamarkadaren erdialdetik hasita. Biztanleria berekin ekarri zituen uren hornidura gabetzea, estolderia sistema eskasa, trafikoa ugaritzea, zaborren kudeaketa txarra… Era berean, espazio berdeak ahaztuta gelditu ziren eraikuntzaren gorakadarekin, eta ez zen belar izpirik ikusten bizileku gisa sailkatutako poligonoetan. Hain zuzen, Vicente Guibert arkitektoak 1974an eginiko Antolamendu Planak zioen ezinezkoa zela halako espazioak gaitzea hiriguneetan, ezta hirigunearen eta industrien artean ere, ez zegoelako etxebizitzak eta fabrika handiak bereizten zituzten espazio librerik. Horregatik, Plan hartan adierazi zen eremu berdeak gaitu behar zirela hiria zabaltzeko aurreikusitako eremu berrietan.[276]

274 AUA, 4076.02 sig., 214. kod. / udal aktak, “1965eko uztailaren 9ko ohiko batzarra”, AUA, 1965eko akta-liburua, 4273-03 sig., 12. kod.

275 AUA, 4076.02 sig., 214. kod.

276 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AUA, 962.01 sig., 251. kod.).

Diputación envió un oficio al ayuntamiento en el que, aludiendo a que de los informes “se desprende que dichas industrias no causan molestias sensibles al vecindario”, solicitaba una aclaración sobre si la calificación de molesta lo era por la naturaleza de las mismas o si se debía a que efectivamente causan molestias que precisaban de la adopción de medidas correctoras o su traslado a otro emplazamiento. Ante este oficio, el pleno municipal acordó rectificar su criterio anterior y clasificarlas como no molestas.[274]

Posteriormente, en febrero de 1966, otras 14 instalaciones industriales fueron clasificadas por el ayuntamiento : 9 asentadas en el barrio de Landeta, una en la calle Santiago nº 2, una en la avenida Ortiz de Pelayo, otra en el paseo de las Monjas y una última en Iturrikale. En esta ocasión todas fueron clasificadas desde el primer informe como no molestas, “llegándose a la conclusión de que pueden continuar trabajando o funcionando en su actual emplazamiento y estado actual, y que no se considera necesaria la adopción de medidas correctoras y tampoco el traslado de las mismas”. Con todo, anualmente fueron haciéndose rectificaciones y nuevos informes sobre las industrias instaladas en Azpeitia, sin que figuren en estos informes ningún tipo de medidas correctoras o traslado de las industrias consideradas molestas, insalubres, nocivas o peligrosas. [275]

En cuanto al impacto ambiental, el desarrollo urbanístico provocó desde mediados de la década de 1950 innumerables problemas. El desabastecimiento de agua, el deficiente sistema de alcantarillado, el aumento del tráfico, o la mala gestión de las basuras, fueron varias de las cuestiones suscitadas a partir del crecimiento demográfico. Asimismo, el auge constructivo se olvidó de generar espacios verdes, totalmente ausentes de los polígonos catalogados como residenciales. De hecho, en el Plan de Ordenación elaborado en 1974 por el arquitecto Vicente Guibert, se aludía a la imposibilidad de habilitar estos espacios en los núcleos urbanos, ni siquiera entre éstos y las industrias, ya que no existían apenas espacios libres que separaran las viviendas de las grandes factorías. Por ello, se señalaba la necesidad de habilitar zonas verdes en las nuevas áreas de expansión urbana previstas.[276]

274 AMA, sig. 4076.02, cód. 214 / Actas municipales, “Sesión ordinaria del 9 de julio de 1965”, AMA, Libro de actas 1965, sig. 4273-03, cód. 12.

275 AMA, sig. 4076.02, cód. 214

276 GUIBERT AZCUE, V.: “Plan general de ordenación del término municipal de Azpeitia” (AMA, sig. 962.01, cód. 251).



Txalapartariak Azpeitian.

Txalapartaris en Azpeitia.

© S. C. Aranzadi, Fondo Imanol Elias funtsa

# 3.4. Euskal kulturaren berpiztea. Euskara berreskuratzeko borroka

*"Barkatu esatera noana. Meza gazteleraz emango dut nire gogoaren kontra, bereziki nire aita duela gutxi hil zelako eta badakidalako meza euskaraz ez ematea haren oroimenaren kontrako iraina dela".*[277]

Francisco Franco kolpista militarraren diktadurak ezaugarri bat izan bazuen beste ororen gainetik, zapalkuntza izan zen hori, eta haren erabilpen sistematikoa nahiz aplikazio anker eta zurruna. Maila guztietako indarkeria. Zapalkuntza politikoa eta ekonomikoa, lan eta genero arloetakoa. Baina baita ere espainiarrak ez ziren kultur eta hizkuntza nortasunen aurkako zapalkuntza ankerra. Izan ere, Estatu eredu frankistak jazarri egin zituen erregimen berriaren aurkakotzat jotzen zituen adierazpen kultural eta kolektibo guztiak. Zapalkuntza hark ez zituen pertsona zehatzak seinalatzen, gizarte osoa baizik; "Mugimendu Loriatsu Nazionala" eta "Espainia Berria" baino lehenagoko bizimoduak

277 Francisco María Altuna Bengoetxea jesuitak 1973ko apirilaren 1ean Azpeitiko eliza parrokialean esandako hitzak ("Gobierno Civil de Gipuzcoa. Memoria correspondiente al año 1973". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3678/0/1)

# 3.4. La reactivación de la cultura vasca. La lucha por la recuperación del euskera

*"Perdónenme lo que voy a decirles. Voy a oficiar la misa en castellano en contra de mi voluntad, especialmente por hacer poco que murió mi padre, el cual sé que ofendo por no decirla en vascuence".*[277]

Si algo caracterizó a la dictadura dirigida por el militar golpista Francisco Franco fue el uso sistemático de la represión y su aplicación de manera cruel e inflexible. Una violencia empleada a todos los niveles. Una represión política, económica, laboral y de género. Pero también, una represión implacable contra las identidades culturales y lingüísticas distintas a la española, persiguiendo de manera generalizada todas aquellas manifestaciones culturales y colectivas que consideraban contrarias al nuevo régimen. Este tipo de represión no señalaba con el dedo a personas concretas, sino que la sociedad en su conjunto, sus modos de vida anteriores al "Glorioso Movimiento Nacional" y a la "España Nueva", se situaban en el punto de mira de los

277 Palabras del jesuita Francisco María Altuna Bengoechea en la iglesia parroquial de Azpeitia el 1 de abril de 1973 ("Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1973". AHPG; Gobierno Civil; c. 3678/0/1.)



Jorge Oteiza Arantzazun.

Jorge Oteiza en Arantzazu.

© Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes liburututik hartutako irudia / Imagen extraída de Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes, tomo 4

ziren agintarien miran zeudenak. Zentzu horretan, euskal kultura eta euskara jazarriak izan ziren, baina ez hezkuntza sistema barruan bakarrik, baita ere beste edozein espazio publikotan.[278]

1938ko abuztuaren 12an Agindu bat eman zen: "Hizkuntza ofizialean, hots, gaztelera ez den beste hizkuntza edo dialekto batean egiten diren inskripzioak baliogabeak izango dira". Gainera, urte hartako maiatzaren 18an beste Agindu batek debekatu egin zituen katolikoen "Santutegi Erromatarrekoak" ez ziren izenak jartzea, eta hirurogei eguneko epea ematen zuen "izen exotiko, bitxi edo aurreko xedapenean jasotakoak bezalako izenak jartzeagatik izendatutako guraso edo lege-ordezkariek" seme-alaben izenak alda zitzaten jaiotza inskripzioetan. [279]

Era berean, euskara jakiteak ez zuen ezertarako balio funtzionarioentzat –ezta maila lokalean eta, Azpeitia bezala, nagusiki euskaldunak ziren herrietan ere– eta horrek herritarren eskubideak mugatzea suposatzen zuen, administrazioarekin harremantzeko gaitasuna mugatuta gelditzen zelako. Adibide bezala jar liteke 1949an Fructuoso Elorza ordezkatuko zuen udal ordezkariaren izendapena. Udal Korporazioak aho-batez erabaki zuen 1949ko uztailaren 2an José Eugenio Arcelus Imaz aukeratu behar zutela kargurako (bi hautagai zeuden), "baduelako ezaugarri berezi bat: badaki

278 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

279 GORROTXATEGI NIETO, M.: "Errepublika garaiko izenak eta 1939ko dekretua".

dirigentes. En este sentido, cabe destacar la persecución de la cultura vasca y el euskera, no solo dentro del sistema educativo, sino también en cualquier espacio público.[278]

El 12 de agosto de 1938 se emitió una Orden en la que "se consideran nulas las inscripciones practicadas en idioma o dialecto distinto del idioma oficial castellano". Pero además, anteriormente, en concreto el 18 de mayo de ese mismo año, otra Orden prohibió los nombres propios que no fueran los contenidos en el "Santoral Romano" de los católicos, dando un plazo de sesenta días para que "los padres o representantes legales de interesados en inscripciones de nacimientos, que estuviesen citados con la designación de nombres exóticos, extravagantes y demás comprendidos en la citada disposición" cambiaran el nombre a sus hijos.[279]

Asimismo, al funcionariado, incluso a nivel local, y en localidades eminentemente euskaldunas como Azpeitia, no se les valoró su conocimiento del euskera, lo que realmente resultaba un menoscabo en los derechos de una ciudadanía, que de este modo veía limitada su capacidad para relacionarse con la administración. Valga como ejemplo el nombramiento del secretario municipal que debía sustituir, Fructuoso Elorza en 1949. La corporación municipal, por unanimidad, acordó el 2 de julio de 1949 que entre los candidatos debía ser José Eugenio Arcelus Imaz el elegido, ya que "reúne la circunstancia especial de

278 BUCES CABELLO, J.: *Tolosa 1945-1975. Violaciones de derechos humanos y represión hasta la muerte del dictador.*

279 GORROTXATEGI NIETO, M.: "Errepublika garaiko izenak eta 1939ko dekretua".



Urrestilako Ikastola.

Ikastola de Urrestilla

© Uztarria

euskaraz eta hori ia ezinbestekoa da karguak eskatzen dituen lanak egiteko"[280]. Halere, Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak zuen azken hitza, eta ez zion jaramonik egin udalaren proposamenari: azaroan Luis Marqués Carbó izendatu zuen udal idazkari.[281]

1960ko hamarkadatik aurrera, erregimenaren estrategia zapaltzailea zertxobait erlaxatu zen arlo horretan. Era berean, eskualde industrializatuetan biziraupen ekonomiatik atera ziren eta euskal gizarteko hainbat langile sektorek soberakin ekonomikoak izan zituzten lehen aldiz. Diru hura baliatuz, kultur edo kirol ekimenak finantzatzen hasi ziren eta, besteak beste, gogoz kontrako lozorro luzearen ostean, euskal kultura eta euskararen berpizkundea sustatu zuten lehenengo ikastolen bitartez. Hala, ikastetxe berezi haiek ez ziren izan aurretiazko planifikazio baten emaitza; gurasoek eta gizarte zibilak euren seme-alabak modu desberdin batean eta euskaraz hezi nahi zituztelako sortu ziren, diktaduraren lehen urteetan baino testuinguru egokiago batean. Aurrekariak euskal nazionalismo tradizionalaren baitako pertsonaiak izan ziren gehienbat, baita ere euskalzaleak eta beste hezkuntza eredu bat sortzeko aukera ikusten zuten ezkertiarrak; hala, 1956an Parisen egin zen Munduko Euskal Kongresuan (Eusko Jaurlaritza sortu zeneko hogeigarren urteurrena ospatuz) eztabaidagai garrantzitsua izan zen ikastolen sorkuntza sustatu behar zen ala ez.[282]

Lehen ikastolak egoera alegal batean formalizatu ziren, erakunde erlijioso edo pribatuen babesean eta Lehen

280 Udal aktak, "1949ko uztailaren 2ko ohiko batzarra", AUA, 1948-1950eko akta-liburua, 0278-01 sig., 12. kod.

281 Udal aktak, "1949ko azaroaren 10eko ohiko batzarra", AUA, 1948-1950eko akta-liburua, 0278-01 sig., 12. kod.

282 IZA, I.: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010.*

conocer el idioma vascongado, que es casi indispensable para el ejercicio del cargo"[280]. Sin embargo, el organismo que finalmente tenía que decidir sobre este asunto, la Dirección General de la Administración Local, hizo caso omiso a esta propuesta y nombró a Luis Marqués Carbó secretario municipal en el mes de noviembre.[281]

A partir de la década de 1960 se introdujo cierta relajación en la estrategia represora del régimen en esta materia. Del mismo modo, la superación de una economía de subsistencia en las comarcas industrializadas provocó que por primera vez ciertos sectores de trabajadores de la sociedad vasca contaran con excedentes económicos que les permitían financiar iniciativas culturales o deportivas, entre ellas, tras décadas de letargo involuntario, el fomento de la cultura vasca y el resurgimiento del euskera a través de las primeras ikastolas. Estos centros educativos, por tanto, no surgieron de una planificación previa, sino de la voluntad de padres y sociedad civil en general de educar de manera diferente y en euskera, en una coyuntura ciertamente más favorables que durante los primeros años de dictadura. Sus precursores fueron en su mayoría personas provenientes del nacionalismo vasco tradicional, pero también vascófilos y gentes de izquierdas que veían la oportunidad de educar en otro modelo; de ahí que en el Congreso Mundial Vasco celebrado en Paris en 1956 ( conmemorando el vigésimo aniversario de la creación del Gobierno Vasco), tuviera una gran repercusión el debate sobre la necesidad de fomentar la creación de ikastolas.[282]

280 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 2 de julio de 1949", AMA, Libro de actas 1948-1950, sig. 0278-01, cód. 12.

281 Actas municipales, "Sesión ordinaria del 10 de noviembre de 1949", AMA, Libro de actas 1948-1950, sig. 0278-01, cód. 12.

282 IZA, I.: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010.*



Liburuaren aurkezpena Aita Lasarekin. 1976.

Presentación del libro con el Padre Lasa, en 1956.

© Aranzadi Z.E., Fondo Imanol Elias Funtsa

Hezkuntzari buruzko 1945eko uztailaren 17ko Legea[283] kontuan izanik, zeinak aukera ematen baitzuen eskolaurrean euskarazko irakaskuntza emateko –derrigorrezko eskola ez zen hasten 9 urtera arte–, baina eragozpenak jartzen baitzituen eskola garaian euskarazko ikasketekin jarraitzeko. Inflexio puntua 1965ean etorri zen, *Eskolatze Kartilla* indarrean sartu zenean; baimendu gabeko eskoletako ikasleek ezin zuten halakorik eskuratu eta agiri hura gabe ezin zen batxilergoko ikasketarik egin. Era berean, Gipuzkoako gobernadore zibilak 1968ko uztailean emandako Zirkularra ere garrantzitsua izan zen. Euskara esplizituki aipatu gabe, bertan esaten zuen baimendu gabeko ikastetxe asko zeudela eta, ondorioz, kartillarik ez izateak ondorio larriak izan zitzakeela ikastetxe haietako ikasleentzat. Hala, hainbat xedapen eman zituen:

1. *Debekatuta dago ikastetxe berriak irekitzea baimenik gabe eta alkateei exijituko zaie xedapen hau bete dezatela.*
2. *Baimendu gabeko ikastetxeetako arduradunek ahalik eta azkarren aurkeztu beharko dute legeztatzeko eskaera.*
3. *Gobernadore Zibilak jakinarazten du 1945eko azaroaren 15eko Agindu Ministerialak arautzen duela ikastetxeak legeztatzeko prozedura.*”[284]

Zailtasun haiek gehienak herrietako elizei esker gainditu ziren: elizek bazuten ikastetxeak legeztatzeko gaitasun juridikoa, eskola parrokial bihurtuta. Hain zuzen, Gipuzkoako ikastolen % 68k elizaren babesa izan zuten. Gobernadore

283 EAO, 199 zk., 1945eko uztailaren 18koa.

284 GARMENDIA LASA, M.C.: “Renacer y expansión del fenómeno ikastola”. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Fondo Bernardo Estornes Lasa.

Las primeras ikastolas se formalizaron en una situación de alegalidad, bajo el amparo de instituciones religiosas o privadas, teniendo en cuenta la Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria[283], que permitía extender la enseñanza en euskera en edad preescolar, al no ser la escolarización obligatoria hasta los 9 años, pero que dificultaba su continuación en edad escolar. El punto de inflexión vino en 1965 con la entrada en vigor de la *Cartilla de Escolaridad*, a la cual no tenían acceso alumnos de escuelas no autorizadas y sin la que no podía accederse al bachillerato. Asimismo, un hecho clave fue la Circular del gobernador civil de Gipuzkoa de julio de 1968, en la que sin hacer referencia explícita al euskera advertía de la existencia de multitud de centros no autorizados, y de las implicaciones que para estos alumnos tenía el no acceso a la mencionada cartilla. En consecuencia, señalaba varias disposiciones:

1. *Prohibición de apertura de nuevos centros sin autorización y exigencia a los alcaldes del cumplimiento de esta disposición.*
2. *Los responsables de los centros no autorizados deberán presentar su petición de legalización en el plazo más breve.*
3. *A título de información el Gobernador Civil hace saber que la legalización de los centros está regulada por la O. M. de 15 de noviembre de 1945.*”[284]

Estas dificultades fueron solventadas gracias fundamentalmente a las iglesias locales, ya que estas tenían capacidad jurídica para legalizar los centros a través de su conversión en escuelas parroquiales. De hecho, el 68% de las ikastolas de Gipuzkoa

283 BOE; núm. 199; de 18 de julio de 1945.

284 GARMENDIA LASA, M.C.: “Renacer y expansión del fenómeno ikastola”. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Fondo Bernardo Estornes Lasa.



Loiolako Herri irratiaren Loiolako egoitza, 1961. urtean.

Estudios de Loiola Herri Irratia. 1961

© Fondo Herri Irratia funtsa. S.C. Aranzadi

zibilak aipatutako Agindu Ministerialak esplizituki aipatzen zuen nola egin behar zen ikastetxe pribatuak irekitzeko espedienteen tramitazioa. Klausula haietan, maisuen gaikuntza tekniko edo pedagogikoaz gain, beste baldintza batzuk ere ezartzen ziren: "parrokoaren ziurtagiri bat jokabide erlijioso edo moralari buruz, aurrekari politiko-sozialei buruzko ziurtagiri bat eta udal agintaritzak emandako jokabide onaren beste ziurtagiri bat enpresari, zuzendari eta maisu guztientzat; eta ikastetxea zuzenduko duten pertsona juridiko eta indibidualen orientazioari buruzko ziurtagiri bat".[285]

*60ko hamarkada honetan Donostiako bi apaiz gazte etorri ziren herrira: Don Cecilio eta Don Baldasar. Don Cecilio Oargiko kontziliarioa izan zen eta Don Baldasarrek berriz bere arduren artean Esklabetako kapilau izatea zuen. Bi apaiz hauek herrian denbora luzea egin ez bazuten ere azpeitiarren memorian gelditu ziren izan zirenak izan zirelako. Herriarekin konprometitutako apaizak ziren, ordura arteko apaizengandik desberdinak. Huek izan ziren herriko jaitara danborrada ekarri zutenek.*

*Berrikuntzak ez dira izaten guztien gustukoak sarritan eta apaiz hauek zeramaten bidea ez zen ongi ikusia frankistek agintzen zuten herri batean. Ez dakit nor izan zen agindua eman zuena, ezta ere zergatia zehazki, baina, herritik bidaliak izan ziren apaiz hauek.*

(Jexux Arrizabalagaren testigantza)

285 EAO; 347. zk.; 1945eko abenduaren 13koa.

recibieron protección de la Iglesia. Con respecto a la Orden Ministerial a la que hacía mención el gobernador civil, esta se refería explícitamente a la tramitación de expedientes para la apertura de escuelas privadas. En estas cláusulas se exigía, además de la capacitación técnica o pedagógica de los maestros, "un certificado del párroco acerca de la conducta religiosa y moral: certificado sobre los antecedentes político-sociales, y otro certificado de buena conducta expedido por la Autoridad municipal, todos respecto a los empresarios, directores y maestros, y también sobre la orientación de la personas jurídicas y de las personas individuales que las dirijan".[285]

*En la década de los sesenta llegaron al pueblo dos curas jóvenes de San Sebastián: Don Cecilio y Don Baltasar. Don Cecilio era un conciliario de Oargi; y Don Baltasar tenía, entre otras, la responsabilidad de ser capellán de las Esclavas. Ninguno de los dos estuvo mucho tiempo en el pueblo, pero, sin embargo, por su forma de ser, se han quedado para siempre en la memoria de las gentes de Azpeitia. Eran curas comprometidos con el pueblo, muy diferentes a los que había habido anteriormente. Ellos fueron quienes trajeron la tamborrada al pueblo.*

*A menudo, las novedades no son del gusto de todos, y el camino que seguían esos curas no fue bien visto en un pueblo en el que mandaban los franquistas. No sé quién dio el aviso, ni tampoco por qué, pero se los llevaron del pueblo.*

(Testimonio de Jexux Arrizabalaga)

285 BOE; núm. 347; de 13 de diciembre de 1945.



Batallón Vasco Españolen atentatua Loiolako Herri Irratiaren egoitzaren kontra, 1977an.

Atentado del Batallón Vasco Español contra las instalaciones de la emisora Popular Loiola. 1977.

© Fondo Herri Irratia funtsa. S.C. Aranzadi

Bestalde, Loiolako Ikastolen Mankomunitatea Azpeitian sortu zen eta 1969ko azaroaren 9an bertan osatu zen *Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza* ere, hain zuzen, Loiolan eginiko batzar batean. Bilera hartan hainbat printzipio onartu ziren: ikastolen legeztatzea, finantza arazoen konponbidea, irakasleen prestakuntza… Gainera, Araban irakasleak falta zirela eta, hasiera batean irakasle azpeitiarrak eta bailarako beste biztanle batzuk joan ziren bertara, hutsik zeuden postuak betetzera. Gerora, euskarazko irakasle izan nahi zuten arabarrak Nuarbe edo Urrestilla bezalako auzoetara joan ziren, bolada bat han pasa eta behar zituzten ezagutzak hartzera. Hain zuzen, Azpeitiko udalak hitzarmen moduko bat sinatu zuen, euskalduntzera joaten ziren irakasle arabarrek Urrestillako eskola publikoaren zati bat erabil zezaten. 1970eko hamarkadaren amaieran, Gipuzkoako Ikastolen Federazioak Azpeitia aukeratu zuen berriro batzar bat egiteko; bilera haren helburua zen ikastetxe haiek guztiak Euskal Eskola Publiko bihurtzea, gerta zitekeelako trantsizio politikoan zehar euskal lurraldeak horretarako eskumenak lortzea.[286]

1972an, *Gaur* Azterketa Sozioekonomikoen Zentroak txosten bat egin zuen Urola bailarako irakaskuntzari buruz, Urolako Kultur Mankomunitateak eskatuta; mankomunitate hartako kide ziren Azpeitia Azkoitia, Beizama, Zestoa eta Errezil, eta hizpide ditugun 1970. eta 1971. urteetan, Azpeitia zen ekarpen ekonomiko handiena egiten zuen herria.[287]

286 IZA, I.: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010.*

287 Azpeitiko udalak Urola Bailarako Mankomunitateari eginiko ekarpen ekonomikoez gain, Loiolako Ikastolen Mankomunitateak ere kolaboratu zuen. 34.000 pezetako dirulaguntza eman zuen 1971-1972 ikasturterako bakarrik

Por otra parte, fue en Azpeitia donde se formó la Mancomunidad de Ikastolas de Loiola, y donde el 9 de noviembre de 1969 se constituyó la Junta de la Asociación de Ikastolas de Gipuzkoa (*Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza*) en una asamblea celebrada precisamente en Loiola. Entre los principios aprobados en esta asamblea figuraban la legalización de las ikastolas, solucionar los problemas financieros o formar a los profesores. Además, la falta de profesorado en Álava hizo que en un primer momento fueran azpeitiarras y otros habitantes del valle los que acudieran a aquella provincia a cubrir los puestos vacantes. Posteriormente, los aspirantes alaveses a profesores en euskera fueron los que se instalaron temporalmente en barrios como Nuarbe y Urrestilla para adquirir los conocimientos necesarios. De hecho, se firmó con el ayuntamiento de Azpeitia una especie de convenio para que los alaveses que acudían a euskaldunizarse ocuparan parte de la escuela pública de Urrestilla. A finales de la década de 1970 Azpeitia volvió a ser el lugar elegido por la Federación de Ikastolas de Gipuzkoa para celebrar una asamblea en la que se aspiraba a que estos centros educativos se convirtieran en la Escuela Pública Vasca, ante la posibilidad de que en el proceso de transición política el territorio vasco contara con competencias al respecto.[286]

En 1972 el Centro de Estudios Socioeconómicos *Gaur* elaboró un informe sobre la enseñanza en el valle del Urola a petición de la Mancomunidad Cultural del Urola, Mancomunidad formada por los municipios de Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Zestoa y Errezil, y en el que para los años comprendidos entre 1970 y 1971 Azpeitia era la localidad que mayor contribución

286 IZA, I.: *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010.*

Azterlan hartan zehazten da 1971-1972 ikasturtean 3 eta 5 urte bitarteko adin txikikoen % 62,5 zeudela eskolatuta Urolan, eta haietatik % 25,2 ikastola batera joaten zirela; aldiz, derrigorrezko zikloan (lehen hezkuntza, 6 eta 14 urte bitarteko adin txikikoak) eskolatzea % 100ekoa zen eta haietako % 41,1 estatu-zentroetara joaten ziren, % 53,7 zentro erlijiosoetara eta % 5,2 ikastoletara. Azkenaren portzentajea % 11koa zen Azpeitian eta % 0 gainerako udalerrietan, lehen hezkuntzarako mota horretako ikastetxe bakarra baitzen bailara osoan.[288]

Hala ere, Urola bailaran gazteleraz ongi moldatzen ziren lehen hezkuntzako ikasleen portzentajea % 50etik beherakoa zen. Eta berdin Azpeitian ere, non gazteen % 80,4k primeran egiten baitzuten euskaraz eta, aldiz, % 47,8k bakarrik zekiten gazteleraz. Ondorioz, argi dago lehen hezkuntzan zergatik zeuden hain ikasle gutxi ikastoletan matrikulatuta: diktadurak euskaldunei zuzendutako koakzioaren ondorioa zen eta ez borondatezko erabaki bat. Izan ere, diktadurak ez zien uzten batxilergora sartzen ikasketak ikastetxe ez baimenduetan –hots, ikastoletan– egiten zituzten ikasleei, lehenago aipatu bezala, *Eskolatze Kartillarik* eskuratzen ez zutelako.

Nolanahi ere, Azpeitiak bazuen halako karga sinboliko bat euskal kulturaren eta hizkuntzaren kontserbazioan. Izan ere, probintziako komunikazio bide handietatik urrun zegoen, eta euskara lehenesten zuen, euskara zen harreman sozialetarako ia hizkuntza bakarra. Gainera, Espainiako Estatutik etorkin gutxi iritsi ziren Azpeitira, nahiz eta industria sektore indartsua izan. Zentzu horretan, 1986an ere, 10.000 biztanletik gorako Gipuzkoako udalerrien artean Azpeitia zen etorkin gutxien zituena (% 8,61).[289] 1961eko martxotik aurrera eta herritar talde batek hala eskaturik, udalak gazteleraz eta euskaraz eman zituen bandoak, benetan harrigarria garai hartarako.[290]

> *Aita Lekuonak saio bat euskaraz egitera ausartuko ote nintzen esan zidan, eta nik, bi aldiz pentsatu gabe, honela erantzun nion: bai, noski.*
>
> (José Mari Iriondoren testigantza)

Urte hartan bertan, otsailean, Loiola Irratia (*Radio Popular de Loyola*) jarri zen martxan, zeinak euskaraz emititzen baitzituen mezak eta errosarioak. Karmelo Otaegi, Itziar Sagarzazu eta José Mari Iriondo, Aita Lekuonarekin batera, izan ziren irrati haren bultzatzaile nagusiak, erregimenak inposatutako

(Udal aktak, “1971ko maiatzaren 25eko ohiko batzarra”, AUA, 1971-1972ko akta-liburua, 4270-02 sig., 12. kod.).

288 “La enseñanza en el Valle del Urola”, Gaur, 1972 (AHL, Fondo Pueblos, L.64 sig.).

289 CASTELLS ARTECHE, L. et al.: *Gipuzkoa, inmigración e integración. Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975).*

290 “Azpeitiko efemerideak”, *Uztarria* Aldizkaria.

económica realizaba.[287] En este estudio se especifica que para el curso 1971-1972, del 62,5% de los menores de entre 3 y 5 años escolarizados en el valle del Urola, el 25,2% lo estaba en una ikastola, mientras que en el ciclo obligatorio (enseñanza primaria, menores de 6 a 14 años), con un 100% de escolarización, el 41,1% estaba escolarizado en un centro estatal, el 53,7% en uno religioso, y el 5,2% en una ikastola. Este último porcentaje era de un 11% en Azpeitia y del 0% en el resto de municipios, ya que era la única localidad que contaba con este tipo de centro en el valle para el ciclo de primaria.[288]

Sin embargo, el porcentaje de alumnos de primaria que se desenvolvían correctamente en castellano en el valle del Urola no llegaba al 50%. Tampoco en Azpeitia, donde frente a un 80,4% de jóvenes que conocían perfectamente el euskera, el castellano era solo dominado por un 47,8%. Por tanto, resulta obvio que el descenso tan acusado de alumnos matriculados en ikastolas a partir de la enseñanza primaria se debía más a la coacción que la dictadura ejercía sobre los euskaldunes que a una decisión voluntaria; principalmente por el hecho de que se imposibilitaba el acceso al bachillerato a aquellos jóvenes que hubieran cursado sus estudios en centros no autorizados como las ikastolas, al no poder adquirir la citada *Cartilla de Escolaridad*.

Con todo, Azpeitia conservaba cierta carga simbólica en cuanto a la conservación de la cultura vasca y su lengua. En ello influía el ser un municipio alejado de las grandes vías de comunicación del territorio, el mantenimiento del euskera como idioma preferente e incluso único en las relaciones sociales, y la escasa presencia de habitantes llegados del Estado español a pesar de contar con un potente sector industrial. En este sentido, cabe señalar que para una fecha tan avanzada como 1986, de los municipios guipuzcoanos con más de 10.000 habitantes, Azpeitia era el que menos porcentaje de población inmigrante albergaba (un 8,61%).[289]

Desde marzo de 1961 el ayuntamiento, respondiendo a la petición de un grupo de vecinos, emitió los bandos municipales además de en castellano en euskera, un hecho insólito para una fecha tan temprana.[290]

287 Además de las aportaciones económicas que el ayuntamiento de Azpeitia realizó a la Mancomunidad del Valle del Urola, también colaboró con la Mancomunidad de Ikastolas de Loiola. Solo para el curso escolar de 1971-1972 concedió una subvención de 34.000 pesetas (Actas municipales, “Sesión ordinaria del 25 de mayo de 1971”, AMA, Libro de actas 1971-1972, sig. 4270-02, cód. 12.

288 “La enseñanza en el Valle del Urola”, Gaur, 1972 (AHL, Fondo Pueblos, sig. L.64).

289 CASTELLS ARTECHE, L. et al.: *Gipuzkoa, inmigración e integración. Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975).*

290 “Azpeitiko efemerideak”, *Uztarria* albistea.

zailtasunen gainetik. Euskarazko emisioek haserrea eta sumina eragin zituzten diktadurarekiko leial mantentzen zirenen artean, baina proiektuak aurrera jarraitu ahal izan zuen herriaren babesari esker. Irratiak indarra hartu ahala, euskara erabiltzeko mugapenak iritsi ziren. Adibidez, hizkuntza hura erabiltzea debekatu zuten gaurkotasunezko gaietan edo publizitatean, nahiz eta ez zegoen horri buruzko legeria zehatzik.[291]

*“Guk herriaren alde, Euskal herriaren alde eta gure kulturaren alde egiten genuen eta Irratiaren bi aldi kritikoetan, jendearen erantzunak salbatu zuen irratia (…) Egia esan, oso kontrolatuta geunden informazio lokala bakarrik landu ahal genuen eta ez zuten bakarrik esaten genuena begiratzen, baita jartzen genuen musika ere”*[292].

1965ean Espainiako Estatuak hainbat irrati itxi zituen, besteak beste Loiola Irratia. Uztailaren 22an iritsi zen agindua eta egun hartan bertan hasi zituzten berriz emititzeko tramiteak, 1966ko otsailaren 18an helburua lortu arte. 1971. urtean, Donostiako Diozesiko apezpikuak Loiola Irratiari eskatu zion bere gain har zezala Donostiako Herri Irratiaren zuzendaritza, lankidetza estu bat abiatuz bi irratien artean. 1974, eta 1975. urteetan etengabe iritsi ziren irratiko zuzendariarentzako zigorrak, Informazio eta Turismo Ministerioak inposatu nahi zituen zentsura eta debekuak saihesten ahalegintzen zelako. 1975eko abuztuan zuzendaria aldatu zen eta, diktadorea hil baino apur bat lehenago, ikuskapen tekniko batek berehala irratia ixteko eskatu zuen, “arau-hauste teknikoak” zirela medio. 1977ko ekainaren 11n Batallón Vasco Español (BVE) taldeak bonba bat zartarazi zuen Antzuolako emisio zentroan[293].

291 *Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. Zb / “Herri Irratia. 1961-2016. 55.go urterrena”, Noticias de Gipuzkoa.

292 Karmelo Otaegiri eginiko elkarrizketa baten zatia (*Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. zk.)

293 *Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. Zb / “Herri Irratia. 1961-2016. 55.go urterrena”, *Noticias de Gipuzkoa.*

*“Aita Lekuona me dijo a ver si me atrevía a hacer un programa en euskera, y yo, sin pensarlo dos veces, le contesté que por supuesto que sí.”*

(Testimonio de José Mari Iriondo)

Ese mismo año, en el mes de febrero, se puso en marcha Loiola Irratia (*Radio Popular de Loyola*), que emitirá las misas y los rezos del rosario en euskera. Aita Lekuona, junto a Karmelo Otaegi, Itziar Sagarzazu y José Mari Iriondo fueron los principales artífices de una radio que superó las dificultades que imponía el régimen. Las emisiones en euskera provocaron reacciones airadas entre los más fieles a la dictadura, si bien, el apoyo social que recibió les permitió continuar con el proyecto. Conforme la emisora fue cogiendo fuerza, comenzaron las restricciones relativas a la utilización del euskera, llegándose a prohibir utilizar esta lengua en temas que fueran de actualidad o publicidad; a pesar de que no había una legislación concreta al respecto.[291]

*“Nosotros trabajábamos para el pueblo, para Euskal Herria y por nuestra cultura. En dos momentos críticos, fue la respuesta de la gente la que salvó la radio. A decir verdad, estábamos muy controlados. Únicamente podíamos dar información local, y no solo miraban lo que decíamos sino también la música que poníamos”*[292].

En 1965 el Estado español obligó a cerrar varias emisoras, y entre ellas caerá Loiola Irratia. Fue el 22 de julio, y desde ese mismo momento comenzaron los trámites para volver a emitir, objetivo que se logró el 18 de febrero de 1966. En 1971 el obispo de la Diócesis de Donostia encargó a Loiola Irratia la dirección de Radio Popular de San Sebastián, lo que dio inicio a una estrecha colaboración entre ambas emisoras. A lo largo de los años 1974 y 1975 fueron continuas las sanciones impuestas al director de la emisora por intentar eludir la censura y las prohibiciones previas que intentaba imponer el Ministerio de Información y Turismo. En agosto de 1975 fue destituido el director, y poco antes de la muerte del dictador una inspección técnica solicitará el cierre inmediato “por incumplimientos técnicos”. El 11 de junio de 1977 el Batallón Vasco Español (BVE) destruyó el centro emisor de la emisora en Antzuola mediante la explosión de una bomba[293].

291 *Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. Zb / “Herri Irratia. 1961-2016. 55.go urterrena”, Noticias de Gipuzkoa.

292 Extracto de la entrevista realizada a Karmelo Otaegi (*Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. zb).

293 *Azpeitian Zer?*, Azpeitiko aldizkaria, 2. Aldia, 63. Zb / “Herri Irratia. 1961-2016. 55.go urterrena”, *Noticias de Gipuzkoa.*




Txiki eta Otaegiren omenezko manifestazioa.

Manifestación en recuerdo de Txiki y Otaegi.

© Mertxe Urtuzaga

# 3.5. Oposizio politikoa, lan gatazkak eta zapalkuntza

*"Gerra zibila 1936ko uztailaren 17an hasi zen eta oraindik ez da bukatu".*[294]

1945etik aurrera, Estatu frankistak harro saldu zuen Espainia bakean zegoela. *Unidad* egunkari falangistak "*Y en España paz*" hitzak erabili zituen 1945eko urtarrilaren 1ko titularrean. Eta egia zen, bakea zen nagusi, baina hildakoen bakea, kolpisten aurkako oposizioa errotik suntsituta edo erbesteratuta baitzegoen. 60ko hamarkadan, ordea, gerra bizi izan gabeko gazteak iritsi ziren fabrika eta unibertsitateetara. Gazte haiek berriz piztu zuten diktadurarekiko oposizioa. Erbesteko alderdi politikoetatik urrun eta Europa nahiz Latinoamerikan gertatzen ari ziren eraldaketei begira, erregimen diktatorialari aurre egiteko modu berriak topatu zituzten.

Diktadurak zapalkuntza bortitzenarekin erantzun zion gerraosteko lozorro luzearen ondorengo berpizte hari, nagusiki bi metodo baliatuz: indarkeriaren erabilera ankerra indar polizial desberdinen aldetik (Polizia Gorputz Orokorra, Polizia Armatua eta Guardia Zibila, azken biak Ejertzitoaren menpekoak) eta salbuespenezko auzitegi militar eta zibilak.

294 Espainiako Gorteetako diputatu baten deklarazioa 1973ko maiatzaren 2an (Hileroko informazioa. Karlismoaren Barne-buletina).

# 3.5. Oposición política, conflictividad laboral y represión

*"La guerra civil empezó el 17 de julio de 1936 y aún no ha terminado".*[294]

A partir de 1945 el Estado franquista presume de paz. "Y en España paz", titulaba el diario falangista *Unidad* el 1 de enero de 1945. Efectivamente, reinaba la paz, pero la paz de los muertos, ya que la oposición a los golpistas había sido exterminada o se encontraba en el exilio. Sin embargo, a partir de los años 60 llegan a las fábricas y a las universidades jóvenes que no habían vivido la guerra. Jóvenes que reactivan la oposición a la dictadura. Jóvenes que en cierta medida son ajenos a los partidos políticos en el exilio, y que a raíz de la transformación que estaba sufriendo Europa y América Latina encontró nuevas formas de oponerse al régimen dictatorial.

Ante este despertar de la oposición tras una larga posguerra, la dictadura respondió con todo su aparato represivo a través de sus dos medios fundamentales para ejercerla: el uso indiscriminado de la fuerza por parte de los diferentes cuerpos policiales (Cuerpo General de Policía, Policía Armada, y Guardia Civil, estos dos últimos dependientes del Ejército), y mediante la actuación de tribunales militares y civiles de excepción.

294 Declaración de un diputado en las Cortes españolas el 2 de mayo de 1973 (Información Mensual. Boletín interno del Carlismo).

**AZPEITIKO UDALTZAINAREN PLANTILLA (1996KO URTARRILA)**[I]

**PLANTILLA DE LA GUARDIA MUNICIPAL DE AZPEITIA (ENERO 1966)**[I]

| Enero de 1966KO URTARRILA | Julio de 1974KO UZTAILA |
|---|---|
| Jesús Garate Azpiazu | Cipriano Bernardo Gómez |
| Ramón Velasco Minder | Antonio Sánchez Soria |
| Cipriano Bernardo Gómez | Juan Azpeitia Iraola |
| Antonio Sánchez Soria | Víctor Otaegui Alberdi |
| Manuel Barahona Borrego | José Luis Otaegui Alberdi |
| José Luis Iriarte Artola | Pedro Eguiguren Altuna |
| Ángel Larrañaga Larrañaga | Simón Marquetegui Aizpitarte |
| Juan Azpeitia Iraola | Juan Biurrarena Aldanondo |

I. AUA, udal aktak / AMA, Actas Municipales

Indar polizialei dagokienez, oso kontuan hartu behar da 1941eko Zaintza eta Segurtasun Legea, zeinak ezartzen baitzuen hauek zirela Zaintza eta Segurtasunerako Zerbitzuak eman behar zituzten kidegoak:

- Polizia Gorputz Orokorra, Polizia Armatua eta Trafikoko Polizia
- Guardia Zibila
- Alderdiko Milizia

Gainera, beste zerbitzu osagarri batzuk ere sortu zituen, besteak beste udaltzainak, basozainak, zinpeko zaintzaileak eta gauzainak.[295]

Era berean, bi agintariren papera funtsezkoa izan zen Gipuzkoako zapalkuntzan: gobernadore militarrarena eta gobernadore zibilarena. 1961ean, José Atauri Mantxola zen gobernadore militarra, eta Manuel Valencia Remon gobernadore zibila. Agintaritza zibila 1960 hasieran hasi zen ohartarazten probintziako “oposizioko elementuak” hiru multzotan bilduta zeudela –euskal nazionalistak, komunistak eta sozialistak– eta desoreka foko transbertsaltzat hartzen zituen langileen mundua eta euskal elizako hainbat sektore.[296]

1961eko uztailean, diktadorearen emaztea Loiolako basilikara joan baino egun batzuk lehenago, ETAko hainbat gazte militantek su eman zieten Donostiako eraikinetan zintzilik zeuden Espainiako bi banderari. Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren arabera, egileetako bat atxilotu ondoren hasi zen “lan polizial luze eta eskerga bat, zeinaren baitan deskubritu baitzuten bazela “Euzkadi ta Askatasuna (ETA)” izeneko talde baskista garrantzitsu bat, propaganda ugari zabaldu zuena eta indarkeriazko ekintzak garatu zituena (…) Taldea oso ongi egituratuta zegoen: bazuen buru bat eta hainbat mahai eta sekzio; talderik jendetsu eta irmoena Gipuzkoan zegoen baina

295 ÁGUILA, J.J.: *El TOP. La represión de la libertad (1963-1977).*

296 “Gobierno Civil de Gipuzcoa. Memoria correspondiente al año 1974”. GPAH; Gobernu Zibila; c. 3679/0/1.

Con respecto a la labor de los cuerpos policiales, resulta de vital importancia tener en cuenta la Ley de Vigilancia y Seguridad de 1941, cuyos preceptos establecían la integración de los Servicios de Vigilancia y Seguridad en las siguientes instituciones:

- Cuerpo General de Policía, Policía Armada y Tráfico
- Guardia Civil
- La Milicia del Partido

Además, se establecían como servicios auxiliares los guardias municipales, los guardas forestales, los guardas jurados, y los vigilantes nocturnos.[295]

Asimismo, un papel fundamental en el ejercicio de la represión en Gipuzkoa lo ejercieron dos autoridades: el gobernador militar y el gobernador civil. En 1961, el primer cargo lo ocupaba José Atauri Manchola, mientras que el gobernador civil era Manuel Valencia Remón. Esta autoridad civil informaba desde comienzos de 1960 que los “elementos de la oposición” en la provincia se dividían en nacionalistas vascos, comunistas y socialistas, y de manera transversal fijaba como focos de desestabilización el mundo obrero y ciertos sectores de la iglesia vasca.[296]

Pocos días antes de que la mujer del dictador visitara la basílica de Loiola en julio de 1961, varios jóvenes militantes de ETA prendieron fuego a dos banderas españolas en edificios de Donostia. Según la Dirección General de Seguridad, tras la detención de uno de los autores “comenzó una larga y paciente labor policial con el descubrimiento de una importante organización vasquista que bajo el nombre de “Euzkadi ta Askatasuna (E.T.A.) había difundido gran cantidad de propaganda y llevado a cabo la ejecución de actos de violencia (…) La organización, perfectamente estructurada con una cabeza rectora y varias mesas y secciones, tenía su grupo más numeroso y decidido en Guipúzcoa, pero existían, además ramificaciones en las otras dos provincias vascongadas, donde también fueron detenidos varios individuos, alcanzándose un número total de 35, entre los que se contaban sus principales dirigentes”[297]. Estas detenciones desarticularon casi por completo la actividad propagandística de ETA.

Precisamente en la memoria anual de Manuel Valencia en 1961 se afirmaba que el nacionalismo vasco estaba dividido, y que “son los jóvenes los que van imponiéndose en la táctica a seguir en lo sucesivo para lograr lo que ellos llaman la liberación de Euzkadi. Esta juventud estaba encuadrada en su mayoría en

295 DEL ÁGUILA, J.J.: *El TOP. La represión de la libertad (1963-1977).*

296 “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1974”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3679/0/1.

297 “Los servicios policiales en el orden político-social durante 1961”, Dirección General de Seguridad. Comisaría General de Investigación Social. Secretaría General y Técnica (Blog Justicia y Dictadura).



Oargi Elkartearen talde sustatzailea, 1958an.

© Aranzadi Z.E., Fondo Imanol Elías Funtsa

bazeuzkan adarrak beste bi probintzia baskongadoetan ere, non hainbat pertsona atxilotu baitzituzten, guztira 35, tartean zuzendari nagusiak zeudelarik"[297]. Atxiloketa haiek ia erabat desartikulatu zuten ETAren jardun propagandistikoa.

1961ean, Manuel Valenciaren urteroko memoriak zioen euskal nazionalismoa zatituta zegoela eta "gazteak gailentzen ari direla, beraiek Euzkadiren askapena deitzen dioten hori lortzeko hemendik aurrera jarraitu beharreko taktikan. Gaztedia hori gehiena bi taldetan banatuta dago: batetik Euzko Gaztedi, EAJren ildoari jarraitzen diona; eta bestetik ETA, aurrekoaren disidentea (…), Euzkadiren bereizketa eskatzen duena Europar Batasunean sartzeko edozein nazio independentek dauzkan eskubide berberekin". 1963tik aurrera, indar polizialen informazio taldeak ohartu ziren gazteak etengabe ari zirela pasatzen Euzko Gazteditik ETAra eta talde hura "langile eta ikasleen babesa" lortzen ari zela etorkizuneko helburuak miran hartuta. Txostenetan Tolosa, Andoain, Zarautz, Bergara eta Arrasate herriak aipatzen ziren batik bat.[298]

*Oargi elkarte horretan ikasi genuen ikurrina zer zen, abertzaleak zer izan ziren eta zer ziren, klandestinitatea zer zen, borroka abertzalea zer zen, EHko historia, Euskal Herriaren askatasun borroka, Euzko Gaztedik ateratzen zuen aldizkari klandestinoa irakurtzen genuen. Mundu berri bat ezagutu genuen. Herrietara joaten ginen dantzak egitera, gure aurrekoak joan ziren bezala. Frankismoan egin ziren lehenengo Aberri Egun ilegaletara ere joaten ginen.*

(Jexux Arrizabalagaren testigantza)

297 Los servicios policiales en el orden político-social durante 1961, Segurtasun Zuzendaritza NAgusia. Ikerketa Sozialeko Komisaldegi Nagusia. Idazkaritza Nagusi eta Teknikoa (Justicia y Dictadura bloga).

298 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al ano 1964". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3674/0/1.

las organizaciones Euzko Gaztedi, fiel a las directrices del PNV, y ETA, disidente de la anterior (…) preconiza abiertamente la separación de Euzkadi con miras a ingresar en la unidad europea con los mismos derechos que cualquier nación independiente". A partir de 1963 los grupos de información de los cuerpos policiales detectaron un trasvase constante de jóvenes desde Euzkadi Gaztedi a ETA, organización que estaba "logrando la adhesión de trabajadores y estudiantes con fines futuros", sobre todo, se señala en los informes, en los municipios de Tolosa, Andoain, Zarautz, Bergara y Arrasate.[298]

*En la asociación Oargi aprendí qué era una ikurriña, qué significaba ser «abertzale», qué era la clandestinidad y qué era la lucha abertzale (la lucha a favor de la patria vasca). Allí aprendí también la historia de Euskal Herria y su lucha por la libertad. También leíamos la revista que sacaba Gaztedi. Descubrimos un mundo nuevo. Solíamos ir al baile a los pueblos, igual que nuestros antecesores. También fuimos a las primeros Aberri Egun (Día de la Patria Vasca) que se celebraron ilegalmente durante el franquismo.*

(Testimonio de Jexux Arrizabalaga)

Por otra parte, en la memoria del Gobierno Civil correspondiente a 1964 se apuntaba a dos factores claves que convulsionaban el mundo obrero: la tendencia a exigir un "salario mínimo vital" y la pérdida del temor "o sentido disciplinario", lo que favorecía la aparición de conflictos colectivos en los centros de trabajo. Este estado anímico permitía reactivar e implicar a los partidos políticos que operaban en la clandestinidad, por lo que eran los trabajadores más o menos asociados los que

298 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al ano 1964". AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1.



Txiki eta Otaegi heriotza zigorrera kondenatu zituen gerra kontseiluen aurka Parisen egindako protestak.

Protesta en París en contra de los consejos de guerra que condenaron a muerte a Otaegi y Txiki.

© *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, liburutik hartutako irudia / Imagen extraída de *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad*, tomo 4)

Bestealde, gobernadore zibilaren 1964ko memorian langileen mundua astindu zuten bi faktore azpimarratzen ziren: "gutxieneko soldata" eskatzeko mugimendua eta "diziplinaren zentzua" edo beldurra galtzea. Pixkanaka gatazka kolektiboak sortu ziren lantokietan. Egoera animiko haren erdian posible zen klandestinitatetik jarduten zuten alderdi politikoak inplikatzea eta berraktibatzea; esan liteke, beraz, langileak izan zirela alderdi politikoak piztu zituztenak, eta ez alderantziz. Langile klasearen maila soziala eta ekonomikoa handitzeko eskaera bihurtu zen protesta guztien erdigune. Gipuzkoan lan mundua gehien astindu zuen gaietako bat soldaten igoera falta izan zen, zeinak berekin ekarri baitzuen langile klasearen erosmen galera; "propagandak ongarritutako lurra aurkitu du probintzia honetan, bai lurraldearen beraren ezaugarri ideologikoengatik eta baita ere askoren jarrera pasiboagatik"[299]. Era berean, euskal separatismoak presentzia sakona zuen langileen artean, eta euskal kleroak babes ezin garrantzitsuagoa eman zion espektro nazionalista osoari, "jendaurrean argi eta garbi agertuz erregimenarekiko oposizioa". [300]

Azpeitian ez zen Tolosan edo Eibarren adina gatazka izan, baina 1964ko irailean Guardia Zibilak *Landeya* aldizkariaren –ELA sindikatu nazionalistaren organo informatiboa– hainbat ale konfiskatu zituen, bai eta ELA, UGT eta CNTk osatutako Euskadiko Aliantza Sindikalaren aldeko propaganda orriak. Horregatik, Ordena Publikoko Tribunalak bi azpeitiar atxilotu eta epaitu zituen: Antonio Eguibar Aristi eta Francisco María Eguibar Echeverria.

Gobernu Zibilaren iritziz, artean EAJ zen babes handiena zuen talde nazionalista: "jarrera burges eta kritikoari eutsi dio, salatuz Espainiako eta Frantziako estatuek Euzkadi

299 Ibid.

300 "Gobierno Civil de Gipuzcoa. Memoria correspondiente al año 1960". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3673/0/1. // "Gobierno Civil de Gipuzcoa. Memoria correspondiente al año 1961". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3673/0/1.

incitaron a los grupos políticos y no al revés. La exigencia de un aumento del nivel social y económico de la clase trabajadora se convirtió en centro de las demandas. En concreto, el estancamiento de los salarios, y por tanto, la pérdida de poder adquisitivo de la clase obrera, era el mayor elemento perturbador en el mundo laboral, en un territorio como el guipuzcoano donde la "propaganda encuentra un terreno abonado, no solamente teniendo en cuenta las características ideológicas de la Provincia, sino ante la actitud pasiva de muchos"[299]. Asimismo, se destacaba que el separatismo vasco contaba con una importante presencia entre los obreros, y que un apoyo fundamental para todo el espectro nacionalista lo constituía el clero vasco, quien "no se recata en manifestar públicamente su oposición al régimen.[300]

En Azpeitia, donde el porcentaje de conflictividad fue menor que en otras localidades industriales como Tolosa o Eibar, en septiembre de aquel año de 1964 la Guardia Civil se incautó de un número indeterminado de ejemplares de *Landeya*, órgano informativo del sindicato nacionalista STV, así como de hojas propagandísticas en favor de la Alianza Sindical de Euskadi de la que formaban parte STV, UGT y CNT. Por este hecho fueron detenidos y juzgados por el TOP dos azpeitiarras: Antonio Eguibar Aristi y Francisco María Eguibar Echeverria.

En cualquier caso, para el Gobierno Civil el PNV seguía siendo la organización nacionalista que contaba con mayor número de apoyos, el cual "ha continuado en igual postura de aburguesamiento y crítica contra la opresión del Pueblo de Euzkadi por parte de los Estados español y francés, pero sin intervenir en acciones de agitación de masas"[301]. Una actitud, que según señalaba el Servicio de Información de la Guardia Civil

299 Ibíd.

300 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1960". AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1. // "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1961". AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1.

301 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1964". AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1

## Valentín Bengoa Etxeberria



Jesuita eta sindikalista. Valentin Bengoa Aretxabaletan jaio zen 1923an, eta Zumarragan hil zen 2017ko otsailean, bere bizitzako azken 50 urteak Loiolan egin ondoren. Maiz bidaiatu zuen Nikaraguara eta han sentitu zituen "batetik, pobreziak eragindako zirrara, eta bestetik, gizartearen alde zerbait egin beharraren sentimendua" (*Berria*, 2013ko martxoaren 3a). Azpeitian bizi zelarik, protagonista izan zen frankismoaren aurkako mugimenduaren berpizkundean, funtsezko figura bat ELA sindikatuaren berregituraketan eta sindikatura bide klandestinoetatik hurbiltzen ziren pertsonei laguntza eta babesa (Frankoren diktaduratik) emateko ekintzetan. Klandestinitatean egonik ere nekaezin aritu zen lanean Azpeitiko eta eskualdeko gazteen kontzientziak pizteko, bere kezkei oihartzuna emateko eta feminismoa, euskal kultura zein ikastolak sustatzeko.

Jesuita y sindicalista. Valentín Bengoa nació en Aretxabaleta en 1923 y falleció en Zumarraga en febrero de 2017, tras residir los últimos 50 años de su vida en Loiola. Viajó varias veces a Nicaragua, "y allí por un lado, impresionado por la pobreza y, por otro, por la necesidad de trabajar en favor de la sociedad" (*Berria*, 3 de marzo de 2013). Desde Azpeitia fue sin lugar a dudas uno de los protagonistas del resurgir de la oposición al franquismo, siendo clave en la restructuración del sindicato ELA y en el apoyo y protección (ante la represión de la dictadura) de las personas que se acercaban de manera clandestina a este sindicato. En la clandestinidad también formó incansablemente a los jóvenes de la comarca en la toma de conciencia, haciéndose eco de sus preocupaciones, promoviendo el feminismo, la cultura vasca o las ikastolas.

zanpatzen dutela, baina ez du ezer egin masak mugiarazteko"[301]. Guardia Zibilaren 551. Komandantziako Informazio Zerbitzuak adierazitakoaren arabera, EAJk jarrera berarekin jarraitu zuen "Burgoseko Gerra Kontseilua hurbiltzen hasi zen arte; une hartan definitu egin behar izan zuen eta akusatuak babestu, bere jarraitzaileei eskatuz lanuzte lasai eta baketsuak egin zitzatela".[302]

Hala eta guztiz ere, gazte askok jarraitu zuten ETAren proiektuan sartzen eta 1963rako taldeak lortua zuen atxiloketek eragindako krisia gainditzea. Itxuraz, erregimenaren

301 "Gobierno Civil de Gipuzcoa. Memoria correspondiente al año 1964". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3674/0/1

302 "Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1970"; GPAH; Gobernu Zibila; c. 3676/0/1

(SIGC) de la 551ª Comandancia, fue mantenida "hasta que la proximidad del Consejo de Guerra de Burgos se ve obligado a definirse y apoyar a los mismos, peticionando a sus seguidores la realización de plantos serenos y pacíficos."[302]

No obstante, para 1963 la adhesión de nuevos jóvenes al proyecto de ETA le habría permitido sobreponerse a las detenciones. Al parecer, las fuerzas represivas del régimen eran conocedoras de que ETA estaba renovando su estructura orgánica formando grupos de activistas con un número variable de entre dos y cinco personas, cuyo cometido era el reparto de pasquines y propaganda subversiva, la colocación de ikurriñas (bandera prohibida hasta 1977, y cuya muestra en público o exaltación

302 "Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1970" AHPG; Gobierno Civil; c. 3676/0/1




Polizia armatuko kideak Iruñean.

Miembros de la Policía Armada en Iruñea.

© Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad-etik hartutako irudia / Imagen extraída de Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad, tomo 4

indar zapaltzaileek bazekiten ETA bere egitura organikoa berritzen ari zela, bi eta bost pertsona bitarteko aktibista talde berriak prestatzen, zeintzuen zeregina baitzen paskinak eta propaganda iraultzailea banatzea, ikurrinak jartzea (1977ra arte debekatuta egon zen eta jendaurrean ateratzeak edo goraipatzeak hiru urteko espetxe zigorra zeukan[303]), iritzi bereko jendearen artean dirua biltzea, ekintza zuzenak egitea eraikin publiko, zubi edo telegrafo zutabeen kontra eta bankuetan lapurreta egitea. Hain zuzen ere, 1964ko azaroan dozenaka gazte atxilotu zituzten espazio publikoetan ikurrinak jartzeagatik, besteak beste Andoni Albizuri Agirregabiria.

Zentzu horretan, Azpeitia oso homogeneoa zen soziologikoki, kanpotik etorkin gutxi iritsi baitziren herriko industrian lan egitera. Ondorioz, frankismoaren aurkako jarduna euskal nazionalismoaren eta independentismoaren inguruan mugitu zen nagusiki. Ez zen halakorik gertatu Gipuzkoako beste herri garrantzitsu eta industrializatu

303 EGAÑA, I.: *Breve historia de ETA*.



Ikurrina xingola beltzarekin Lazkaoko Beneditarren konbentuan, 1968ko uztailaren 21an. Txabi Etxabarrietaren omenezko meza izan zen egun horretan.

Ikurriña con crespón negro en el convento de los Benedictinos de Lazkao el 21 de julio de 1968, coincidiendo con la celebración de una misa en recuerdo de Txabi Etxebarrieta.

© Fundación de los Benedictinos de Lazkao

estuvo castigada con tres años de cárcel[303]), recaudación de dinero entre personas afines, y acciones directas contra edificios públicos, puentes, postes telegráficos y atracos a centros bancarios. Precisamente por haber colocado ikurriñas en espacios públicos fueron detenidos decenas de jóvenes en noviembre de 1964, entre ellos Andoni Albizuri Agirregabiria.

En este sentido, Azpeitia era un municipio sociológicamente homogéneo, al no ser muy significativo el censo de personas llegadas del exterior para trabajar en su industria. La actividad antifranquista, por tanto, estuvo principalmente ligada al nacionalismo e independentismo vasco. A diferencia de otras localidades guipuzcoanas de entidad e industrializadas, tales como Tolosa, Irun, Pasaia, Donostia, Eibar, Arrasate, Zumarraga o Beasain, las fuerzas represoras del régimen no hallaron en Azpeitia "cédulas comunistas" ni socialistas, a pesar de que los socialistas "sigue acentuando el vasquismo iniciado el año anterior". No obstante, para 1965 el Gobierno Civil de Gipuzkoa consideraba que en esta provincia "la acción subversiva gira en torno al separatismo vasco, que ha incrementado ostensiblemente la propaganda clandestina durante el pasado año, enviando por correo tanto del interior como del exterior gran profusión de escritos y consignas. Y otros de los medios utilizados por los separatistas han sido fomentar, con bastante éxito, las manifestaciones populares, fiestas vascas, concentraciones, reuniones de montañeros, teatros y conferencias literarias, a las que dándoles un carácter legal aparente, sin embargo se encubre un separatismo"[304]. A modo de ejemplo, de las 62 personas detenidas durante los tres primeros meses de 1969 en virtud del estado de excepción decretado en el conjunto del Estado espa-

303 EGAÑA, I.: *Breve historia de ETA*.

304 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1965". AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1

batzuetan, esaterako Tolosa, Irun, Pasaia, Donostia, Eibar, Arrasate, Zumarraga edo Beasainen. Aldiz, erregimenaren indar zapaltzaileek ez zuten "zedula komunista" edo sozialistarik aurkitu Azpeitian, nahiz eta "aurreko urtean piztutako baskismoak gorantz jarraitzen duen". Hala eta guztiz ere, 1965ean Gipuzkoako Gobernu Zibilak uste zuen probintziako jardun iraultzailea euskal separatismoaren inguruan mugitzen zela, aurreko urtean zehar propaganda klandestinoa asko ugaritu zelako, idatzi eta kontsigna ugari bidaltzen zirelarik postaz, bai probintzia barruan eta baita kanpotik ere. "Separatistek bide gehiago ere erabili dituzte; adibidez, dezenteko arrakastarekin sustatu dituzte adierazpen herrikoiak, euskal jaiak, kontzentrazioak, mendizale bilerak, antzerkiak eta konferentzia literarioak, zeintzuek itxura legala izan arren, separatismoa ezkutatzen baitute azpian"[304]. Esate baterako, 1969ko lehen hiru hilabeteetan Espainiako Estatuan salbuespen egoera aginduta atxilotu ziren 62 pertsonatik 45 euskal separatistak eta ETA edo EGIko kideak izan ziren.[305]

1968ko ekainaren 7an José Antonio Pardines guardia zibilaren eta, handik ordu batzuetara gertatutako Txabi Etxebarrieta ETAkidearen heriotzen ondoren, eta batez ere, abuztuaren 2an Meliton Manzanas Gonzalez Gipuzkoako Brigada Politiko-sozialeko buruaren aurkako atentatu hilgarriarekin, euskal independentismoak jauzi kualitatibo bat eman zuen indarkeriazko metodoen erabileran; diktadurak berehala erantzun zion zapalkuntza are gordinago eginaz: salbuespen egoera aplikatzen hasi zen eta Ordena Publikoko Indarren zapalkuntza ere areagotu egin zen –torturak, gerra-kontseiluak, manifestazioetan hildakoak, kontrol polizialak edo talde iraultzaileetako militanteen (edo ustezko militanteen) jazarpenak.[306]

1970ean ETAko 16 militanteren aurka eginiko gerra-kontseilua inflexio puntu argia izan zen. 31/69 sumarioak edo *Burgoseko Kontseiluak* diktaduraren aurkako borroka batu zuen. Prozesu hura hasi baino lehen, irailean, Azpeitiko Guardia Zibilak *Batasuna* 6 izeneko propaganda klandestinoa konfiskatu zuen, bertan jakinarazten zelarik 6 heriotza zigor eta 752 espetxe urte eskatu zirela akusatuentzat. Horregatik, dei egiten zitzaion herriari "zapalkuntzaren aurkako batzordeen" bitartez mobilizatzeko eta errepresaliatuen bizitza salbatzen saiatzeko, Bidelapurreria eta Terrorismo Legea indargabetu zedin eskatzeko eta preso politiko guztien amnistia osoa lortzeko. Handik hilabetera, azaroaren 21ean, 200 pertsona inguruk parrokia-elizan giltzapetu

304 "Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1965". GPAH; Gobernu Zibila; c. 3674/0/1

305 "Boletín extraordinario. Estado de excepción. Servicios realizados", Segurtasun Zuzendaritza Nagusia. Ikerketa Sozialeko Komisaldegi Nagusia. Idazkaritza Nagusia eta Teknikoa (Justicia y Dictadura bloga).

306 BUCES CABELLO, J. et al.: *1968. Gipuzkoa en estado de excepción.*



Enrique Oltra
Molto Gipuzkoako
Gobernadore Zibila
Eibarren, 1968an.

El gobernador civil de
Gipuzkoa Enrique Oltra
Moltó en Eibar. 1968.

© Paco Marí. Kutxateka

ñol, 45 fueron definidos como separatistas vascos, miembros de ETA o miembros de EGI.[305]

Tras los sucesos que acabaron con la vida del guardia civil José Antonio Pardines y horas más tarde con la del militante de ETA Txabi Etxebarrieta el 7 de junio de 1968, y sobre todo a partir del atentado mortal contra el jefe de la Brigada Político-Social de Gipuzkoa Melitón Manzanas González el 2 de agosto, se dio un salto cualitativo desde el independentismo vasco en el empleo de métodos violentos; a lo que la dictadura respondió con un recrudeciendo notable de la represión ejercida mediante la aplicación del Estado de excepción y la acción represora de las Fuerzas de Orden Público (FOP), aumentando considerablemente los casos de torturas, los consejos de guerra, y los muertos en manifestaciones, controles policiales o persecuciones de militantes (o supuestos militantes) de organizaciones subversivas.[306]

328 "Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1971" AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1

Amminstia eskatzen zuen pankarta bat Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultatean.

Colocación de una pancarta pidiendo la amnistía en la facultad de Ciencias Económicas y Empresariales.

© Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes-etik hartutako irudia / Imagen extraída de Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad, tomo 4




# 3.6. Errepresaliatuak

Espainiako diktadurak bi bitarteko nagusi erabili zituen Hego Euskal Herriko disidentzia politikoaren aurka aplikatutako zapalkuntzan: indar polizial desberdinak eta auzitegiak, bai jurisdizkio militarraren menpekoak eta baita jurisdikzio zibilekoak ere. Diktadurak bazituen Gipuzkoan erregimenaren hiru indar zapaltzaile garrantzitsuenen destakamentuak: Polizia Gorputz Orokorraren eskualde-mailako brigadarenak, Polizia Armatuarenak eta Guardia Zibilarenak. Polizia Armatuaren eskualde-mailako brigada honakoek osatzen zuten 1960an: komisario-buru bat, 5 komisario, 4 inspektore-buru, lehen mailako 11 inspektore, 2. mailako 16 inspektore, 3. mailako 16 inspektore eta bulegoko 5 laguntzaile. Donostia (egoitza nagusia), Irun eta Eibarreko komisaldegietan zegoen finkatuta eta Ikuskaritza Zentro bat zeukan Hondarribian. Zapalkuntza lanak lau brigadatan banatzen zituzten: brigada kriminala, brigada soziala, ordena publikoko brigada eta informazio brigada. Erregimenaren polizia politikoa ziren, zuzenean Gipuzkoako Gobernu Zibilaren aginduetara.

Bestalde, Polizia Armatuaren Gipuzkoako ordezkariak 63. Banderako kideak ziren, egoitza Bilbon zeukan 6. zirkunskripzioaren menpekoak: komandante-buru bat, teniente laguntzaile bat, goi-karguak, 3 sekzioko konpainia bat eta Irunen kokatutako hiru sekzioko beste konpainia bat. Material motorizatuari dagokionez, 14 *jeep* eta 3 motor zeuzkaten, eta uda garaian irratiz hornitutako 8-9 *jeep* gehiago ekartzen zituzten. Azkenik, Guardia Zibilak 143. komandantzia zeukan Gipuzkoan: teniente-koronel bat, lehen mailako buru bat, 2 komandante, 9 kapitain, 19 teniente, 29 brigada,

dos medios: la actuación de los diferentes cuerpos policiales y los tribunales, tanto los dependientes de la jurisdicción militar como los de la jurisdicción civil. En Gipuzkoa la dictadura contaba con destacamentos de las tres principales fuerzas represivas del régimen: Cuerpo General de Policía a través de su brigada regional, Policía Armada, y Guardia Civil. Con respecto al primero, la plantilla estaba compuesta en 1960 por 1 comisario-jefe, 5 comisarios, 4 inspectores-jefe, 11 inspectores de 1ª, 16 inspectores de 2ª, 16 inspectores de 3ª y 5 auxiliares de oficina. Esta fuerza se distribuía en las Comisarías de Donostia (sede principal) Irun y Eibar, y un Centro de Inspección en Hondarribia. Sus labores represivas se distribuían fundamentalmente en las brigadas de Criminal, Social, y Orden Público e Información. Era la policía política del régimen, la cual dependía directamente del Gobierno Civil de Gipuzkoa.

La Policía Armada, por su parte, estaba representada en el territorio guipuzcoano por la 63ª Bandera, dependiente de la 6ª Circunscripción con sede en Bilbao, compuesta por 1 comandante-jefe, 1 teniente ayudante, Plana Mayor, una compañía de 3 secciones, y otra igualmente de tres secciones, pero instalada en Irún. Con respecto al material motorizado, contaban con 14 jeeps y 3 motocicletas, y en la época estival entre 8 y 9 jeeps más con radio. Por último, la Guardia Civil en Gipuzkoa estaba representada por la 143ª Comandancia, cuyos efectivos eran 1 teniente-coronel, 1 primer-jefe, 2 comandantes, 9 capitanes, 19 tenientes, 29 brigadas, 41 sargentos, 114 cabos y 800 guardias civiles. Son estos, a través del Servicio de Información (además de los miembros de la Brigada Político Social del Cuerpo General de Policía), quienes se infiltraban en los centros de trabajo y en las organizaciones políticas; y los que posteriormente llevaron



Tradiziozaleen kontzentrazioa Perez Arregi Plazan, 36ko Gerran hildako soldadu frankista azpeitiarren omenez.

Concentración tradicionalista en la plaza Pérez Arregui en homenaje a los soldados franquistas azpeitiarras fallecidos en la Guerra del 36. 1960.

© Kutxateka

41 sargentu, 114 kabo eta 800 guardia zibil. Informazio Zerbitzuaren bitartez (eta Polizia Gorputz Orokorreko Birgada Politiko Sozialeko kideen bidez), guardia zibil haiek lantegietan eta talde politikoetan infiltratzen ziren eta, gerora, beraiek egiten zituzten atxiloketa gehienak, nahiz manifestari, grebalari eta atxilotuen aurkako indarkeriazko ekintzak.[329]

1960 eta 1975 artean, erregimen frankistako funtzionario polizialek gutxienez 46 azpeitiarren giza eskubideren bat urratu zuten. Ordena Publikoko Epaitegiak 20 pertsona prozesatu zituen eta 22k salatu zuten tratu txarrak edo torturak jasan zituztela poliziaren zaintzapean zeuden bitartean; 1968ko salbuespen egoeran atxilotutako 5 azpeitiarretatik 3 desterratu egin zituzten Andaluziara. 1975ean Angel Otaegi Echeverria fusilatu ondoren, Antton Aldalur Irigoien eta Koldo Amenabar Arzalluzek 40 egun egin zituzten Martuteneko espetxean, protesta egiteko manifestazioetan parte hartzeagatik. Nolanahi ere, zaila da giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsona batzuk identifikatzea, hain zuzen urraketa horien ezaugarri bereziengatik. Horregatik, garai hartan errepresaliatutako pertsona kopurua dokumentuetan ageri dena baino handiagoa izango da ziurrenik.

Indar polizialetako funtzionario publikoek maiz erabili zuten tortura atxiloketa zentroetan. Atxiloketak “atzemate”[330] bihurtzen zituzten, eta manifestazioetan nahiz errepideko kontroletan eginiko ekintzek hildakoak eta zaurituak eragin zituzten, agindua baitzuten “indarrez jokatzeko, armen erabilera inola ere mugatu gabe”[331]. José Antonio Saez

329 GAH; Gobernu Zibila; c. 3673 a c.3682

330 BABIANO MORA, J. et al.: *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.*

331 1973an Carlos Iniesta Cano Guardia Zibilaren zuzendariak emandako agindua (CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.*)

a cabo la mayor parte de detenciones y actuaciones violentas contra manifestantes, huelguistas y detenidos.[329]

Entre 1960 y 1975 al menos 46 azpeitiarras padecieron algún tipo de violación de los derechos humanos por parte de funcionarios policiales del régimen franquista. 20 personas fueron procesadas por el TOP, 22 han denunciado haber sufrido malos tratos o torturas bajo custodia policial, y de los 5 azpeitiarras detenidos durante el estado de excepción de 1968, 3 fueron desterrados a pueblos de Andalucía. Tras el fusilamiento de Ángel Otaegi Echeverria en 1975, Antton Aldalur Irigoien y Koldo Amenabar Arzalluz permanecieron 40 días encarcelados en Martutene por participar en las manifestaciones de protesta. En cualquier caso, existen ciertas tipologías de vulneraciones de derechos humanos que entrañan una dificultad añadida con respecto a la identificación de las personas que las han sufrido, por lo que es probable que la cifra de personas represaliadas en este período sea mayor a los casos documentados.

La tortura en centros de detención fue una práctica habitual utilizada por los funcionarios públicos de estos cuerpos policiales. Las detenciones se convertían en “capturas”[330], y sus intervenciones en manifestaciones y controles en carreteras causaron muertos y heridos, debido fundamentalmente a que la consigna era actuar “enérgicamente sin restringir lo más mínimo el empleo de sus armas”[331]. Como recordara eL general de la Guardia Civil José Antonio Sáenz de Santa María, “tanto la policía como la Guardia Civil apretaban el gatillo con bastante facilidad. Las manifestaciones solían ser disueltas a tiro limpio y era

329 AHPG; Gobierno Civil; c. 3673 a c.3682

330 BABIANO MORA, J. et al.: *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.*

331 Instrucción dictada por el director de la Guardia Civil Carlos Iniesta Cano en 1973 (en CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.*

**AZPEITIAR ERREPRESALIATUAK**

**REPRESALIADOS AZPEITIARRAS**

| | |
|---|---|
| Fusilatuak / Fusilados | 1 |
| Torturatuak / Torturados | 22 |
| Herbesteratuak / Desterrados | 3 |
| OPEk prozesatuak / Procesados por el TOP | 20 |

de Santa María Guardia Zibilaren jeneralak berak gogoratzen zuen "Poliziak zein Guardia Zibilak nahiko erraz egiten zutela tiro. Manifestariak tiroka sakabanatzen ziren eta oso ohikoa zen kaleak odolez blai uztea (…) Polizia Armatuaren eginbeharra ez zen manifestazioetan ordena mantentzea, zapaltzea baizik"[332]. 1968 eta 1975 artean talde armatuetako 25 militante hil ziren gutxienez "zapalkuntza polizial edo judizialeko ekintzetan"[333], eta beste 45 pertsona hil ziren ekintza polizialen ondorioz 1969 eta 1977 artean.[334] Guztira, 1969 eta 1975 artean 113 pertsona izan ziren ekintza polizialen ondorioz hilak.[335] 1968ko urtarrilaren 29an, Txabi Etxebarrieta tirokaturik hil baino hilabete batzuk lehenago, José María Quesada Lasarte donostiarra hil zen Brigada Politiko Sozialak Meliton Manzanasen aginduetara 1962an eragindako torturek utzitako ondorioengatik. Espetxetik irten ostean hiru ebakuntza egin zizkioten (bat belarrian eta beste biak garunean), baina ez zuten lortu bere osasuna hobetzerik edo heriotza saihesterik.[336]

Azpeitian bazen Guardia Zibilaren kuartel bat, beraz, diktaduraren indar armatu hura izan zen azpeitiarren kontrako atxiloketa eta tratu txar gehienen eragile. Espainiako Estatuaren indar polizialen eskuetan tratu txarrak edo torturak jasan izana salatu duten 103 azpeitiarretatik (1960 eta 2017 artean), 22 kasu 1960. urtearen eta diktadorearen heriotzaren artekoak dira. 22 errepresaliatu haiek 26 kasu salatu zituzten, gutxienez 3k bi kasu baino gehiago salatu baitituzte.[337] 1975ean gertatu ziren salaketa gehien. 13 kasutan Guardia Zibilaren agenteak ziren tratu txarren errudun, eta beste 12tan Polizia Gorputz Orokorrekoak, nagusiki Brigada Politiko Sozialeko poliziak (badago kasu bat egilea ezagu-

332 CARCEDO, D.: *Sáenz de Santa María, el jeneral que cambió de bando.*

333 CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.*

334 BABIANO MORA, J. et al.: *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.*

335 Ibid.

336 EGAÑA, I.: "Quesada, el pionero de ETA machacado por la tortura". (Gara, 29 de enero de 2018).

337 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1960-2017. Vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Azpeitia y contra azpeitiarras.*

muy frecuente que acabasen con las calles ensangrentadas (…) La policía armada no estaba preparada para mantener el orden en las manifestaciones sino para reprimirlas"[332]. Entre 1968 y 1975 un mínimo de 25 militantes de organizaciones armadas murieron en "acciones de represión policial o judicial"[333], y 45 personas fallecieron como resultado de actuaciones policiales en manifestaciones entre 1969 y 1977.[334] En total, entre estas dos últimas fechas extremas señaladas (entre 1969 y 1975) 113 personas fallecieron en actuaciones policiales.[335] El 29 enero de 1968, meses antes de que Txabi Etxebarrieta muriera tiroteado, el donostiarra José María Quesada Lasarte fallecía a consecuencia de las secuelas que le dejaron las torturas a las que fue sometido en 1962 por parte de la Brigada Político Social bajo las órdenes de Melitón Manzanas. Las tres operaciones practicadas (una en el oído y las otras dos en el cerebro) en los años posteriores a su salida de prisión, no evitaron el empeoramiento de su salud y finalmente su muerte.[336]

La existencia de un cuartel de la Guardia Civil en Azpetia fue el motivo por el que esta fuerza armada de la dictadura fuera la responsable de la mayor parte de las detenciones y los malos tratos contra azpeitiarras. De las 103 personas que han denunciado haber sufrido malos tratos o torturas entre 1960 y 2017 por fuerzas policiales del Estado español, 22 se refieren a hechos sucedidos entre 1960 y la muerte del dictador. Estas 22 personas represaliadas se corresponden con 26 casos, puesto que al menos 3 han denunciado más de dos casos.[337] El año en el que mayor número de denuncias se produce es 1975. En 13 ocasiones las denuncias hacen responsable a agentes de la Guardia Civil, mientras que en 12 casos al Cuerpo General de Policia, principalmente a policías de la Brigada político-social (hay un caso del que se desconoce la autoría). 2 son mujeres, las hermanas Odriozola Uzkudun detenidas tras una manifestación en Donostia en 1967. El primero de los casos documentados es el de Andoni Albizuri Aguirregabiria. Detenido el 9 de noviembre de 1964, permaneció incomunicado durante cinco días, recibiendo torturas tanto físicas como psicológicas. Estas torturas a las que fue sometido solo fueron relatadas en el ámbito familiar.

El segundo pilar de la represión fue el sistema judicial. La judicatura se valió tanto de la jurisdicción ordinaria como de la militar, ambas como instrumento de represión de los derechos

332 CARCEDO, D.: *Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando.*

333 CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.*

334 BABIANO MORA, J. et al.: *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.*

335 Ibíd.

336 EGAÑA, I.: "Quesada, el pionero de ETA machacado por la tortura". (Gara, 29 de enero de 2018).

337 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1960-2017. Vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Azpeitia y contra azpeitiarras.* // "Guardia Zibilen itzalpean", Uztarria albistea.




1977ko Gudari Eguneko Kartela; Juan Paredes Txikiren fusilamentua islatzen da.

Cartel relativo al Gudari Eguna de 1977, en el que se recrea el fusilamiento de Juan Paredes Txiki.

© Fondo material gráfico, Fundación Sancho el Sabio

tzen ez dena). Salatzaileetako 2 emakumeak dira, Odriozola Uzkudun ahizpak, zeintzuk Donostian atxilotu baitzituzten 1967an, manifestazio baten ondoren. Dokumentatutako lehen kasua Andoni Albizuri Aguirregabiriarena da, zeina 1964ko azaroaren 9an atxilotu baitzuten eta bost egunez eduki zuten inkomunikatuta, tortura fisiko zein psikologikoak eragiten zizkioten bitartean. Gerora, senitartekoei bakarrik kontatu zien zer nolako torturak jasan zituen.

Zapalkuntzaren bigarren zutabea sistema judiziala izan zen. Epaileek jurisdikzio arrunta nahiz militarra erabili zituzten, biak hala biak oinarrizko eskubideak eta askatasunak zanpatzeko tresna gisa, erregimen diktatorialaren aurkako edozein adierazpen ideologikoki garbitzeko. Auzitegi zibilen kasuan, frankismoaren azken urteetan inflexio puntu izan ziren Ordena Publikoko 45/1959 Legea eta hura aplikatzeko sortutako Ordena Publikoko Epaitegia, indarrean egon zena 1963tik 1977ra arte.

1959ko legeak ordena publikoaren aurkako bederatzi jokabide jasotzen zituen:

*"a) Espainiarren Foruan edo Nazioaren oinarrizko gainerako legeetan emandako eskubideak urratzen dituztenak edo urratzen ahalegintzen direnak, edota Espainiaren batasun espiritual, nazional, politiko eta sozialaren aurkakoak.*

*b) Segurtasun publikoa, zerbitzu publikoen funtzionamendu arrunta eta hornikuntzaren nahiz prezioen erregulartasuna asaldatzen dituztenak edo asaldatzen ahalegintzen direnak, testuinguruan gehiegikeriak eginaz.*

*c) Lanuzte kolektiboak edo enpresen itxiera ilegalak, eta batzuk zein besteak gertaraztea edo gertatzeko bide ematea.*

*d) Bide publikoan istiluak sortzen dituztenak, oro har, koakzioak, mehatxuak nahiz indarra darabilten jokabideak edo arma nahiz lehergaiekin egin nahi diren ekintzak.*

*e) Manifestazio edo bilera publiko ilegalak, desorden edo indarkeriazko ekintzak eragiten dituztenak, eta horrelako testuinguruetan eginiko ikuskizun publikoak.*

*f) Iraultza zabaltzen, gomendatzen edo eragiten duten guztiak, eta indarkeria edo iraultzara iristeko beste edozein bitarteko goraipatzen dutenak.*

*g) Osasun publikoaren aurkako atentatuak eta epidemia nahiz kutsatze kolektiboak saihesteko emandako osasun arauak hausten dituztenak.*

*h) Ordena publikoko arauak ez betetzea, eta Agintariek edo bere Agenteek ordena hori mantentzeko edo berrezartzeko hartutako erabakiak ez obeditzea sustatzen dutenak.*

*i) Aurreko paragrafoetan aurreikusi gabeko beste moduren batean Lege honek ezarritakoa hausten dutenak edo bake publikoa eta bizikidetza soziala alteratzen dutenak."*[338]

338 Uztailaren 30eko 45/1959 Legea, Ordena Publikokoa

y libertades fundamentales, de depurador ideológico de cualquier manifestación contraria al régimen dictatorial. En el primer caso, un punto de inflexión en los últimos años del franquismo fue la Ley 45/1959 de Orden Público y su posterior desarrollo a través del Tribunal de Orden Público, creado en 1963 y vigente hasta 1977.

La ley de 1959 recogía nueve supuestos actos contrarios al orden público:

*"a) Los que perturben o intenten perturbar el ejercicio de los derechos reconocidos en el Fuero de los Españoles y demás Leyes fundamentales de la Nación, o que atenten a la unidad espiritual, nacional, política y social de España.*

*b) Los que alteren o intenten alterar la seguridad pública el normal funcionamiento de los servicios públicos y la regularidad de los abastecimientos o de los precios prevaliéndose abusivamente de las circunstancias.*

*c) Los paros colectivos y los cierres o suspensiones ilegales de Empresas, así como provocar o dar ocasión a que se produzcan unos y otros.*

*d) Los que originen tumultos en la vía pública y cualesquiera otros en que se emplee coacción, amenaza o fuerza o se cometan o intenten cometer con armas o explosivos.*

*e) Las manifestaciones y las reuniones públicas ilegales o que produzcan desórdenes o violencias, y la celebración de espectáculos públicos en iguales circunstancias.*

*f) Todos aquellos por los cuales se propague, recomiende o provoque la subversión o se haga la apología de la violencia o de cualquier otro medio para llegar a ella.*

*g) Los atentados contra la salubridad pública y la transgresión de las disposiciones sanitarias dictadas para evitar las epidemias y contagios colectivos.*

*h) Excitar al incumplimiento de las normas relativas al orden público y la desobediencia a las decisiones que la Autoridad o sus Agentes tomaren para conservarlo o restablecerlo.*

*i) Los que de cualquier otro modo no previsto en los párrafos anteriores faltaren a lo dispuesto en la presente Ley o alterasen la paz pública o la convivencia social."*[338]

Asimismo, la ley disponía en su artículo 20 el poder de autoridad gubernativa para ejercer la censura en medios de comunicación, publicaciones o espectáculos públicos. Por su parte, en el artículo 25 se regulaba la declaración del estado de excepción.

En síntesis, la ley de 1959 y la creación del Juzgado y Tribunal de Orden Público en 1963 permitían delegar los delitos de motivación política a la jurisdicción civil al inhibirse la jurisdicción militar, aunque existiera cierta indefinición generadora de una gran inseguridad jurídica. De hecho, el Decreto del 21 de septiembre de 1960 de Rebelión

338 Ley 45/1959, de 30 de julio, de Orden Público




Espainiako polizia indarren tortura metodoak.

Métodos de tortura utilizados por los cuerpos policiales españoles.

© La Tortureaux Pays Basque. 1969

Era berean, Legeak 20. artikuluan zioen gobernuak bazuela ahalmena zentsura erabiltzeko komunitateetan, argitalpenetan nahiz ikuskizun publikoetan. Bestalde, 25. artikuluak salbuespen egoera nola deklaratu arautzen zuen.

Laburbilduz, 1959ko Legeari eta Ordena Publikoko Auzitegia eta Epaitegia sortzeari esker, posible zen arrazoi politikoengatiko delituak jurisdikzio zibilaren esku uztea eta jurisdikzio militarra indargabetzea, nahiz eta prozedura ez zen guztiz zehatza eta horrek ziurgabetasun juridiko handia sortzen zuen. Hain zuzen, Iraultza Militar, Bidelapurreta eta Terrorismoari buruzko 1960ko irailaren 21eko dekretuak ahalegina egin zuen irizpideak batzeko: eraldatu egin zituen 1943ko Legeak eta 1947ko Dekretu-Legeak bidelapurreta eta terrorismo delituen zapalkuntzari buruz emandako xedapenak, 1959ko Ordena Publikoko Legeak markatutako oharren arabera. Hala ere, 1963an Ordena Publikoko Auzitegia

Militar, Bandidaje y Terrorismo pretendió unificar criterios, refundando las disposiciones de la Ley de 1943 y el Decreto-Ley de 1947 sobre la represión de delitos de bandidaje y terrorismo, atendiendo a las consideraciones marcadas por la Ley de Orden Público de 1959. No obstante, con la creación del Juzgado y Tribunal de Orden Público en 1963 quedó derogado el artículo 2 del Decreto de 1960, en el que se señalaba como delito de rebelión militar los tipificados en el número 5º del artículo 286 del Código de Justicia Militar, y por tanto sus responsables serían penados conforme a lo dispuesto en dicho Código:

*Primero. Los que difundan noticias falsas o tendenciosas con el fin de causar trastornos de orden de orden público interior, conflictos internacionales o desprestigio del Estado, sus instituciones, Gobierno, Ejército o Autoridades.*



© Uztarria

## MARÍA JESÚS ARREGI

**Andoni Albizuren neska-laguna izan zen María Jesús Arregi azpeitiarra. Loiolako bilera baten ostean Guardia Zibilak atxilotu zuten etxean eta ondoren bost egun eraman zituen inkomunikaturik. Tratu txarrak sufritu zuen bai fisiko eta bai psikologikoak. Egun horien ostean kartzelara sartu zuten. 1966a zen.**

**Noiz ezagutu zenuen Andoni?**
Andoni ezagutu nuen modu honetara. Lehen kantua ensaiatzeko Antxietako etxeetara joaten ginen. Hirukotean abeslari ibilia naiz eta beti joaten ginen Antxietako etxeetan zegoen lokal batera. Andonik eta hauek bazeukaten bere ekitaldiak egiteko ere beste lokal bat Antxietan. Eta han bukatzen genituenean biharrak eta gauza guztiak, denak juntatzen ginen zerbait hartzera Eguzkitzan edo taberna batean. Han egin genuen lehen harremana eta engantsatu egin ginen. (Barreak).

**Zer edo zer irakurri dut Andoniren inguruan. Aranzadiko kide izan zen, pertsona oso interesgarria izan zen. Zer kontatuko zenuke bere bizitzaz?**
Andonik zeukan bihotza handi handia, baina zeukan burua gelditzen ez zitzaiona. Beti Euskal Herrian eta gure aztarnak, gure nortasuna… Asko gustatzen zitzaion. Niri beti komentatzen zidan. Jartzen ginen gure gelan, kortinak zabaldu eta mendiak hor zeuden eta esaten zuen "Hemen garai batean nola biziko zen jendea. Hemen egon behar du hori". Beti aipatzen zituen gauza horiek. Eta bere gogo hori bilatu zuen Rafael lagunarengan. Etxera etortzen zen bakoitzean aurpegi txarra jartzen nion gizona kentzen baitzidan mendira joateko. Eta igandero joaten ziren zerbaiten bila. Andonik ez zuen dudarik egiten egon behar zuela hemen edo egon behar zutela handik aztarnaren bat baino gehiago.

**Agertu zen zerbait?**
Harritzekoa da. Bera bila ibili zen benetan. Eta lur irteera horietako batean zuloren bat omen zegoen eta haizea bezala etortzen omen zen. "Haizea? Zuloa egongo duk. Probatu egin behar dugu". Zulatzen-zulatzen, zulatzen-zulatzen zulo bat eta bide estu bat aurkitu zuten aurrera begira. "Hemen bazegok zer edo zer, hemen haizea dago". Egin zuten ahal izan zutena. Nire gizona handiagoa zen Rafael baino eta egun horretan behitzat Rafael sartu zen aurretik eta bide estu batetik bata bestearen atzetik joan ziren. Eta zer topatuko eta harrapatu zuten jaitsi egin behar zutela, erortzeko arriskua zuten. Jaitsi ziren baino ezer gabe igo egin ziren berriro. Ez zekiten ezer, ikusi zutenarekin harrituta geratu ziren. Uste gabeko bilaketa izan zen Ekaingo koba.

**Ezinegon horrekin bat batean gertatu zen Donostiakoa? Zer izan zen atxilotua lehenago edo beranduago?**
Lehenago izan zen. Soltero zegoen.

**Eta zer dakizu horri buruz?**
Badakit Loiolan bileraren bat egin zutela. Ez dakit zein eta nola, baina bilera bat egin zuten. Andoni ere han zen eta ez dakit etxera joan ziren bila edo uste dut berak esan zuela, bere bila joan zirela etxera. Atxilotu zuten eta bost egunetan izan zuten inkomunikatua. Eta han jaso zituen tratu txar–txar, txarrak. Akordatuta bakarrik nola esplikatzen zuen hori berak, niri oraintxe bertan ondoezak ematen dit. Oso gogorra. Bost egun tortura, tortura eta tortura.

**Fisikoak, irainak?**
Fisikoak, psikikoak, dena. Oso, oso, oso gaizki pasa zuen bertan. Hori esaten zuen, ez ziola opa hori inori eta azaldu egin beharko litzatekeela nonbait zer egiten duten argitzeko.

**Beraz atxilotu ziur aski etxean egin zuten eta Donostiara eraman zuten?**
Bai. Baino Martutenen ondoan beste kartzela bat zegoen lehenago. Beste kartzela bat egon behar zuen Martutene inguruan, han egon zen eta ondoren Martutenera. Negargarria berak esaten zuen bezala, horrela bizitzea, bera bakarra ez zela izango hori jaso zuena. Oso, oso, oso gogorra izan zela esaten zuen beti. Hori ez diola opa ez eta beraiei ere.

**Indarrik baduzu bost egun horietan zer gertatu zen adierazteko?**
Lotuta edukitzen zuten. Bakarrik zegoen. Berak esaten zuen galdu egin zuela orduaren nozioa, goiza edo eguna zen ez zekien. Zenbat denbora pasa zen ez zekien. Kontrol dena galdu zuen. Eta berak esaten zuen luze egin zitzaiola, baino ez zekiela ziur zenbat denbora eman zuen. Toki beretik ez zuten mugitu. Tratu txarrak jaso zituen, hitz egiteko noski. Berak esan zuen ez zuela hitzik esan.

**Guardia zibila zen edo polizia?**
Guardia zibila. Nik galdetzen nion "Zerbait esan izan bazenu libratuko zinen?" "Ez dakit, baino nik ez nuen hitzik atera". Eta Loiolako bilera horretan politika asuntoak tratatu ziren, baino berak itsura denez ez zuen ezer esan. Eta bost egun asko da.

**Gero bost egun eta etxera edo kartzelara?**
Kartzelara.

**Zenbat denbora egon zen?**
Ez dakit ziur zenbat denbora egin zuen baina, hilabete batzuk bai.

**Eta kartzelan tratu txarrak jaso zituen?**
Ez. Libratu egin zen kartzelan. Gero Txiki eta Otaegiren manifestazioa egon zenean beldurtuta ibili ginen fitxatuta zegoelako eta atxilotzeko arriskua zuelako. Baina hala eta guztiz ere, hantxe joan zen. Berak esaten zuen ez zuela ezer txarrik egiten.

**Ondorio fisiko edo psikologikorik izan zituen?**
Nik uste dut sufrimendu hori barrenean zuela, baino ez dakit.

**Fisikoki ondoriorik ez ezta?**
Ez. Markatua ez.

**Psikologikoa beste gauza bat da.**
Destrozatuta. Oso gogorra da. Gero multa ordaindu ez zuelako kartzelara joan zen beste manifestazio batean ibili zelako. Eta guk esaten genion "Orain ere tratua egitea behar al duzu?" "Ez". Berak esaten zuen kartzelan egotea gauza bat zela eta tratu txarrak beste gauza bat. Pasa zuelako bazekien zer zen hori.

**Beste azpeitiar batekin joan zen kartzelara edo bera bakarra izan zen?**
Garai hartan bakarra. Gero joan zenean beste hiru edo bi azpeitiar eraman zituzten.

**Zeintzuk badakizu?**
Izenak ez dakizkit. Andoni atxilotu dute Loiolako politika bilera horren ondorioz. Besteak ere han egon ziren baina zergatik zen bera? Beti galdetzen nuen "Eta zu zergatik? Han bilduak zineten kanpokoak eta…". Ez zuen inoiz argitzen zein joan ziren. Badakizu garai hartan politika asuntoak oso isilik eramateko kontuak ziren.

**Zer iruditzen zaizu gaur egun gure lana oroimen hau berreskuratzeko. Ondo iruditzen zaizu?**
Alde batetik iruditzen zait, inportantea dela jakitea zer gertatu den. Inor ez da ohartzen eta hemen ez da ezer gertatu baino, gauza asko gertatu dira. Baino beste aldera (isilunea).

**Gogorra da ezta?**
Bai, oso gogorra. Barren guztia mugitzen zait benetan.


© S. C. Aranzadi, Fondo Imanol Elías

**María Jesús Arregi, de Azpeitia, fue la compañera sentimental de Andoni Albizu. Antes de que la Guardia Civil lo detuviese, Andoni había estado en una reunión en Loiola. Tras detenerlo, pasó incomunicado cinco días, padeciendo malos tratos físicos y psicológicos. Una vez pasados los cinco días, lo llevaron a la cárcel. Era 1966.**

**¿Cuándo conoció a Andoni?**
A Andoni lo conocí porque antiguamente íbamos a las casas de Antxieta a ensayar canciones. Yo cantaba en un trío y solíamos ir a un local que estaba en la casas de Antxieta. Andoni y otras personas tenían también otro local en Antxieta para organizar sus eventos. Cuando acabábamos de ensayar, solíamos juntarnos allí y nos íbamos a tomar algo al Eguzkitza o a otra taberna. Allí nos conocimos por primera vez y luego nos enganchamos. [Se ríe].

**He leído algo sobre Andoni. Era miembro de Aranzadi, una persona muy interesante. ¿Qué destacaría sobre su vida?**
Andoni tenía un corazón enorme y una cabeza que no paraba nunca. Siempre estaba investigando sobre Euskal Herria, sobre nuestras huellas, nuestra personalidad. Le gustaba mucho. A mí siempre me hablaba de ello. Mientras estábamos en la habitación, descorría las cortinas y, mirando al monte, solía preguntarse cómo habría vivido allí la gente. Y se repetía una y otra vez que allí tenía que haber huellas de nuestros antepasados. Siempre hablaba de este tipo de cosas. Y encontró esa misma afición en su amigo Rafael. Yo solía ponerle mala cara cada vez que venía a casa porque me quitaba a mi chico y se iba con él al monte. Todos los domingos iban a buscar algo. Andoni estaba seguro de que tenía que haber alguna huella en un sitio o en otro.

**¿Encontraron algo?**
Es increíble. Buscó de verdad, convencido. Y en una de aquellas salidas, al parecer, encontraron un agujero por el que salía como viento. Pensaron que si había viento, tenía que haber una cueva y que merecía la pena probar. Excavaron y excavaron, hicieron un agujero grande y encontraron un pasadizo que seguía hacia adelante. Ellos seguían con la idea de que allí tenía que haber algo porque salía aire. Hicieron lo que pudieron. Mi chico era más grande que Rafael, por lo menos por aquel entonces; por eso, Rafael entró primero y luego caminaron juntos los dos, uno detrás de otro, por aquel camino estrecho. No sabían qué encontrarían, pero se dieron cuenta de que había que bajar,

aunque había riesgo de caída. Bajaron y volvieron a subir sin nada. Estaban asombrados con lo que habían visto, no se lo esperaban para nada. La cueva de Ekain fue un hallazgo sorpresa.

**¿Mientras esto ocurría fue cuando pasó lo de Donostia? ¿Lo detuvieron antes o después de encontrar la cueva?**
Antes, cuando estaba soltero.

**¿Y sabe algo de aquello?**
Sé que habían hecho alguna reunión en Loiola. No sé ni cuál ni cómo, pero habían tenido alguna reunión. Andoni estuvo y creo que fueron a buscarlo a casa. Creo que me dijo que habían ido a buscarlo a casa. Lo detuvieron y pasó cinco días incomunicado. Durante la incomunicación, recibió malos tratos, horribles. Me siento mal solo con recordar las cosas que contaba. Fue muy duro. Cinco días seguidos con torturas, una detrás de otra.

**¿Tortura física o insultos?**
Tortura física, psíquica, de todo. Lo pasó muy, muy mal allí. Solía decir que no le deseaba aquello a nadie, y que habría que contarlo en alguna parte para que se supiera lo ocurrido.

**Lo que sí parece bastante probable es que lo detuvieran en su casa y lo llevasen a Donostia.**
Sí. Antes había otra cárcel al lado de la de Martutene. Debía de haber otra cárcel cerca de Martutene, estuvo allí y después en Martutene. Como solía decir él, vivir aquello fue penoso y seguramente él no fue el único que lo sufrió. Siempre decía que fue muy, muy duro. Que no se lo deseaba a nadie, ni a los que se lo hicieron.

**¿Se siente con fuerza como para contar lo qué pasó aquellos cinco días?**
Lo tuvieron atado. Estaba solo. Él decía que perdió la noción del tiempo y que no sabía si era la madrugada o el mediodía. No sabía cuánto tiempo pasaba. Perdió el control por completo. Contaba que se le hizo muy largo pero que no sabía con seguridad cuánto tiempo pasó allí. No se movió del mismo sitio. Lo maltrataron para que hablase, claro. Pero él decía que no había dicho ni una sola palabra.

**¿Fue la Guardia Civil o la Policía?**
La Guardia Civil. Yo le pregunté si se habría librado en caso de contar algo, pero él me dijo que no lo sabía, que no había contado nada. En la reunión de Loiola habían hablado de política pero él, al parecer, no había dicho nada. Y cinco días es mucho tiempo.

**¿Después de los cinco días fue a casa o a la cárcel?**
A la cárcel.

**¿Cuánto tiempo pasó allí?**
No sé con seguridad cuánto tiempo, pero sé que fueron unos meses.

**¿Y en la cárcel recibió malos tratos?**
No. En la cárcel, se libró. Luego, cuando fue a la manifestación de Txiki y de Otaegi, pasamos miedo ya que, al estar fichado, había riesgo de que volviesen a detenerlo. Sin embargo, él fue a pesar de todo. Decía que no estaba haciendo nada malo.

**¿Tuvo secuelas físicas o psicológicas?**
Yo creo que llevaba dentro ese sufrimiento, pero no lo sé.

**¿No tuvo secuelas físicas, verdad?**
No. No tenía marcas.

**Otra cosa son las marcas psicológicas.**
Destrozado. Es muy duro. Más adelante, lo llevaron a la cárcel por no pagar la multa que le habían puesto por ir a una manifestación. Y le preguntamos si tendría que pasar otra vez por el interrogatorio. Él dijo que no, que una cosa era ir a la cárcel y otra lo de los malos tratos. Sabía lo que era porque lo había pasado.

**¿Fue con otro de Azpeitia a la cárcel o fue él solo?**
En aquella época, él solo. Cuando volvió, llevaron también a dos o tres más de Azpeitia.

**¿Sabe a quiénes?**
No sé los nombres. A Andoni lo detuvieron por la reunión de Loiola. Habría más gente pero no sé por qué lo detuvieron a él. Yo siempre le preguntaba por qué lo habían detenido a él. Me imagino que allí habría más reunidos, de fuera y otras personas; pero él no me dijo nunca quiénes estaban. Ya se sabe que en aquella época los asuntos de política se llevaban muy en secreto.

**¿Qué le parece el trabajo que estamos haciendo en la actualidad para recuperar la memoria? ¿Le parece bien que se haga?**
Por un lado, me parece que es importante que se sepa lo que pasó. Nadie se da por enterado y parece que aquí no ha pasado nada, pero aquí pasaron muchas cosas. Pero, por otro. [Silencio]

**Me imagino que es duro.**
Sí, es muy duro. Se me remueve todo por dentro, de verdad.



Ordena Publikoaren tribunaleko magistratuak.

Imagen de los magistrados del Tribunal de Orden Público.

© EFE

eta Epaitegia sortzearekin batera, indarrik gabe gelditu zen 1960ko Dekretuaren 2. artikulua, non esaten baitzen Justizia Militarreko Kodearen 286. artikuluko 5. zenbakian zerrendatutako ekintzak iraultza militartzat har zitezkeela eta, ondorioz, errudunak Kode hartan ezarritakoaren arabera zigortuko zirela:

*Lehena. Albiste faltsuak edo asmo gaiztokoak zabaltzen dituztenak Barneko ordena publikoko nahasteak edo nazioarteko gatazkak eragiteko asmoz, edo Estatuaren eta bere erakundeen –Gobernua, Ejertzitoa, Agintaritzak– izen ona zikintzeko.*

*Bigarrena. Edozein bidetatik dela ere, aurreko zenbakian adierazitako helburuetarako batzen direnak, konspiratzen dutenak edo hitzaldi eta manifestazioetan parte hartzen dutenak.*

*Multzo berean sartuko dira lanuzteak, grebak, sabotajeak eta antzeko bestelako ekintzak, baldin eta helburu politikoa badute edo ordena publikoan istilu larriak eragiten badituzte.*[339]

Halere, 1968ko abuztuaren 16an –urte hartan lehenbizikoz salbuespen egoera aplikatu zenean, Meliton Manzanasen aurkako atentatu hilgarriaren ondoren–, diktadura frankistak lehen mailara ekarri zuen berriz jurisidkzio militarra, 1960ko Bidelapurreta eta Terrorismoari buruzko Dekretua eta haren 2. artikulu polemikoa berraktibatuta. [340] Une har-

339 1960ko irailaren 21eko Dekretua, 1943ko martxoaren 2ko Legea eta 1947ko apirilaren 18ko Dekretu-legea berrikusten eta batzen dituena.

340 RINCON, L. 2012. *Libro blanco sobre las cárceles franquistas*. Ángel Suárez, Colectivo 36.

*Segundo. Los que por cualquier medio se unan, conspiren o tomen parte en reuniones, conferencias o manifestaciones con los mismos fines expresados en el número anterior.*

*Podrán también tener tal carácter los plantes, huelgas, sabotajes y demás actos análogos cuando persigan un fin político o causen graves trastornos al orden público.*[339]

Sin embargo, el 16 de agosto de 1968, coincidiendo con la aplicación del primer estado de excepción de aquel año tras el atentado mortal contra Melitón Manzanas, la dictadura franquista volvió a poner a la jurisdicción militar en un primer plano a través de la reactivación de Decreto de Bandidaje y Terrorismo de 1960 y su polémico artículo 2º. [340] A partir de entonces se intensificaran los consejos de guerra contra civiles, pudiendo afectar tanto a una persona que participara en una conferencia como a los militantes de organizaciones armadas. Con todo, este empuje represivo desde la jurisdicción militar no hizo disminuir el número de enjuiciamientos mediante el TOP, los cuales también aumentaron.[341]

Con motivo del estado de excepción de 1968 al menos cinco azpeitiarras fueron detenidos, de los cuales tres fueron desterrados. Jexux Arrizabalaga al municipio cordobés de Obejo, donde permaneció hasta que en octubre fue trasladado a la prisión de Martutene para ser juzgado por un tribunal

339 Decreto de 21 de septiembre de 1960, revisando y unificando la Ley de 2 de marzo de 1943 y el Decreto-Ley de 18 de abril de 1947.

340 RINCON, L. 2012. *Libro blanco sobre las cárceles franquistas*. Ángel Suárez, Colectivo 36.

341 CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada. 1968-1977.*

### 1960 ETA 1975 ARTEAN TRATU TXARRAK EDO TORTURAK JASAN IZANA SALATU DUTEN AZPEITIARRAK
### AZPEITIARRAS QUE HAN DENUNCIADO HABER SUFRIDO MALOS TRATOS O TORTURAS ENTRE 1960 Y 1975

| IZENA<br>Nombre | JAIOTERRIA<br>Lugar de nacimiento | BIZILEKUA Lugar de residencia | URTEA / Año | INDAR POLIZIALA<br>Cuerpo policial |
|---|---|---|---|---|
| Aguirre Elustondo, José Ángel | Azpeitia | Eibar | 1968 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Aguirre Odriozola, Imanol | Azpeitia | Azpeitia | 1975 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Albizuri Aguirregabiria, Andoni | Azpeitia | Azpeitia | 1964 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Aranburu, Joxe "Txata" | Azpeitia | Azpeitia | Década de los 60 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Arrizabalaga Aramendi, Jexux | Azpeitia | Azpeitia | 1968 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Arrizabalaga Aramendi, Juan José | Azpeitia | Bilbao | 1972 / 1975 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Alkorta, Iñaki "Kontras" | Azpeitia | Azpeitia | 1970-1975 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| A.A., J. I. | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | 1970 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Azcue Gabilondo, Mikel | Azpeitia | Zaragoza | 1971 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| A.K., J.L. | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | Ezezag. / Desconocido | Ezezaguna / Desconocido |
| B.L., J. | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | 1973 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| E.A., F. | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | 1970/1975 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Fernández Aizpuru, Mikel | Azpeitia | Madrid | 1972 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Goenaga, Ramón | Azpeitia | Azpeitia | 1970-1975 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Landa Arocena, Jesús María | Azpeitia | Bilbao | 1974/1975 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía / Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Lazkano Uranga, Imanol | Azpeitia | Bilbao | 1975 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Lizarralde Zubizarreta, Mikel | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | 1974 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Odria Andreu, Juan Ignacio | Azpeitia | Pamplona | 1975 | Guardia Zibila / Guardia Civil |
| Odriozola Uzkudun, Kontxi | Azpeitia | Azpeitia | 1967 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Odriozola Uzkudun, Miren | Azpeitia | Azpeitia | 1967/1972 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Peña Iriarte, José María | Azpeitia | Ezezaguna / Desconocido | 1969 | Polizia G. O.* / Cuerpo General de Policía |
| Salegi Igoa, Imanol | Deba | Azpeitia | 1972 | Guardia Zibila / Guardia Civil |

* Polizia Gorputz Orokorra

### 1968KO SALBUESPEN EGOERAN ERREPRESALIATUTAKO AZPEITIARRAK
### AZPEITIARRAS REPRESALIADOS DURANTE EL ESTADO DE EXCEPCIÓN DE 1968

| IZENA / Nombre | FECHA DE DETENCIÓN / Atxiloketa data | TIEMPO EN RÉGIMEN DE INCOMUNICACIÓN / Inkomunikatuta igarotako denbora | CONSECUENCIAS / Ondorioak |
|---|---|---|---|
| Aguirre Elustondo, José Ángel | Abuztuak 5 de agosto | Abuztuak 5etik 12ra / Del 5 al 12 de agosto | Herbesteratua / Desterrado |
| Aracena, Alejo | Abuztua / Agosto | Ezezaguna / Desconocido | Donostiako espetxe probintzialean giltzapetua / Encarcelado en la Prisión Provincial de San Sebastián |
| Arrizabalaga Aramendi, Jexux | Abuztuak 5 de agosto | Del 5 al 13 de agosto | Herbesteratua / Desterrado |
| Eguibar Aristi, Antonio | Urria (zehaztu gabe) / Octubre (sin especificar) | Hasta el 17 de octubre | Donostiako espetxe probintzialean giltzapetua / Encarcelado en la Prisión Provincial de San Sebastián |
| Oyarzabal Zubiaurre, Alejandro | Agosto (sin especificar) / Abuztua (zehaztu gabe) | Abuztuaren 12ra arte / Hasta el 12 de agosto | Herbesteratua / Desterrado |

tatik aurrera ugaritu egin ziren zibilen aurkako gerra-kontseiluak, berdin talde armatuetako militanteen aurka edo hitzaldi batean parte hartzen zutenen aurka. Hala eta guztiz ere, jurisdikzio militarraren zapalkuntzak ez zuen murriztu Ordena Publikoko Epaitegietako epaiketa kopurua; alderantziz, haiek ere ugaritu egin ziren.[341]

1968ko salbuespen egoeran bost azpeitiar atxilotu zituzten guztira, eta haietatik hiru desterratu zituzten. Jexux Arrizabalaga Cordobako Obejo herrira joan zen eta han egon behar izan zuen urrira arte, hots, Martutenera eraman zuten arte epaitegi militar batek epaitu zezan. José Angel Aguirre Elustondo Sevillako Coripe herrira eraman zuten abuztuak 14tik azaro erdialdera arte, eta Alejandro Oyarzabal Zubiaurre Fuente Obejunara (Kordoba) abuztuaren 15etik abendu erdialdera arte.[342] Gerora, 1969ko urtarrilaren 24an, diktadurak Espainiako Estatu osora zabaldu zuen salbuespen egoera martxoaren 24ra arte. Testuinguru hartan atxilotu zuten José María Peña Iriarte azpeitiarra, zeinak salatu baitu torturatua izan zela martxoaren hasieran, Polizia Gorputz Orokorraren instalazioetan atxiloturik emandako denboran.[343]

Ordena Publikoko Epaitegiak epaitutako azpeitiar guztien artean 10ek epai irmoa jaso zuten (haietako batek, Francisco María Eguibar Echeverriak, birritan); aldiz, beste 11 ez zituzten sekula zigortu. Azken horietatik gutxienez 4 (Ramon Goenaga Oyarzabal, José María Arregui Galarraga, Iñaki Alkorta eta Aitor Saldias Orbegozo), espetxean egon ziren 1975eko irailaren 9tik azaroaren 15era arte, 1975eko abuztuaren 26an onartutako terrorismoaren aurkako legea aplikatuta. Atxilotu eta Ordena Publikoko Epaitegietara bidalitako 21 atxilotuetatik 3 emakumezkoak ziren: María Beatriz Arrizabalaga Aramendi, Miren Odriozola Uzkudun eta María Dolores Ugarte Epelde. Epaileek Miren Odriozola bakarrik zigortu zuten, 1973ko maiatzaren 22an; 3 urteko espetxealdiaz gain, zilegi ez zen elkartze delituagatiko prozesuaren kostua ordaindu behar izan zuen.[344]

Bestalde, Francisco María Eguibar Echeverriari 4 urteko espetxealdia eta 50.000 pezetako isuna inposatu zioten 1965eko apirilaren 10ean, eta eta Antonio Eguibar Aristiri, berriz, urtebeteko espetxealdia eta 10.000 pezetako isuna, propaganda ilegala zabaltzeko ustezko delitua leporatuta. Biek hala biek errekurtsoa ezarri zioten epaiari eta erregimenaren komunikabideek horren berri eman zuten. *ABC* egunkariak epaiaren hitzak jaso zituen: “Azpeitiko bi atxilotuen

341 CASANELLAS, P.: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada. 1968-1977.*

342 BUCES CABELLO, J. et al.: *1968. Gipuzkoa en estado de excepción.*

343 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1960-2017. Vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Azpeitia y contra azpeitiarras.*

344 Ibid.

militar. José Ángel Aguirre Elustondo a Coripe (Sevilla) entre el 14 de agosto y mediados de noviembre, y Alejandro Oyarzabal Zubiaurre a Fuente Obejuna (Córdoba) desde el 15 de agosto a mediados de diciembre.[342] Posteriormente, el 24 de enero de 1969, la dictadura amplió el régimen de excepcionalidad al conjunto del Estado español hasta el 24 de marzo del mismo año. En ese contexto se llevó a cabo la detención del azpeitiarra José María Peña Iriarte, el cual ha denunciado haber sufrido torturas durante su estancia en dependencias del Cuerpo General de Policía a comienzos del mes de marzo.[343]

En cuanto a los azpeitiarras juzgados por el TOP, 10 fueron sentenciados en firme (uno de ellos, Francisco María Eguibar Echeverria, en dos ocasiones) y 11 no llegaron a ser sentenciados. De estos, al menos 4 (Ramón Goenaga Oyarzabal, José María Arregui Galarraga, Iñaki Alkorta y Aitor Saldias Orbegozo) permanecieron encarcelados entre el 9 de septiembre y el 15 de noviembre de 1975 en aplicación de la ley antiterrorista aprobada el 26 de agosto de 1975. Del total de las 21 personas detenidas derivadas al TOP, 3 fueron mujeres: María Beatriz Arrizabalaga Aramendi, Miren Odriozola Uzkudun y María Dolores Ugarte Epelde. Tan solo Miren Odriozola llegó a ser sentenciada, sucedió el 22 de mayo de 1973, y fue condenada a 3 años de prisión y a pagar el coste del proceso por un supuesto delito de asociación ilícita.[344]

Por su parte, los medios del régimen recogieron el recurso interpuesto por Francisco María Eguibar Echeverria y Antonio Eguibar Aristi a la sentencia que el 10 de abril de 1965 condenaba al primero a 4 años de cárcel y el pago de 50.000 pesetas, y al segundo a 1 año de prisión y el pago de 10.000 pesetas, por un supuesto delito de propaganda ilegal. Según reprodujo de la sentencia el diario *ABC*, en el domicilio de los detenidos en Azpeitia “fue hallada numerosa propaganda, periódicos e impresos de diversas organizaciones clandestinas separatistas vascas, que propugnan la independencia de las provincias vascongadas”. El 7 de octubre de 1967 la sala segunda del Supremo confirmó las condenas.[345]

En cualquier caso, entre los represaliados por el TOP destaca Iñaki Azpiazu. Este fue detenido a la entrada de los golpistas en Azpeitia el 19 de septiembre de 1936. En *7 meses y 7 días en la España de Franco*, Iñaki Azpiazu dejó constancia de las primeras detenciones practicadas en Azpeitia, así como de aquellos que fueron llevados a fusilar al cementerio de Urrestilla.[346] Encarcelado en la prisión de partido, fue desterrado a Vitoria y posteriormente a Pamplona. Desde la capital Nava-

342 BUCES CABELLO, J. et al.: *1968. Gipuzkoa en estado de excepción.*

343 BUCES CABELLO, J.: *Azpeitia 1960-2017. Vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos de motivación política ocurridos en Azpeitia y contra azpeitiarras.*

344 Ibíd.

